Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Durango*



Aurkibidea

# Udalerria: Durango

## Sarrera



Durango Bizkaiko hego-ekialdean dagoen udalerria da, Durangaldeko eskualdean kokatzen da. Iparraldean lurreta du mugatzat; Hegoaldean Izurtza eta Mañaria; Ekialdean Abadiño, eta Mendebaldean Dima, lurreta eta Amorebieta-Etxano. 1991. urtean lurretagandik banandu zen. Langileriaren zati handi bat betetzen duen industria garrantzitsu bat du, batez ere, fundizio eta tresneriaren arloan. 1940. urtetik hona Durangok etengabeko hazkuntza demografikoa ezagutu izan du, batez ere, inguruan ezarri ziren industria ugarien eraginez. 1937ko martxoaren 31n, Europako populazio zibilaren aurka inoiz egindako lehen aire-bonbardaketa jasan zuen Durangok Italiako Aviazione Legionariako hegazkinen eskutik, 336 hildako eragin zituen. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia.

*Argazkia: Zarateman*

- **Biztanleak**: 28.798
- **Euskaldunak**: %45,26

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **59**
- Zintak: **68**
- Pasarteak: **821**
- Transkribatutakoak: **118**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **821**

## Proiektuak

- Berriz 1936 gogoratzen
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU

- Durango 1936
- Durangoko ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma

## Hizlariak



**Jose Agirre Urizar** (1924)

1924ko martxoaren 2an jaio zen San Roke auzoko Saizabal baserrian, eta bertan bizi izan da 85 urtera arte. Ama bertakoa zuen eta aita Iurretako San Andresekoa. 5 neba-arrebatatik bigarrena da bera. Umetan Izurtzako eskolan ibili zen eta gerora Durangoko jesuitetan urtebetez. Gerra hasi zenean eskolok bukatu eta ez zen sekula eskolara bueltatu. Gerra garaian Karrantzara eta Santander aldera joan ziren ebakuatuta. 14 urtegaz hazitegian (biberoan) hasi zen beharrean eta han egon zen 6 urtez. Soldaduska ostean basoan hasi zen lanean. Beti aritu izan da basoko eta baserriko lanetan.



**Josefina Agirre Urizar** (1927-2022)

1927an jaio zen San Roke auzoko Saizabal baserrian. Ama bertakoa zuen eta aita Iurretako San Andresekoa. 5 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Gerra aurretik Izurtzako eskolara joan zen eta gerra ostean 3 negutan San Frantziskora. Baserriko lanetan aritu izan da beti. Eguzkitzaerdikoa baserriko Pascual Uribegaz ezkondu zenean honen etxera joan zen bizitzera. 3 seme-alaben ama da. 2010eko urtarrilaren 1etik Tabiran bizi dira, Eguzkitza baserria bota egingo dute-eta. Bere senarragaz batera egin zitzaion elkarrizketa.



**Pedro Agirre Urizar**

San Roke auzoko Saizabal baserrian jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita Iurretako San Andresekoa. 5 neba-arreba izan ziren. Jose anaiarekin batera egin zioten elkarrizketa Durango 1936 Elkartekoek, gerrako kontuak jasotzeko.

**Isabel Agirrebeitia Uribe** (1926)



1926an jaio zen Tabirako Zabarte baserrian. Aita berriztarra zuen eta ama durangarra, San Roke auzoko Bustintza baserrikoa; alaba bakarra da. Gerra aurretik, lau urterekin, Izurtzako eskolara joan zen. Gerra Zibilean bonbardaketak hasten zirenean, egunez Mugarra aldera egiten zuten ihes, eta gauez bueltatzen ziren etxera. Durangoko bonbardaketa ostean, Bilbotik Karrantzara joan ziren ebakuatuta, eta handik, Torrelavegara. 90 durangar egon ziren bertako etxalde batean. Gerraostean, Orueko txaletean jaso zituen eskolak bertako mojekin. Senarra ere durangarra zuen, Kalebarrikoa. Bere lehengusina Feli Uribe Alberdirekin batera egin zaio elkarrizketa, bere lehengusinarengana zuzentzerakoan Isabelek hika darabil. Elkarrizketatzaile bat bere semea da.

**Jose Mari Amantegi Aresti** (1926-2018)



1926an jaio zen Artelakea kaleko 15. zenbakian eta bertan hazi eta bizi izan da. Aita Goienkalen jaio zen (Anboto taberna dagoen tokian), baina Artekaleko etxean hazi eta bizi izan zen; ama, ostera, Garaiko Arroitakoa zuen. Bere aita topografoa eta delineatzailea zen, eta baita Durangoko udaleko diruzaina ere. Aita 3 hilabete zituela hil zen; hori dela eta, Garaiko baserrian denbora asko pasatu zuen. 6 urtegaz maristen ikastetxean hasi zen ikasten eta bertan ibili zen 16 urtera arte. Baina gerra sasoian, Garaiko eskolan ibili zen urte eta erdiz. Bonbardaketak ere bertan harrapatu zuen, Garai leku segurua zela dio. Artekaleko etxea ez zuten apurtu bonbardaketan, kale bereko beste gehienak bezala; antza, Errepublikanoen "komitea", komandantziaren papera betetzen zuena, Ortuetarren txaletan zegoen, gaur egun, Goienkaleko "Bambino" dagoen etxean, eta bere ustez horregatik ez zuten erre (Artekaleko eta Goienkaleko beheko karkaban "obus" bat lehertu barik aurkitu zuten, horregatik Artekale 15eko etxea ez zen suntsitu). 13 urtetik 16 urtera arte, merkataritza ikasketak egin zituen maristen ikastetxean. Ikasketa bukatu eta 1942an, "Banco de Vizcaya"n hasi zen lanean eta bertan egon zen 44 urtez jubilatu arte. Banketxean euskaraz zekien bakarra zen eta baserritarrekin-eta bera aritzen zen hartu-emanean. Solfeoa ere ikasi zuen Barrenkoarekin eta Villanekin klase partikularretan. Durangoko orfeoiko kidea izan da urte luzez, bere aita ere orfeoiko lehenengo tenorea izan zen. Emaztea Berrizko Andikoa baserrikoa zuen. 1970 inguruan Komentukalera joan ziren bizitzera, baina 2010ean berriro bueltatu ziren Artekalera.

**Maite Andueza Zabaleta** (1935)



Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Durango 1936 Elkartekoek. Gogoan du Durangon zegoen emakumeen kartzelara nola joaten zen amarekin, bisitak egitera.

**Txomin Aranbarri Larizubirrementeria** (1924-2013)



1924ko maiatzaren 11n jaio zen San Roke auzoko Txopitena auzoan eta bertan bizi izan zen ordudanik. Ama bertakoa zuen eta aita Zornotzako Berna auzoko Torrekoa. Bederatzi neba-arrebatatik gazteena. Aita bera jaio eta laster hil zen. 1937an, gerra sasoian, Karrantzara eta Torrelavegara joan ziren 5 hilabetez. 1938an hasi zen Mikeldiko burdindegian (ferreteran) beharrean gerrarako bonbak egiten eta bertan aritu zen 46 urtez lan ezberdinetan. Baserriko lanak eta zereginak oso ondo ezagutzen zituen.

**Mari Ardanza Azkarate** (1927)



1927an jaio zen San Faustoko Zirarmendieta "Ziermendieta" baserrian. Ama Abadiñoko Gaztelukoa zuen eta aita Zirarmendietakoa. Umetan Santa Susanako eskoletan ibili zen eta gerraostean Karmeldarretara joan zen. Beti aritu izan da etxeko beharretan; Durangoko plazara egunero joaten zen bendejearekin eta esnea ere saltzen zuten. 6 seme-alaben ama da. 2007. urtetik Abadiñon bizi izan da.

**Mikel Aretxaga Motxobe** (1932)



Madalenako "Ollerixa"n jaio zen 1932. urtean eta bertan bizi izan da beti. Bere aita eta osaba buztinlari trebeak eta ezagunak ziren, haien aitagandik ikasi zuten ogibidea, Urrunagatik (Araba) etorritako buztinlaria baitzen. Gaur egun etxe hori etxebizitza-eraikina da. Nahiz eta bera sekula ez aritu izan ontzigintzan, oso ondo azaltzen ditu familiako ofizioaren zehaztasunak. 3 urterekin Batzokiko ikastolan hasi zen bere arreba zaharrena bertako andereñoa baitzen; hori dela-eta, euskarazko eskolak jaso zituen. Baina bonbardaketa ostean, Donibane Garazira egin zuten alde etxea apurtu zitzaielako. Herrira bueltatzerakoan, etxea hustuta aurkitu zuten eta bere arreba beste maistra batzuekin batera preso hartu zuten. Arreba bera hainbat urtez, gerrako ume errefuxiatuekin egon zen Frantzia aldean. Irakaskuntzarako jarduera galarazi zioten arren, euskarazko eskola partikularrak ematen jarraitu zuen herritar batzuen etxeetan. Maristen eskolan merkataritza ikasketak egin zituen Mikelek, eta hainbat tokitan aritu ostean, paper-lantegian hasi zen lanean, bertako bulegoan aritu zen hastapenetatik erretiratu artean. Bi seme-alaba izan zituen.

**Amaia Aroma Lejarreta** (1937)



Bizketxen (Abadiño) jaio zen, Durangotik ebakuatu ostean. Durango 1936 Elkartekoek egin zizkioten zenbait elkarrizketa, euren familiak gerra sasoian bizitako kontuen inguruan. Batean Juanan anaiarekin eta Esti Zurikarai lehengusinarekin batera; eta bestean, Arantza eta Eskarne ahizpekin.



**Arantza Aroma Lejarreta** (1933-2017)

Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, Eskarne eta Amaia ahizpekin batera, euren familiak gerra sasoian bizitako kontuen inguruan.



**Eskarne Aroma Lejarreta** (1934-2021)

Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, Arantza eta Amaia ahizpekin batera, euren familiak gerra sasoian bizitako kontuen inguruan.

**Juanan Aroma Lejarreta**



Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, Amaia arrebarekin eta Esti Zurikarai lehengusinarekin batera, euren familiak gerra sasoian bizitako kontuen inguruan.

**Lorenza Arregi Atutxa** (1914-2012)



1914an jaio zen Zornotzako Bernagoiti auzoko Betxuen baserrian. 8 neba-arrebatatik seigarrena izan zen bera. Bernagoitiko eskolan denbora gutxian ibili zen. Etxean ganadua eta ardiak izan zituzten eta oso ondo ezagutzen du bizimodu hori. 14 urtegaz Bilbora joan zen neskame lanetara eta bertan eta Areetan egon zen 15 urtez, 29 urtegaz fruiztar bategaz ezkondu arte. Ezkondutakoan Bernagoitira eta gero Durangora joan ziren bizitzera. Garbitasun beharretan aritu izan da lanean, laminazioan eta Serbisan. Mendizale ezaguna da Lorenza, Alpino Tabirako lehenengoko emakumeetako bat da; Euskal Herriko mendi guztiak izan ei ditu oinpean.

**Jose Luis Arrondo Uriarte**



Jose Luis Arrondoren aita, Santiago Arrondo Elgea, gudaria izan Krikiño batailoian eta gerora urteak egin behar izan zituen kartzelan. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Jose Luisi Durango 1936 Elkartekoek.

**Gotzon Atutxa Estankona** (1930)



1930eko urriaren 8an jaio zen Durangoko Artabilla auzoan, eta beti bizi izan da bertan. Gerra sasoian Zugastietatik Morgara, handik Portugaletera eta Ortuellara joan ziren Durangora bueltatu aurretik. Gazte denboran 2 urtez txirrindularitzan ibili zen, eta 16 urtegaz Euskal Bira irabazi zuen. 15 urtegaz bere osabaren tailerrean, Estankona tailerrean, hasi zen beharrean eta bertan aritu zen 45 urtez, 60 urtegaz jubilatu zen arte. Soldadutzan ere tailerrean aritu zen lanean. Garaiko Ubille baserriko Eugenia Gandariasegaz ezkondu zen.

**Maitena Belaustegigoitia Ortueta** (1923-2013)



1923an jaio zen Durangoko Barrenkalean. Zortzi neba-arrebatatik gazteena izan zen bera. Ama Axpeko (Atxondo) Martzanakoa zen, eta bere amaren ama Balendin Berriotxoak bataiatu zuela dio. Aita laudiotarra zuen, jaiotzez erdalduna izan arren, euskal munduan murgildu, euskara ikasi eta Euskaltzaindiako kide izendatu zuten; EAJko kide legez Durangoko batzokiko sortzailea ere izan zen. Durango bonbardaketan ahizpa bat galdu zuten eta tartean baita frontean zuten neba bat ere. Bonbardaketa ostean herritik alde egin behar izan zuten eta Frantziara joan ziren itsasontziz. Alde batetik bestera ibili ostean, Ipar Euskal Herrian kokatu zuten beraien bizilekua, beraien aitak galarazita baitzuen Durangora bueltatzea. Handik urte batzuetara bueltatu ziren herrira, eta harrezkero, bertan bizi zen.

**Koldobika Bergantza Zabala** (1922)



1922an jaio zen Andra Mari kalean; etxean bertan denda zuen bere familiak, “Bergantza” izenekoa. Aita Durangokoa bertakoa zuen eta ama Zornotzako Enartzekoa. Ama umetan hil zitzaion 5-6 urte zituela, eta orduan, Mikeldira joan ziren bizitzen. 6 urtegaz Iurretako eskolan hasi zen eta 8-9 urte zituela La Villara joan zen; azken honetan hasi zen musika ikasten. Bere familiak Mikeldiko torloju-lantegia izan zuen eta bertan aritu izan zen beharrean. Bermeoko Alazne Larrinagagaz ezkondu eta 4 seme-alaba hazi zituzten.

**Nati Bilbao Onaindia** (1929-2023)



1929ko otsailaren 25ean jaio zen Larrinagatxu auzoko Erdikoetxean, eta bertan bizi da oraindik. 5 neba-arrebatatik gazteenak dira bera eta bere ahizpa bikia. Bere etxeko taberna eta jatetxea oso ezaguna da inguruan, bere aitona txakolina egiten hasi zenetik. Orozketako eskolara joan zen umetan; eskolan hasi eta 8 egunetara gerra hasi zenez ez ziren eskolara bueltatu 3 urte beranduagora arte; San Frantziskoko eskolara ere joan zen. Kanpezuko (Araba) Antonio Gomez de Segurarekin ezkondu zen.

**Jose Ramon Castillo** (1935)



**Igor Elortza** (1975)

**Bego Ereñaga Onaindia** (1927-2015)



1927an jaio zen Durangon, Kixmi taberna dagoen lekuan. Ama Arbatzegikoa zuen eta aita garaitarra. Bonbardaketan etxea apurtu zien eta herritik alde egin behar izan zuten: Iurretan, Galdakaon, Bilbon, Alonsotegin eta Gibajan (Kantabria) egon ostean, Frantziara joan ziren. Bi urtez egon ziren bertan 1939ra arte, bertako gerra hasi arte; 500 euskaldun egon ziren elkarrekin Bordeletik 20 bat kilometrotara. Durangora bueltatzerakoan, Madalenako etxe batean jarri ziren bizitzen 1945 arte, jaiotetxea konpondu eta bertara itzuli baitziren orduan. Bere amak denda zabaldu zuen bertan. Umetan Santa Susanara joan zen eta hura zarratzerakoan, Ezkurdiko partikularrera joan zen Pepita Aizpuruarengana. Frantzian bizi zela pilotan jolasten hasi zen, eta herrira bueltatzerakoan erraketarekin hasi zen, lehenengo Abadiñora eta gero Eibarrera joaten zen entrenatzera. Sasoi hartako emakume asko bezala erraketista profesional legez hasi zen jokatzen, eta 15 urte zituela Sabadellera joan zen kontratupean 9 hilabeterako; ibilbide laburra izan zuen ez baitzen gehiago bueltatu. Amaren dendan aritzen zen laguntzen eta 1984an, bere ama hil ostean, Kixmi taberna ireki zuen Begok. Gernika-Lumokoa zuen senarra eta 5 seme-alaba izan zituzten.

**Jose Luis Ereñaga Onaindia *Kote*** (1923-2016)



1923. urtean jaio zen trenbide ondoko etxean, Kixmi taberna dagoen tokian, bere amak denda baitzuen bertan. Ama Arbatzegikoa zuen eta aita garaitarra. Hamahiru urte zituen gerra hasi zenean. 1937ko martxoaren 31ko Durangoko bonbardaketaren lekuko zuzena izan zen. Bonbardaketaren ostetik ebakuazioa eta erbesteratzea ezagutu zituen. Itsasontzi ingeles batek eroan zituen Ribadesellatik (Asturias) Frantziara. Erbestean urtebete inguru egin ostean, II. Mundu Gerra hastear, Frantziako gobernuak bi aukera eman zizkieten: artean Errepublikaren menpe zegoen Kataluniara joan edo Francoren menpeko lurretara itzuli. Jose Luisen familiak Durangora itzultzea erabaki zuen, baina itzulera hori ez zen erraza izan. Euren etxea zena guztiz apurtuta, ondasunak lapurtuta eta gurasoak lanik barik, zerotik hasi behar izan zuten. Jose Luis, Durangon bizi zuten eskasia zela-eta, Maumako baserri batera bidali zuten, osabarenera, artzain. Gero, futbolean hasi eta ibilbide oparoa egin zuen. Culturalean eta Athleticen jokatu zuen. Athleticen 1942tik 1950era arte aritu zen garai hartako jokalari onenen ondoan.

**Juanito Gallastegi Duñabeitia** (1933)



1933an jaio zen Durangoko Kalebarrian. Ama Elorrioko San Juan kaleko Goikoerrotakoa zuen eta aita Arriandiko (Iurreta) Txorrondonekoa; seme bakarra da. Gerra garaian Ibarruriko (gaur egun Muxika) Unda auzoko Aurtenetxe baserrian egon ziren ebakuatuta. Ostean, gurasoek zuten zapata-denda aurrera joan ziren bizitzen; "Mario oinetakoak" denda bere gurasoena zen. Umetan Santa Susanan, Jesuitetan eta San Frantzisko aurreko akademian aritu zen. 14-15 urtegaz Comillasera (Kantabria) joan zen abadetzarako ikasketak egitera: sei urte Seminario Txikian eta 7 urte Unibertsitatean (3 filosofiakoak eta 4 teologiakoak). Bigarren mailan hasi zenez, 12 urtez egon zen bertan. 5 urtez Iurreta eta Oromiñoko abadea izan zen, Markina aldera joan zen arte. 11 urtez Markinako eskola profesionalean egon zen bizitzen eta eskolak ematen, eta, aldi berean, Etxebarriko abade-laguntzaile legez. Hamaika urte hoietatik azkeneko bostetan, Barinaga eta Geriako parroko moduan ere bai. 1975ean heldu zen Elorriora, lehenengo apaiz laguntzaile eta gero, urteetan, parroko. Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere Elorrion eta Atxondon zerbait laguntzen zuen, orain bezala, eta Elizbarruti mailan liturgiako eta beste itzulpenak egiten ari zen eta da. Mezak latinez ematetik euskaraz ematerako jauzi hori bizi izan zuen. Iurretako abade zela, Arrate irratian "Oiztik Anbotora" izeneko irratsaioa zuzentzen zuen beste abade lagun batekin. Durangoko "Anboto" herri-aldizkariko kolaboratzailea da.

**Martina Gallastegi Mendia** (1921-2019)



1921ean jaio zen Zalabarra "Salabarri" auzoko Zabale baserrian (gaur egun Lupetza jatetxea dagoen lekuan). Ama bertakoa zuen eta aita Izurtzako Bekotorrekoa. 8 neba-arrebatatik bigarrena da. Umetan eliza osteko eskola dominikaletan, Kalebarriko eskolan eta San Vicente de Paulen ibili zen. Gerra garaian pare bat hilabetez herritik kanpora joan behar izan zuten: Orozketako Etxetxuan, Mungian, Gatikan, eta Berangon egon ziren, besteak beste. Gazterik hasi zen baserriko lanetan, ortuariak eta esnea etxerik etxe saltzen aritutakoa da. 21-22 urtegaz Mendizabalenera joan zen neskame lanetan, eta bi urte eta erdiz bertan egon ostean, Arriandiko Txorrondoko Juan Gallastegigaz ezkondu zen.



**Luzia Ganboa Eizagirre**

Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

**Jabier Gorosarri Gainza** (1929-2018)



1929an jaio zen Tabirako "Zesteruen" etxean. Ama Zeanuriko Ipiñaburukoa zen eta aita Durangokoa bertakoa. "Zesteruen" etxetik Kalebarrira joan ziren bizitzen, eta gerra hasi zenean, berriro Tabirara bueltatu ziren. Bilbon, Areetan, Santoñan eta Frantzian egon ziren pare bat urtez ebakuatuta. Gerra aurretik Maristetara eta Pilar Callesen eskolara (gaur egun liburutegian dago) joan zen, eta Batzokiko euskara-eskoletara ere ikasturte batez. Gerra ostean "La Villa"n eta Maristetan ibili zen 16 urtera arte. Ama Maristetako sukaldaria zen eta aita maisua. Bere aita 5 urtez hainbat kartzelatan egon zen eta 3 bider heriotza-zigorrera kondenatua, STVko (Solidaridad de Trabajadores Vascos) idazkaria (Subjefe de la delegación de orden público; secretario durante la rebeldía) izateagatik. Lantegi ezberdinetan jardun du beharrean; Estankonanean eta "Cadenas Arregi"n, besteak beste. Margolari trebea eta hainbat margolanen egilea da. 30 urtegaz Berrizera ezkondu eta geroztik bertan bizi izan zen.

**Jose Luis Ibarra Izagirre** (1929)



1929an jaio zen Mikeldin. Ama durangarra zuen eta aita Gordexolakoa. Zazpi urtegaz-edo, gerra aurretik, Iurretako plazara joan ziren bizitzera. Gurasoek Mendizabalen lantegian egiten zuten lan eta sozialistak ziren, baina "lehengo sozialistak" Jose Luisek dioen legez. Gerra sasoian bere aita Mateo batailoian aritu zen miliziano. Hiru neba-arrebak amamarekin ebakuatu ziren Irazagorrian (Gordexola) eta ama Durangon egon zen eta gero Artziniegan. Durangora bueltatzerakoan, etxea hutsik aurkitu zuten: dena ostuta. Aita frontetik etortzerakoan, ama eta biak kartzelan sartu zituzten UGTko kideak eta sozialistak izatearren; 4-5 urtez egon ziren preso. Ama lotara baino ez zen joaten kartzelara; egunez, neskame lanetan zihardueen (falangisten bulegoak garbitu...) eta ilea motz-motz ebaki zioten jendeak "zer zen" jakin zezan. Bitarte horretan 3 neba-arrebak amamarekin egon ziren. Aitaren aldeko aitona-amonak Bilbon bizi zirenez bertan ere denbora asko igaro zuten. Umetan Iurretako eskolan hasi zituen ikasketak, baina hura apurtzerakoan, konpondu arte Durangoko La Villara joan ziren. 14 urtegaz Durangoko maristetara joan zen lanbide bat ikastera eta handik Baqué kafeaken hasi zen lanean; lehenengo Pinondon; gero, Barrenkalen; eta, azkenik, gaur egun dagoen lekuan, Salabarrin. Durangoko Momotxo auzoko Goikoetxebarria baserriko alabarekin ezkontzerakoan, jaioterrira bueltatu zen, Pinondora hain zuzen ere.

**Luis Irazola Zamalloa *Txanbolinena*** (1931)



1931an jaio zen Tabirako Landako baserri-etxean, gaur egungo Tabira kalean, eta bertan eraiki zuen eraikin batean bizi da ordudanik. Aita abadiñoarra izan arren 3 urtegaz Durangora etorri zen; ama ordea, Zornotzako Eustoa auzokoa zuen. Gerra garaian Eustoan, Erletxetan, Marurin, Bilbon... egon ziren ebakuatuta. 9 urtegaz La Villako eskolara joan zen, eta 10-11 urtegaz Maristetara beranduago arte eta lanbideak ikasteko. 17 urtegaz "Industria Electrica Vasgongada" tailerrean hasi zen beharrean. 22 urtegaz soldadu joan eta 24 urterekin itzuli zenean etxetresna elektrikoen denda-tailerra zabaldu zuen. Bertan aritu zen beharrean jubilatu arte. Ezkondu ostean, etxe zaharra bota eta 4 solairuko eraikina eraiki zuen; orduan egin zuen eraikuntza lanetan lehenengo ahalegina. Beranduago, Zengotitarenean pabilioi bat eraiki zuten. Abadiñoko Mari Tere Uribelarreagaz ezkondu eta 3 seme-alaba hazi zituzten.

**Manuela Irazola Zamalloa** (1926)



Tabiran jaioa. Tabiran igarotako une hunkigarriak kontatu zituen Manuelak Durango 1936 proiekturako egindako elkarrizketan. Bere neba Vitoriano Kirikiño Batailoiko gudaria izan zen eta oso larri zauritu zuten frontean.

**Miren Agurtzane Irigoras Gaintza**



Durangoko bonbardaketak Miren Agurtzaneren bizitza guztiz markatuta utzi zuen. Durangotik Bizketxera (Abadiño), handik Galdakaora eta, azkenik, Suancesetik erbestera, Frantziara, joan ziren "*Molton*" izeneko ikatz-ontzi batean. Bordeletik gertu dagoen herritxo batean beste hainbat durangarrekin bat egin zuen euskaldunentzat beren-beregi prestatutako kolonia batzuetan. Bien bitartean aita, Felix Irigoras Aranburu, Kirikiño batailoiko gudaria, preso zeukan. Durangora itzuli zirenean aurkitutako giro latza akorduan dauka Miren Agurtzanek: "Auxilio Social"era joan beharra, euskara debekatuta, izen euskaldunik ezin erabili... Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa Durango 1936 Elkartekoek.

**Josebe Jaio Barrenetxea** (1927-2019)



1927an jaio zen San Roke auzoko Etxebarrin. Aita bertakoa zuen eta ama Bernagoitikoa (Amorebieta-Etxano), sei neba-arreba izan ziren. Umetan Ospitaleko eskolara joan zen. Durangoko bonbardaketa ostean Torrelavega alderantz joan ziren. Aita gerrara joan behar izan zen eta handik bueltan kartzelatu egin zuten, 2 urte eta erdiz egon zen Durangoko eta Portugaleteko kartzeletan. Gaztetatik neskame lanetan hasi zen, 15 urterekin-edo. Ondarroako etxe batean egon zen urte betez eta gero urte askoan Negurin; hasiera batean 50 pezeta kobratzen zituen hilean. Baserriko lanetan ibilitakoa da, eta Bilboko Erriberara ere askotan joan da porruak saltzera. San Fausto auzoko Arzesoria etxera ezkondu zen. Etxe hori berez Abadiñoko lurretan dago, baina elizaz Durango da, eta bertakoek durangartzat dute euren burua. Bere koinata Xixili Odriozola Sarriortuzarrekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

**Teresa Jaio Rementeria** (1924-2015)



1924an jaio zen San Rokeko Ziritzagoikoa baserrian eta bertan bizi izan zen beti baserria bota zuten arte. Aita bertakoa zuen eta ama Larrabetzuko Erkinkokoa. hiru seme-alabetatik gazteena da bera. Umetan zazpi-zortzi urtera arte ospitaleko eskolara joan zen eta gero La Villako eskolara gerrak irten arte. Gerra garaian, auzoko asko bezala, Karrantzan, Torrelavegan, Cartesen... egon zen ebakuatuta. Durangoko plazara joaten zen esnea saltzera. Beti aritu izan da baserriko beharretan.



**Jose Luis Lizundia** (1938)

**Dibina Loizate Lazpita** (1927)



1927. urtean jaio zen Berrizko Sarria auzoko Iturbe baserrian. Ama Berrizkoa zuen eta aita Garaikoa. 10 neba-arrebatatik zortzigarrena da. Berrizen jaio arren gazterik etorri zen Durangora, 15-16 urte zituenerako berton egiten zuen bizimodua. Umetan Beronaurreko eskolan ibili zen. Gerraostean, Murgiako ikastetxe batera joan zen bere neba bat bertan abade zegoelako. Handik itzuli zenean, Durangoko karmeldarren ikastetxera joan zen. 4 neba nagusienak gudariak izan ziren, bi zaharrenak euren borondatez Ibaizabal batailoian ibilitakoak; preso egon ziren hainbat kartzelatan eta langile-batailoietan ere egon ziren. Gerra ostean, politika kontuengatik asko sufritu zuten. Bere aitak tranbian egiten zuen lan eta bota egin zuten, eta bere nebak maisuak ziren eta sekula ezin izan zuten horrexetan jardun. Baserrikoak izan arren gosea pasatu zuten. Bere senarra durangarra zen, Atxotegi almazeneko semea. DUR-050 zinta Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuenekoa da.

**Jesus Madariaga**

Kurutziagan jaio eta bizi izan zen. Aita ere Durangokoa zuen. 1980. hamarkadan Durangoko euskara jasotzeko asmoz Jabi Zurikaraik egindako grabazioetako bat da.

**Jose Mari Madariaga Sierra-Sesumaga** (1933-2018)



1933an jaio zen Kurutziagan. Aita bertakoa zuen eta ama Zeanurikoa. 4 neba-arrebatatik 2. izan zen bera. Bere etxean latorritegia (hojalateria) zuten; bere aitona, aita eta ostean bera ere bertan ibili ziren lanean. Durangoko bonbardaketa ostean, Zeanuriko amonarenagana eta Abusun (Bilbo) zuten osaba batengana joan ziren. Hilabete batera-edo Durangora bueltatzerakoan, etxeko gauza guztiak ostu zizkietela ohartu ziren. Umetan Santa Susanan ibili zen urtebetez eta ostean, Maristetara joan zen. 3 urtez merkataritza ikasi ostean, etxeko tailer-dendan hasi zen beharrean eta horretan aritu izan da beti. Baserritarrak izaten ziren beraien bezero gehienak, farolak, gaztaontziak, marmitak eta abar beraiek erosten zituzten-eta. Aitaren aldeko hiru osaba abadeak ziren; hori dela eta, umetan meza-laguntzaile legez askotan aritu zen Andra Marin zein Santa Susanan. Osaba bat Kubara desterratu zuten, eta bertako seminarioko erretore zela Fidel Castro ezkondu zuen. Erretiroa hartu aurreko urteetan, latorria lantzeaz gain kristalari legez aritu zen. Bere iloba batek hartu zuen bere negozioaren lekukoa. Bere emaztea jaiotzez gernikarra zen, baina Zornotzan bizi izandakoa; 4 seme-alaba hazi zituzten.



**Lourdes Madina Zumarraga**

Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

**Ana Mari Mendibe Atxurra** (1930-2010)



1930ean jaio zen Artekalen (Santa Ana parterantz). Ama Munitibarko "Herreruen alabie" zen eta aita Durangoko Santa Ana ostekoa. Gerra aurretik Iurretako eskolara joan zen eta gero, Durangoko Madalenara eta "La Villa"ra. Gerra sasoian, Durango bonbardatu ostean Santanderrera joan ziren ebakuatuta; bueltan, etxea erreta topatu zuten eta korta batean egon ziren denboraldi batez. 14 urtegaz Amilibia lantegian hasi zen lanean eta bertan aritu zen 27 urtez. Dimako Obako Martin Zabala artzainarekin ezkondu zenean, Durangon jarraitu zuen bizitzen.

**Rosario Mendibe Atxurra** (1928)



Ama Munitibarko "Herreruen alabie" zen eta aita Durangoko Santa Ana ostekoa. Gerra aurretik Baztokiko ikastolan ibili zen eta gerraostean "La Villa"n. Gerra sasoian, Durango bonbardatu ostean, Santanderrera joan ziren ebakuatuta; bueltan, etxea erreta topatu zuten.

**None Mendiolagaraitarrak**



Durango 1936 Elkartekoek elkarrizketatu zituzten Mendiolagarai neba-arrebak, Nikolas Mendiolagarai nebaren oroimena ekartzeko. Nikolas gudari izan zen gerran eta Kanpazar inguruan hil zuten.

**Xixili Odriozola Sarriortuzar** (1924-2011)



1924an jaio zen San Fausto auzoko Arzesoria etxean. Beraien etxea berez Abadiñoko Iurretan dago, baina elizaz Durango da, eta durangartzat dute euren burua. Ama bertakoa zuen eta aita Abadiñoko Lebariokoa. 3 neba-arrebatatik gazteena izan zen bera. Umetan Santa Susanara joan zen. Baserriko beharretan aritu izan da, batez ere esnea etxerik etxe saltzen eta ortuariak plazan saltzen, Bilboko Erriberara ere joaten zen porruak saltzera. Moja bidea hartu zuen eta karmeldarretan igaro zituen 9 hilabete; baina hura utzi eta sekular bezala aritu zen erlijio-gaietan laguntzen. Bere koinata Josebe Jaio Barrenetxearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

**Tiburtzio Olabe *Zesterue*** (1912)



Tiburtzio Tabirako "zesterue" izan zen. 1980. hamarkadan Durangoko euskara jasotzeko asmoz Jabi Zurikaraik egindako grabazioetako bat da Tiburtzioren hau. Batik bat Durangoko herri hizkerari buruz eta Gerra Zibilean bizitakoei buruz dihardu grabazioetan. 25 urte zituela, Gerra Zibilean, Intxortan zauritu ostean, Basurtuko ospitalera eroan zuten eta 28 egun egin zituen bertan. Handik Begoñara eroan zuten, itsasontziz Santanderrera eta Iparraldera joan aurretik. Bidarten egon zen igerilekuak zituen etxe dotore batean.

**Jose Antonio Olea Garaita** (1930-2016)



General Egian jaio arren Kalebarrian bizi eta hazitakoa da Jose Antonio. Aita ere Kalebarrikoa zuen eta ama Legutiokoa (Araba). 14 urterekin hasi zen Olma enpresan lanean, eta gerora, Fumbarri enpresa sortu zuen beste bazkide batzuekin: guztira 51 urtez ibili da fundizioan. Bere aita ere Olman ibilitakoa zen; horrez gain, igeltsero, suhiltzaile eta sukaldari ibilitakoa ere bazen, gerraostean Alondigan ibili zen sukaldari. Durangoko bonbardaketan bere bi anaia, Daniel eta Balasi, eta aitita hil ziren. Beraien etxea jausi zenez, Apatamonasterion eta Bilbon egon ziren Durangora bueltatu arte. Gaztetan, Tabiran eta Culturalean jokatu zuen futbolean. Kurutziaga ikastolako hasierako partaide izan ziren bera eta bere emaztea; San Frantziskoko euren etxean ere 7 ume ibili ziren eskolak jasotzen. 65 urte ingururekin Natxitura (Ea) joan zen bizitzera.

**Encarna Ormaetxea Munitxa** (1921-2013)



1921ean jaio zen Intxaurrondo auzoko kale-baserri batean, gaur egun Intxaurre Herriko taberna dagoen etxean. Ama Santa Anakoa zuen eta aita Garaikoa. Lau neba-arrebatatik bera izan zen alaba bakarra. La Villako eta Santa Susanako eskoletan ibili zen umetan. Bonbardaketan Santa Anako kanpandorreko eskaileretan ezkutatu ziren etxekoak, eta handik aurrera alde batetik bestera ibili ziren; beraien etxea suntsitu ez arren, Durangotik alde egin zuten. Bere neba Ibaizabal batailoiko kapitaina zelakoan, urte eta erdiz hainbat kartzelatan egon zen eta heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Aitaren aldeko amama ere hiru urte eta erdiz Saturrarango kartzelan egon zen. Garaiko senarrarekin Durangora ezkondu zen eta bertan bizi izan da beti. Bi seme izan zituzten.



**Libe Solagaistua Zabala** (1991)

Biologian graduatua da eta EuskalNatura taldeko kidea. UEUko Natura Zientzietako sailburua izan da. Elkarrizketan Olatz Pereda kidearekin batera agertzen da.

**Juanita Soloeta Agirre** (1927-2020)



1927an jaio zen Momotxo auzoko Goikoetxebarria baserrian, "Urbilla" bezala ezaguna dena. Ama bertakoa zuen eta aita Iurretako Txonpolo baserrikoa; bi neba-arrebatatik zaharrena da. Umetan Orue txaleteko karmeldarretara eta Murzianoren txaletera joan zen ikastera, tarte horretan gerra egon zen. Durangoko bonbardaketa ostean Zornotzara eta Zallara joan zen familia guztia. Ezkondu aurretik Elgoibarko "Fundiciones Loiola"ko bulegoan aritu zen. Roman Loizate berriztarrarekin ezkondu eta gero "Momotxo" taberna zabaldu zuten Durangon bertan, eta urte luzez bertan aritu zen beharrean. 2 seme izan zituen.

**Pedro Soloeta Agirre** (1932)



1932an jaio zen Momotxoneko Goikoetxebarria baserrian, "Urbilla" izenez ezaguna, eta bertan bizi izan da beti. Ama bertakoa zuen eta aita Iurretako Txonpolonekoa. Gerra sasoian, Zornotzara joan ziren osaba batengana, eta handik, Lemoara; azkenik, Zallara joan ziren eta bertan igaro zituzten 3-4 hilabete. Eskola ezberdinetan ibili zen: Orueko txaletean, Kurutziagan, Murzianoren txaletean eta maisu partikular batekin. 14 urtegaz bere aitarekin batera hasi zen beharrean Mendizabalen lantegian, 30 urtez egon zen bertan. Handik irten eta Pinondoko tailerrera joan zen lanera 10 urtez. Baserriko lanekin uztartu zuen beti kanpoko lana. Emaztea ere durangarra du.

**Isidro Ugarte Ortuoste** (1924-2015)



1924ko uztailaren 2an jaio zen San Faustoko Munitxenan. 1934an Tabirako Aranatorrera "Andalatorre" joan ziren bizitzera eta bertan bizi izan zen etxea bota zuten arte. Ama Izurtzakoa Ortuzarrekoa zen, gerran erre zuten etxea, eta aita Muruetakoa (Abadiño). Arreba gazteago bat du Isidrok. Eskola sasoian Durangora joan zen, gaur egun kontserbatorioa dagoen lekura; baina Tabirara joan zirenean Izurtzako eskolara joan zen; beranduago, maisu-maistra batzuen etxeko klase partikularretara; gerra sasoian, mojen partikularrera, Oruen etxean; eta, beharrean zebilela, iluntzetan, Luis Mendia delineanteagaz marrazketa ikasten aritu zen klase partikularretan planoak- eta ikasteko. Abadiñobeazkoako Eustakia Mendibe Belarregaz ezkondu zen. 15 urtegaz hasita, igeltsero lanetan aritutakoa da. Elkarrizketa garaian, Eubako Orue egoitzan bizi zen.

**Brigida Unzueta Asategi** (1920)



1920an jaio zen Iurretako San Fausto auzoko (Arriandi eta Bakixa artean) Madariaga "Madarixa" baserrian. Gurasoak iurretarrak zituen: ama Madariagakoa eta aita Uribekoa. Sei neba-arrebatatik bigarrena zen bera. 14 urtera arte Amezketako eskolara joan zen. Umetan Bilboko plazara joaten zen astean behin eta birritan. Gerrak Areetako erromeria batean harrapatu zuen Algortako izeko baten etxean zegoen garaian; urtebete eta piku pasa zuen Algortan. 8 urtez harategia izan zuen Iurretan eta urtebetez ogi-banatzaile ere aritu zen furgonetarekin. Abadiñoko Franzisko Antxiagaz ezkondu ostean, Durangora etorri zen bizitzera eta 3 seme-alaba izan zituzten.

**Santi Uranga**

1980. hamarkadan Durangoko euskara jasotzeko asmoz, Jabi Zurikaraik egindako grabazioetako batean parte hartu zuenekoa da grabazio hau.

**Feli Uribe Alberdi** (1928)



1928an jaio zen San Roke auzoko Bustintza baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Erandion jaiotakoa izan arren, Oromiñon (Iurreta) bizi zen. Gerra aurretik, batzokiko eskolara joan zen, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi zuten bertan. Gerra ostean, San Frantziskora joan zen. Durangoko bonbardaketa ostean, asto, behi eta guzti Karrantzara joan ziren trenez, eta handik, Torrelavegara. 90 durangar egon ziren bertako etxalde batean, tartean gerora bere senarra izango zena ere. Handik bueltatzerakoan, aita gorria izatearren kartzelatu zuten. Aita askatzeko, sasoi hartako 3.000 pezeta ordaindu zizkioten abokatu bati. Aske gelditu arren, ez zen Durangora etorri hiru urtetan salatu zuena ez enteratzeko, eta hiru urtez Olabeagan izan zuten aita. Bitarte horretan, ama behiekin Durangoko hondakinak kentzera derrigortu zuten. Urte askoan joan izan da Bilboko Erriberara porruak saltzera. Feli oso kantularia da txikitatik. Beti aritu izan da baserriko beharretan. Iñaki Azkuna, Bilboko alkatearen izekoa da. Senarra ere durangarra du. Bere lehengusina Isabel Agirrebeitia Uriberekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketatzaileetako bat bere lehengusinaren semea da.

**Paskual Uribe Jaio** (1926)



1926an jaio zen Eguzkitzaerdikoa baserrian. Bere aita eta aitita ere bertakoak ziren eta ama Gibelenekoa (Iurreta). Bi neba-arreba dira. Eskola ezberdinetara joan zen umetan: 1936ra arte Santa Ana ostera, Eskola dominikalera, herri eskolara eta La Villara; ostean, negu bat Izurtzako eskolara joan zen eta baita Maristetara ere. Baserriko lanetan eta basoan aritu izan da beharrean. Saizabal baserriko Josefina Agirregaz ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten. 2010eko urtarrilaren 1etik Tabiran bizi dira, Eguzkitza baserria bota egingo dute-eta.

**Felipe Uribe Solagaistua** (1928-2016)



1928an jaio zen Zabalarra auzoko Kakatza baserrian. Ama Errotaritxuenakoa zuen eta aita Kakatza bertakoa. 4 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 6 urtegaz Iurretako eskolara joan zen, eta gerraostean, 10-14 urte bitartean, Kalebarrira (gaur egun liburutegia dago bertan) eta "La Villa"ra, eta gero Maristetara "Artes y oficios" ikasi aurretik. Gerra sasoian 5-6 hilabetez ebakuatuta egon ziren Bilbon, Karrantzan eta Torrelavegan. Handik itzulitakoan etxea suntsituta aurkitu zutenez, amaren familiarengana joan ziren Errotaritxuenera. Ikasketak bukatu zituenean, Mendizabalen tailerrean hasi zen lanean eta 21 urtez jardun zuen bertan. Ondoren, Funkorren, Zubian, Zaldibarko Egañan eta Izurtzako Bidekon aritu zen. Madalenako Olga Salaberriagaz ezkondu eta kalera joan zen bizitzera, Madalenako Zarandona etxera. Margolari trebea da. Erretiratu ostean palaz jolasten hasi zen, eta Hego Euskal Herriko txapela lortu zuen.

**Tomasa Urien Intxausti** (1926-2012)



1926an jaio zen Landako auzoko Muruetabeitia baserrian, gaur egun Durangoko anbulatorioa dagoen tokian. Ama Luku baserrikoa zuen eta aita Garaikoa; alaba bakarra da. Umetan Durangoko Santa Susanan ibili zen eta ostean Karmeldarretara joan zen; josten ere ikasi zuen San Frantzisko aurrean. Beti aritu izan da etxeko beharretan.

**Apin Urreta Solagaistua** (1926-2018)



1926an jaio zen Durangoko Zalabarran. Gurasoak ere auzo berekoak zituen. Umetan, "La Villa"ra joan zen maisu karlista batekin, baina bi-hiru urtez baino ez zen joan gerra zela-eta. Bonbardaketa hasi zenean etxean zeuden, eta behiak hartuta Karrantzara joan ziren trenez; handik, Torrelavegarainoko bidea hartu zuten. Bi urte eta erdiz egon ziren bertan ebakuatuta 90 durangar elkarrekin, tartean gerora bere emaztea izango zena ere, bertan ezagutu zuten elkar-eta. Torrelavegatik bueltan, etxea konfiskatuta aurkitu zuten eta 45 urtez izan zuten horrela. Bitartean, beraiek beste etxe batera joan behar izan zuten. Bere lau neba-arrebak Frantziara joan ziren eta handik bueltan, kartzelara sartu zituzten, bakoitzeko 15 ogerleko ordainduta askatu zituzten. Baina batzar klandestinoak egiteagatik berriro espetxeratu zituzten. 14 urtegaz Olman burdindegian hasi zen beharrean. Beranduago Maspen aritu zen bederatzi urtez kamioi-mekanikari. Maspeko beste bi kiderekin batera "Autorreparaciones Yurre" izeneko tailerra zabaldu zuen Igorren, eta 49 urtez aritu zen bertan kamioi-mekanikari legez. Ehizan eta perretxikotan ibilitakoa da Apin, Araba aldera joaten ziren erbitan. Iñaki Azkuna Urreta, Bilboko alkatearen osaba da, bere arrebaren semea baita. San Roke auzoko Bustintza baserriko alabarekin ezkondu zen. Berak eta bere neba-arrebek Urretabizkaia abizena jaso zuten beraien aitarengatik, baina laburtu eta Urreta da orain beraien abizena.

**Milagros Zubillaga Solagaistua** (1925-2011)



1925eko Milagrosa egunean, azaroaren 27an, jaio zen Momotxogoikoa baserrian eta bertan bizi izan zen ordudanik. Bere ama Tresolakoa zen eta aita Betxuenen jaioa, baina Errotaritxura ezkondu ziren. 5 neba-arrebatatik gazteena da. Gerra aurretik San Vicente de Paul eskolan eta herri eskolan ibili zen, eta domeka arratsaldetan “Escuela dominical”era ere joaten zen. Gerra garaian, Karrantzara, Torrelavegara eta, azkenean, Cartesera ebakuatu zituzten. Gerratik itzuli zirenean San Frantzisko komentura joan ziren. Ereñoste etxeko Joakin Ereñagagaz ezkondu zen.

**Esti Zurikarai Lejarreta**



Durango 1936 Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, Juanan eta Amaia Aroma lehengusuekin batera, euren familiak gerra sasoian bizitako kontuen inguruan. Esrtiren aita, Patxi Zurikarai, Kirikiño batailoian gudari ibili zen eta hainbat kartzelaldi ezagutu zituen. Franco hil ostean, herritarrek hautatutako Durangoko lehenengo alkatea izan zen.

**Mari Zurituriza Agirre** (1928)



1928an jaio zen Momotxo auzoko Goikoetxebarria baserrian, "Urbilla" bezala ezaguna dena. Ama bertakoa zuen eta aita Eubakoa (Zornotza); 5 neba-arrebatatik gazteena izan zen. Umetan "La Villa"ra, San Faustoko mojetara eta Pinondoko Oruenera joan zen ikastera. Durangoko bonbardaketa ostean, Zallara joan zen familia guztia. Umetatik hasi zen esne-saltzaile beharretan bere ama bezala. Beti aritu izan da baserriko lanetan. Jose Luis Ibarragaz ezkontzerakoan kalera joan ziren bizitzera, Pinondora hain zuzen ere; 2 alaba izan zituzten.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Politika

### 1.1. Amaren jaiotetxea milizianoek erre zuten

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/002
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:00:59. **Bukatu**: 00:02:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Gerra sasoian bere amaren jaiotetxea, Izurtzako Ortuzar, milizianoek erre zuten. Alde egiteko esan zieten eta ez zutenez kasurik egin, erre egin zieten etxea. Josteko makina baino ez zuten atera. Beste etxe batera joan ziren, eta etxe hura ere erre egin zuten.

**Transkripzioa**
- Etxie gerratan erre ein zan, Ortuzar. Han karabidxen aldatza badakizu nun dauen? karabidxe aldatza? eskumatara egon zan hori etxiori. Arkue luzero egon zan jausi barik, baia etxie gerratan gerratan erre zan. Baserririk haundidxena zan, etxerik heundidxena ha.
- Ta gerra denporan erre zan?
- Gerra denporan. Gerra denporan paseu zan han geuza bat: eskapetako denporan, milizianuek urtetako esan otsien, ez abien urten ta horren represalidxan edo zerien sue emon otsien, ta milizianu gazte batek errukidxe hartu nire tia bati -hemeretzi urte-edo eukezan orduen- ta josteko makiñie bakarrik etara aban, beste dana etxie erre zan. Bai.
- Eta? erre otsien ta gero nora joan zan?
- Gero juen zien haren alaba baten etxera, han karabidxen aldatzien ezkerrekaldien etxie. Han be suerte txarra, bigarren etxie be erre ein zan. Ta gero bizitten juen zien, oin bizi die tokidxe karabidxe da, karabidxe zan ta aitte be nik igeltseru euki neban, aittek eta nik habiliteu gontsen ba bizitzeko moduen karabidxori. Ta han bizi diez.

### 1.2. Italiarrek bonbardatu zuten

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-023/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:19:49. **Bukatu**: 00:20:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bonbardaketan parte hartu zutenak italiarrak izan ziren. Madrilen bizi zen bere izeko batek alemaniarrak zirela esaten omen zuen; baina guztiak talde berekoak ziren.

**Transkripzioa**
- Ta zegatik uste dozu bota abiezela bonbak elizan-eta?
- Ba ba gokuek emon otsielako! horixde! azkenien hoidxe! Ez otsien ezek ardure. Ta horrek italiano zerak izen zien ganera, ta guri gero nire izeko batek esaten eusten zera, aitten arreba nausidxe zan, ta ha kanpuen bizi izen zan beti, Madril aldien-ta, ta harek esan eusten: "fueron, fueron los alemanes" esaten eban. Hori alemanak izen ziela, ta nik eitten naben: "¿y quién los trajo?", hoidxe da kontue!
- Baia italiarrak izen zien azkenien, ezta?
- Bueno azkenien horredxek, italiarrak. bai, bai, bai, hoidxe esaten da ta hobeto jakingo eben.

### 1.3. Bere ahizpa bonbardaketan hil zen jesuitetan zegoela

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-023/014
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:23:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Bonbardaketako egunean, etxean geratu ziren. Aitak bere ahizpa Itziar Jesuitetan hilda aurkitu zuen; oraindik arnasa zuela aurkitu zuen, baina hil egin zen.

**Transkripzioa**
- Segiduan juen ziñien hamendik?
- Ez, ez, ez, ez. Bonbardeo egunian ba hementxe geldittu giñen, etxian, horko etxe haundi horretan. Eta beste barik nire, a bueno, egun horretan, egun horretan ni, aitta etorri zan ba aurkittu ebala aurkittu ebala Itziar ta. Hildda. Guk esan gontsen: "Jesuitetara juen da e!".
- Ta Itziar hil zan.
- Aitteri esan gontsen Jesuitetara juen zala Itziar. Eta bera juen zan ta orduen aurkittu eban. Eta hondiño arnasia ei euken eta berak arnasia

emon eutsan zera, artifiziala ein eutsen ta dana. Baiña ba hil zan.
- Elizan, eliza barruan?
- Eliza barruan bai, jesuittetan. Ta azkenean hor daukogu guk jesuitak atara eutsien zera, eskelea; hori da aiztearen zer dokumentau egiten daben geuza bakarra daukaguna heridxotziena.

### 1.4. Etxea errekisatu eta hil arte bertan bizi

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/014
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:28:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Gerrak bete-betean harrapatu zuten eta auzokoekin batera, buztarri eta etxeko gauzak hartuta, Karrantzara eta Torrelavegara joan ziren. Etxera bueltatzerakoan, beraien etxe bat (baserria barik, beste bat) errekisatuta izan zuten. Herrian gelditu ziren karlistek agintzen zuten herrian. Bere aitaginarreba gorria zelakoan, kartzelara sartu zuten. Etxea errekisatu ziena hil arte bizi izan zen bertan.

**Transkripzioa**
- Ba gerrie, hamen hartu oskun. Ta joan giñien.
- Zu nun egon ziñen, bonbardeau zanien-eta nun?
- Ba hamabi urte nik. Ba Durangon, baserridxen. Klaro. Ta merkantzidxen juan giñen. Hamengo baserri guztiek, merkantzidxen juan giñen Karranzara. Danak, behidxekaz ta buzterridxek ta danak [como que] zerera baguzen moduen. Danak. Karranzan eon giñen Biérnoles. Ez nok ahaztuko sekule, ostra! Handik Torrelavegara eta Torrelavegatik, etxera. Etxera etorri ta etxie errekisaute. Bakizu zer dan errekisetie? “Esta casa es mía”. “Pero, ¿cómo tuya si es mía?” “Es mía”. Ta han bizi zien. Errekisau ta hamen geratu zienak “que estén donde tienen que estar”. Dozena bat karliste-edo geratu zien ta horrexek agintzen abien herridxen. Hamentxe Otxorponak horrek mekauen la ostia! Barrutieta-eta. Horrexek agintzen abien. Gorridxok! beti amenazue. Horrexek agintzen jabian. Ta nire aitxeñarreba, nire andrien aitte, kartzela sartu abien horrek.
- Buztintzakue?
- Buzintzakue. Kartzelara. Eon zan urte bidxen-edo, gorridxe zalako.
- Berari be kendu otsien baserridxe, Buztintzako baserridxe?
- Ez, baserridxe ez. Nire aittek eukezan hamahiru etxe ta atzanengue errekisau horko baserriko alabiek. Gizona euken karlistie, zeran moduko karlistie ta etorri giñanin: “oye, ¿cómo estás?”, “Esto es mío. Esto no es tuyo. Mando yo aquí”. Ta halan hil artien; haintxe egon zan, berrogeta-bost urte-edo.
- Zuek ez ziñun euki eskriturarik edo ezer ala?
- Eskriturak eta dana baiña ez aben balidxo. Horrek eitten abien eurok gura abiena.
- Rekisau eitten abien.

- Klaro.
- Eurek uzabak?
- Bai.

### 1.5. 15 ogerleko buruko kartzelatik ateratzeko

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/015
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:28:13. **Bukatu**: 00:29:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bere anaia eta bi arreba Frantziara joan ziren ihesi. Handik bueltatu eta kartzelara sartu zituzten. 15 ogerleko eskatu zizkieten bakoitza askatzearen truke. Askatu ostean, berriro sartu zituzten kartzelara "reunión clandestina" egin zutelakoan.

**Transkripzioa**
- Ta nik anaidxa bat bakarrik euki dot ta hiru arreba. Azkunan ama, beste arreba bat eta anaidxiek Frantzidxera eskapau abien. Handik etorri zien ta kartzela sartu abiezan. Ta hauxe baiño zuridxau buruek, pelaus, ta karzelan. Ta karzelatik etarateko, hamabost oerleko bakotxak. Ta gure etxien ez ez euezan hamabost oerlekorik. Neure tia bat, familiatik aberatsena haidxe zan, orduen be, zenbat eukiko aben ba? Harexek emon abazen hamabost oerleko, bakotxa pagetako. Ta gero gazteidxe ezer esan e! Lantxa bati zertu abien. Lantxa bat ipini abien errekan ibiltteko […].
- Errekamunan?
- Bai, Errekamunan. Hortik barriro karzelara, “reunión clandestina” eitten abiela-ta, barriro karzelara. Bueno, ez dot segidu gure ze, bueno, bueno.
- Ta ze, laurek barriro karzelara joan zien?
- Karzelara barriro.
- Baiña hori, ze urte zabiz esaten, zan hori? Gerraostien, berrogeta pikuan?
- Ba, “el treinta seis”, zan gerrie. Ta horrek ein ozen /eiñozen/ hiru bat urte. Karranzan ta Torrelavegara etorri giñenien, treinta y nueve-cuarenta.

### 1.6. Torrelavegan errefuxiatu

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/018
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:33:06. **Bukatu**: 00:36:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena**: Torrelavegan pabilioi batean 80 bat pertsona egon ziren. Abioiek zelan erasotzen zuten eta txiza egiteko balde bat zutela du gogoan. Ez ziren eskolara joaten eta lanik ere ez zuten egiten. Gose asko pasatu zuten, oso txarto egon baitziren bertan. Errazionamenduko jatekoa zuten.

**Transkripzioa**
- Torrelavegan ta Karranzan egon ziñenien-eta nun bizi ziñien zuek?
- Baserridxek euezan altura baten ta hantxe. Aeroplanuek etorten zien eta sartu zerien, zangan ta hantxe. Ni eindde nau Torrelavegan Biernoselen egon giñien gu, Biernoles, ta zanga baten, ez nok ahaztuko sekulo, sekulo zanga baten: “ti-ti-ti-ti”, balak. Bonbardeetan. Bueno, historiala bueno, bueno. Gero, etorri giñien hona, ba, horrexek agintzen abien horrek.
- Eta han Torrelavegan ze egon ziñien, jente asko etxe bardiñien edo?
- Egon giñien pabilloi baten larogei-edo. Han, honako balde haundi bat, txidxe eitteko. Hondiño akordeten nok, txidxe-ta eitteko balde baten, mekauen. Bueno bueno, ez dot...
- Andrazkoak, nun eitten abien, ba?
- Ahal dan lekuen. Han euen balde haundi bat txidxe eitteko, mekaguen la ostra, “no quiero ni pensar”.
- Eta han egon ziñen bittartien-eta eskolara joan ziñien?
- Eskolara? Pentsau bez, eskolara!
- Ta zer eitten zenduen, han?
- Egon, hantxe, paiaso batzuen moduen. Hantxe egon.
- Biherrik-eta ez zenduen eitten?
- Biherrik, ezebez. Haintxe.
- Ta zuen aittek-eta biherrik ez eban ein, han?
- Bapez, bapez, biherrik pentsau bez biharrik.
- Eta hau nundik hartzen zenduen ba, jatekoa?
- Herrittik, herrittik ahal dana; ze, obispuk baiño gose gehidxau pasau giñun guk, han.
- Bai?
- Bueno!
- Orduen, obispua baiño izen bazan, askorik ez?
- Ez. Obispue, esakera bat da hori. Baiña jo, mekauen dios! Ez juat /etxuat/ pentsau be ein gure.
- Ta txarto paseu zenduen Torrelavegan?
- Oso txarto, oso txarto. Gero etorri zan lege bat ta ekarten oskuen paellie ta horrek geuzok. Dios, zelan euken izena?
- Razionamentue-edo?
- Razionamentue, razionamentue. Ta ha etorten zanien, “capitán general”. Guk, jan biherra! Ointxe jatok andrie.
- Eta ogirik-edo? Ogidxe?
- Bai. Ogidxe be handidxeik ekarten abien, baiña txuskuek, honako txuskotxuek. Ikustien batera, janda, ikustien batera.
- Gozue zan?
- Ba, baltza. Ogi baltza. Ai, hori, ogi baltza. Ai hori, ogo baltza, zer baiño bastuaue, baiña guk jan.

### 1.7. Emaztea errefuaxiatuta zeudela ezagutu

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/019
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Bere emaztea izango zena Torrelavegan bertan ezagutu zuen, batera egon baitziren bertan auzoko denak, 90 lagun bere emazteak dioenez.

**Transkripzioa**
- Eta talorik edo be jango zenduen taloa-eta edo ez zenduen euki urunik-edo?
- Keba, pentsau bez, pentsau bez! Hau ezeutu neban nobidxotan han nik. Batera eon giñien-ta.
- A andrie Torrelavegan?
- Klaro.
- Bueno, ordun zozer ona urten eban? Zozer ona euki eban?
- Bueno, gustire, gustire, gustire, gustire.
- Ze, egon ziñien, durangar asko batera?
- Hamengo barrioko guztiek. “Potrero y Pando. Míra, cómo sabe”.
- Emaztea: Larogeta-hamar lagun egon giñien
- Larogeta? Esan dot nik larogei bat edo holan.
- Ta larogeta hamar durangar?
- Danak hamenguek. Hamengo baserri guztiek.

### 1.8. "Aprende 'Cara al Sol', aprende qué hacer" kamiseta soinean

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/023
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:43:24. **Bukatu**: 00:46:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Eskumako eskua altxatu eta Cara al Sol abesten zuten eskolan. "Aprende Cara al Sol, aprende qué hacer" jartzen zuen kamisetan edo arkondara eman zieten eta harekin joaten ziren eskolara.

**Transkripzioa**
- Eta katezismoa-ta?
- Ja, “de eso nada”. Katezismue-ta gero urten aben. Hombre. Katezismue?
- Ta joango ziñen dotriñe ikesten be? Dotriñe be, ikesiko zendun?
- Dotriñie, bai baiña historiala dana: “la vida de Franco, la vida del rey, la vida de esto, la vida de otro”. Ezebez gehidxao.
- Matematika-ta eingo zenduen?
- Matematika? Zer dan bez! Matematika, zer zabiz esaten matematika?

Hombre!
- Ba ez dakit, denpora guztien Francoren bizitza ba…
- Ezebez.
- Kantau-ta eitten ziñuen?
- Kantau, bai. Hori bai, kantau bai; 'Cara al Sol' ta beti, eskue altxaute.
- Eskumie, eskumie, eskumie, eskumie. Ba, hombre. Gero, emon oskuezen arkondara batzuk. Arkondara batzuk, zer ipinten ebien? A “aprende 'Cara al Sol', aprende” ez jiat /etxiat/ zer. Arkondarie. Baia orduen, harro etxera arkondara barridxeaz, mekaguen diez. Arkondara bat zeuen, nikidxek zeozen.
- Letrakin?
- Letrakaz.
- Ta ze esaten otsuen etxien?
- Etxien ze esango juen ba? Pozik niki barridxaz etxera. Ze esan bijuen ba?
- Danori niki bardiñe, neskeri ta mutilleri?
- Bai, bai, bardiñe.
- Eta eskolara ha eroan biher izeten zenduen?
- Hombre!
- Baiña bat bakarrik?
- Bat.
- Aste osorako?
- Klaro. Lohitzen zanien, amak garbittu ta benga.
- Garbittu, asteburuen ein biherko /biko/ zan?
- Bai, ba. Domekan-edo, astelehenien barriro txulo jueteko.
- Orduan, denpora luzez ez ziñen egon eskolan? Denpora luzez, zenbat denpora egongo ziñen ba?
- Ni?
- Hamalau urtekin hasi baziñen biherrien, hiru urte egon baziñan kanpuan…
- Bai, ba, urte bi edo hiru. Ta nik estudidxeu nabena, analfabeto kompleto etxera. Ezebez “nada”. Ezebez.
- Bueno baiña leiduten ta eskribiduten ikesiko zendun?
- Bai, ba, leiduten ba! Hantxe baiña en jeneral, dana politikiena; ez zera, oingo moduen, “historial de esto, historial del otro”, ez zeuen.

### 1.9. Karlistak baserritarren kontura aberastu

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/031
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 00:59:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Garia beti erein izan da Durangoko lurretan. Udaletxera entregatu behar izaten zuten gerraostean. Indaba ere entregatzen zuten, baia gutxiago. Behin tren-geltokiko arduradunak arto-zorroa kendu zion jenero hori bertakoa, herrikoa, ez zela argudiatuz. Imazen errotara joaten ziren, bere errota zabalik egon baitzen. Asko baserritarren kontura aberastu ziren.

**Transkripzioa**
- Ta zuek handik buelta ziñienien Torrelavegatik eta gero, garidxe-ta entregau biherra euki zenduen edo ja, paseute egon zan ha?
- Ez. Hor etorri zan ba, hor etorri zan. Orduntxe etorri zan entregau ein biher zan. Porejemplo, guk “ochenta kilos” ta juen ta pisetu: “oye, faltan dos kilos. Mañana tienes que traer”.
- Derrigorrien..
- Derrigorrien. Hombre!
- Eta nora eruten ziñuen? Nora eruan hori?
- Auentamentora. Txirgo, Txirgo ezetu zeñun Txirgo?Ba Txirgo zan horko jefie. “Oye, no has traido tú, suficiente eso”. Hurrengo egunien, kilo bi edo hiru-edo.
- Ta horregaz jeneroaz gero zer eitten abien?
- Eurek? Eurek saldu be iguel.
- Ta inddabie-ta be eroan biher izaten zenduen, ortuko jeneroa?
- Bai, baiña ha kilo gitxiau, e! Kilo gitxiau. Bai. Ni eindde nau, ni eindde nau arto-zorruaz juen orduen, Txune. Ezetu zeñun Txune, zuk? Benga. Txune, ezetu Zeñun Txune? Pero “¿tú, cuántos años tienes, pues?”.
- Ni ez naz hemengoa, e!
-A, parte. Bueno eindde nau ni, zorrue, orduen honek etxiek bape ez euen, hau dana zan baserridxe. Honek etxiok, neuk ezetu doaz danak. Zorruaz juen estaziñotik, geratu jefiek estaziñokuek, kendu zorrue ta etxera zorro barik.”Esto no es, esto no es borona del país. Esto es de extranjero. Pero si…” Basarridxen hartu dogule ta ez. “No, no, no”. Benga, zorro barik etxera. Karlista ostidxok! Orduen, Imaz, Imaz ezetuko ziñun? Hara, erueten zan zorrue.
- Errotara?
- Errotara. Eruten bazenduzen berrogeta hamar kilo, etorten ziñen hogeta bosteaz. Eurok gure bana, kendu baiña gehixau ez euen. Gero, Atxurlarixana, Atxurlarixe, Felix. Ezeutuko ziñun? Hara. Estaziñotik juen edo trenbidatik juen ta Felix, aitte Felix zan. “Itxi hor zorrue, guardi-zibillek dauz barruen-ta. Etorri bixer!”. Guarda zobillek, han afaltzen. Hurrengo egunien juen ta justo-justo eruen zorrue, ta etorri txori baten moduen. Kendu ha, han aberastu zuan hori baserridxen baserrittarren konture. Eruen berrogei kilo ta hogeiaz bueltan. Bai. Harek denporak!

### 1.10. Gerra sasoia Garain; durangar asko hilik

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/019
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:30:27. **Bukatu**: 00:32:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gerra garaian Garain egon zenez eskolara ere bertara joan zen urte eta erdiz. 36ko uztailetik apirilaren 28ra arte egon zen gerra, baina Garai 26an libratu zen, bi egun lehenago, eta Berriz 25ean. Bilboko burdinazko gerrikoa eraikitzen jendea asko ibili zen. Peña Lemonan jende piloa hil zen, eta kanposantuan hildako asko ikusten ziren. Ebron ere durangar asko hil ziren, gazteak gainera.

**Transkripzioa**
- “El año treinta y seis”ien bakaziñuek aurretik, julio arte, pues Maristetan, ta gero urtebete terdi ein nabezen Garaidxen, ba gerrie euelako. Gerrie hemen euen, egon zan “treinta y seis de julio, hasta hasta hasta abril, el veintiocho de abril, veintiocho de abril”erarte. Tropak sartu zien hamen “el veintiocho”, ta Garaidxen librau zan “el veintiséis”, ta Berridxen “el veinticinco”. Ta gero hortik behetik, gero Bilbora asko hor “el esto, el cinturón de hierro” Galdakan, ta hor be hori Goikoetxeak ein aban. Hori gero “el talgo” ein ebanak, ta horri ein otsien aurretik pentsetan jungo ziela, baia ostetik, Lezama aldetik, atzetik harrapau otsien, esaten abielez e! Ta gero bueno, hamengo gerratekuek ba Peña Lemonan be jende asko hil zan, ta horrek hillok ni kanposantuen han illadan ikusten zien sartute. Ta ipintten utsien ohola ta gero, bueno, kaja bat, baia ganeko tapie ez otsien ipintten. Ta gero euren, euken identidadie ba harek palu baten, ta sartzen utsiezan han nor zan jakitteko-edo. Gero etarako abiezan restuek, ez dakit nik hori aurretik gero zer, ba familiarrak-edo, ba horrek Peña Lemonatik ekarri bien hona. Peña Lemonan asko.
- Durangar asko egon zan Peña Lemonan?
- Ez, danak. “Los rojos y los nacionales”, danetik.
- Baia durangarrak be bai?
- Bai, Durangon “en el Ebro también murieron muchos”. Ta gazteenak, kinttuek egon zien, “de la quinta del cuarenta y uno” zien azkeneko jun zienak, hamazortzi urteaz. Ta hor, josus! Horrek gero gerrie akabaute barriro mobilizaziñue, zazpi urte ein abiezan harek. Hori kinttie zan gehidxen, ta gazte-gaztetatik eruenikuek, oin larogeta hamar dekienak, eingo dabiezanak eurten.
- Gutxi geratuko die ia, gutxi.
- Bai, badauz baina.
- Batzuk badauz.

### 1.11. Montequemado

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/020
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:32:53. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Durangoko bonbardaketa Garaitik ikusi zuen. Jende asko Montequemadon egon zen. Montequemado zergatik deitzen diote kontatzen du.

**Transkripzioa**
- Hor bonbardeoa izen zanien Durengon zu non egon ziñen? Gogoratzen zara?
- Ni Garaidxen.
- A, ya joanda!
- Bai, Garaidxen nik bonbardeue ikusten naben.
- Ta zer entzun ziñun-edo? Zer ikusi-edo?
- Ba Garaidxetik ikusten naben plazatik etorritte, mobidu eitten giñen ta

bonbardeuek ikusi nabezan bonbak zelan jeusten zien. Bai, bonbak goitik, ta hango mendidxe euen, baina ikusten zien. Durango ez da ikusten Garaittik plazatik, herriko plaza, baia bonbak bai.
- San Juanetik ikusten da.
- San Juanetik bai, ta Duindditik eta hortik be bai, bai, baia San Juan, hor barrankutik hurrau, ta Idxorretatik ta Montecalvotik, baina hor jentie billur zan hor kanpetan Montekemaue...Montekemaue bakizue zeri esaten otsien? Nun dauen? Zeaittik zan horri? Jakingozu zuk.
- Ez, baia kontau ba!
- Ah, bueno! Hametik Durungotik trena juten zan, “La Grua” esaten eutsiena, Etxezarragan etxien ostetik, handik Mikeldiko kaletik ta Ferreteran, hor ferreterie euena, hor zubiek euezan burdinazkuek, holakodxiek. Hortik juten zien horra Idxorretara, ta Idxorretatik zuzen, oin “Carretera Nueva” /esatutsegu/ esaten dotsegu guk, hortik Matidxenera. Ta Matidxenetik, Garaittik, Saloberetik oin bauen handik Estarripetik ez zeuen biderik, Saloberetik hor Diputaziñuek baeuko ba...bueno, Diputaziñuek bakizu Matidxenen, han aldatzien zelan deken etxe handi bat? Bota dabiela oin-edo, hor kamiñeruek bizi zien. Hiru bizitza euezan hor, oin be hor egongo die, baia oin ez da. Ta hor aurretik Garaittik etorten zan Saloberetik hartu kurbie ta hortik aurretik, ta erripie euen. Ta etorten zan Amezua, tabernie, hor herratokidxe euen, Sebastian zan aitte ta Alejandro. Gero, hori gero kamino barridxe ein zabienenik Idxorretatik horra, lehen hortik tuneletik pasetan zan ta kamiñue ganetik tunela. Ta hori kamiñue, “la Carretera Nueva”, eitten zanien orduen ein zan trenbidie zan lekutik, ingurutik. Hori gerrie, gerra aurretik eitten hasi zien, gu gaztetan ba Garaidxen oten giñienien ta ba gerra denporan ta hor lehen kamiñoak eta eitten zien bagonetakin. Bagonetak entzunde eukozuez, ez? miñetakuek moduen. Miñetan be bai, o sea, raillek ta bultze eitten zan, edo asto, manduekin edo dalakuek aldatza bauen eruteko, ba indder gehidxau dekielako edo dana dalakue. Ta hortxe ein zan “la Carretera Nueva”. Ta hori, trena euenien, txokolaterak “de vapor”, ta iketzaz eitten zienak txispak botaten ebazan. Ta agostuen edo hori beti siketu eitten da, ez dakit konturetzen zaien, ta hortik euen ba erre eitten zien sarri, ba suek hartzen eban.
- Eta horregatik Montequemado.
- Montequemado, esakerie hortxe dau.
- Baina hor Etxebarrian terrenuek euezen.
- Bai, Etxebarrianak eta...
- Eta horrek eskrituretan Beresigane.
- Beresidxek eukiezan hor.
- Beresidxek eukiezan, bai.
- Nire aittegiñarreba Andikoakue zan ta horra etorten ei zien jornaleroak, ta zenbat pagetan eutsien esaten abien. Beresidxe ba egurre, hori da egur, arbola botateko, gero landa, ta oin garbi dauen moduen. Garaidxen por ejemplo, Askako esaten utsiena, han be txarie euen. Beresidxe txarie, hori zikiñe, o sea, han arbola, baia ez dabiena balidxo, egurretarako bakarrik. Ta hori garbittu ein abien, Etxebarriak.

### 1.12. Artekaleko etxeak bonbardaketan zutunik

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/029

- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:51:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Beraien etxera kanoikada bat sartu zen, gaztelutik botatzen zituzten kanoiak. Bere ustez Artekalen ez zituzten etxeak bota bonbardaketak komitea zegoelako. Elizak, ostera, bota zituzten, batailoiak egon ziren-eta, eta biltegi moduan erabiltzen zituztelako.

**Transkripzioa**
- Eta orduen zuen etxieri teilatue be ez dotsien apurtu?
- Ez, ez. Apurtu bai, ametrallau abien. Kañonazo bat bai sartu zan etxera, bigarren pisure. Gaztelutik botaten abiezan esto, ta hori libre euelez, lehen ezeuen etxie hori ba, bajue zan, ta Gaztelu, Gaztelu bakizu? Ta botaten abiezan esto, honek be ezetu dau marku beten metrallie. Bai, komedorien geunken hau estufa berotzeko, zelan da? “Estufa francesa” esaten eutsiena, tximinera frantsesa, ta ha be apurtu aban eta zan “de hierro colado”.
- Zuek pribilejiauek izengo ziñien, ezta? Ze jende gehidxenari etxea apurtu otsien.
- Artekalien ez.
- Artekalien ez?
- Artekalien ez, Goidxenkalien bai. Goidxenkalien be etxe eder bat euena hor, ta gero horrek txaletok, harek bidxok bai, txaletok.
- Ta Artekalien zeba ez? Kasualidadie-edo?
- Ba “comité” gorabeheran /pentsot/ pentseten dot ni zala hori bonbardeuoi.
- Zuk pentsateozu apropos ein abien?
- Bai ba, botata be harek ez dabez botaten “a bulto”, e!
- Orduen zelan bota abien elizie-eta?
- Karlistak izena bai, horrek esplikaziñue nik dekat entzunde, nik liburu gitxi historidxakoak asko leidu eitten dau ta nik ez, nik “de esto” dakit. Hor egon zien, o sea, “batallón de esto, de milicianos”, ta aukien kuartela hor.
- Nun hor?
- Ba elizetan!
- A, elizetan!
- Eliza bidxetan, ta ez dakit eukien “víveres” edo “algo” be bai, ta gero etor zien, eurek konpondu zien, ez dakit, PNVegaz edo dana halakuaz, ta kendu ein abien. Ta bidxen bittartien ez zabiela euki konozimientorik, ta bonbardeau ein zala. Hori esakerie da, ez dakit egidxe dan edo guzurre dan.
- Almazena moduan.
- Eta dana ametrallau, o sea, materidxal guztidxek. Kañoiek edo fusillek edo dana dalakuek, ba…
- “Intendencia” esaten dana.
- “Intendecia”, ta gero bai. Gero kañoiek eta euko abiezan.

### 1.13. Intxortatik Durangora

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: DUR-028/030
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:51:22. **Bukatu**: 00:55:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Nazionalek lehenengo Otxandio bonbardatu zuten. gero Gasteiz, Iruñea eta Donostia hartu zituzten. Donostiatik Intxortaraino (Elgeta eta Elorrio artean) etorri ziren, Durangoranzko bidean. Garai-tik ikusi zituen Intxortako erasoaldiak. Borrokan zebiltzan asko ez ziren berriro agertu. Durangotik, karlistak-eta Gasteiz aldera joan ziren. Francok Afrikatik ekarritako soldaduek denetarik osten zutela dio. Soldadu asturiarrak oso gazteak ziren eta jateko bila joaten ziren baserrietara.

**Transkripzioa**

- Hamen bonbardeue hamen Otxandidxon on zan lehenengoko esto, Otxandio, ta Otxandidxotik gero nazionalak Bittoridxa hartu abien, Bittoridxa ta Pamplona ta Donosti. Ta Donostittik etorri zien Intxortaraiño, hor frentie zabaldu zan Ondarroatik Intxorta, Otxandidxoraiño. Otxandidxo ta Villarrealera egon zan, geratu zan, hori izen zan hillebetien edo bien hartu abien, julio ta agostuen, ta gero on zien “hasta, hasta abril” geldi. Intxortako bonbardeue Garaittik ikusten naben, ha gogorra izen da ha, e! Auzoko batek semie euken han, ta euen eurek han, idxe hirurogeta hamar urtekue triste han bonbardeuen han, bakidxien semie han zeuena ta, ta gero heridute Bilbora pasau zala enterau zien. Ta gero asko hil zien hor, ta nire Odiagan lagun bat, ta sekule be ez dienak agertu, ez dakitt, hori hor Otxandidxon esto. Ta gero hametik pasetan zien Bittoridxara jentie, karlistak edo pasetan zien Bittoridxara, asko.
- Ta sartu nundik sartu zien hogeta zortzidxen? Apirillan hogeta zortzidxen.
- Ba gero apurtu abien “el frente este, del Intxorta” hori, ba danetik, Oiztik be bai. Esate abien Oiztik, “a los paisas, a los de África”, Francok Afrikatik ekarri zittuen tropie ta pasetan ziela, bialdu abiezala handik, ostantzien sakieu eitte abiela. Oin andrak badaroie ba praketan holan boltsa bat-edo botata? Holakuek usate abiezan “y que llevaban allí pues la dentadura que le habían quitado a un muerto, y de saqueadores cien por cien”.
- Ta hemen sartu zien Pinondotik?
- Ez.
- Ez zan egon…?
- Nik ez dakit, hortik ez dakitt. Ni Garaiko gauzek dakiaz. Andikoatik etorri zien, Garaiko Arroittetik ikusten da Andikoa eta danak, ta etorri zien “el día veinticinco”. Ta batzuk geratu zien han, ta asturianuek desbandadan ebizen gaztiek, hondiño “de la quinta del cuarenta y dos”-edo horrek, ta harek gosie eukien, ta etorten zien basarrire, “tal algo”, ta emon eitten geuntsen. Honek bombas de mano ekarten, itxitte abiezan han botata lurrien, ta emoten bageuntsen jaten ba, ez eben ba ez ebien ezer. Ta billurre euen ba zeuzer eruango ete zerien, ta geratu zien hor behien, Arrierrekan geratu zien. Ta esan, “¡coño!, a ver si no suben hasta Garai”, ta ordenie dekela haraño. Ta gero “el día veintiséis” etorri zien lau kamio, lau /pentsetot/ pentseten dot, “de de esto tanques no, tanques no, camiones reforzados, anti…”.
- Militarrak.
- Kamioietan hantxe etorri zien, ta on zien, nik ikusi nabezan ta ogi zuridxe ekarten abien, joder! “Pues un manjar para entoncesa”.

-Normalien baltza izeten zan, baltza izaten zala txuskua.
- Baltza.
- Bai, orduen, ta gero be bai, gerra ostien bebai, hamen be bai. Baia gero horrek ogi zuridxe ekarri abien, ta jatekue ta danak emoten oskuen, orduen jenero gehidxau, gero txartoau on zan gerra ostien, bueno, gerra denporan. Gerrie “del treinta y seis al treinta y nueve”, hiru urte izen zien. Ta hamen beratzi hillebete izen zan gerrie, gero ostie pasau zien aurrerutz, hamen Idxorretatik eta batetik, eta hortik. Ta gero ba, ba tropie hamendidxik etorri zen, han euezan, ta han pasau giñien. Ta gero ba…

### 1.14. Milizianoak ostutako urdaia eta gitarra

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/038
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:06:58. **Bukatu**: 01:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Baserri asko errekisatu zituzten, baina beraiek zortea izan zuten. Gazteluko familia bat beraien baserrian egon zen. Bere lehengusua Artekaleko etxean zegoela, ohe azpian ezkutatu zen miliziano bat agertu zenean. Milizianoak urdai zatiak eta aitaren gitarra bat ostu zien.

**Transkripzioa**
- Baia gero gerrie hasi zanien, harek “evacuar” eitten zittuen baserri etxiek. Guk Garaidxen suertie euki giñun, ez giñuen iñor be ikutu. Gazteluko batzuk etorri zien hara baserrire, behidxekin ta danakin, jun barik beheruntz, Karrantzaruntz-ta asko jun zien, refujiau. Orduen etorri / bizaban/ biher izen aban etxera, Artekalera ta han, euela “eso”, miliziano bat etxe aurrien, koño! Ta atie zarratute euen, pistoliaz ti-ta jo abezen, atie zabaldu aban, ta pisure idxo aban. Ta pisuen, ohe azpidxen euen lehengosue, ta urdi zati batzuk be beukezan, txarridxe hildde, horrek Zubia, arrebie Zubia…
- Arregi, Katienak?
- Katienak, Luis Arregi ta Zubia, andrie, horrek Zubia Saltukuen aitte zan ta atxikoriakue be bai, jente dirudunek zien. Ta hori karlistie zan, horrek karlistak zien, baia hori Arregi nazionalistie. Ta gero hori, Gloria Zubia, nazionalista hutse izen zan gero.
- Zelako nahastie.
- Ta urdidxe euken, ta gosie euken ta, koño! Hau urdidxe kendu ein /bitset/ biher dotset, gero han lehenengo pisuen ibilitte hartu eban urdi zatidxe ta eskillaran itxi aban, ta goiko pisure idxo aban. Ta gure aittek gittarra bat euken ta gittarrie be eru aben, ta tentau eban hori urdidxek, jode, kentzen botset konturatuko da, “Hamen lagunen bat dau!”, ta barriro itxi abala, ta bera euen ohien, ibili zan orduen libreridxa profesor mercantil zan mutille, hogeta bat urte, profugo be bazan, ha soldau be egon /biaban/ biher aban. Klaro, harek delitto gehidxau auken, ta libreridxa etxeko mutil listue zan ha, gero be izen da. Baia han ibilli zan, hanketan ta bajatu zan, jun zan gittarria ta urdidxaz, ta eurrera!

- Librau zan.
- Bai, ta hori bonbardio hori, kañonazue on zanien be bera liburu baten eske jun zalako kuarture, eso, ta bidxen bittartien beraiño be metrallia allegau zan. Bai, suertie ba.

### 1.15. 'Radio Requeté'

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/039
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:09:35. **Bukatu**: 01:10:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
  Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- **Laburpena**: Bere lehengusua merkataritza irakaslea zen, eta gerran Radio Requetén egon zen. Radio Requetén morsez-eta komunikatzen ziren, baina bere ikasketak zirela eta administrazioan aritu zen.

**Transkripzioa**
- Gerra guztidxe ein biher izen aben, "en esto, en Radio Requeté creo que". "Radio Requeté", "Radio Requeté", ordun radidxuk zien "pues los morses" horrek komunikaziñuek-eta eitteko, baia harek ez zaban sarjentue be, "pero era administrador, profesor mercantil" kontuek eruteko harek ez zaban, beti adminitradorie zan.
- "Radio Requeté" hori zer zan?
- "Pues e, pues e una compañia".
- Baia radidxoa zan edo...?
- Esan dot radidxoak orduen be baeuezan "pa dar partes, el sistema ese que había, morse, pues esos daban".
- Morsen ibiltzen zan jentie zan estudidxodun jenite.
- Bai, bai, ba bai, izengo zan. Bueno, nik "Radio Requeté" ezetu nabena Odiaga "también", Pedro Odiaga, "y "Radio Requeté creo que estuvo o el regimiento ese en Madrid o en esto en Madrid" gero gerra ostien egon zala "la cosa principal".

### 1.16. Garaiko egunkariak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/065
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:54:30. **Bukatu**: 01:55:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena**: Sebastiana Espin egunkari-saltzailea "bizkaittarra" zela dio, abertzalea. La Gaceta del Norte, El Liberal eta Euzkadi egunkariak aipatzen ditu. Meza-laguntzaileek ere saltzen zituzten egunkariak.

**Transkripzioa**
- Durungon euen martxandesa bat, Sebastian Espin, beti bizkaittarresie, periodikuek-eta saltzen, eta bizkaittarresie. Sebastiana Espin, majie, saladie zan ha.
- Ta periodikuen saltzen bazen. Ta ze periodiku egon zan han sasoien?
- Han "La gaceta del norte".
- "Euzkadi"-eta?
- Bai. "El liberal", nik liberala bakit. Ta Garaidxen abadiek saltzen aban periodiku bat ta "Ekin" pentsetan dot zala, monagilluek saltzen... "Ekin" izen leiken? ez dakitz, gaztetan. Baia periodikue saltzen abala bai o bialtzen otsien bizkaittarrak, eta bizkaittarra zan don Felipe Zarate, honen osabie, ta ha bizkaittarra zan. Orduen osabie alkate izen zan gero ta ta bota abien "a Ronda, Malaga" kastigu moduen, ta handik eskribiduten otsen eta gero ekarri eben ha, ta hamen egon zan don Felipe Zarate, ta beste anaiidxa bat be baeuken, Zacarias, horren konstruktorien osabak. Bai ta monagillu, monagilluek-edo saltzen abiezan.

### 1.17. Durangon ez zen euskaraz berbetan

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/069
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:57:33. **Bukatu**: 01:58:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Durangon ez zen euskaraz egiten berbarik. Guraso askok ez zioten beraien seme-alabei euskaraz egiten, nahiz eta euskaldunak eta abertzaleak izan.

**Transkripzioa**
- Eta horrek, zuk iñoz entzun dozu aguazillek edo jentie multetie kalien euskeraz berba eittiarren-edo?
- Nik sekule ez dot, nik euskera, orduen ez zan eitten euskera. Hamen familidxak, euskeldunek zienak ta bizkeittarrak, harek etxien danak ekizen euskera. Esaten abienak bizkeittarrak zariela, baina aitte-amak ez eutsien eitten ta asko. Nik lagunek euki doaz ez zekidxenak, baina beste, Zubizarreta entzutie eukozu? Dendak hor Andra Maridxen dekezenak, horrek seme guztidxek ekidxen euskeraz. Ta honek jardineruenak eta esaten eutsienak, horrek txistularidxe-edo zelan die? Ganboa? Edo Aroma? Aroma Lejarreta-edo die horrek, jardiñeruenak, horrek be danak. Ta beste familidxak, asko ez, e! Baekiedxenak.

### 1.18. Euskararen egoera

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/071
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:59:12. **Bukatu**: 02:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Bere gurasoen sasoian-eta euskaraz hitz egiten zen, baina jendea ikasten hasi zenean asko galdu zen. Jende dirudunak ikasketak zituen, baina ez zekien euskara. Eskualdeko euskararen gaineko ikuspegia: Durangotik Mallabira tonua aldatzen da; Eubatik aurrera "astoa" esaten da, gainerakoan "astue".

**Transkripzioa**
- Durungoko jentiek erdera eitten aban. Gure aitten ta sasoien, osabiek, tio Emiliok eta, bizi die ontsura arte, horrek dana euskeraz orduen. Gero hasi zien unibersidadera juten jente aberatsenan semiek, abogauek-eta, unibersidadietan ta han erderaz hasi zien. Ta gero harek, posterior ez abien ikesi. Nire lehengosuek horrek, profesor mercantil zanak, horrek sekule, aitte Huescakue zan, baia amak euskeraz, baina ez, ez. Gero gerraostien askorik galazo eitsiela ta jo ein. Nik sekule euskera, Durungokuekin gitxiaz eittekotan, ez euen-ta!
- Zuk Garain eingo ziñun.
- Garaidxen bai! Garaikuekin bai, dana, han bai.
- Berbetan igertzenzu diferentzirik durangarra izen edo garaikue izen?
- Nik ez. Nik ez, baia horrek Lizundiak esan eusten. Nik ez. Bai, Berrizkuek eta Markiñakuek eta bai diferentzidxe, Bergarakuei ta.
- Baia horrek ia urrun dauz. Diñot alkarren onduen.
- Trabakukoei, Mallebikoei. Nigaz ibiltten da, Julian, ez dakit ezetzen dozun, horrek beste euskera, beste geuza bat deko, beste geuza bat. Ta Andikoatik bebai Garaire diferentzie euen.
- Semea: Eubatik aurrera Zorrontza…
- Por ejemplo, papeleratik edo hortik, Idxorreta, ta Zorrontza hasten da Euban, hortik dana “astoa” da, “oa”. Ta hamen “ue”, “astue”, “mandue”, dana “ue”, ta hor “oa”. Ez dakit.
- Guk “astoa”.
- “Astoa” hor aldean. Ta semiek dana “astoa”, ta “banoa”, ta guk “banue”. Hori be por ejemplo, Donostialdien “Josetxo” esaten eutse, ta hamen “Josetxu”. Hori honen…Areitio…
- “Joxe”, han “Joxe” die danak, hemen “José”.
- “Josetxo” esaten da.
- Bai.
- Ta horrek, Areition Maitek, Donostiakue da ta harek beti “Josetxo” esate eutso, “Josetxo”. Aitteponteko ta amapontekoa hamen, ta amabitxi ta aittebitxi.
- Bai, guk amabitxi.
- Oin esaten da.

### 1.19. Gerra hasierako akorduak

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/012
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:15:33. **Bukatu**: 00:18:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Felik gerra hasierako aireplanoak gogoratzen ditu. Solora urten eta bertan ezkutatzen ziren belarriak tapatu eta palu bat hagin tartean zutela. Isabelek Otxandioko bonbardaketako akordua du: kamioiak beraien etxe aurretik pasatzen ziren zaurituekin, Izurtzan egon baitzen gurutze gorria. "El abuelo" hegazkina. Karrantzara joan ziren ebakuatuta, ganadu eta guzti trenez joan ziren denak.

**Transkripzioa**
- Bueno aber, gero gerra hasi zanien, zelan enteratu ziñien zuek, gerra hasi zala? Zelan jakin zenduen?
- Feli: Aireplanuek etorten zien.
- Isabel: Hori baiño ariñau, baiña.
- Aeroplanuek. Zure lehenengo akordue da?
- Feli: Aeroplanuek ta etxetik urten, sartu zangan, palo bat ahuen ipini te belarridxek, itxi ta hantxe etzunde. Koitteuek! Ai, ai, hori akordetan naz. Beste zerik ez geunken, errefuxiorik. Solora juen, etxetik urten ta solora juen ta zangatan sartu. Ta ba honek itxi ezkero ta ahue itxi ezkero, errementeu eitten zala- ta palo bat ipintten oskuen ahuen. Ta belarridxek itxi ta hantxe. Hori bai, hori akordeten naz.
- Isabel: Ni gogoratzen naz, korreoa jueten zan Bittoridxara; ta ez zan bajatu eta ez eban igon. Ta ordun esan abien, gerriek urten dauela ta ez dala pasetan Irundik korreue, ta holan.
- Ta gero handik egun batzuetara?
- Isabel: Otxandidxoko bonbardeue.
- Eta zer dekozu akorduen?
- Isabel: Bueno Ba nik Otxandidxoko bonbardeuen akordue deket, zelan bajatzen zien, kamioiek hasi zien bajatzen. Ta han gure etxien, holan eskillerak igon ta leku altue eon zan. Ta ikusten zan dana. Ganera igon gañun ta kamioiek pasetan zien ta han, zerak, zelan da? heriduek-eta. Izurtzan eon zan, han txaletien zera, Cruz Rojie edo hori. Ta han be geratu zien ta horrek. Ta gero ba jentie hasi zan esaten ba zelan Otxandidxon zelako bonbardieu dabien ta holako gauzak.
- Hori izan zen gutxi gorabehera, hogeta bixen?
- Isabel: Bai. Klaro.
- Eta zure gurasuek, aittek eta amak, ze esaten abien gerra dala- ta? Goguen dekozue zeozer edo ez dekozue? Zer esaten abien eurek…
- Feli: Bakit airoplano bat etorten zan eta hari, zelan esaten otsien, izena?
- Isabel: “El abuelo” edo zelan esaten? Ez.
- Feli: Bai, horidxe pentseten dot. Ta baju-baju etorten zan ta harek metrailleua-ta, “ta-ta-ta-ta”. Ta estaziñue, dana apurtute, bueno. Bilddur bat, guk han! Diñotsut, gure bizimodue zangan sartute ein gendun. Eta gero ba jun giñien; jittanuen moduen iguel- iguel-iguel.

- Isabel: Zu karrantzara lelengo,, ez?
- Feli: Enbarkau behidxek eta astue ta danak bagoietan, gu sartu lau umiok ta Juanek eskapau. Juan falta, nik ez daitz nora martxau aben. Aittek be trenetik urten ta Juanen atzien. Ez dakit nun topau abien ta gu Bilbon. Txopitteneko amama-ta mantak ipiñi lepotik-eta. Beste estaziño batera. Karrantzara joan giñien.

### 1.20. Milizianoak Durangon

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/014
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:18:38. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Milizianoak Durangon. Isabelen etxe ondoan hainbat miliziano egon ziren, baita Feliren etxean ere. Isabelen etxekoek ezagutu zuten miliziano nafar batek kontatutakoak dakartza gogora.

**Transkripzioa**
- Isabel: Nik bai.
- Feli: Milizianuek handik etorri giñenien Durengon eon zien, soldauek. Ta gure etxien be lo eitten abien. Elgoibarko bat akordetan naz, euskeldune ta neuk erropak-eta, zereko errekara juen, Otxarkueneko ha errekie, kangrejoak harrapetan ibiltten giñiena? Erropak, hantxe garbitzen neutsezan.
- Bueno baiña goazen oin, momentutxo baten, gerra aurretik! Osea, zuk esan dozu gogoratzen zarela milizianuekaz.
- Isabel: Hombre! Han gure bidetik-eta pasetan zien ta bueno! Kamioietan jueten zien ta urten ta “ehhh”, eitten otsuen.
- Ganera zuen etxe onduen egon zan zeozer.
- Isabel: Gero, gure etxe onduen ipiñi abiezen proiektilek. Ta harek, harek bi eoten zien han.
- Kaiñoiek?
- Isabel: Ez, holan proiektilek zien. Ez dakit zerenak zien; kaiñoienak izengo zien. Holako tamaiñokuek zien. Ta harek bidxek beti bidxek egoten zien. Denpora guztidxen eon zien bidxek. Bi soldau. Bat zan asturianue ta bestie naparra. Ta harek zelan da? Ba kanpuen ein biher izaten abien lo. Ta nire aittek, ba beheko portalean, han ataraten otsien zera. Zelan da? Galtzue edo irie eta ohie ipintten otsien eta han eitten eben lo. Han ez zan pasetan ezebez!
- Ta zer kontatzen eban napar horrek?
- Isabel: Ba naparrak esaten aban, harek esaten aban: “esto, ni”. Zelan da? Naparrak esaten aban: “que su padre, que sus padres que eran republicanos” pentseten dot, esaten abala. Gogoratzen naz; ze, harek beti ekarten aban, bajatzen zanien Durengora, pastelak- eta ekarten abazen. Ta asturianuek esaten otson: “guarda un poco el dinero pa los padres y eso. Yo sé que a mis padres ya les han cepillau bien. Bien cepillaus además”. Harek beti esaten aban hori. Ta ni ez naz gogoratzen, ez nungue zan naparra, bai naparra bai, baiña nungue zan, ez deket idearik. Holan argaltxo altu bat zan.

### 1.21. Bonbardaketako bizipenak

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/015
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:23:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Feli udaletxeko babeslekuan babestu zen bonbardaketa egunean. Familiakoak behar desberdinetan zeuden eta leku ezberdinetan egon ziren. Entzundako zaratak oso gogorrak ziren. Durango goizez bonbardatu zuten. Arratsaldean, jendea herritik aldentzen zebilela, berriro bueltatu ziren jendea metrailatzera.

**Transkripzioa**
- Eta gero Durangoko bonbardeuen, zuek alde ein baiño lehenau, Durango bonbardeatu ein abien, badakizue. Ta egun horretan zer dekozue akorduen

edo?
- Feli: Ba ni juen nitzen esnie erueten ez dakit nora. Ez dakit, txaparrotxo bat nitzen-ta. Nonora bialdu eustien. Eta ikusi nabenien bonba botaten, ba nunun, ezin nizkizu esan, sartu nitzen. Etxien pentseten abien hildde egongo nazela. Ez dakit aittek, nunnun topau eusten ta eroan naben.
- Isabel: Aitte kanposantotik-eta ibili zan topetan. Aiuntamentoko zerien eon ziñien zu. Zelan da? Refujidxuen. Bateon batek sartu ein aban hara.
- Feli: Hantxe, juen artien eta ba. Gero aitte etorri jaten ta.
- Isabel: Ibilli zan tio ba kanposantotik-ta eta leku guxtidxetatik. Pentsatzen abien, hil ein abiela. Ta Feli, eurek ez zien egon Kurutziagan, bera ta Juan?
- Feli: Uezaban etxien goldaketan, Kurutziagan.
- Isabel: Oin dauen lejuen Ertzaina? Ha zan ha.
- Feli: Txaleta zan, ha.
- Isabel: Han bizi zan lehenau, edo haren zera zan honen etxeko uezaba. Ta han jueten zan tio Inazio zera, goldaketan.
- Feli: Artue ta babie eraitteko.
- Isabel: Ta hantxe dauzela izen zan bonbardeue.
- Feli: Ta iñoiz entzunde aitteri, ganauek ganauek ademas hille ikusi arren, ganauek zapaldu be ez. Zelan pasa zien.
- Isabel: Bai, hori nik be, entzun dotset.
- Feli: Juan itturran ta aitte, godaketan. Hantxe, harrapau.
- Isabel: Bai ta Juan, etxera bieldu aban ez dakit zegaittik. Juan zeozegaittik etxera bieldu aban eta bera, geratu zan. Hantxe, eon zan.
- Feli: Hori bai, hori akordeten naz, zelan esaten abien. Bai. Ta ganauek zelako zera? – - - Isabel: Zapaldu bez!
- Feli: Zapaldu bez!
- Sue, exploziñuekin-eta akorduen dekozue exploziñuena edo ezebez?
- Isabel: Nik bai. Bueno!
- Baiña hor Durangoko egun horretakue, Feli?
- Feli: Bonbardeue, bueno! Hango zaratie ta hango zera, terriblie zan. Terriblie. Sekule zelan halakorik ez giñunez ikusi momentuen, ba zer pasetan ete dan. Eske ez zara konturatzen. Gero, gero, gero ta billdur gehidxau gero. “Estaziñue dana apurtu dabe eta hainbeste hil egon da, Andra Maridxan. Andra Maridxako elixie dana bota dabe”. Jesuittetan be hainbeste lagun hil zan. Ta gero harek kanposanture eroan abizienak hiltten. Ta haren artien bat bizirik geldittu zan. Esaten abien nor be. Tirue bota ta beti bai; azertau ez ondo ta bizirik bat geldittu zan-ta. Entzunde etxien holako geuzok.
- Eta gero bonbardeo egunien, arratsaldien, zer pasatu zan?
- Isabel: Hombre, ba jentiek eskapau ein aban kanpora: kanposanture ta Landakora-ta urten aban jentiek. Ta arratsaldien etorri zien ta metraillau abien ba danari. Bonbak goidxien ta arratsaldien ametraillau dana.

### 1.22. Bonbardaketa osteko egunak eta ebakuazioa

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/016
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:23:39. **Bukatu**: 00:26:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bonbardaketa osteko egunetan, Feliren etxekoak soloan ezkutatzen ziren; eta Isabelen etxekoak, Mugarrako kobazulo batean. Handik segituan, San Roke auzoko 90 pertsona, Feli tartean zela, Karrantzara eta Torrelavegara joan ziren ebakuatuta ganadu eta guzti. Isabel-eta Bilbora joan ziren.

**Transkripzioa**

- Ta hurrengo egunetan, zer ein zenduen zuek?
- Isabel: Bueno, bakizu nora juaten giñien? Zelan da? Santa Luzidxako kueba batera juaten giñen goizeko bostetan urtenda.
- Mugarrara?
- Isabel: Bai. Ta illuntzen zanien, etxera.
- Ta zuek Feli?
- Feli: Gu solora ta zangetan sartunde hantxe egon. Soluen. Lehen bakizu soluetan gunak egoten zien ure joateko. Hantxe sartu ta hantxe.
- Isabel: Baiña dana amatreillau abien. Puf!
- Ta gero zer ein zenduen? Gero juen ein ziñien Bilbora, ezta?
- Feli: Klaro. Gero, Karrantzan.
- Isabel: Ez. Honek Karrantzara juen zien.
- Zuek, zuzenien Karrantzara orduen?
- Feli: Gu? Bai. Ta handik gero Torrelavegara, bai. Karrantzara. Bai. Denpora asko. Granja baten eon giñen, gu. Ta ganau guztidxe. Ta eon zien ba bedarrak jateko-ta ganaue bueno. Ta nire oin koiñetie, Mari hil zana. Gu han eon giñien larogeta hamar lagun eon giñien gu, han. Ta...
- Durangarrak danak?
- Feli: Bai, hombre!
- Isabel: San Rokekuek.
- Feli: San Rokekuek, danok. Ta ganau asko. Ta nire ama ta Mari Salaberrikue astue euki giñun ta karrue. Guk hara Karrantzaraiño zelan eruen giñun, orduen? Ta hartu kantikada esniek ta Karrantzako estaziñora eruaten abien. Ez dakit Ba zertarako zien.
- Orduen karrue, behidxek eta astue?
- Feli: Ta astue. Ta astue Torrelavegan hil jakun.
- Isabel: Feli, gogoratzen haz, jun giñenien bidxok, ez dakizu zelan itxi giñuzen han behien? Gure aurrien hil abien astue. Bum!, bota abien bonba bat.
- Feli: Bonba bat eta errementau ein aben.
- Isabel: Zu ta ni lurrera gure kantiñekaz.
- Feli: Ta gure aittek bakizu zer ein aban gerrara ez jutiarren? Han okalipttuek eoten zien. Eta okalipttuk botaten, botaten ipini hankie ta okalipttue jausi jakon hanka ganera ta gero ezin juen gerrara.
- Bestela, nazionalak eruen eingo abien?
- Feli: Bai! Ez baben erungo ba! Ta guk errefujidxue euki geñun orduen, koltxoiek-eta ipini ta okalipttuek botata okaliptto ganien ta gu, han barruen sartute.
- Isabel: Baiña zera zan, holan zertxu bat zan, ez dakit zer. Barrure sartute egoten giñien.
- Feli: Kristonak paseu giñuzen, e!
- Hori, nun izen zan?
- Isabel: Hori, Torrelavegan.
- Baiña lehenengo Bilbora jun ziñien?
- Isabel: Gu, gu jun giñen; hau, ez. Gu.

- Feli: Bueno…
- Isabel: Zu ez. Zu segiduen Karrantzara.
- Feli: Bai, baiña Bilbotik paseu biher izen geñun.
- Isabel: Hombre, klaro! Nundik jungo hintzenan, ba?
- […] estaziñue-ta.

### 1.23. Begoñatik Gernikako erasoen berri

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/018
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:26:33. **Bukatu**: 00:27:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Bonbardaketa ostean, Isabelen etxekoak Begoñako (Bilbo) senitarteko batzuengana joan ziren. Handik ikusi zituzten Gernika bonbardatzera joan ziren aireplanoak eta ondorengo sugarrak.

**Transkripzioa**
- Aber, zuek Bilbora juen ziñen orduen, zuen senitarteko batzuen etxera?
- Isabel: Bai. Ez dakizu zelan euken izena? Ai zelan zan? Lehengusue, ha Begoñakue? Jose, ai, ez naz oin…
- Feli: Badakit, famelidxakuen bat eon zana, han Begoñan.
- Isabel: Bai, lehengusue. Bai eta gu, hara juen giñen. Jose… Zelan euken izena? Bueno…
- Begoñara, ezta?
- Isabel: Bai, gu geu Begoñara.
- Feli: Gu, ganauekin…
- Isabel: Gu behidxekaz Begoñara. Harek eukien baserri-etxie. Behidxek euki abiezen eta hara juen giñien. Ta gero han, handik ikusi geñun guk, Ba zelan da? Ibilli zien. Bonbardeau abienien Gernika? Gu holan zanga zulo baten, zan pasue ta han holan ure pasetan zan ta han azpidxen egon giñien. Ta han ure ta handik, ikusten zan: “ri-ri-ri”, zelan bajatzen zien, zerak. Zelan da?
- Feli: Aeroplanuek.
- Isabel: Aeroplanuek Gernikarako. Ta gero gaba izen zanien ya, ikusten zan holan, gauze gorri bat. Esan zenkien sue dala. Eta esan abien Gernika dauela suten.

### 1.24. Hainbat eta hainbat durangar elkarrekin errefuxiatuta

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/019
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:27:36. **Bukatu**: 00:31:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Bonbardaketa ostean, Feli eta Isabel bakoitza bere etxekoekin joan zen Begoñara eta Karrantzara. Karrantzan batu ziren gerora denak. Hainbat eta hainbat durangar egon ziren elkarrekin bertan. Egunkarietako paperak erretzen zituzten. Urez betetako balde handi batean sartzen ziren denak. Ebakuatuta zeudela, ez zuten goserik izan.

**Transkripzioa**

- Eta gero zelan alkartu ziñien?
- Isabel: Jakin geñulako nun dauezen honek. Guk jakin geñun nun dauzen.
- Ta zelan jakin zenduen ba?
- Isabel: Hoidxe bai ez dakittela. Beittu Josan, gureñe denporetan ni egoten naz pentsetan, zelan, zelan da? Nire amak eta aittek jakin abien ze jun giñien Begoñatik furgoneta baten, ama ta ni trastuekaz. Ta aitte juen zan trenez behidxegaz.
- Zuek be behi bat eruen zenduen?
- Isabel: Klaro baiña ha trenez behidxegaz ta ama ta ni, furgoneta baten geure katxarro zaharrokaz.
- Karrantzan nogaz alkartu ziñien orduen?
- Isabel: Ba jakin giñun nora juen ta haraxaiño juen giñen. Honek eon zien lekuraiño. Ta gero gure atzien, Matilde-ta etorri zan; ze gu joaten giñen lekure, Matilde be ensegida eon zan. Begoñan eon zan.
- Matilde zan, Matilde Zabarte, ezta?
- Isabel: Klaro. Isabeltxun-ta ama. Ha, jun zan Ba Jesusagaz; koiñetie zan, Javi hil zanagaz ta Maria Jesus juen zien.
- Maria Jesus be, Zabarte, ezta?
- Isabel: Klaro, bai.
- Jesusan apellidue badakizu?
- Isabel: Jesusana? Gerenabarrena.
- Nortzuk gehiago jun ziñien han Karrantzara?
- Feli: Larogeta hamar lagun eon giñien- ta. Nire oingo gizona dana.
- Orduen, Urretatarrak?
- Urretatra danak, bai. Bizenta, Kaiko Angel “eran novios con Vicenta”. Eta San Andresko harek mutil zaharrak.
- Isabel: Ez dakik, zelan da? Araneko Segunda, zelan eon zan Pedro Haundiaz ezkondute? Harek bidxek: Remigio ta Pedro. Mutil zaharrak zien orduen. Harek be bai. Ez dakit nundik harek agertu zien.
- Feli: Harek bazkaitten abien, honek koillara normalak eukitten geñuzen. Baiña harek, zerekuek, palodunek.
- Zurezkue?
- Isabel: Zurezkuekaz. Ez naiz hori, akordetan ni.
- Feli: Goserik ez giñun paseu. “Arroz con leche”, azukrerik ez euen ta limoie botata “hasta hinchar”. Arroz kon letxie jaten giñun.
- Eta okerkeridxek be eingo zenduezen zuek bidxek?
- Isabel: Feli, zenbat fumeu geñun, periodiko papela ipiñitte?
- Feli: Ta txori harrapetan. Mutillek ez oskuen ixten euren ondora jueten.
- Isabel: Baiña gu juen. Neska pillo bat ganien ta bueno. Zenbat burruka, Feli? Papela, periodikue hartu ta batu-batu eindde fumetan.
- Feli: Honei arrimetan itxi bez, ta oin beittu, gizona.
- Klaro, ume pilla bat egongo ziñien?
- Feli: Ba klaro. Gu lau ta hau bost.

- Isabel: Ta bestiek? Bueno, zerak be, eon zien.
- Feli: Apin-ta be eurek kuadrillie zien. Aber Mari-t, Bizenta ta.
- isabel: Kaiku, ama ta neska bat zan, ezta han egon ziena? Kaikun ama ta zelan eken izena? Neska bat.
- Feli: Eske hainbeste lagun egon giñien.
- Isabel: Eta zeranak be eon zien: Lejarretak be eon zien. Lajarreta? Klaro, “Lejarretas”.
- Feli: Ta zan saloi haundi bat lo eitten geñun lekue.
- Isabel: Bai, dana koltxoie.
- Feli: Ta ipintten abien han, balde haundi bat. Antiguamente, ez dakizu zelan izerak lejiai ipintten otsien? Halakoxe balde baten. Ta ume guztidxek hantxe txize eitten. Bixamonien hartu ta landara.
- Isabel: Landara, “Abono”.
-Feli: Klaro, hori akordeten naz. Ilusiñue zer eukitten giñun danok ganien txize eitteko. Erropak, lejiatan ipintten zan baldie, antiguamente, harek haundidxek? Halakoxe bat ipintten abien. Baiña jan, goserik sekule be ez; ze hemendik be, txarridxek hildde, jenerue. “Por ejemplo” txorizuek eta solomue eta hori dana, oridxo artien sartute, potietan. Jan ondo eitten geñun.

### 1.25. Karrantzako jendeagaz harremanik ez

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/020
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:31:32. **Bukatu**: 00:32:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Karrantzan ebakuatuta zeudela, ez zuten harreman askorik izan bertako jendearekin. ez zieten ezer saltzen eta inoiz patatak ere ostu zituzten. Torrelavegara joaten ziren errazionamendu bila.

**Transkripzioa**
- Ta karrantzako jentie, zelan konpontzen zan zuekaz?
- Isabel: Ez zien bape be amabliek. Hango goikuek bai hasi zien azkenien etorten zan. Ez dakiZu harek neskak-eta?
- Feli: Nora jueten giñien mezie entzuten?
- Isabel: Bai. Potrero edo Pando zelan dan? Ez dakit zer zan.
- Feli: Guk euki giñun lekuai Potrero de Pando esaten otsien. Guk euki giñun lekutik hara goratxuau, elizatxu bat eoten zan. Ta haraxe mezie entzuten. Formal danok.
- Isabel: Ta zelan da? Handik gero hasi zien neskak-eta etorten. Ez zara gogoratzen, Feli?
- Feli: Lelengotaz jun giñenien, ba danak han eon giñen, “separatistas rojos”.
- Isabel: Zu, Matildek, Javi Aureliana, oso txarto eon zan. Ez zara konturatzen, Aurelia ta Javi zelan eon zan txarto. Iñok be, ez oskun sartzen ezebez: ez patatarik eta ezebez. Pentsau bez! Ta harek zer eitten aban? Ez zara gogoratzen? Hartu atxurre ta poltsa bat, ta patata osten, jueten zan

mutikuentzako. Ze beti eoten zan patatie ta ez patatie. Ta gixajue beti beheruzkuegaz. Ta iñok be ez aban saltzen. Ta zure ama ta Matilde juten zien astuegaz, zera, erraziñue hartzen zerera, Torrelavegara. Ni be bai juenda nau. Kolan ipini ta emoten oskun erraziñue.

### 1.26. Karrantzan beste bonbardaketa bat

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/021
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:32:40. **Bukatu**: 00:34:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Karrantzan ebakuatuta zeudela, bonbardaketa hasi eta Torrelavegara joan behar izan zuten. Hurre-hurretik ikusi zuten erasoa, beraien aurrean astoa hil zuten.

**Transkripzioa**
- Eta Karrantzatik Torrelavegara zegaittik jun ziñien?
- Isabel: Hombre, ba ya esan oskuen urtetako ze, hasi zien bonbardeetan.
- Feli: Bonbardietan.
- Isabel: Zelan ademas, hasi zien! Puf! Buenooo!
- Torrelavegan be?
- Feli: Karranzan bai. Eta Torrelavegan? Ez gaittien bertan geldittu “porque dios no quiso”.
- Ze pase jatzuen ba?
- Isabel: Bertan
- Feli: Bertan bonbak.
- Isabel: Hombre Ba bertan bonbak. Bertan. Izen zan ya iñun bez…
- Feli: Okalipttu artien, baju-baju etorten zien ta guk zelako errefujixue eindde? Koltxoiekin. Lanazko koltxoiekin.
- Isabel: Zelan da? Nik Durangon ta Karrantzan ez dot ikusi halako hain hurrien bonbardeue. Ha, izen zan…
- Feli: Astuek be kontuek atera errementau egin abien-ta. Bai, bai.
- Isabel: Zenbat […], metrailla batek edo zerk? Holantxeik geure aurrien jausi zan, hemendik eta haren zerera.
- Feli: Astue hantxe garbittu zan. Eta errefujidxo bi euki giñuzen: bata etxien ondokue ta beste bat han beheien.
- Isabel: Hango behekue. Han behien egon gintzezan Feli, ez zara gogoratzen? Han behien, ama-ta. Zure ama ez. Ta Matilde ta horrek, nire aitte- ta goidxen eon zien. Baiña gu behien eon giñen ta Matilde etorri zan. Ez zara gogoratzen, zelan etorri zan? “Urten zeinkiez ze, ze ya sartu diez”. Ta han etxe kontra ez dakizu zenbat eskopeta edo fusillek-edo?
- Feli: Egun baten, ze kantidade soldau paseu zan!
- Isabel: Bai. Ene!
- Feli: “Zelan zauzie hamen, ez zaittue garbittu-ta?”, esaten oskuezan.
- Isabel: Ta itxi abezen fusilek edo gure dozune /guzune/ esan, holan etxe kontra. Ez dakizu? Pillo bat ta nor paseu ote zan, eta iñok be ez abiezela ikusi. Klaro, bonbetan egon zienien, harek bestiek barruen eongo zien

goikuek be. Gu behien.
- Feli: Asko.

### 1.27. Aita kartzelatik irten eta salatariaren ezkutuan bizi izan zen

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/022
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:34:21. **Bukatu**: 00:37:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Torrelavegan ebakuatuta egon ostean, etxera bueltatu ziren. Tarte horretan, Feliren amama beraien etxean egon zen bizitzen milizianoekin batera, etxea errekisa ez ziezaieten. Bere aita "separatista rojo" izatearren kartzelaratu zuten. Bertako baserriko batekoa zen bertan agintzen zuena, eta hark eroan zuen kartzelara. Urtebetez egon zen Karmeloko kartzelan (Bilbo). Ama sarritan joaten zen jatekoagaz espetxera. Abokatua 3.000 pezeta kostatu zitzaien. Kartzelatik irten eta Olabeagan egon zen hiru urtez izeko baten etxean, herrira bueltatu barik, saltariak ikus ez zezan.

**Transkripzioa**
- Eta gero Torrelavegatik?
- Isabel: Etxera kamioi baten danok. Bueno gu.
- Feli: Oromiñoko amama ze orduen etxiek errekisau eitten abiezan. Eta Oromiñoko amama etorri zan ta gure etxie, soldauz beteta eon zan. Baiña bera soldauekin bizi izen zan Buztintzan, etxie errekisau ez deidxien; ezpabe, kenduko oskuen etor giñenien ya. Ta handik etorri eta esaten abien ba zelan aitte kartzela eruango dabien. Eta praka laburrekin etorri ein zan, aitten eske eskopeta haundi batekin. Hil zan. Zelan esaten eosien, karterue edo zelan zan ha? Gazterik hil zan ha, aiuntamentuen biherra eitten abena. Otxandidxoko batekin ezkondu zan. Bizi de bera andrie. Karterue edo zelan esaten otsien, aiuntamentuen biherra eitten abena?
- Isabel: Ta nun bizi de oin andrie? Badakizu bizi den?
- Feli: Badakit Durengon bizi dana, baiña.
- Bueno, ta joan zan etxera ta zer? Joan zan Buztintzara-ta?
- Feli: Ba aitte detenidute kartzelara, haretxek eruan aben.
- Ta ze akusaziño euki eban zure aittek?
- Feli: Kartzelara juteko? “Separatista rojo”. Bakizu zer paseten dan? Otxorpoenekuek orduen zien nausidxenak hor. Ta harek ez abien hortik urten. Harek han geldittu zien. Hagaittik, hamen Momotxoko etxien egon zan erropa zuridxe ta esaten abien eurek ekarri abiezela danak, Otxarponera, egon zan jenerue. Lapurreta hutse. Kamaran eon zien artuek eta danak. Orduen Otxarponekoue zan neusi hor. Zelan euken izena?
- Eta orduen aitte hori, nazionalista ta gorridxe zala ta…?
- Feli: “Separatista rojo”, besterik ez euken. Iñor ez aben hil.
- Zenbat denpora ein aban kartzelan?
- Feli: Urtebete, bai.
- Nun eon zan kartzelan?

- Feli: Bilbon zerien, Karmelon.
- Ta joaten ziñien bisittetan?
- Feli: Ez, gu txikidxek giñen.
- Ama ez?
- Feli: Ama bai! Ama jenerue, jatekue gañera, sarri. Etxien Ba babie eoten zan ta “arroz con leche” ta berentzako eta beste batzuentzako, ezeunek eon zien erregular. Hori akordeten naz. Ta gero lehen esan dotsuan moduen, ba kartzelatik atarateko, ze gure aitte ya eon zan burue be, galdute, abogau bat hartu zan. Eta harek abogauek hiru mille pezeta kobrau abezen orduko denporan eta denunziantie, zelan eon zan etxien onduen, haren isillidxen atara abien kartzelatik. Denuntziantiek pentsatzen aben, nire aitte kartzelan dauela ta eon zan Olabiagan. Amen, amen tia baten etxien.
- Hiru urtetan?
- Feli: Hiru urtien, bai.
- Eta zuen etxera etorten zan lantzien behin?
- Feli: Bai, bai, umiek eta andrie ikusten etorten zan. Trenez etorten zan. Gabez etorriko zan. Sartzen zan etxien ta baten batek, atie joten abenien, ba ezkatzien eoten zan bentanie, ganauei jaten emoteko bedarra. Ta atie joten abenien, handidxeik bentanatik kortara jueten zan. Ta gu txikitxuek eta: “Aitte, Fulano da ta etorri” ta ba hantxe. Halantxeik denporie, hiru urtien halantxeik paseu zen.

### 1.28. Beste familia bat bizi zen beraien etxean

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/023
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:37:53. **Bukatu**: 00:39:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Isabelen etxekoak Torrelavegatik bueltatu zirenean gerraostean, beste familia bat topatu zuten etxean, etxea erre zitzaielako haiei. Ez zuten inongo arazorik izan ez zieten ezer kendu-eta.

**Transkripzioa**
- Ta zuek bueltatu ziñien etxera Torrelavegatik, problemaren bat euki zenduen etxien?
- Isabel: Ez. Egon zuazen Teresa ta Fermiña Satorretxekue, etxie erre otsielako. Oseake, gure etxie izen zan erretako ta zeretik, zelan da? Hortik Oiztik erregular ez zan ikusten gure etxie. Ikusten zan Satorretxe ta pentsatzen abien ha zala, egon zielako horrek obusek-edo. Hori kontaten abien ba eurek kontau otsiela, Teresak-eta, fraillie.
- Zelan euken apellidue Teresa horrek-eta? Edo Satorrotzenekuek ezango […]?
- Isabel: Bai. Salegi, bai Fermina Salegi. Harek eon zien ta keba. Harek guri solotik patatak atara ta kamaran, kipulak eta dana. Gorde ein oskuzuen danak. Ta Matilderi te horreri, makatzak batu ta saltzen dotsienari Matildek-eta makatzak ta horrek saldu otsiezen ta ez dotsien kobrau. Eurek

datozenien pagau dotsiela. “Petra Bolo” edo esaten otsien hareri.
- Ta horregaittiik zuek, ondo?
- Isabel: Bai, guri ez oskuen kendu ezebez. Fermiñak-eta esaten abien, juten zala jentie, baiña.
- Eurek euezen-eta.
- Feli: Klaro, errespetau.
- Isabel: Ta gero Aureliak, Matilden arrebiek, edo oi arrebiek, aiztak, ba euki aban ezkondute hori, zelan da? Aurelia ba Durangoko bategaz. Baia harek gizonak euki ebazan parientiek Bittoridxan. Ta ha zan zeozer kapittana edo ez dakit zer zan. Ta etorten zan aste guztietan, segun Ferminak-eta Durangora, Aurelian etxie itxitte, ze beti topeten aban zabaldute ta lapurretan eindde. Ta etorten ei zan ta bueno. Zabarterena be jueten ei zan esaten: “ojo, que no falte nada”.

### 1.29. Emakumeak herria garbitzera behartu

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/025
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:40:05. **Bukatu**: 00:41:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Feliren aita kartzelan zegoela, bere ama gurdiarekin eta ganaduarekin Durangoko hondakinak batzera behartu zuten.

**Transkripzioa**
- Feli: Eske obligau eitten abien orduen. Obligau eitten abien, hartu behidxek, buztertu eta Durungoko kalietan eskonbruek kentzen. Eta gero frantsesetan emoten otsien milizianuen moduen jana. Han jaten abien. Behidxek han eongo zien, ez daitz ba zer jaten abien behidxek. Honenbeste ordu.
- Gizonak kartzelan euki eta bera?
- Feli: Bera? Behidxekin eskonbroak kentzen kalietan Durangon.
- […] eroan abien, ezta?
- Feli: Bai, bai.
- Seguruena Durangoko jentiek ez dakidxen gauza bat, ezta?
- Isabel: Batzuk jakingo dabe.
- Feli: Hor frantsesetan eon zien soldauek ta eukitten abien holango aparatotxu bat hantxe egoteko. Ze bai luzero eon zien; ze gu San Franziskure juaten giñien eskolara gero Maribi ta bidxok joaten giñien handik ta auki abien kaseta moduko bat eta beti eoten zan hantxe sartute soldau bat. Ta ama-ta luzero. Zuen amatari-ta ez otsien obligetan?

### 1.30. 1.200 pezetako isuna garia ez entregatzeagatik

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: DUR-032/026
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:41:08. **Bukatu**: 00:42:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Garia, patata, baba... udaletxera entregatu behar izaten zuten. Sarritan ez zuten etxerako beste izaten; hala ere, entregatu behar izaten zen. Behin, ez zuten garia eroan ez zutelako, eta 1200 pezetako isuna ordaindu behar izan zuten Bilbon. Ogia errazionamenduan jasotzen zuten. Talo asko jaten zuten.

**Transkripzioa**
- Feli: Ta gero aitte etorri zanien be obligeten oskuen, etxerako ez bagendun hartzen be, honenbeste kilo gari, patatie, babie, dana! Eurek ipintten oskuen prezidxue. Etxien jateko ez iguel, ta danak entregau biher.
- Isabel: Aiuntamentuen.
- Feli: Aiuntamenture. Osea, geuk erosi te eruen ein biher. Ta urte baten aittek garirik hainbeste eukin ez eta honenbeste eskatu eta ez zan hartu, ta ez daitz hamar ala hamabi killo gitxiau eruen. Orduko denporan mille ta berrehun pezeta multie pagetan Bilbora juen biher izen aban. Hori akordetan naz. Orduen diru asko zan ha. Zelako disgustue etxien eon zan orduen! Hori bai. Hamabi killo edo gitxiau garidxe eruatiarren. Baia patatie, babie ta garidxe beti entregau biher. Eurek ipintten abien. Urtiek dekozuz babie asko hartzen dozune eta beste batzutan ezebez. “Honexenbeste killo Inazio”. Ogidxe, erraziñuen eoten zan Ta Tabirara joaten giñien sei lagunentzako, honakoxe ogi opillek emoten oskuen. Ta gure Inazio ogi zalie beti. Eta talue eskeiñi, ez zan faltetan, baiña ogidxen gosie beti ta nundik harrapauko ogidxe beti, Iñazio. Beti lapurretan, ogi lapurretan.
- Isabel: Ba gose haundidxe eukiko aban ha ogidxe jateko gose haundidxe e!
- Feli: Beittu, kafesnie be taluekin jaten giñun. Ni akordeten naz zelan jaten naben neuk be. Ni kafesne zalie beti izen naz eta beti,zopakin. Baiña talue botata jan biher.

### 1.31. Frantsesetan emakumeak preso

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/027
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:42:48. **Bukatu**: 00:44:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena**: Frantsesetan emakumeak egon ziren preso, horregatik egon ziren bertako militarrak. Umeak zein andreak egon ziren, asko egon ere. Bertan egondako hainbat aipatzen dituzte.

**Transkripzioa**
- Isabel: Feli, eta zu ez zara gogoratzen frantsesetan zelan eon zien andrak

preso, ala?
- Feli: Bai, bai, bai! Hagaittik harek milizianuek egongo zien han.
- Isabel: Seguramente. Ze, ni gogoratzen naz Feli.
- Feli: Andrak egoten zien han kartzelan bai.
- Isabel: Ez geñien jueten handik, ze badakizu beti eoten zan soldauen bat edo ez daitz zer zien. Ta juten giñien handik Urbillatik. Nundik juten zan gure etxetik? Nora urteten zan, Momotxora edo nora? Ez giñen bajatzen hara. Handik, gure etxetik, handik Urbillatik.
- Feli: Hurbillatik, ointxe dauen moduen bidie, zerori dauen. Handik behera bajatuko ziñien zuek etxera. Urbillatik behera. Klaro, oin kamiñue dauen moduen Momotxotik?
- Isabel: Bai.
- Feli: Ba bidie dau.
- Isabel: Klaro.
- Feli: Bai, bidie dau.
- Isabel: Ni ez nitzen, eske ez naiz gogoratzen.
- Feli: Bide txarra, baiña zuek handidxik bajatuko ziñien.
- Ta ze andra eon ziren hor preso?
- Feli: Egon zien asko. Jente asko, ze hori haundidxe da, hori haundidxe da. Hor preso asko eon zan andrak.
- Umiek be euki abiezen, ezta?
- Feli: Umiek, beti, bai, bai, bai.
- Isabel: Nik ez daitz.
- Zuek ez dekozue holan akorduik?
- Isabel: Nik ez. Nik horrena ez deket.
- Feli: Egon zienak bai. Amak hantxe jaten abiena be bai. Bueno, amak-eta San Rokeko beste batzuk joaten zien ogidxekin. Milizianuen zera emoten otsien.
- San Roketik orduen, jente asko eroan abien behidxekaz eta ididxekaz?
- Feli: Bai, Txopittenekuek eta Etxebarrikuek-eta behidxek euki abezan guztidxek.
- Isabel: Baiña ez, Otxorponekuek. Otxorpo ez juienan /etxuienan/ eruen!
- Feñi: Baiña harek kapittana…
- Isabel: Ta horrexeattik ba! Bestiek zelan zien…
- Feli: Danok harexen azpidxen bizi izen gara danok.

### 1.32. Osaba gudaria preso

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/028
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:44:28. **Bukatu**: 00:46:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Beraien osaba Pedro Langileen Batailoetan egon zen, gudari zegoela preso hartu ostean. Beraien amama ez zen izan gutunak irakurtzeko gai eta pena handia zuen.

**Transkripzioa**
- Beste pregunta bat ein biher dotsuet. Zuek, zuen zure ama eta zure aitte, neba-arrebak die, baiña beste anai edo neba bat euki abien?
- Isabel: Pedro.
- Ta Pedrok ze ein aban?
- Isabel: Ba Pedro prisioneru hartu abien ta Batallon de Trabajadoretan.
- Nun egon zan.
- Isabel: Esango dotsut nik Burgosen eon zan.
- Lehenatik gerratik hasiko gara.
- Isabel: Bai, baiña ez dakit nun eon zan. Hori, ez dakit soldau.
- Baiña bera gudaridxe izen zan, ezta?
- Isabel: Klaro. Ta San Pedro de Cardañesera-ta jo, ta nun ete dauen.
- Preso hartute gero?
- Isabel: Klaro, Batallon de Trabajadores...
- Feli: Gure amamak zemat negar eitten aben. Iñok be leiduten ez genkidxen. Gu be txikidxek; erderaz, ez eta zemat negar gure amamak! Kartak leiduten iñok bez; tiok, eskribituten abienien.
- Isabel: San Pedro de Cardiñas, Burgosen eon zan gure aiñe /guraiñe/ denporan. Ta ez daitz nun be bai. Bere amagaz bizi zan, ze gero ezkondu zan, nehiko nausi ya.
- Feli: Bai, zahar eindde. Bai, mutil zahar eindde ezkondu zan.
- Isabel: Tio Pedro.
- Feli: Nik ezeutute deket beretzako arrioa preparetan han. Zera zan, arotza.
- Isabel: Gerrie baiño ariñau hasi zunan.
- Feli: Kortan. Beretzako kuartue eitten-ta. Zelako kantak-eta ein gendun; plantaute, harexen kantak kantetan. Oin be bai kanteuko nekez. Kantaridxe zan tio ta ni beti onduen, ni be kantaridxe. Kortan eitten ebazan beren...
- Eta San Pedro de Cardeñan eon zan preso, orduen?
- Isabel: Bai. Eta beste leku baten be bai.
- Eta dirue-ta nok bialtzen otson?
- Isabel: Amamak. Nire amak, bakizu zelan jueten zan. Bere amagana jueten zan ta tio Pedrori bialtzen otson amak korreotik-ta holan.
- Zenbat denpora eon zan zuen tio ez dakizue, ezta kartzelan?
- Isabel: Ba iguel hiru urtien-edo gehidxauen eon zan.
-Feli: Luzero, luzero.
- Isabel: Luzero eon zan.
- Ta ze esaten aban gero, bueltatu zanien ze esaten aban?
- Isabel: Bai. “Con el” billurre “que tenía” bazpa barriro eroaten badabez, ezebez. Isillik.
- Feli: Ona zan gidxajue, ketotxue pixkat. Zure amak eta nire aittek, guk Iñazio espabilletan geñuan Mari eta bidxon artien. Baia gero berak berak harrapaten oskunien, ai madre! Zertzuk eitten genduzen! Puf!

### 1.33. Zer edo zer esateagatik, auzokoa kartzelara

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/030
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:48:12. **Bukatu**: 00:49:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Feliren aita kartzelan egon arren, ez zuten desberdin tratatzen. San Roke auzoan komentario batzuk egiteagatik, auzoko bat, Txopitenekoa, atxilotu egin zuten eta pare bat gau pasa zituen bertan.

**Transkripzioa**
- Isabel: Harek ba ez. Jo, zelan da? Beti ibiltten zien zeozer hartzen ta: “tan-tan-tan”, kanpaiek hasten zien. Ez zara gogoratzen? Ta jai. “Que habían cogido un pueblo y ala, todos a la calle”.
- Eta monjak, ze esaten otsuen? Iñoiz bota otsuen aurpegire ba “zure aitte kartzelan dau”-edo?
- Feli: Ez, ez, ez.
- isabel: Ez. Ni horregaz ez naz gogoratzen.
- Ta herriko jentiek?
- Feli: Herriko jentiek por ejemplo San Roken-ta bakizu: danok baten azpidxen egon giñien. Haxe zan nausidxe, bestiok isilik.
- Isabel: Baiña segi: “¿ya habéis vuelto rojos. Ahora volvéis?
- Feli: Akordetan naz: “nosotros en San Roque somos gente honrada”. Eta gu tejabanan ezkuteute neba-arrebok. Harek Txopitteneko, zelan zan, Kleta? Kartzelara sartu abien gau bat edo bi erein otsiezan Kletari.
- Isabel: Zeozergaittik.
- Feli: Kleta Txopittenekuei, harei.
- Amama.
- Isabel: Ez, tia.
- Feli: Txopitteneko Jesusen tia bat. Amen aiztie.
- […] sartuko abien kartzelara?
- Feli: Ba zeozer esan abalako.
- Isabel: Zeozer esango juan.
- Feli: Otxarponekuek etorri zien Txopittenera. Ta gu tejabanan barrutik eta aittek: “Etorri zaittie hona, ez daitz zer eta badakit zer”. Guk entzun ein gure, zer harek esaten dabien. Eurek ez oskun, gaba zan-ta. Eurek ez oskuen ikusten eta “nosotros en San Roque”, hori akordetan naz, “somos gente honrada”. Ta ez dakit gau bat ala bi, erein otsiezan karzelan Txopitteneko Kletari. Pixkat txepotxatxue zan, ez dakit ezetuko zendun, iguel. Horren akordue badeket.

### 1.34. "Agur" esateagatik salatua

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/031
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:49:49. **Bukatu**: 00:51:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerraostean, etxerantz zihoala, Durangoko Matilde Zabarteri "agur" esateagatik salatu egin zuten. Bere neba itsasontziko kapitaina zen eta salaketa kentzea lortu zuten.

**Transkripzioa**
- Beste pregunta bat be gure dot eittie. Zuekin eon zan Matilde Zabarte. Ta Matilde Zabarteri ze pasatu jakon behin Durangon, gerraostien?
- Isabel: Ba Matilde Zabarteri pasau jakon: etorri zan Durangotik etxerantza, bueno gure etxerantza. Ta han zelan da? Txaleta eon zan Roke esaten otsiena, gero Imazenak erosi abien txaleta. Ta han bizi zan Roke ta bizi zien Celia, Saratxaga ta aitte ta ama ta Mari Saratxaga. Ta harek han eon zien ba, ta: “¿ya habéis venido Matilde y no sé qué…?”, “Pues, sí.” “y”, “bueno”, “agur!”. Ta orduen ba paseu zien, pentseten dot ziela, fijo ez dakit e! Baiña Anita Soloaga ta bateroren batzuk. Ta denunziau ein abien kartzelara sartzeko. Baiña Alberto eon zan justo…
- Baiña zein zan denuntzidxe?
- Isabel: Zein zan denuntzidxe? Pues, hori ez dakit. Hori ya denuntzie ez dakit “pero sería, roja”.
- Ez, baiña “agur” esan abalako?
- Isabel: Hombre, klaro ez ba!
- Feli: Edozergaittik. Prohibidutte euki geñun euskera eittie be.
- Eta zenbat, ze denbora ein aban kartzelan?
- Isabel: Ez aban ein. Ez abien sartu, ze Alberto etorri zan etxera ta armau aban “la de Cristo”.
- Alberto zan, Matilderen neba?
- Isabel: Neba. “Capitán de barco”. Ya horrek iguel ezetuko dau semie. Bueno bai, baiña gero esango dotset nor dan. Iguel jakingo dau-ta zelan da, ha? Txulopapeo! Harek kendu otson denuntzidxe Matilderi. Egon zan lehen enbarazada Milagaz.

### 1.35. Edozergatik atxilotu

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/033
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:52:35. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Jendea edozergatik eramaten zuten kartzelara. Feliren gizonaren arrebak ere atxilotu zituzten, Iñaki Azkuna Bilboko alkatearen ama eta izekoa.

**Transkripzioa**
- Isabel: Badakizu zer pasetan zan orduen? Zeozergaittik ein biher banien berba “a ti te mandaban a freir moñuelos, ¡fuera!”.
- Feli: Kartzelara nire koiñetie, Bidxenta ta Mari-ta sartu abiezan.
- Isabel: Mari bai.
- Feli: Nire gizonan arrebak, Mari ta Bidxenta.
- Isabel: Bidxenta ez. A nik Bidxenta ez dot jakin. Mari, bai.
- Feli: Bai, bai. Bai, ez dakit nik zegaittik.
- Isabel: Ba beittizu han errekan, nik ez dakit ze erreka dauen, lantxa baten edo ibiltten ei zien Mari-ta.
- Feli: A bai!
- Errekamunan?

- Feli: Bai. Salabarrin.
- Isabel: Ta nik ez dakit zer pasau zala.
- Feli: Neskak eta mutillek ibiltten zien ta hantxe zeozer, berba ein abiela edo ez dakit zer ta euren kuadrillan bat egon ta harek alkaueteu ta eroan abiezan karzelara.
- Isabel: Karzelara. Ta Mari gure aiñe /guriñe/ denporan eon zan.
- Feli: Bai egun bat edo bi bai.
- Isabel: Bai, gau bat edo bi bai, gehidxau! Berak esaten aban “que se había cansao de repasar las ropas a la mujer del éste. ¿Cómo se llama, del carcelero?” Sánchez edo zelan zan? Sanchez edo.
- Feli: Durengon, Durengoko karzelan.
- Klaro, Mari ta Bidxenta diez.
- Feli: Aiztak.
- Aiztak die ta gaur egungo Bilboko alkatien…
- Isabel: Bata ama ta bestie izeko.
- Feli: hori, hori: bata ama eta bestie izeko.
- Isabel: Bidxenta ama eta Mari izeko.
- Kartzelan egon zien orduen?
- Isabel: Nik Bidxenta ez dot jakin, Mari bai.
- Feli: Bai, bai. Joxefiña gaztiau zan ta harek bidxek bai.
- Isabel: Joxefiñaz beittu zemat burruka-ta?
- Feli: Zelako rarue Apiñek hori ez kontetie! Igul akorde bez-edo.

### 1.36. Euskal izenak erdaldundu

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/035
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:55:03. **Bukatu**: 00:55:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Euskarazko izenak zituztenei aldatu arazo egiten zieten, "Jaione" izanez gero "Natividad"

**Transkripzioa**
- Feli: Ez, ez. Euskerie konpletamente prohibidute.
- Ta izenak-eta be?
- Isabel: Bueno!
- Feli: Bueno orduko denporan umiei ez ipiñi euskeraz izenik. Ez abien izten.
- Isabel: Orduko denporan?
- Euskerazko izenak eukiezenak lehendik?
- Isabel: Kendu, kendu asko be bai.
- Esaterako?
- Isabel: Bai. Feli, idxenak euki ebezenak, askok kenduarazo ein otsien.
- Feli: Hori eon zan prohibidute, konpletamente. Euskerie? Puf!
- Isabel: Nik badakit nok euki aben izena ez noa /enu/ esaten! Natividad. Ta bueno ez, zelan da? Jaione. Ta prohibitu ein otsien hori karmelittetan eon zanien. Karmelittak ez baiña hantxe ta gero Natividad.

### 1.37. Baserrian goserik ez

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/037
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:56:46. **Bukatu**: 00:57:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Ez zuten goserik pasatu gerraostean. Isabelek umea izan berri zuela, 1951. urtean, errazionamenduko txartel berezia zuen, besteek baino gauza gehiago hartzeko eskubidearekin. Hala ere, baserrian ez zuten goserik izan, beti zegoen zen jan-eta.

**Transkripzioa**
- Beste holako historiaren bat, gosie pasatzen zenduen edo ez zenduen goserik pasatzen?
- Isabel: Hombre! Beittizu zu jaixo ziñenien be, nik euki neban “cartilla de madre gestante, del doble de las cosas”. Asiske, beittu.
- Berrogaita hamaikagarrenien?
- Feli: Ez, goseik ez giñun pasa, erraziñue.
- Isabel: Ez, guk ez. Guk, ez giñun pasau goserik ze, bakizu.
- Zuek baserritarrak ziñelako?
- Isabel: Klaro baiña jente asko txarto.
- Kaletarrak txarto pasauko abien.
- Feli: Ta eitten gendun biherra klaro ba entregetako. Baiña baserridxen beste gauza batzuk be egoten die: edo txarridxek hil edo...; ba txahalak hiltten bazien be, etxien hiltzen zan txahala, okelie ez zan faltetan; esnie beti... Baiña zemat bider patatie-ta ba erosi ein biher izeten geñun, entregeu ein biher izeten zan-ta. Urtien patatie asko biher da /bida/.

### 1.38. 'Cara al Sol' abestu behar

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/040
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:01:12. **Bukatu**: 01:03:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Gerraostean eskolara sartu orduko eta irteterakoan Cara al Sol abestu behar izaten zuten, mojen ikastetxean ere bai. Beste askorik ere derrigortu zieten horrelakoak egitera. Feliren ikastetxean, San Frantziskon, mojek ere abesten zuten; Isabelenean, karmeldarretan, ostera, ez.

**Transkripzioa**
- Bueno, eta gerraostetik ya orduen eskolan noz arte ibili ziñien edo zenbat urte euki arte gitxi gorabehera?
- Isabel: Nik ez dakit. Nik pentseten dot.Ta beti eskolara sartzen giñenien, lehenengo orduen “cantar el 'Cara el Sol'”. Ta urteten geñunien be bai.
- Monjetan be bai?
- Isabel: Ez ba!
- Feli: Honantxeik eskue ipiñitte. Mari Tere Bidarte ez. Mari Tere aitte Mendizabalenien...
- Isabel: Bai, hori da.
- Feli: Mari Tere, zelan da? Zelan da apillidue?
- Isabel: Hori Bidarte ez?
- Feli: Bidarte beste bat da. Bizi da ta neudxi harexek eitten aben. Ta harek honan eitten oskun: “Cara al Sol con la camisa nueva”, ta gu artez honentxeik umiek. Ha neusi ta honan einten oskun eta guk honan. Bakizu.
- Kontuz ibili. Pagau ein biher dala kantatzearren?
- Feli: Bakizu Apineri-ta zer ein otsien? Bar Rincón-ien kafie hartzen eon zien eta hor Avenidan bat hil ein abien.
- Isabel: A bai. Ez dakizu nor? Ez dakizu boxeadora, han bizi zana, beste etxien? Zelan euken izena? Nati zala andrie pentseten dot.
- Feli: Bueno, bat hil ein abien. Eta harek jokuen eon zien atien onduen, San Rokekue- ta. Sartu zien hor hiru-lau hasi zien taberna guztidxe apurtzen ta Domingo ta Apin ta Juan San Rokekue-ta basarrittarrak eskuek holantxeik altxau ta 'Cara al Sol' kantetan ez ekixien, baiña billurrekin ahue zabaldu-ta “ñaña”, entzungo balekidxu Apinek esaten, zemat barre! Barre, baiña pasau ein ei zabien erregular ta Marik tabernie eunki aben orduen. Ta ariñeketan abidxetan Mariri, Salabarrire tabernie itxi didxen. Dana apurtu abien telebisiñue ta inguru guztidxe, dana kristela, dana zera, ene!
- Ni gaztie nitzen orduen.
- Isabel: Bai, klaro. Bakizu zemat urte dizen, ala?
- Feli: Bai. 'Cara al Sol' kanta arazo otsien /arazotsen/ ta ez zekidxen kantetan, baiña ahue zabaltzen ei zabien. Bestiek ezkiña guztidxek apurtzen eta eurek holan.
- Ta monjak eurek be kantatzen abien 'Cara al Sol'a ala?
- Isabel: Ez, guriek ez.
- Feli: Bai bai. Beti eoten zan mojaren bat han ta horrek Mari Terek holan eitten oskun ta gu honan.
- Isabel: Karmelitetan ez. Ta gero hortik Oruenetik karmelitetara karmelitetak juen zien zerera. Zelan da? Murzianuenera. Ta gero Murzianutik, oin dana “el hotel Kuruziaga”. Harek, dauko holan aurrien, ba zer bat, zelan da? terraza bat. Ta hantxe kantetan geñun.
- Ta amama Buztintzakue...
- Hotel Kuruziaga apurtu ein zan gerran bonbardeuekin?
- Ez. Apurtu bazan be gitxi e!

### 1.39. Estraperlo ugari

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/043
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 01:06:58. **Bukatu**: 01:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Frontoi ondoan estraperloko kamioi bat erre zen eta bertako gidaria ere bertan erre zen. Gauza gehienak estraperloan ekartzen zituzten. San Roke egun batean, olio-botila 20 ogerleko ordaindu zituzten. Felik andre batek baba faxa azpian Barakaldora eramaten zuela kontatzen du. Errotan ere estraperloan aritzen ziren.

**Transkripzioa**
- Zuek gerraostien, ezagutu zenduen estraperlo kontue?
- Isabel: Jesus! Zelan da? Gogoratzen zara zu Feli, han, zelan da? Frontoien zelan erre zan zer bat, kamioi bat ta barruen?
- Izurtzako frontoien?
- Isabel: Izurtzako frontoien ez. Durangon. Bai ez dakit ze lekuten ha zozer.
- Feli: Estraperlue, bueno.
- Isabel: Izurtzan badakik nor ibiltten zan estraperluen, ezta? Bueno, ba horrek. Ta badakizu lehen egon gariena esaten, Begoñako hori parientien seme bat, etorri zan han kamioien. Ta harek eskapau ein aban, ahal izen aban ta [...] ta gure etxera etorri zen.
- Erre ein zan, pertsona bat hil ein zan, estraperluen ebillen kamioien.
- Isabel: Bai. Berie ez zan estraperlue baiña hemen etorri zan ha. Hemengo estraperlistak “se limpiaron las manos”.
- Ta itxi abien erretzen gizona?
- Isabel: Hombre!
- Lagundu biherrien, itxi eben errretzen?
- Isabel: Ez dakit zer paseu zan, baiña erre ein zan.
- Baiña ze ekarten aban ba estraperloan?
- Feli: Oridxue ta holako gauzak estraperlu hutse, azukerie-ta. San Roke egunien, por ejenplo geure egune izeten zan, San Roke egune. Ba orduen hogei ogerleko pageute gauz kilo oridxue.
- Isabel: Bai. Kuartillo “y medio”ko boteillie.
- Feli: Hogei ogerleko pageute gauz. Egongo zan dirue [...] diñot, ze ezpabe sebue, txarridxek hiltten zien bi beti. Koipiekin, harexekin jana. Oridxue-ta nok?
- Isabel: Oridxue? Porru patatari, kollara bete bota ta bi atara. Kuartillo t ´erdiko boteillie, aber? Zer? Hogei ogerleko orduko denporetan!
- Feli: Ta azukerie be, dana estraperluen. Estraperlo hutse.
- Isabel: Arroza ta dana. Ardauaz ez naz gogoratzen, baiña arroza ta dana.
- Feli: Ardau barik pasau leike, baiña beste gauzak ez. Ta Bilbotik etorten zan gure amen lehengusu bat. Kontuek etara, guk babie eukitten gendun ta bueno. Harek orduen, talue ta esnie etorri gurera-ta. Ama klaro, Erandidxon hazitte dau. Hiru urtekin, aitte barik geldittu zan ta tia batek, beren alabiekin hazi aben, Loli. Tratu haundidxe deku oin be. Ba arkalekin hazi zien. Ta horren tio bat etorten zan, Pablo euken izena, amen lehengusu karnala, faja baten moduen eindde ezta gorputzien? Gabardiñie. Ta hor fajan ba tira batzuk honan eindde, nik ez dakit. Akordetan naz, ezta? Tirak. tirak eindde. Ta hamen tiran barruen, ba babie ahal dabena eruen. Ta ipintten aben gabardiñie ta jueten zan.
- Isabel: Potolo- potolo.
- Feli: Bai. Ba jueten zan zerera, trenien. Boltsak holan eindde. Ta gorputzien barruen sartute ta honantxeik. Sartu babie ta jueten zan Barakaldora. Estraperlo hutse. Egoten zana beti halantxeik.
- Isabel: Ta zer? Juaten giñien errotara Imazenera, eruen eziñik zorrue. Ta bueltan?
- Feli: Bueno, bueno!

### 1.40. Imazen errota zabalik zegoen bakarrik

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: DUR-032/045
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:11:30. **Bukatu**: 01:13:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Imazeko errota izan zen zabalik zegoen bakarra, beste denak prezintatu egin zituzten. Maumako (Ibarruri-Muxika) Oxinbaltzako errotara ere joaten ziren irin bila.

**Transkripzioa**
- Eta Imazeko errotie esan dozue, eta beste iñungo errotara ez ziñen joaten?
- Isabel: Eske danak itxitte egoten zien izen ezik estraperluen.
- Feli: Estraperluen gurien juenda dauz nire nebie hil zana zerera, Maumara.
- Isabel: Bai, Mauman eitten abien.
- Feli: Artuekin.
- Oxinbaltzan-edo?
- Feli: Oxinbaltzara juenda dau astuekin. Oromiñoko tiok lagun ein ta talue ta esnie jan biher bagenun, gabez biejie. Gabez iñok ezin ikusi.
- Isabel: Eske horrek eukitten aban.
- Feli: Horrek errotok eitten abien gure abiena. Honek diñuena: eroan holakoxe zorrue ta honakue.
- Isabel: Hori Imazenak e!.
- Feli: Harek be bai.
- Kontau apur bat Imazena.
- Isabel: Zer kontauko dogu? Zelan zien?
- Bai.
- Isabel: Bueno ba ze esango dotsut?
- Feli: Kola itzelak egoten zien.
- Isabel: Hori konpontzen zan, zelan zan? Don Fernando ez dakit zelan zan. Ez dakit zer zan.
- Militar haundi bat.
- Feli: Militar haundi bat.
- Isabel: Militar haundi bat. Hareaz konpontzen zan ta horrek beti eukitten aban itxitte. Zabalik, Jesus! Bestiek itxi ta harek zabaldu.
- Feli: Hortxe egoten zan, ogidxe emoten oskune estraperluen, hortxe kolan. Ta gero Gabon Zahar egun baten [...] hartu ebela-edo.
- Isabel: Bueno, izengo zan gure dana, baiña Rosario oso majie zan. “Ladrona hasta allí sería pero va, de todo había”. Bai, ze biherra be astuen moduen eitten aban. Etorten jakienien kamioie, zelan da, zakuekaz, urunegaz-ta? Hartu lepuen ta erueten abazan beste batzuen moduen.

## 2. Aisia

### 2.1. Tabira zinemako sarrera 3 txakur txiki

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/003
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:02:21. **Bukatu**: 00:03:31

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
  Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Bere izeko aurreko Domu Santu egunean hil zen 94 urte zituela. Izekorekin Tabirako zinemara joaten zen. Hiru txakur txiki balio zuen sarrerak 1933-1934an. Gaur egun justizia-jauregia dagoen tokian zegoen zinema; alboan, "el metro" taberna eta "Siglo XX" kafetegia zeuden.

**Transkripzioa**
- Tia ointxe hil zan, ointxe Domu Santu Egunien hil zan.
- Zure tia?
- Tia. Larogeta hamalau urtegaz, azkenengo tia eukin dotena haidxe izen da. Haregaz bajatzen nitzen ni Durungora, umetan, ni gaztie ni bederatzi urte gaztiaue ha baiño, ta ni karabiñeru moduen ha nobidxun bille-edo Durungora, ta ziñera "Cine Tabira" zan, hiru txiki kostetan zan orduen denporan, "treinta y tres-treinta y cuatru"en zan hau. Bai.
- Zer zan Durango partien egon za ziñe bakarra?
- Bai, oin juzgaue dauen tokidxen, hantxe egon zan ziñie. Han kantoien egon zan "Bar El metro", hori da "Bar El metro", ta juzgauen "Foto German"erantza egon zan kanto-kantoien "Foto German" ta bidxen bittartien "El siglo XX" kafeteridxe. Harek danak botata dauz, oin dauen juzgaue tokidxe.
- Ezkurdixen.
- Bai.

### 2.2. San Juanetako abestia

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/043
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 01:02:15. **Bukatu**: 01:02:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Juan bezperan suaren inguruan dantzan eta saltoka zebiltzala abesten zuten abestia kantatzen du. Etxe bakoitzak bere sua egiten zuen.

**Transkripzioa**
"San Juan, San Juan
arraultza bi kolkuan,
beste bi altzuan.
Sorgiñek eta lapurrek erre erre,
Biba San Juan!"
-Hori sue ein, amak-eta erakutsi oskuen, ta beren ganetik salto ein ta. San Juanen bezperan horidxe kantuori eitten oskuen, hemen fogatak oin eitten

dizenak? Horidxe, San Juan San Juan.
- Etxe ostien eitten zenduen?
- Kanpuen, ortuen, ortuen.
- Baia Tabirako jentie alkartuta?
- Etxekuek, etxe bakotzien eitten zan fogatie bakarra, [...] seridxue egoten zan.

### 2.3. Kixmi taberna

- **Hizlaria(k)**: Ereñaga Onaindia, Bego
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-026/019
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:31:55. **Bukatu**: 00:33:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Kixmi tabernaren izena bere semeak aukeratu zuen euskal mitologiatik.

**Transkripzioa**
- Zelan ba "Kixmi", nundik hori izena ba?
- Ba nire semie da, gustetan jako horrek izen ba Aitor-ta honen moduen, ta Kixmi da, Aitor zan "el padre de los vascos", ta Kixmi ei zan granujatxu bat. Bai, "de la mitologia vasca", "de la mitologia vasca". Ta txarto deku ipinitte baia da "Kix" ta gero "Mi" baia bueno, ez gendun jakin hainbeste ta "Kixmi" segiduen dau ipiñitte, baia gero etor jaten niri egun baten giputz bat ta giputzek gehidxau dakidxe gu baiño, ta harek esan osten: "¡teneis mal escrito el "Kixmi" e!".
- "¿Si?, ¿por qué?".
- "Porque es así: es "Kix" "Mi".
- "Bueno es igual". "Ya entendéis".
- "Si, ya entendemos, pero está mal".
- Ta esan notsan nire semieri: "Josu, Kixmi ez da holan e! da Kix Mi. Ta "bueno apurtzen badan ipiñiko dogu, ta ostantzien dauela".

### 2.4. Raketista

- **Hizlaria(k)**: Ereñaga Onaindia, Bego
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-026/030
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:49:07. **Bukatu**: 00:52:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena**: 15 urterekin bere nebarekin hasi zen pilotan jolasten, eta bere amak eskuz ez aritzeko erraketa erosi zion eta Abadiñora joaten ziren. Beste neska batek esan zion Eibarrera joaten zela ikastera eta Bego ere horrela hasi zen. Enpresari batek Sabadellera joateko kontratatu zituen, baina bederatzi hilabetera etxera bueltatu zen.

**Transkripzioa**
- Ni beti izen naz "marichico", nire aiztie beti zan señorittie, ta ni beti "marichico". Ta han Frantzidxen euki gendun horma bat apurtute baiña ba olgetako moduen, ta nire nebiek beti ez baban eukitzen lagunik iñor niri ni eruten eban ta pelotaka pelotaka jokatzen gendun han. Ta gero etorri nitzenien ba amak eskuz ez ibiltzeko erosi esten raketa bat, ta juten giñen Abadiñora, ta ta gero neska bat ez naban ezagutzen. Ezagutzen naban nik bistaz bakarrik ta esan eusten bera Eibarrera juten zala ikesten, harek euki eban aitte ferrobiaridxue ta karo trena trena be debalde ta juten zala Eibarrera ikesten eta esan nontsen amari ta esan osten amak: "ba holan ibilli barik hobeto dozu zu be juten bazara beragaz Eibarrera". Ta halan juten giñien zazpi terdidxetako trena hartu Durungon ta juten giñien. Ta ba, noz hasiko nitzen? ba oktubrien-edo hasiko nitzen ta oin oin martidxen etor zan enpresaridxo bat ta kontratau ein oskun Sabadellera. Ta ba juen giñen bidxok.
- Hori zemat urtegaz?
- Hamabost urtegaz. Ta nik esaten notsen gero etorri nitzenien, esaten notsen amari nik: "baia ama, zelan zelan itzi zosten hamabost urtegaz jun Sabadelleraiño?" ta, ze niri gero nire alabiek esan baosten niri hamabost urtegaz doiela holan, esango notsen, bueno bueno bueno! plastazo bat emongo notsen. Ta karo nire amak esan osten: "nik ez neban jakin zure porbenidxe izengo bada". Gure amak euki aban, euki aban zentzun asko euki aban "ta zelan kenduko notsun zure porbenidxe izeten bada?". Ta karo, jun nintzen ointxe, hamabost urte eindde, hamaikan hamabost urte ein eta hamabidxen edo hamahiruen ez dakitz noiz izen zan. Ta gero Gabonetarako ba etorteko etorteko etxera, etorteko etxera ta ba ya ikusi naben han zer dauen ta pentsau naben amagaz hobeto bizi nazela ta ez nintzen jun atzera, geldittu ein nitzen.
- A ez? orduen hille gitxi ein zenduzen.
- Beratzi hillabete.
- Eta, ez jatzun damutu ez bueltetie?
- Ez, ez, ez. Ez, ze ademas kasualitatez, ya nire nobidxue be egon zan "división azul"en, bueno nobidxue, eskribiduten osten, baia, ya egon zan hamen ya, ta ya.
- Ta kontratuegaz joan ziñela esan dozu, ta zelako kontratuek izeten zien?
- Ba kontratue ba ez naz gogoratzen zemat, baiña apurtu ein eban kontratue enpresa, oso enpresaridxo majue zan, bai bai, oso majue. Esan notsen zelan ez natorrela gehidxau ta "ba edarto" esan osten ez badot gure.

### 2.5. 500 pezeta hilean raketista legez

- **Hizlaria(k)**: Ereñaga Onaindia, Bego
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-026/031
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:52:52. **Bukatu**: 00:56:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Raketistak
- **Laburpena**: Raketista zela 500 pezeta kobratzen zituen hilero eta lortutako puntu bakoitzagatik 3 pezeta. Begok dio bera ez zela jokalari ona, azkenerako ez zuen askorik entrenatzen. Norberak bere kabuz

entrenatzen zuen. Pilotak Eibarren bertan ematen zizkieten entrenatzerakoan, teniseko piloten modukoak ziren.

**Transkripzioa**
- Jornala-edo euki zendun?
- Bai, orduen sasoien ondo, bostehun pezeta hilero. Bai, ta gero izeten zan ez dakitz zelan deuken izena, jokatzen gendun "puntos" ta "cada punto" hiru hiru pezeta ta "aprobada una cincuenta" ta eitten bazendun ba igo eitten ban.
- Eta, ona ziñen?
- Ez, ni lelengotan ba bakizu, lelengotan bazoiez ya afiziñuegaz ta frontoara juten giñien entrenetan baia gero jun giñen gizon batek erun oskun, beren etxera erun oskun bidxori ze ni argaldu ein nitzen asko ta ba eru oskun etxera, ta gero han etxien ba ni ensegida hasi nitzen loditzen-ta, ta gero egon zan euki aban alaba bat nire edadekue ta jokatzen gendun ping-pongera etxien, ta ni etxien egoten nitzen; bestie, nire lagune joaten zan frontora goizetan entrenetan baia ni ez nintzen juten, ni etxien gelditzen nintzen, ni etxien egoten nitzen. Gustetan jatan leidu asko, ta leiten beranduaura arte egoten nitzen eta gero ba gero ohien, ohien. Ta itzi ein naban juten entrenetan ta ez, izen nitzen "del montón".
- Ta zelako entrenamentuek izeten zien?
- Nobera bakarrik.
Nobera. Baia egunero ordu pare bat edo zelan izeten zan?
- Zuk gure dozun beste, goizie libre euki gendun.
- Ta arratsaldie?
- Bostetan, bost terdidxetan egoten giñen bertan, ta amaittu arte, amaitzen zan ba hamaiketan edo gehidxau, azkeneko partidue egoten zanien.
- Ta esan dozu raketiegaz eta frontoien ibiltzen ziñiela, baia pelotie zelakoa zan?
- Ba pelotie teniseko modukue baiña frontora, tenis moduen holan ez, frontora, "tenis de frontón".
- Ta harek pelotak Durengon nun erosten zenduzen?
- Ez gendun erosten guk, Eibarren. Han pagau ein biher izeten zan-ta, han emoten oskuen pelotie.
- Ta Eibarren nora joaten ziñen Astelenara frontoire?
- Astero, astero.
- Baiña ze frontoira joaten ziñen?
- Astelenara. Ta erakusten oskune frontoien etorten zan gugaz, etorri zan gugaz Sabadellera.

### 2.6. Neskak pilotan aritzea txarto ikusita

- **Hizlaria(k)**: Ereñaga Onaindia, Bego
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-026/035
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:58:11. **Bukatu**: 00:59:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Raketistak

- **Laburpena**: Neskak pilotan aritzea txarto ikusita zegoen Euskal Herrian. Hemendik kanpora, ostera, ondo ikusita zegoen. Durangon pilotan hasiz gero, harrika egingo zietela dio.

**Transkripzioa**
- Ondo ikusten zan neskak pelotan ibiltzie?
- Ez, ez. Hamen klaro niri esan eusten: "¿y cómo no jugabais aquí a la pelota?" [...] esan eusten niri Jabik. Baia esan notsen: "mira Jabi, si a nosotras nos ven jugando a la pelota en el Astelena o en Durango los hombres nos echan a pedradas". Bai, bai, bai. Hamen, hamen, hamen gizonak die "muy machistas", euskaldunek diez "muy machistas".
- Ta Sabadellen hobeto hartzen otsuen?
- Bai, Sabadellen ederto ta Bartzelonan be bai, ta danien, Madrillen ta danien.
- Hemen ez.
- Hemen pentsau be ez.
- Ta zuekaz apostuek eta be eitten biezan.
- Bai, bai, bai. Bardin-bardin.
- Jentie joaten zan apostetan-eta zuen alde-eta?
- Bai, bai, bai. Ba apostue eingo bienak gizonak izengo zien ba!
- Klaro!
- Orduen, joango zien frontoietara gizonak.
- Baia bai gizonak etorten zien bai.
- Baia Durengon diñozu ezetz.
- Durungon, Durungon atarako oskuen harrike, harrike, seguru.

### 2.7. Ehizara joan aurretik, mezara

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/027
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:50:14. **Bukatu**: 00:52:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Ehizan joan aurretik, jesuitetako goizeko seietako mezara joaten ziren. Arakara (Gasteiz) joaten ziren erbitan. Morenoren autobusean joaten ziren. Erbi-txakurrak zituzten.

**Transkripzioa**
- Goidxien goidxetik joaten zan mezatara, ezta?
- Gu jueten giñien kazan eittiarren, goidxeko seiretan jesuittetara. Baia hau zan geruau, e! Geruau. Kazan egittearren, goidxeko seiretan jesuitetan euen mezie, ta hara joaten giñen. Baiña hori ya urtietara, e!
- Ta zu zer, kazarore handidxe izan zara?
- Bueno ni baiño beste batzuk gehidxau zien, kazan. Ni baiño gehidxau zien. Baia mezara, e! Baia hori nabil esaten handik urtietara; sei urte-edo.
- Eta kazan nundik ibiltzen ziñien ba?
- Arakara, Bitoridxara. Ordun auen erbiek. Erbitten.
- A erbitten?

- Bai baiña mezara, lehenengo, e! Goidxeko seiretan, mezara.
- Eta mezara zer, eskopeta-ta guzti-edo?
- Eskopetak, aparte. Klaro!
- Hemen ez zeuen zer harrapatu ala?
- Hamen, ez zeuen kaza modurik; han, Arakan euen asko. Oin prohibidu ein dabe, baiña han, erbitten. Puf!
- Ta erbidxe, gero lapikora-edo?
- Klaro. Bai.
- Eta Bittoridxera zelan joaten ziñien, ba?
- Bittoridxa, autobuse be, Morenon autobusien.
- Durengotik direto?
- “Ron-ron-ron”. Geratute gauz Urkiolan, geratute gauz idxon eziñik. Moreno, ezeutu dozu zuk Moreno?
- Entzunda.
- A, entzunde? Olman onduen auken garajie; osea, lokala. Bai.
- Eta kazan-eta bakarrik erbitten joaten ziñien?
- Ha orduen erbidxe euen gehidxen han. Erbitten. Erbi-txakurrek euzen gurien, Txopittenien ta txakurrek. Bai.

### 2.8. Orfeoia eta solfeoa

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/040
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:10:49. **Bukatu**: 01:12:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Bere aitak gitarra jotzen zuen eta orfeoian lehenengo tenorea zen. Berak ere urtez luzez abestu du orfeoian eta Santa Anako, Andra Mariko eta jesuitetako koruan. Solfeoa eskola partikularretan ikasi zuen: Barrenkoa, Villan (Durangoko bandako zuzendaria) eta Puri Ruiz de Erentxunek irakasten zuten.

**Transkripzioa**
- Ta esan dozu zure aittek gittarrie euki abala, gitarrie joten aban ala?
- Bai, kantorie joder! “Si era tenor primero, cantaba en el orfeón. Yo también he cantado en el orfeón”.
- A, bai?
- Aber, beste arlo bat.
- Bai, bai, hemen.
- “En el coro de Santa Ana”, ta Jesuittetan be bai, ta Andra Maridxen be bai. Andra Maridxen gitxiau, baia.
- Eta zelan ba hori? Kantorie edo nondik datortzu zuri? Bueno, aittetik, baia.
- Pues eso, boza eukin /bida/ biher da! “Pues para tenor primero pues eso, o bajo, o barítono, o tenor segundo” gizonezkuetan. Gero andrazkuek zuk jakingozuz hobeto, soprano.
- Nik ez.
- Soprano.
- Baina ikasitte euken solfeue-edo?

- Bai, solfeue bai.
- Bai? Aitak erakutsitte?
- Aittek hiru hilabeteaz hil zan. Barrenkuaz ta Villán. Villán Durungoko bandako diretorie zan, Elgea. Bai, solfeo asko ez neuken, e! Baia,
N: Solfeoa non ikesten zendun ba?
J.M: Ba hemen eskolak emoten abiezan, partikularretan.
- Nun edo nok emoten abazan?
- Barrenkua, Villanek be bai, ha direktorie zan ta be bai. Ta hemen Ruiz de Erentxun be gero, ta beste batzuk be andrazkuek ikesten abien. Ta gero horrek aukin dabe suertie hamen montau danien, zelan esaten eutse? Jolin, ba horrek enpleadie! “Ahora tiene seguridad social y todo”. Hor sartu zien Puri Ruiz de Erentxun, “jolin, ¡menuda suerte que tuvo”! Lehen partikularrak zien, ¡ni seguros ni nada. Como autónomos, si querían ser”.

### 2.9. Banketxeak, hotelak eta kafetegiak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/055
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 01:38:55. **Bukatu**: 01:41:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Lanean hasi zen saioan Durangon 3 banketxe baino ez zeuden: "Banco Bilbao", "Banco de Vizcaya" eta "Banco Urquijo vascongado"; banketxeak non zeuden kontatzen du. Beraiena, "Banco de Vizcaya" hasieran Alza hotelaren tokian zegoen. Durangon bi hotel zeuden: Alza eta Miota. Durangoko Ezkurdiko kafeak onenak zirela dio: Lapiko (gaur egun Bankinter), Alza (Euskadiko Kutxa), "Café La paz" (batzokia), "Café Ezkurdi", "Comidas Arrinda" eta Bikandi taberna "Bar de Lumo" deitua.

**Transkripzioa**
- Zu biherrien hasi ziñenien zenbat banku egon zien Durengon?
- Durengon “Banco Vizcaya y Banco Bilbao, nada más. Y Banco Urquijo Vascongado”.
- Danak zona bardiñien-edo?
- Ez, Banco Bilbao oin txinuek badauz ba Zumalakarregin? “Al lado de Foto Sol”, txinuek? Hortxe egon zien, ontsu arte. Hoidxe etxe, egon zan ofiziña barridxek ein arte, ez da urte asko! Ta gero gu etorri giñen horra al Hotel Alzá. Lehen Durungon Hotel Alzá ta Hotel Miota, hotel ederrak zien e! Durungon Ezkurdidxeko moduko kafeteri, kafiek ez zeuezan iñun be, e! Baina kafiek ez zien oingo moduen txikiteuen, e! Kafiek zien kafie atarateko, gehi mostradore txiki bat, ta ostantzien mahaidxek jesarteko.
- Zelakoak zien mahaidxek? Esplikau. Gogoratzen zara?
- Mahaidxek, Alexien on zara? Ba Alexen moduko, antzerako…
- Materialak-eta?
- Burdiñe “de hierro colado y un mármol encima”. Marmola ganien, bai.

Gero euezan El Lapiko, “que es Bankinter, El Alzá, que es ahora la Caja Laboral”, gero batzokidxe, batzokidxe Café La Paz.
- Batzokidxe oin dauena?
- Bai, Café La Paz. Hor onduen beste estanko bat euen. Zuk estankue, bueno, gero Servisa egon zan hor. Ta gero, Caja Laboral oin dauzen beste dendak, libreridxako modukuek, Café Ezkurdi. “Café Ezkurdi con orquesta, o sea, con una esto para eso”, itzela. “Una trastienda también, y luego pues Comidas Arrinda, y el Bar Bikandi, el Bar de Lumo” esate utsien.

### 2.10. Pilotariak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/058
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:43:24. **Bukatu**: 01:44:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Zestako jokalariak kanpotik etorritakoa ziren. Baina gerra aurretik bazeuden palaz jokatzen zuten durangarrak: Altube eta Mentxaka. Abadiñon gerra ostean Agirre abizeneko bat egon zen. Bilboko Euskaldunan zebiltzan beste batzuk ere aipatzen ditu: Amorebieta IV, Begoñeses, Oroz... Deportibon: Iturri.

**Transkripzioa**
- Hemen Durengon pelotari asko egon zan ala?
- Zestakuek? Ez, baina kanpokuek, gerra aurretik bai. De pala había buenos, Altube, hori etxie botautsena aiuntamentuek, Altube. Gure aittek be pelotan ondo eitteban, ta bestie Mentxaka. Ha Mentxaka palakue profesionala zan, ta Altube be bai. Hori Mentxakak esaten eusten: “José Mari, tu padre jugaba,de aficionados”. Berak eta beste lagun bat, Antipas esaten eutsiena, kolokatzen ebala “de maravilla”, baina estudidxuek eukezan. Honek ez eukien estudidxorik jeneralmente palista eta ibiltten zienak, Altube eta Mentxaka. Abadiñon euen bat gerraostien, Agirre, “en el Recoletos jugaba, bueno, maravilla”. Ta nik palan Bilbon Euskaldunan asko ikusi dot. Amorebieta cuarto, frontoie dekona oin Zornotzan bere izenien, “Amorebieta cuarto. Y estos…los Altubes, los Begoñeses, Oroz hermanos y” honek…

### 2.11. San Juanetako kanta; prakarik ez

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/049
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 01:21:08. **Bukatu**: 01:22:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: San Roke auzoan beti kantatu izan dute asko. San Juan suaren inguruan abesten zuten abestia kantatzen du. San Juan suaren gainean gona eta guzti egiten zuten salto. Prakak Montecalvora ira bila joan zen batean jantzi zituen.

**Transkripzioa**
- Feli: Guk, asko kanteu duu San Roken. Domingo Txopittenekuek, este Eugenio [kaballostekue].
- Isabel: Ha hil zan.
- Feli: Bai. “Pero llevábamos un duo…”. Sabiñe “que está inútil ahora, en silla de ruedas está”. Guk kantau San Roken.
- Zegaittik ez dozu kantetan umetako zeozer?
- Feli: Ze kantauko dot, ba nik oin? Hainbeste urtien?
- Edo jaidxetan. Jaidxetan seguru kantetan zenduena, San Juanetan edo Santa Agedetan?
- Feli: “San Juan, San Juan” beti ta salto eindde.
- Zelan zan?
- Feli:
San Juan, San Juan,
arrutza bi kolkuan,
beste bi altzuan.
Sorgiñek eta lapurrek erre, erre!
artuek eta garidxek, gorde, gorde!
biba San Juan.
Ta salto. Ala!
- Gona ta guzti?
- Feli: Prakak nok? Nik prakak bakizu noz ipintten nabezan? Nire denpora guztidxen, irak ekarten zien Montecalvotik eta beti Feli irie zapaltzen sabaire. Prakak orduntxe janzten nabezan, ze gero Durungora jueteko, pantorrilla guztidxek urrututе. Ai, koitteue! Orduntxe eta beti prakak jeusten. Altxau eziñik han.

## 3. Ohiturak eta bizimodua

### 3.1. San Antonio Urkiolakoa

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/030
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:42:09. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: San Antoniotako mezara jende asko joaten zen. Hiru gizon egoten ziren mezak hartzen. Abadeak dirua hartu eta iluntzean Otxandioko banketxera armatuta joaten zen. Parrokoak berak esan zion Urkiolako harria Otxandio aldetik ekarritakoa zela.

**Transkripzioa**
- Urkiolan ni egonda nau, klaro albokuek zien, ta orduen mezak San Antoniouetan batzen zien, holankoxi jentie, ta batzen mezak batzen batzen egoten giñiezen hiru gizon, hamar terdi inguruen hamarretako ona ein ta gero han mezak batzen. Sei zaku, zakuetara dirue botaten zan, papelak, izena-eta, han ez euen denporarik izena hartzekorik, hango kontuek nok erungo ete ban, zemat meza juen zan ta zemat diru egon zan, parrokuek kotxien kargau, pistolie albuen ta Otxandidxora jueten zan bankure edo kajara dirue erueten, San Antonio illuntzidxen, hori neuk ezetute deuket. Urkiolak dekoz botuen kapillie -zuk iguel entzunde eukingo dozu- han egon zien ezkerrekaldien, altarien ezkerrekaldien, kapilla bat, lokal haundi bat, ze han zuritten-eta ibiltzen nintzen-ta, albañel moduen, ta han egon egoten zien aparato zerak botuek-edo sartzen bazien edo ez bazien, barkuek miniaturan ipinitte, kotoiek orratzak buru zuridxegaz buru baltzaz, nobidxo rubidxue edo morenue izen deitten, horrek danak ezetute deukaz nik han. Ta hori harridxori han aurrien dauena, horrek parrokuek esan eusten niri Otxandidxo alden batetik etorri ekarrittekue zala, ha bueltak-eta emoten jakozena-ta, harridxe.

### 3.2. Eguen Zuri abestia

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/041
- **Iraupena**: 0:00:10. **Hasi**: 01:01:56. **Bukatu**: 01:02:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Eguen Zuri Egunez abesten zuten abestia kantatzen du.

**Transkripzioa**
Eguen zuri kantetan
hemen egozuz atetan,
emongo bazu emoizu
bestelan "zoiez!" esaizu.

### 3.3. Don felix Serrano medikua; ezkontzerakoan abadeari oiloa

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/063
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 01:34:21. **Bukatu**: 01:35:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena**: Bera jaio zenean Don Felix Serranok artatu zituen, eta horixe bera zen beraien medikua. Ezkontzerakoan bere emazteak abadeari oilo eder bat eraman zion. 1956an ezkondu zen Abadiñon.

**Transkripzioa**
- Ni jaidxon nitzenien atendidu oskuen don Felix Serrano. Horrek euki eban zerien, hortxe, Mariok zapateridxie euki eban ba? han kantoi-kantoien, handik Andra Mari alderantza lelengoko portala, bigarren pisuen euki eban. Ni jaidxo nintzen haidxek atendidu eutson nire amari. Harrezkero, gure medikue partikularmente ha izen da beti. Gero ba seguridade sozialetik toketan jakune.
- Bia han sasoien medikueri dirue emoten jakon edo jeneroa baserrikoa?
- Dirue, dirue, dirue.
- Beti?
- Bai. Oin, jenerue, jenerue ezkontzeko denporan baserridxetan porejenplo, ze gure andriek be eruan ban, oillue ederrena parrokueri ezkontzeko, oillue. Eskatu eitten otsuen. Oparidxe. Bai, bai.
- Karo abadieri be noizien behin zozer eroango otsazuen.
- Bai ba.
- Nun ezkondu ziñien?
- Abadiñon, Abadiñon. "Día uno de febrero del cincuenta y seis".

### 3.4. Arto-bizarrak erre

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/010
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:12:19. **Bukatu**: 00:16:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena**: 10 urtegaz-edo hasi zen arto-bizarrak erretzen, gozo ez izan arren. Emakumezkoak erretzen ikustea ez zen ohikoa. Tabako marka desberdinak egon arren, beti erre du. Gerraostean estraperloan ekartzen zuten tabakoa.

**Transkripzioa**
- Ta zenbat urteaz hasi ziñen zu horretan?
- Bo! Hamar urteaz-edo, arto-bidxerra erretan giñun.
- Hamar urtegaz?
- Hamar edo hamabi urteaz. Ta hamen nau, larogeta lau eingo dodaz / eingoaz/.
- Ta ordun umiek erretie normala zan ala?
- Ez. Baiña mutil artien, mutil artien beti auen zera. Klaro.
- Zelan ipintten ziñun arto-bizerra, zelan zan hori? Aber, esplikau pixkat zelan.
- Arto-bidxerra ez dakizu zer dan? Arto-bidxerra ba artueri urteten dotson / urtetotson/ bidxerra, papelaz zertute, haxe fumau. Ta kañaberien modukue

be erreten zan. Ez dakit kañaberak, kañabera moduen, ez dakit ze izen euken, horrexek. Ta palue ha be bardin. Etxauan dirurik-eta erosteko tabakue. Problemie hortxe jauk ba!
- Ta tabakoan erein ez zenduen erein eitten ala?
- Ez, ez hamen ez zan tabakoik ereitten.
- Hamen tabakoik ez zan ereitten.
- Ta zuek etxien aittek be, ez eban ereitten bez ezebez?
- Artue ta ba, babie ta garie eta horrek geuzok, baia.
- Ta zu holan hazi ziñen?
- Bai.
- Eta arto-bidxarrak bizidxoa sortuten aban ala?
- Ta txarra. Txarra, eztulke batien. Baiña haidxe. Lagun artien, orduen, andrak ez abien iñok be fumeten. Joder, andra bat ikustie fumeten zan, buenoo! Pekatue. “Fulana, le he visto fumar”. Pentsau bez andrak. Oin andrak gixonak baiño gehidxao. Nik ikusten dot eskolara eruten, ikastolara umiek godxien andrak, ta danak fumetan. “De dios!”.
- Baiña zuk zigarroa edo zigarro-puruek edo zer erre dozuz?
- Ez. Nik honakoxe txikidxek. Lehenau, zigarrue be bai.
- Ducados-ak edo?
- Bai. Ducados, gero urten joan. Ducados urte joan, zenbat urte dok ba Ducados urten dabena? Lehenau ez zoan /etxoan/ Ducadosik. Lehenau joaben zera, Celtas. Zera baiño txarraue. Bo!
- Ta halan da be, erre?
- Erre ta beti etxien: “ez eizu erre, ez eizu erre”. “Ba ez dot erreko”. Ta etxostera juen ta…
- Ta iñoiz ez da egon problemarik gerraostien-edo tabakoa erosteko edo estraperloan ekarten zan edo zelan izeten zan?
- Estraperluen ekarten zan. Estraperluen. Ta dekozun diru apurre hantxe.
- Ta nor ibiltzen zan hamen parajietan, estraperloan ekarten tabakoa?
- Karlista guztiek, karlista guztiek. Zera etorri, [burkada] bat etorri bazuan hoba danak garbitteko.
- Eta nundik ekarten abien tabakoa, badakizu?
- Nik ez dait nundik ekarten abien. Karlistak mekauen la letxe!
- Ta ze izeten zan, kajie-edo, zigarro-kajie?
- Ziarro-kajie.
- Ta zenbat? Zegan zan? Ez dekozu akorduen?
- Lau txakur haundi-edo. Baia hor, nok euken dirue ba? Ordun ez euen dirurik.
- Lagunen artien edo pakete bat erositte?
- Ta hoidxe, baia zainddute, zainddute.

### 3.5. 'Vuelta de España' ikusteagatik lanetik bota

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/011
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:16:12. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

- **Laburpena**: Beharren hasi zenean, 14 urtegaz Olman lantegian, eguneko 1,5 pezeta irabazten zituen. Bertan zegoela, Vuelta de España ikustera joan zen; bueltan, lanetik bota zuten.

**Transkripzioa**
- Ni biherrien hasi nitten, “uno cinquenta” egunien. “Ya está bien ¿e?. Una cincuenta”. Eta akordetan nok, pezeta bire altxau oskuenien, bo! Hamalau urteaz hasi nitzen biherrien ni.
- Nun hasi ziñen?
- Olmanien. Olman.
- Eta ze eitten zendun han Olmanien?
- A ze biher? Ba, piezak fundiziñuen zertzen zienak, haidxek apartau te holakoxe geuzak. Inportantzi bako gauzak.
- Ta zenbat denbora ibil ziñen, han?
- Ha, pasau jaten? La Vuelta España etorri zan, Ez etxiat nok irebazi juan ha etapie. Potijo bat hartu ta Kurutziagara juen nitten karrerie ikustiarren. Bueltan etorri ninttenien, despedidu ein ostien /eistien/. Ta gehidxau ez nitten juen biherrien. “Me han despedido pero no vuelvo”. Ta ez nitten biherrera juen.

### 3.6. Abarkak astegunez eta abarketak domeketan

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/035
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:07:01. **Bukatu**: 01:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Erromeriarako "Mil rayas" prakak janzten zituzten abarketekin batera. Frontoian ortozik aritzen ziren abarketak ez apurtzearren. Astegunez abarka janzten zuten eta domeketan abarketa zuria.

**Transkripzioa**
- Eta zelako erropakaz-ta bajatzen ziñien erromerire?
- Mil rayasko prakak. “Entonces era típico pantalón mil rayas”.
- Ta oinetakoak-eta?
- Abarketak. Hombre! Ta pelotan frontoien ortozik abarketak ez apurtziarren.
- Ezkurdiko frontoien?
- Ezkurdiko frontoien, ortozik abarketak ez apurtziarren. Abarketa zuridxe orduen zan tipikue. Baia abarketak baztarrien ta ortozik pelotan.
- Baiña abarketa ziridxek, domeketakoak izengo zien?
- Klaro. Astegunien abarkie. Abarkie bakizu zer dan?
- Abarkie ta txapiñe?
- Guztire. Abarkie zan batzuk hondo haundidxaz eta beste batzuk, lisotxuek. Lisotxue zan elegantiaue. Tipikue zan. Ta galtzak orpuk apurtute ta sartu. Beherantza.

### 3.7. Eskumako abarka apurtu eta bietan ezkerrekoa jantzi behar

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/036
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 01:08:24. **Bukatu**: 01:10:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Artilezko galtzak bere amak egiten zituzten. Futbolean eskumako abarka apurtzen zuten beti; hori dela-eta, hurrengotan bi hanketan ezkerrekoa jantzi behar izaten zuten ez zuten berriak erosteko dirurik eta. Zapatuetan plazan saltzen zituzten abarkak. Miseria handiak ezagututakoak dira. Baserritarren artean trukea egiteko ohikoa zen.

**Transkripzioa**
- Eta galtzak-eta etxien eitten zenduezan edo erosi-edo?
- Ez. Amak eitten abezan galtzak.
- Ardi laniaz?
- Ardi laniaz. Apur bat bastotxuek, baia. Honen ama zan galtzak eitten artistie. Felixen ama. Bai.
- Eta abarkak? Abarkak erosi?
- Abarkak askotan fubolien ibilitte, ezkerreko abarkak hanka bidxetan; ze eskumie apurtzen zan. Por ejemplo jeneralien ta beti ezkerrekue sanuaue. Ta ezkerreko abarkak hanka bidxetan.
- Hankako-miñe edo ez zenduen eukitten?
- Hankako-miñe ez euen orduen. “No, no había”
- Orduen abarkak erosi eitten zien, ein ez?
- Erosi, erosi, erosi
- Ta nun erosten zien abarkak?
- Plazan. Plazan zapatuetan eoten zien. Ni eindde nau: “Ama abarkie apurtute dauket eskumakue”. Ta: “Zapatuen ekarriko doaz”. Itxaroten zapatue noz etorriko ete dan ama. Ta “zer?”, ta “gaur abarkadune ez da etorri”. “Es porque no tenía”. Aza batzuk eta zera, oillasko batzuk-eta plaza eruen saltzen.
- Eta trukie ez zan eitten lehen?
- Ze truke?
- Abarkak trukeu oillaskoagaittik-edo?
- A bai. Esistitzen zan hori, baia konpradorie beti merkien. Beti: “oillasko bi abarkak ezin dotsuaz emon, hiru-edo izen biharko dau. Datorren zapatuen ekarko dotsut hirugarrena”-ta. Ta holako gauzak. “Miserables”.

### 3.8. Kapoia eta txitxarroa Gabonetarako

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/037
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 01:10:27. **Bukatu**: 01:12:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Erregenetan iko-pasak eta jasotzen zituzten, galtza berriak izatea gauza handi zen. Gabonetan etxean hazitako kapoia jaten zuten. Behin kapoi parea hil zitzaien eta jan barik gelditu ziren. Txitxarroa asko jaten zen. Inguruetan sagar asko zuten, mota guztietakoak, eta horixe izan zuten postre.

**Transkripzioa**
- Ordun, askoz hobeto bizi izan zaie oin azkenengo urtietan orduen baiño?
- Hombre, honbre, honbre! Jode. Erregietan-ta iko-pasak eta intxurrek eta kaltza pare bat zertzen zanien, “gloria bendita”. Iko-pasak-eta.
- Hori Gabonetan, Erregietan?
- Erregietan.
- Ta Gabonak lehen zelakoak izeten zien?
- Gabonak en jeneral zera, kapoie hiltten zan etxien hazikuek. Eindde gauz, ni akordeten naz ointxe geuze bateaz, kapoi parie hazten zan, ze emon ein biher jakien /bixakien/ artue ta zera noberak, aguen noberak. Ta ez daitz zegaittik lar emon edo ze hil ein zauxen kapoi parie. Ta Gabonak kapoi barik. A, “tu crees que como tu eso”.
- Bueno lehenao jango zan? Jan bai, bota ez zan eingo?
- Ez, ez, ez, ez,ez, ez. Ez zan hil. Ez zan jan.
- Ta artxoa ez zenduen jaten Gabonetan?
- Keba, pentseu bez! Pentseu bez! Bakizu ze jaten zan asko?
- Azie?
- Azie bai. Azazalie hori. Ta txitxarrue. Txitxarrue euen, tirau. Oin txitxarrue karu ei dau. Orduen txitxarrue. Ez oingo moduen zera.
- Goxue. Txitxarrue goxua da.
- Ta postrie? Postre?
- Sagarra-edo etxien hartzen zan. Hau dana sagastidxe izen zan. Hamendik gora, hamen hartzen zan sagarra, barbaridadie! Sagar-tokidxe zan hau.
- Ta ze sagar euki zenduen, ba?
- Dana desaparezidu, dana sagarra zan hau.
- Ta ze sagar?
- Frantses-sagarra, urdin-sagarra, limoi-sagarra, danetik euen, hau.
- Ta sagardorik edo ez zenduen eitten?
- Ez, ez.

### 3.9. Maristetako eta Garaiko irakasleak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/017
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:28:53. **Bukatu**: 00:30:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

- **Laburpena**: Maristetako irakasleak: "Artes y oficios"en hermano Valentín izan zuten eta merkataritzan "hermano Ignacio". Lehenago, gerraostean, "hermano Luis" izan zuten. Maristetakoak ez ziren irakasle gogorrak. Garaiko irakaslea, Salazar, ostera, gogorra zen, erregelarekin jotzen zuten. Baina normaltzat hartzen zuten zigortzea edo jotzea.

**Transkripzioa**
- "Hermano Valentín de artes y oficios".
- A, bale! Ta eskolan?
- Komerzidxuen el Hermano Ignacio. Ta gero horrek aurretik gaztetan, ni hamahirutik hamaseire komerzidxue ein naben, ta seitik ba Hermano Luis, Hermano Luis azkenengo, gerraostien.
- Ta horrek zer zien orduen, zorrotzak edo?
- Ez, normal. Ez zeuen holan...
- Ze fama txarra, fama txarra nik beste batzuk esan dauriena La Villa eta fama txarra.
- Lavilla ba “Escuela Pública” zan, La Villa bakizu nun dan, ezta? Lavilla horrek, joder! Ta Garaiko maisue be, Salazar, joe! Ha be gogorra zan. Harek ba niri, pintteu nebazan eskuek eta regliaz, baina horrek geuzek etxien be ez zan emoten latigoa, ala? Neuri lehenengokue, ba horredxaittik. Ta oin be...esaten da ba belarriondoko bat ondo sasoien emon ezkero, ba...

### 3.10. "Anboto eta Oizen bien bitartian..."

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/042
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 01:12:59. **Bukatu**: 01:13:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Anboto eta Oizen bien bitartian..." abestia abesten du.

**Transkripzioa**
- "Anboto ta Oizen bien bitartian, Durango eritxako hori politian".

### 3.11. "Belengo portalian"

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/046
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:18:47. **Bukatu**: 01:19:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena**: "Belengo portalian" abestia abesten du.

**Transkripzioa**
Belengo portalian negu gogorrian,
sortu da gure jesus askotxu batian.
Estalgi barik dago, abere artian…hor ia ezin nike, “ahí hay que subir”.
Hantxe dago gure Jesus,
hantxe dago.
Haurtxo txikia bertan dago,
amak diñautso lo eitteko,
baiña haurtxoak begiakin
esaten dio: “Ama ezin”.

### 3.12. Batzokiko eskolan ikasitakoa

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:07:45. **Bukatu**: 00:09:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Felik batzokian jaso zituen eskolak, betiere euskaraz. Lehen jaunartzea ere batzokitik egin zuen. Gerraostean, batzokia kendu zutenez, San Frantziskora joan zen. Irakaslea Felisa izan zen, Olleriako Felisa, gerora emagin ibili zena.

**Transkripzioa**
- Eskolara juen ziñien?
- Feli: Bai. Ni batzokire. Nik euskeraz eskribidu ta erderaz-ta ederto eitten naben. Ta komuniñue be batzokittik ein naben. Buztintzako amama zan nire amapuntako ta ein eustezan: zapatak txarolezkuek, ponpoi bi, erropa azul bat eta abrigotxue amamak, neure amapuntako zan-eta. Baiña gero zelan beste umiek, juen zien danak zuri, baten batek itxi eusten erropa zuritxu bat eta haretxekin erropiakin; badeket fotografidxe. Han, dau. Ta gero harek amamak ein eustezan erropak, Ba San Franziskora joaten nitzen eskolara eta haraxe joateko balixo eustien.
- San Franziskora, izengo zan gerraostien?
- Feli: Bai. Gero batzokidxe ya kendu ein zan.
- Orduen zu batzokira joan ziñen?
- Feli: Ni, batzokira, hantxe Ezkurdidxen. Bai ni batzokire. Ta euki naben, nire profesorie zan Felisa.
- Apellidue goguen dekozu?
- Feli: Felisa, txikitxu bat, bera. Gero, komadrona ibili zan, ha.
- Isabel: A, orduen Olleridxakue!
- Feli: Olleridxakue.
- Isabel: Ai, ez dakit zelan deken horrek apellidue.
- Feli: Ta ona izengo nitzen. Egun baten kastigaute itxi ta ahaztute, han eon nitzen, ni erregular. Ez dakit ideiarik deketenik-eta. Etxien falta ta deittu dabe ta han kastigaute. Ta atara eustien ta etxera, aittek edo bateroren batek eroango nindun.

### 3.13. Eibarrera permanentea egitera

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/041
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:03:59. **Bukatu**: 01:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- **Laburpena**: Isabel Eibarrera joaten zen permanentea egiten, Durangon bizi zen eibartar bategaz. Gaztetan ere makillatzen ziren.

**Transkripzioa**

- Feli: Amama Buztintzekue gaixorik eta tia Petra etorten zan zaintzen. Ta harek bezkaitten jueten zienien, ni abaniko batekin eulidxek kentzen, amaman kuartuen egoten nitzen-ta. “Isabel nora juen da?” Ta klaro Durengon ez pelukeridxarik ez. Eta zu Eibarrera permanentie eitten. Orduen, nor jueten zan? Isabel. “A hacer la permanente. Ahí va. ¿No recuerdas eso?”.
- Isabel: Eske eibartar batzuk bizi zien. Zabartenien eibartar batzuk bizi zien, beheien. Ta harek eon zien danak preso. Zien Justino, Alfonso ta Gregorio zien eibartarrak. Eibarrera ezin zeinkien juen eta danak egon zien preso. Ta han bizi zan ba Maria Luisa, aitte ta ama. Ta Merzedesek, zan beste bat, alabie bigarrena, hemen zerien eitten aban biherra. Zelan da plaza aurrien? Taberna baten zelan eukon harek izena? Balenziano, ez? Ez dakit zelan zan. Han eitten aban biherra ta horrek danok egon zoazen “Batallón de Trabajador”etan, horrek danok: Alfonso, Gregorio ta danok, horrek danok. Ta klaro, ha zan, zien Eibarkuek, ta zelan jueten zan Maria Luisa Eibarrera, klaro Maria Luisak, harek haregaz jueten nitzen.
- Feli: Neska gaztetxuaue ordun, nok dirue permanentie eitteko-ta? Tiari: “tia Isabel!” Ta “Isabel permanentie eitten junde Eibarrera”. “Jolín” “yo decía ¿Quién podía hacer la permanente? Tú a Eibar a hacer la permanente”.
- Harro- harro?
- Feli: Hombre! Hori akordeten naz.
- Isabel: Bai, baiña diñotsut, Maria Luisaz juten nitzen. Maria Luisak han, eske zan pelukerie, Alfonson nobidxie, beren nebien nobidxie. Ta hara juten giñien. Asieske, beittu zelako harrokeridxek.
- Feli: Nik horreaittik esaten dot, Durengon iguel ez abien eingo orduen permanenterik.
- Isabel: Keba! Ez haregaittik, zan…
- Feli: Amistadiegaittik.
- Orduen, zuek holan, imajena-ta zaindu eitten zenduen, ezta? Holan koketa-koketa ta?
- Feli: Kontuek atera! Nora ta Eibarrera. Jolin!
- Makillau eta kremak eta holan?
- Isabel: Kremak ez iguel baiña makillau Ba bai. “Pintar los labios”-ta.
- Baiña heutsek-eta emoten zenduezan edo?
- Isabel: Hombre! Calber ezpada be, bai.
- Zer ez bada?
- Isabel: Calber be iguel.
- Ta kolorie emoteko?
- Isabel: Ez, holakorik ez.

- Feli: Oingo moduen ez giñen preparetan.
- Isabel: Keba!
- Feli: Ta oingo moduen morena? A koitteue! Solora jueten giñenien, honaidxañeko kamisetie ipiñitte zuri egoteko. Ta txapel haundi bat. Oin dana morena gure deue.
- Lehen, zer zan zurie egotie?
- Feli: Zuridxe, zuridxe. Polittena haidxe.

### 3.14. Santa Ageda bezperako abestia

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/051
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:22:42. **Bukatu**: 01:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Santa Ageda bezperako abestia kantatzen du.

**Transkripzioa**
- Isabel: Santa Ageda kantain!
- Santa Ageda?
- Isabel: Badakin hik kantetan.
- Feli: Diferente bai, baiña hain luzie!
- Isabel: Bueno, ba erdidxe kantau.
- Feli: Santa Ageda, Ageda,
bidxer da Santa Ageda,
bidxer da Santa Ageda eta
gaur haren bezpera gaba.
Bedeinkatua izan dedilla
etxe honetako jentia,
pobre ta umil dabillenentzat
badeuke borondatia.
Hortxe goiko kamaretan,
oge zuri nabarretan,
lotxu gozo bat egingo neuke
Isabel zeure besuetan.
Armaridxopien sague,
hari begire katue,
neu be zeuri begire nago
Isabel bidxotzekue.
- Isabel: Biba Feli!
- Feli: Luziaue da, baia. Nik neskatueri erakusten dotsiedaz horrek. Lobatxueri. Luzie da hori.

### 3.15. Gabonetako kantak; dantza zalea

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/053
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:25:08. **Bukatu**: 01:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabonetan "Aldapeko sagarraren adarraren puntan" abesten zuten. Feli beti izan da dantzazalea, baina gizona ez ei da zalea.

**Transkripzioa**
- Ta ze kantatzen zenduen Gabonetan zuek?
- Isabel: Hator hator mutil.
- Feli: Aittek, gure aittekin asko: Aldapeko sagarraren adarraren puntan. Horrek kantok.
- Isabel: Segidu.
- Feli: Txoria dago abeslari, txiruliruli, txirulirul... Ahaztute “yasta” ahaztu eitten die. Aitteri euskerezko kantak, barbaridadie Gabonetan. Asko gustetan jakon.
- Dantza be gustetan jatzun zuri?
- Feli: Bai.
- Isabel: Honek oso ondo jantzan eitten eban.
- Feli: Baia gizona hartu dot, torpe. Golperik be ez! Nik jamonik be ez. Nik harrapaten dotanakin jantzan, sueltuen zein agarrauen, asko. Lehengo egunien /lehengunien/, neskatuen komuniñue euki giñun, hemen zelan da, hori Zornotzan hori famosuori? Zelan da?
- Kojue?
- Feli: Ez. Han goidxen, zelan da?
- Boroa.
- Feli: Boroan. Bueno ba egon zan umientzako paiasuek eta egon zien lau komuniño, egon zien. Ni baten eonda nau bodan. Leku ikusgarridxek dauz desdeluego.
- Isabel: Oso ona bai.
- Feli: Umientzako-ta endemas, bueno. Ta eon zien paiasuek eta erromeridxe. Ala ni jantzan. Zahartzaruen niri gustau. Aunke sea bakarrik, baia jantzan ein.

### 3.16. "San Andres en una altura" kanta

- **Hizlaria(k)**: Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/055
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:26:46. **Bukatu**: 01:28:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Roketan gaztelaniaz abesten zuten "San Andres en una altura" kanta abesten du. Lehen asko abesten zen, orain batere ez.

**Transkripzioa**
- Feli: “San Andrés en una altura”, gure kantie San Rokietan. Postie botaten abien, ipintten abien mutillek ta:
San Andrés en una altura,
San Roque en una llanura,
San Andrés en una altura,
San Roque en una llanura.
Por donde pasan las chicas guapas.
muy alegres las veo yo.
Y ojitos negros como la noche,
y ojitos blancos como el amor”.
Ya se secó el arbolito donde durmió el pavo real,
Ya se secó el arbolito donde durmió el pavo real
Y ahora sí...
- Isabel: ¿Te has atascao?”.
- Iñok be ez dau kantetan, nik ez dakit, lehengo kantarik oin. Ta kuadrillan, kuadrillan aittu, afaridxek-eta eitten giñuzenien San Roken, txokuen, erminttan ba asko kantau eben. Baia ya junteten izen garienak batzuk hil ein die. Aitzen dozu? “ Ya no es lo de antes”. Feli, benga. Eugenio ta Domingo-ta falta die.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. Abadiñoko Jerbas

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/036
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:49:52. **Bukatu**: 00:51:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Jerbas Abadiñoko semea zen, eskalea-edo zen; alanbre batzuk izaten zituen eta atzazalekin haiek jotzen ibiltzen zen. Berarengana hurbildutakoan, "Aittu ein bikodu berbaz" (ulertu beharko gara berbaz) esaten zuen. Hil ondoren, bere oroitzapenez, Abadiñon bere irudia zuten globoak botatzen zituzten; irudia zeukan globoa aurkitzen zuen pertsonak bazkari bat irabazten zuen.

**Transkripzioa**
- Ta Jerbas, nor zan Jerbas ba?
- Mañeri, Abadiñoko semie. Gizajue, ez euken nundik dirue... eskie moduen ibiltten zan. Ta euken holako ol zati bataz hiru-lau alanbre ipinitte ta atzazkal senduek eukitten bazen ta hareaz trin-trin-tron-tron- trin-trin-tron joten eban ta kalerik kale ibiltten zan ta haregana juten baziñen ta: "Zer Jerbas?" ta "aittu ein bikodu berbaz" kontestau eitten ban berak. Abadiñoko kontuek danak jakitten ebazan hak, kaso askogaz berba eitten ban. Bai, hil zan. Ta gero haren zelebraziñuen, lehen be pentseten dot esan dotsutela, Abadiñoko herridxek globuek botaten eban Jerbasen figurie plastikuen eindde, ta haiziek nora erueten eban ta jun jausten zan, ha topetan ebanak eukitten ban pareja baten ekarteko Abadiñon kontuz

Abadiñora egune pasetan bezkaridxe ta dana. Oin ez dakitz botako dabien, ezin neike esan hori. Lehen bai. Jerbas famosue zan.

### 4.2. Pilotak eta panpinak

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-023/072
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:54:51. **Bukatu**: 00:55:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Gomazko pilotak erosi egiten zituzten. Frontoian jolasteko pilotak, ostera, eskuz egiten ziren. Panpinak ere izaten zituzten.

**Transkripzioa**
- Pelotak-edo ze, etxien eiñikoak laniegaz edo teliegaz-edo?
- Ez, erosittakuak. Hori be uste dot eitten ebela. Bai frontoian jokatzeko be holako pelotak eitten ebezela uste dot. Baia guk ez, gomazkoak erosten giñuzen.
- Dendia, ze dendan erosi? gogoratzen zara?
- Ene bada!
- Ta muñekarik-edo be eukiko zendun zuk.
- Ba bai.
- Ta zelakoak zien muñekak? kartoizkoak edo telazkoak-edo?
- Batzuk onak eta beste batzuk ez.
- Ta zein zan diferentzia? porzelanazkuak-edo izatia-edo?
- Ez, ez. Edo trapuzkoak-edo. Horrek egoten ziran erosten ziranak oso ederto einddakuak ta.
- Zuk eukitzen ziñun ohean ipiñita holako muñekaren bat-edo?
- Ez! Holakorik ez, nik ez dot aittu holako konturik.

### 4.3. Torrelavegako denbora-pasak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/025
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:47:26. **Bukatu**: 00:49:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan olgetan ere ezin izan zuten euskaraz berbarik egin. Torrelavegan txori harrapaketan aritzen ziren kabiak topatuz. Pilotak trapuzkoak izaten ziren. Neskekin ere jolasten ziren. Bere emazteak dio mutilek ez zuten uzten arrimatzen.

**Transkripzioa**
- Eta zuek be mutillok-eta ibiliko ziñien olgetan-eta be, ezta eskolako denporan-eta?
- Bai. Ezin giñun berbaik ein euskeraz, e! Pentseu bez!
- Bai hemen eta bai Torrelavegan, ibiliko ziñien?
- Torrelavegan egon giñien gu, “como herejes”. Zer ein ez dakigule. Hantxe, txori-harrapetan ta horrexek gauzok. Jo!
- Ta txori-harrapetan, zelan ibiltzen ziñien, ba? Zer, zelan edo harrapetan zenduezan?
- Ba txori-habidxak topetan, etxera ekarteko jateko, txori txikidxek.
- Ze jan eukitxen abien ala?
- Bai.
- Eta pelotaka edo balioegaz edo?
- Bai, baloiaz ibiltten giñen, han. Baloiez, trapuekin eindde pelotak. Hantxe, orduen hamar urte, hamaika urte gehidxenak, hortxe, hamabi-hamahiru urte.
- Ta hormak be, eukiko zenduzan pelotan ibiltzeko?
- Hormaik ez euen, han. “Aquello era una selva”.
- Ta ze ibiltzen ziñien, neskakaz batera olgetan?
- Bai, neskakaz be bai. Gustire.
- Gusture. Ta neskakaz, zetan ibiltzen ziñien? Neskakaz, zetan ibiltzen ziñien olgetan?
-Ba olgetan. Ba neskak beti eukien preferentzidxe gehidxau mutillek baiño. Mutillek, “más…” Ba! Neskak, zenbat eon ziñien Feli, orduen? Feli!
- Emaztea: Mutilletan gehidxau eon zan.
- Mutilletan gehidxau, bai. Mutilletan gehidxau.
- Arrimetan itxi, be ez, e?
- Bai.
- Emaztea: Ama ta zera, juten zien ta zure arrebie Mari?
- Bai.
- Emaztea: Estaziñora gure astuekin, karruek einde, ure eruaten.

### 4.4. "Agarraue" sakratua zen

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/034
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 01:05:14. **Bukatu**: 01:07:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**:

**Transkripzioa**
- Ta parrandak-ta be eingo zenduezan zuek gaztetan?
- Ez euen dirurik “pa parranda tú…”
- Erromerire-ta bai?
- Bai, bai, bai. Orduen, soiñue zan dana. Bai ta […] Santa Agedok edo San Andresko egunok edo zera, ta hantxe. Soiñue jota dantzaldi batzuk eindde. Ba boltsilluek hutsik beti. Ai, ai, ai!

- Eta San Antonixotan-ta? San Antonixotan?
- San Antoniño egunien-ta? Ba Ezkurdidxen. Ezkurdidxen dana jantzie, dana txistue, tanboliñe ta soiñue.
- Nor egoten zan ba joten?
- Konjuntuek egoten zien. Orduen alegrie zan, ez oingo moduen.
- Eta agarrauen-ta ibiltxen ziñien andra artien?
- Ez. Agarraue sagraue zan. Sagraue zan agarraue. Ya ta hamazortzi-hogei urteaz orduen bai. Baia hor hamasei urte eta holan, pentsau bez, puf! Pasietan, bueltaka batien. “¿Has conocido eso tú? No”. Bueltaka batien.
- Amagiñarrebak kontauta.
- Bai, bueltaka batien, hantxe.
- Pasillo diferentiek.
- Exatamente. Hantxe. Bai.
- Eta jantzan eitxeko zer ein biher izeten zenduen zuek? Dirue?
- Ez debalde zan, debalde, debalde. Orduen agarraue “era sagrau”. Soltuen, hantxe ibili.

### 4.5. Retagrande eta Arripozueta

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:28:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Madalenako jendeak Retangranden egiten zuen igeri, Arripozueta goian zegoen presa bat zen. Gerraostean, Etxenagusiak egin zuen bertako zubia baina uholde batzuetan desagertu zen.

**Transkripzioa**
- Madalenako jentie euen hor uger eitten zien, esto, zelan zan? Retangrande, Retangrande. Arripuzeta zan goiko presie, ta horrek hori zubidxoi gerraostien ein aban Etxenagusiak, hori ez, beste bat, ta urek bota aban.
- Ta jentea han ibiltzen zan ugerrian?
- Ez, zubidxe riada bat, uridxola batek eruen ein aban.
- A, bale!
- Uridxolak bota, edo ta barridxe, hori barridxe da.
- Hori zer zan, txarto eindde-edo?
- Txarto eindde, bai. Bai, gerraostien. Gerraosteko geuzie, orduen ez zeuen exijentzidxik be, ta ez zeuen materidxalik be esatekoik, zementorik ez euen, ta ba halantxe.
- Hori ein aben berak?
- Berak ez dakitt berak ein aban, Etxenagusia entzunde eukozu, txaleta be hor deko.
- Izengo da, Karmelon familiakoa edo izengo da, ezta? Diñot, ez dakit.
- Bai, osabie, osabie. Hamen Etxenagusia Durungokuek altu bat, hil zan bera, horren aitte. Hori Eibarren hasi zan etxiek-eta eitten, Eibarren euen, horrek Idxorretakuek die, bai, hori Karmelon hor ingurukuek.

### 4.6. Emaztea ezagutu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/048
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:21:53. **Bukatu**: 01:23:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Bere emaztea San Faustoko Olleriara etortzen zen josten ikasten Juanita Bizkarrarengana eta horrela ezagutu zuten elkar.

**Transkripzioa**
- Josten etorten zan Olleridxara. Olleridxe San Faustokue, e! Beste Olleridxa bat euen Madalenan. Ta hor hiru urtien ibili zan ta gero hantxe, gero ezetu hantxe. Katillu ez dakit.
- Hor goidxen, Katillu, hori joan naz esaten.
- Joe, Katillu nik ezetu dot hantxe. Katillu bigarren pisuen, ha etxie baserridxe be han dau. Ta lehenengokuen euen hori jostune, Bizkarra, Juanita Bizkarra.
- A, bai? Ezetzen zendun Juanita?
- Jo, bai! Juanita Bizkarra. Bizkarra, alargun geratu zan gerran, ez euken familidxaik.
- Bai, ta umie be galdu ban bonbardeoan.
- Bai. Ba hantxe ibili zan urtietan, ta ba gero osaba bat euken gure etxe aurrien, Artekalien, ta ba handik ikusitte ba. Gero ba senide artekue be bai, ez zan senide, baia Garaidxen Etxeita ta Duñebeitti? Ba han euen mezkla bat, gure amaman aizta bat, Oarbeaskoa, ezkondu zan hango Duñabeittiko bataz.

### 4.7. Hitzartutako ezkontzak eta doteak

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/002
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:07:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Feliren gurasoak hitzartutako ezkontza baten ezkondu ziren eta 3.000 pezetako dotea izan zuen bere amak. Horrelako hainbat kontu egoten ziren garai hartan.

**Transkripzioa**
- Feli: Ta gero, zelan gure aitte jueten zan Montecalvora tratan.
- Isabel: Iratan klaro!

- Feli: Ba handik ipini eutsien ezkontzeko gure aitteri, Buztintzako…Aitteri, ezkondu daitten. Bodie ein dabien, famelidxek. Oromiñotik etorri zan.
- Isabel: Tia Bittori, Buztintzara.
- Feli: Buztintzara ezkondu zien, orduen julixuen? Karmen egunien.
- Urtie?
- Feli: Hogeta zenbat urte gure amak, euki abezen? Hogeta zazpi urte pentseten dot euki abazala.
- Isabel: Bai baia ezkondu? Juan, jaixo zan San Juan egunien. Oseake, ba urtebete ariñau. Ta Juane, oin lau ein dittu, larogeta lau.
- Feli: Larogeta lau San Juan egunien. Nausidxena da Juan.
- Isabel: Amagaz. Iguel, bardiñien, urte bardiñien izen zan?
- Feli: Zelan, gure amari hil jakon aitte azidentien, ipiñi otsien umieri, ez dakit zenbat zien, hiru mille pezeta-edo, orduko denporan. Dotie bateroren batek ez dakizu zelan zertzen dien? Ezkondu zanien, ba Buztintzara jueteko, harek diruok entregau ein biher izen abazan /bizabazan/
- Isabel: Nun, Buztintzan?
- Feli: Klaro. Lehen haxe zan. Tio Benitto zerien be bai; Abadiñon ezkondu zanien, ezkondu zienien eta etxie ikusten joan zanien, egon zan bedar-sikue be, honenbeste balixo dauela-ta trato batzuk, bueno! Ordun esan abien, zelan? Hainbeste diru emon biher guk honenbeste bedar-siku hemen dauelako? Bapez! Ta Izurtzara, hara ezkondu zien. Ezpabe, zure aitte hara baserri-etxera ezkonduko zan. Orduko denporan, holakoxe gauzak egon zien-ta. Bai. Honenbeste arroa bedar-ta. Nik tia Petrari entzunde.
- Isabel: Ba nik hori, sekule ez dot entzun.
- Feli: Tio Benito zan, Abadiñora ezkontzeko.
- Isabel: Bai, baserrire. Haidxe zan basarrireko.
- […] bizi ziren.
- Isabel: Klaro.
- Feli: Bai, baiña ez abien hainbeste diru emon…
- Isabel: Nik amari entzunde badeket, ez dakit, zelan da? Egunien, ez daitz zenbat ardau-ta eskatzen ebazala tio Juanek. Hara ezkontzeko Ba zelan zan bera zelan geratzen zan han […]. Horrek gauzok, bai. Esan ebala amak: euri begire egongo dozak, horretako. Benga, fuera, esan otsola aitteri. Benga-benga, hamen ez dogu eitten ezebez- ta.
- Bueno, ta orduen Izurtzara esaten dabena da Tabira.
- Isabel: Tabira.
- Feli: Hori.

### 4.8. Eskola gutxiko gurasoak

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/005
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:09:19. **Bukatu**: 00:11:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Isabelek Izurtzako eskolan ikasi zuen; bere aitak, ostera, ez zuen jakin ezta idazten ere. Feliren ama 3 hilabetez joan zen

eskolara. Isabelen ama domeketan joaten zen eskola dominikalera, nebak ikasten zuten, baina ama beti lan eta lan.

**Transkripzioa**
- Zu nun ibilli ziñen eskolan?
- Isabel: Ni Izurtzan.
- Izurtzako eskolan?
- Isabel: Bai.
- Eta zelan ikesten zendun, euskeraz?
- Isabel: Keba erderaz. Bueno!
- Izurtzako eskola nazionalien-edo?
- Isabel: Bai, bai.
- Beste pregunta bat. Zuen aittek eta amak, baekidxen eskribiduten eta leiduten?
- Isabel: Nire aittek, ez. Nire aittek ez zekidxen erderaz be ez. Nire amak Ba zeozer, baia ez aban asko idazten. Leidu gehixau eitten eban eskribidu baiño. Eskribidu…
- Feli: Gure ama, hiru hillebetera, hiru hillebetien ibili zen eskolan, koittaue! Ta leiduten ebazan periodikue hartu, te letra haundidxek. Listuek zien. Kontuek atara, hiru hillebetien joan zan eskolara. Aittek gehixau jakin aban.
- Isabel: Nire amak ez. Nire ama eskola dominikalera joaten eizan domeketan. Arratsaldien ze, […] euezen mutil bi. Harek mutil bidxek, maristetarara eta ama, biherrera. Ama, Oromiñora iriek ebaten-ta.
- Feli: Bai, ire ebaten-ta.
- Isabel: Klaro! Montecalvora.
- Feli: Neu be, junde nau-ta.
- Isabel: A, bai Feli?
- Feli: Bai.
- Feli: Bolantien kargetan? Puaf!
- Isabel: Ta zelan da?
- Feli: Lauretan etxien urtenda, ¡ay dios mío!”.
- Isabel: Bai, amak be, hori…
- Feli: Aitte: “Bolantien gaztie.” Ni, hantxe be, marieu. Botaka, bolante ganien.
- Isabel: Amak esaten eban, bera bakarrik juten zala txakurreaz. Esniek batu, ze amama beti geidxorik, ta Felidxen aitte, nire osaba, ba jardiñeru. Harei, plantxau prakak “pa que vaya chulo- chulo”, ta tio Pedroaz ez eban gure ezebe. Esaten eban, ha ta katu epel bat, iguel-iguelak ziela-ta. Ta bakarrik jueten zan.

### 4.9. "A guardias y ladrones"

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/011
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:14:49. **Bukatu**: 00:15:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "A guardias y ladrones"era olgetan zuten.

**Transkripzioa**
- Ta olgau zelan eitten zenduen?
- Feli: “A guardias y ladrones”. Han San Roke aldien egoten zan ereindde garidxe. Gari artetik ziher, kaballo-palo batekin atzien. Klaro, gain guztidxen, bueltan lapurre.
- Isabel: Ez dakizue eitten ziena, holakoak?
- Feli: Neskak eta mutillek, olgetan giñun.
- Isabel: Feli, ez dakizu zelan eitten zien holako zerak?
- Feli: Bai.
- Isabel: “Guardias y ladrones”. Ta han sartu, han sartzen giñien azpidxen ta zer guztidxek, danak aidien. Ze, ni asko juten nitzen; ze, ama San Rokera jueten zan asko, Feli.
- Feli: Klaro, Jesus Maria!
- Isabel: Burrukan, Juanegaz- ta.
- Feli: Txarridxek hiltten zienien- ta? Puf!
- Isabel: Baiña burrukan…
- Feli: Erromeridxe.

## 5. Baserria

### 5.1. Etxearen errentan diruaz gain kapoia

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/072
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 01:43:16. **Bukatu**: 01:44:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Etxeen alokairuak Domu Santu bueltan ordaintzen ziren. Ugazabari diruaz gain kapoia ematen zitzaion; jendea kapoi bila Bilbora joaten zen.

**Transkripzioa**
- Errentak zelan pagetan zenduezan lehen, etxietako errentak?
- Bueno guk errentarik ez dogu pagau, bueno, han bizi giñenien, San Fauston, bai. Hango konturik ezin neike esan, ze umie nintzen. Baia hamen normalmenten, Domu Santuek izeten zien errentie pagetako, ta asko Bilbora jueten zien errentiaz diruten ta gero kapoiek, usadidxue izeten zan, kapoiek kapau ta agotik jaten emon ta ipintten zien kapoiek, obligaziñue eukitten abien batzuk, danak ez baia batzuk bai.
- Dirurik ez?
- Dirue be bai, dirue be bai. Ta kapoiek Gabonetarako-edo horidxe, kapoiek be bai. […] seridxo zelan tratue eindde euki abien, hataidxe.

### 5.2. Soloko tresnak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/006
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena**: Solo beharrak eskuz egiten zituzten. Erabiltzen zituzten tresnak aipatzen ditu: triki-takea, area... Triki-takea auzoan erosi zuten.

**Transkripzioa**
- Klaro, klaro, lehenao dana eskuz. Atxurre, atxurre ta triki-takie. Ez dakizu triki-takie zer dan? Haretxeaz. Ta arie, arie bakizu zer dan? Ez dakizu zuk arie zer dan.
- Esplikaixu, esplikau.
- Honako kuadro bat lau hortzakaz. Harexeaz behiek zertu. Gero etorri zan tratora ta horrek geuzok gero. Edo tratora eukenak, lelengokuek joder, millonario. Hombre! Oin dauen makiñeridxe. Hori euki banaben orduen izengo nitzen barrioko aberatsena.
- Ta ez zenduen eitten zuek, auzoen artien erosi tratore bat-edo?
- Erosi giñun triki-trakie auzuaz, baiña harek ordun balidxoko abien, ze balidxoko abien ba? 3000 pezeta? Ez be iguel.
- Ya baia diru asko?
- Hombre! Joder: “Fulanok ta zerak triki-trakak erosi ittuek . Bittoridxan eitten zan hori triki-trakiori. Joder, “un adelanto bárbaro”. Ta gero txatarrarako gero.
- Hori artorako zan triki-trakie edo zertako zan?
- Danerako, preparetako. Lurre preparetako.
- Laidxetan ez ziñen ibilli ala?
- Nik ez dot ein laidxetan sekule. Hombre! Nire ama difuntik-eta makiña bat laia eitten abien. Oin esan biher gaurko gaztieri laidxiaz eitteko. “¿Estás loco o qué?”.
- Gogorra ezta?
- Gogorra, gogorra, oso gogorra. Oso gogorra.

### 5.3. Behiak esnerako eta solorako

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/007
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:09:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Behiak erabiltzen zituzten, inguruetan inork ez zuen idirik. San Andresko baserri batean eta Orozketako pare bat etxetan egon ziren idiak. Goldaketarako idiak ekarriz gero ordaindu egin behar izaten zuten lan hori. Behiak esnerako eta soloko beharretarako izaten ziren.

**Transkripzioa**
- Ta zuek ididxek-eta euki zenduezan?
- Ez. Behiek, behiek. Idirik ez giñun eukitten.
-Oin biharrereko ta?
- Behidxek. Bai. Ordun behidxek. Ididxek hamen iñok be ez eukezan. Hor San Andresen bai, San Andresen ididxek. Baserri baten bakarrik ididxek euezan San Andresen ta Orozketan be bai. Orozketan etxe bitten edo egon zien ididxek; ze horrek basuen ibiltten zien tronguek bajatzen. Piñuek bajatzen-ta horrek ididxok.
- Orduen soluetan ez ziren erabiltzen?
- Hona ba, ekarten ziñun pagaute. Goldaketan-ta askotan, behidxek iguel ernari edo txahala eindde edo zertu, ta ha ekarri pagaute. Bai.
- Ta konpensaten aben gero dirutan kontue ala ez?
- Bueno, baserrittarrak sekulo ez dau atara konturik. Galtzen eon bada be, sekulo konturik atara ez, sekule be ez. Nik ardidxekaz ez dot kontue ateraten. Nik ardidxekin galdu eitten dot, pentsue dauen prezidxuen. Baiña garbittiarren, bestela kenduko neukez nik. Bestela emon ezebe ez deu eitten. Pentsue dau karu-ta, pentsue karu.
- Ta zuek behidxek-eta zetako ibiltzen zenduezan, gero saltzeko edo esnerako edo?
-Esnerako, esnerako, esnerako saldu. Zenbat balio eban ba? Ezebe ez abien balidxo esnie emoten, baia orduko denporetan...
- Ta orduen esnie saltzen zenduen zuek?
- Esnie. Hemen danak behidxek esnerako. Ta gero klaro, soluen ibiltteko. Bestelan esnerako. Hamen behie, gitxienak, bost bat behi euko abazan, baserri bakotxak. Oin bape ez dau; danak juen die.

### 5.4. Harakinarekin tratua

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:09:57. **Bukatu**: 00:11:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Txahalaren prezioa harakinak jartzen zuen ez baserritarrak. Migel haundi harakinagaz tratatzen zuen. Hiltegia gaur egun Plateruena kafa-antzokia dagoen tokian zegoen.

**Transkripzioa**
- Ta txahalak-eta ez zenduezan saltzen karnazeruren bati?
- Klaro, karnazerueri. Orduen mataderue egin auen Olma enpresie, Olman onduen. Oin be han dau. Haraxe. Karnizeruek eurek ipini prezidxue, noberak barik. Eurek: “si quieres, tanto”. “Y tener que dar a la fuerza”.
- Ta ze karnazerugaz eitten zendun zuk tratue?
- Ze karnazerugaz? Migel Haundi. Oin be alabiek deko karnizeridxe, hor. Semiek harexegaz beti tratue. Kobretako txarto, beti “espera”. “Espera sí pero me hace falta”. Orduen ez euen diruik-eta! Orduen, txahal bat saltzeko, ya pentsaute zeunken hau erosteko edo bestie zertzeko; ez euen dirurik-eta. Karnizeruk be eurek be, txarto: ekonomikamente esan gure

dot.
- Eta zuek mataderora ez ziñien joaten?
- Txahala erueten, txahala erueten sokatik. Orduen ez euen, kotxerik be ez euen orduen-ta. Orduen, sokie; kordelakin lotute mataderora eruten abien txahala. Ta gaur ezin leike eruen. Gaurko zirkulaziñue.

### 5.5. Errotak zarratuta irin falta

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/032
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:59:44. **Bukatu**: 01:01:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Karlisketak errotak zabalik izan zituzten. Imazekoa, Atxurlariarena eta Maumakoa (Ibarruri-Muxika) egon ziren. Olma lantegian arto-irina egiteko makinak egiten zituzten. Enpresetan txuskoa, ogi beltza ematen zien.

**Transkripzioa**
- Eta hemen errotak zarratute egon zien?
- Karo! Kontauek. Karlistak euki abien errotak zabalik bakarrik. Bai.
- Ta hamen ze errota izen zan zarratute egon zana? Hamen parajien-edo?
- Ba hamen euen: zera, Atxurlaidxana ta Mauman. Hiru errota jarri ta baserrittar guztiek haraxe eruen biher, gehidxau ez euen-ta. Gero akordetan naz, Olmanien makiña batzuk ein abiezan urune eitteko, artuaz urune. Bastuaue zan ta hantxe gau guztietan hantxe. Ogi baltza euen orduen. Ezetu dozu ogi-baltzik? Ta erraziñue etorri zan txusko bat. Honakoxe txusko bat akordeten nok. Txusko bat ta enpresetan emoten abiezan eberdidxen, txusko bat bakotxari. Ta etxera erueteko, kauen. Txuskue begidxekin jateko moduen, ta etxera txuskuori. Baltza. Ai zuek ez dakizue...
- Gari barik, beste gauza bat izengo zan?
- Zahaidxe. Bestelan hamen, dana zan garidxe. Baserri guztidxetan, garidxe.
- Garidxe ta artoa be bai, ezta?
- Artue, artue. Domeketan be, biherrik ein ezin.

### 5.6. Errotara gauez

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/052
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 01:27:45. **Bukatu**: 01:30:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean errotak zarratuta egon ziren, prezintatuta. Beraiek Maumako (Ibarruri-Muxika) Oxinbaltzara joaten ziren, baina gauez joan behar izaten zen astoz. Zorroak eramaten zituzten eta astoak beti zekien bueltarako bidea, astoa sekula ez baita galtzen.

**Transkripzioa**
- Bueno bai, kontrabandue egon zan gerraostien. Errotak, hau por ejemplo, erroten gorabeherie hor Sarrierrekan dauzen errotak edo makiñetxiek, ba horrek errotak euezan. Baina zarratute euzen, prezinttaute “por avastos”. Ta euezan Meumen, Oxinbaltzan, Pedro zan, Pedro ta beste bat Seberi Begoña, Meumen goidxen, barriadatik behera dau. Garaikuek eta Mallebitik eta Berriztik hortik Arroitteko etxe ostetik, hortik pasetan zien ta ni osabiaz jun naz hamar-hamaika urteaz-edo, hamarraz, horra errotara gabez. Laixiar, hortik baso atzekaldetik Garaidxen, hango mendidxetatik, Aiñagasakon eta horrek danak. Ta juten ginien gabez, han gaba pasau idxo arte, baina orduen iguel oten zien hamar, hogei asko jota urunetan han. Eta gero buelta gabez.
- Eta zelan juaten ziñien?
- Astuen! Astoaz, astuen zorruek, pare bat zorro-edo.
- Asto-otzaratan-edo?
- Ez, zorrue bestela eitten zan. Osea, zakue ipiñi ta gero lotu ondo, buztenetik atzetik eta ez dozu ikusi hori? Hori, ba ondo berotu ta gero igual jeusten jatzun ba mobimentuen, ta altxau ein biher. Ta gero bueltan, gero astue esaten dabe jun dan lekutik gero bueltan ez dala galtzen, esaten dabe.
- Listue dala, ezta?
- Bai, bai, “o sea, noción de esto, de lugar”. Astue be listue da, e! Ta kaballue be izengo da, baia astue Arroitten joder! Eukien ba basuen ibiltten zien bi, bata zan zaharra-edo, una bruja, “La Blanquita”, ta juten zien ta artue, osea, artaburue eitten berdien-edo euenien, sasoien izeten da ba setiembre ingeruen, ta setienbrien Arroittetik hortik basu ostietatik juten zien Santa Kataliñara. Ta horko basuek, soluek hesi barik euezan, hor San Juanetik-edo, bueno, eliza barritik horra ta dana, ta hor artotsetan triskue eitten abien. Ta urte batien baiño gehidxauetan, ta “nun da? Astuek ez die agertu geur gabien!”. Ta hurrungo egunien nun eta Kasaben, bai, baia astuek bai, bai. Ni asto ganien asko ibilli naz.

### 5.7. Industriaren gorakada: dirua

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/062
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:50:20. **Bukatu**: 01:52:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-

mugimenduak
Ekonomia eta industria » Boom industriala
Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza

- **Laburpena**: Baserritarren dirua ez zetorren pinuetatik. Pinudiak duela 100 urte pasa landatu ziren artzainen haserrea sortuz. Lehen basoetako Ira zen nagusi, baserritarrek behar utelako. Dirua fundizioek eta ostantzeko lantegiek ekarri zuten herrira.

**Transkripzioa**
- Bai, piñuetatik, piñuetatik. Piñuek gure familidxan, gure aitte administradorie zan lau basarridxena Berrizen ta piñuek haridxek sartu zittuen lelengo-lelengo hil aurretik. Gure osabiek eta gure amenak eta be berak sartu abezan. Nik piñuek baso bat deket...hiru piñu aldiek kendu otsana bebai, osea, piñuek hamen sartu zien ehun urte baiño gehidxau, ehun urte bai. Ta horrek ba batzuk pastoriek kontra zien, rebañuek piñuen ba, ta propietaridxuek ba piñue gurien. Gero, lehen idie zan hamen neusi basarriko kortarako, oin danak libre dauz horrek, kortak beste modu batera dauz-ta. Ta dirue ba, fundiziñuek euezan, Olma, esan dozun lez, Olma. Gero, Ortiz de Zarate, San Miguel, gero hor Izurtzan be baeuen ederra. Ta gero barridxek, kooperatibak San Rokekue, Funbarri, San Antonio, han kanpo de fubolien, ta horrexek. Ta gero, ba ostantzeko industridxak be, ferretera ta baeuzan, Mendizabal be bai. Mendizabalek seirehun obreru eukezan. Gero, ba taller txikidxek, bai, mobimentue baeuen.

### 5.8. Garaiko argia eramateko zentralak, errotak...

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/073
- **Iraupena**: 0:05:24. **Hasi**: 02:02:06. **Bukatu**: 02:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Bere aitak eraiki zuen Garaira argia eramateko motorra, zentraletatik uraren indarrez funtzionatzen zuena. Errekaren ibilbidean dauden baserriak, errota, zentralak, deposituak eta abar zeintzuk ziren kontatzen du.

**Transkripzioa**
- Gure aitten motorra, ba Garaidxeko...Garaittik jungo zien zentralak hara, Urzulora. Urzulo da, handik hasten da zentralak. Han goidxen oin hartzen dau ure, dauz “acuiferos”. Ezagoizko Etxebarrietan egon zara? Ba han zelan dauen dana, ba handidxik han ta Urzulo esaten eutse, ba ein abien depositueri, zentraleko saltuentzako urtetan abalako urek handik. Ta gero saltuek kontetan bozuz, joder! Esango dotsut. Hamen grabetan da? Bueno, gero entzungo dozue. Urzulo, beherau Makiñetxe, han kamarak-eta dauzen lekuen. Han dau tunel bat, baso bat goittik beheran, refujidxo gorridxen denboran, gerra denboran hara juten zien, han ez euen bonbardeorik.

Gero, Makinetxe; gero, Patala, oin be funzionetan dau. Patalatxiki, horrek, zerrie Berasaluzek euken, zerrie ta handik emoten Patalaxikittik. Gero, Errotatxu, oin horko depositтuek Durungoko ure deko. Depositтuek kargie hartzeko, ze ostantzien beherautik ekarten abien, baina hona ez zan aillegetan laugarren pisure, ta ez euen presiñorik. Ta gero ha erosi aban ta Errotatxu Mendizabalena zan, ta Mendizabalek saldu otsen ta gero. Gero dau Errotatxu, Errotetas. Gure zentralak eittek eukezan Urzulokue ta Errotetakue, zentral bi eukiezan. Hor deko basarridxe onduen, ta berena / pentsot/ pentseten dot dala erositte, hau zelan da? Castillo? Seberri? Bakizu basarridxe deko han, lehenguen on giñien. Bueno, hortxe. Gero, beste bat Olazar. Olazar zan, Durungoko aiuntamentuek erosi auen, ta handik emoten aben indderra ba kalietako esto. Gero Olabarri, ha be Ortuetan beste esto. Gero, Esterripa, Esterripa euen. Gero, Lebario, horrek zentralak zien. Gero errotak, Ola, Ola zarratu ein zan hau Patalatxiki eitteko. Propietaridxue zan Berasaluze Oarbeaskoanak, ta Patalatxiki eitteko, indderra emoteko zerriei hori eliminau ein abien. Oin txaleta edo, baserri ederra deko honek Garciarueñon alabiek. Gero, Errotatatxure be errotie, nik horrek errotok ezetu oazanak die. Bueno, hori apurtute euen, baia han Errotatxu, hori Mendizabalen zentralekue. Ta horko urek aprobetxetako, errotakuek, ba zentrala ein abien. Gero dau Errotabarri, horrek zelan deke izena? “Los Hueveros” esaten eutsiena?
- Semea: Oruemazaga.
- Oruemazaga, entzunde. Gero dau Bolunzar, Bolunzar mutillek Banco Bilbaoen /pentsot/ pentseten dot eitten dabiela. Gero dau beste errota bat, Ugerte, hor doiez eitten eskolak horrek, Errauteretik Diputaziñuek ein abezan ba eskola batzuk hamen fronto txiki bataz? Ba hor zer doiez eitten?
- Interpretaziño zentroren bat-edo.
- Ba hortxe, hor doiez eitten. Gero euen Anporta, Anporta entzutie deukezu? Anporta. Gero dauz, horko urek pasetan zien hametik Esterripetik, autopista ondotik, GAcera, GAcera badakizu nun dauen? Ba hortik urek, ta hor Lebarioko basarridxe euen, ta hor be errotie euen, ta horrek...hori Anpuerona zan ta saldu ein aban ta hor Gacie montau zan. Hor GAcien sartu abienien, ni Zaldibarrera bankure jueten nintzen, honaiño harridxe Mañeriko zaborra. Ta gero handik, beste errotarik ez dau. Gero Esterripa, edo Lebaridxoko zentrala azkena. Ha zentrala Astolara, hametik Lebaridxotik atajotik bakizu Astolara urteten dabena? Hoidxe zan zentralak. Ta hemen Oromiño aldien be iguel. Hasten zien Seberin errotie, gero Patalakuen tranbiko, Patalakue zan tranbikue indderra emoten abana ta hor Oxinbaltzara. Nik baso bat deket han Trumoitto ostien ta handik juten zan linie, ta entresakie edo eitteko jun biher izeten naben Lemonara. Han euen tranbidxen esto, kentzeko indderra.

### 5.9. Mañarira ogi bila

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeitia Uribe, Isabel; Uribe Alberdi, Feli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Barreña Agirrebeitia, Andoni - Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-032/044
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:10:05. **Bukatu**: 01:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena**: Jai egun handietarako Mañarira joaten ziren ogi bila. Onak eta jatorrak ziren hango okinak eta oso ondo portatu ziren jendeagaz.

**Transkripzioa**
- Feli: Guk San Antoniñoetako eitten geñun, San Roken ba kuadrillie. Garidxe eruten geñun zerera, Mañerire.
- Isabel: Maiñarikuk ez zien lapurrek.
- Isabel: Mañeridxen eitten doskuen, guk eroaten geuntsen zeragin, garidxegin, ogidxe; honako ogi redondobat Ta jueten giñien iguel hiru-lau lagun gazte, geure karruek eta astuegin. Ekarten gendun ba hogei zein ba hogeta hamar ogi. Itxi garidxe ta ba ogidxek emoten oskuzen. Bidien, batari edo bestieri zer eitten gendun? Ogi bat bidien jan. Ogi gose bat! Ikusgarrizko ogie, baiña jai eta San Antoniñoatarako akordetan naz beti, Mañerire ogidxe ekarten.
- Isabel: Mañerikuek, panaderixakuek, oso formalak zien. Nire aitte be juten zan.
- Feli: Makiña bat biher ein abien, e!
- Isabel: Bai baiña neska, nortzuk eitten jonen biherra ba? Eurek. Beittu zenbat zien. Hamahiru-do. Ta harek ogidxe eitten abien ta ni gogoratzen naz nire aitte juten zan.
- Feli: Mañerikua edo Mañarias “esos que tienen ahora” zera.
- Isabel: Bai, badaki nortzuk dizen.
- Garate?
- Isabel: Ez, Garate ez, keba. Mañari-Mañaridxen.
- Bata horregaz dau ezkondute, ezta?
- Isabel: Maiñariko kanterakuagaz, Amantegigaz. Emili. Zelan da? Aitte jueten zan karruen ta ez eban eroaten asientue. Zestue erueten aban, zestuen jesartzen zan ta gero bueltan, ogidxe ekarten aban honan azpidxen. Guk ez giñun euki garirik, baiña emon eitten otsien. Oso formalak, e!

## 6. Euskara

### 6.1. Berorika, hika eta zuka

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Ortuoste, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-004/073
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:44:08. **Bukatu**: 01:47:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
  Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Abadeei berorikaz hitz egin behar izaten zitzaien; hikaz hitz egitea ez zaio ondo iruditzen. Hika hurbileko jendearekin berba egiteko modua dela dio. Medikuari ere berorikaz hitz egiten zitzaion. Etxean zukaz hitz egiten zuten. Lagun artean zuka edo hika egiterakoan, adina hartzen dute kontuan, gazteagoek nagusiagoei zuka egiten diete. Bere emaztearen etxean neba-arrebek hika egiten zuten.

**Transkripzioa**
- Abadiekaz-eta zuek, zuek abadieri berba zelan eitten otsazuen? gugaz egotie lez eitten otsazuen berba?
- Orduen ez, orduen ez. Orduen "berori", "zu" nekez, "berori".
- Derrigor?
- Derrigor-edo, haidxe usadidxue-edo. "Berori" ya kategoridxe. Oin "hi" be iguel. Hemen euzuek, lagunek: "e hi!" abadieri esaten otsie. Bai, bai, bai. Kuadrilllan lagunek ibilli ezkero, jaten ta edaten-ta kuadrillan: "hi, Fulano!".
- Ta zuk txarto ikusten dozu hori?
- Nik ez dot ondo ikusten. Gitxien-gitxien "zu", gitxien-gitxien "zu".
- Abadieri bakarrik?
- Danari be pertsonari konfidxantza handidxen bat ez bada "hi" "zu" hobeto ikusten dot. "Hi" ya da aparte "compañerismo" moduen zer "intimos, como intimos", "hi", "hi".
- Ta medikueri?
- "Berori". Orduen bai, orduen bai e! titulue eukitten abien.
- Ta beste danari "zu" edo "hi"?
- "Zu", bai.
- Ta etxien arrebiegaz-eta?
- Arrebie "zu" bai.
- "Hi" ez?
- Gurien ez e! ez, gurien ez. Beste etxe batzuten "hi", ta guk lagun artien, nik iñoiz biherrien be bai, ni baiño gaztiaue, urte bi-edo gaztiaue-edo ta hak ni niri "hi" ta nik berari be "hi", ta beste lagun bat peon modure ibiltten giñun, ha gu baiño gaztetxue ta harek bidxek eurek bata besteri "hi" ta harek peoiek niri "zu" eitten osten. Ta horrek bestiek, Emilio euken izena beste albañelak, esan otsan hareri bestieri: "zegaittik ez otsek esaten horreri "hi"?" hak ez, hak "zu" beti niri.
- Errespeto kontua orduan?
- Bai, etxurie etxurie, bai.
- Ta andriari zelan eitten otsezun?
- "Zu". Bai, bai, bai, bai, bai. "Hi" sekule be ez e!
- Ta gizonan artien bakarrik "hi" edo andrari be bai?
- Andrak euren artien be bai, bai.
- Baia gizonak andrari?
- Nik neuk ez, beste batzuk ez dakit, ezin neike esan.
- Zure andriek aiztiak eukezan?
- Arrebie, nik arrebie.
- Ta zure andriek?
- Nori?
- Zure andriek ez eukan nabe-arrebak-edo?
- Eurek "hi", eurek bai, eurek bai, eurek "hi". Harek "zu" bata bestieri sekule be ez, "hi". Bai, bai. Neba-arrebak, eurek zien bost neska ta mutil bat, ta "hi".
- Aldia euen Durango izan edo Abadiño izan, igual? aldia "zu" edo "hi" eitteko?
- Ba ezin neike esan horretan, ezin neike esan.

### 6.2. Maitena, Jone, Joseba Ander... izen euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: DUR-023/053
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:26:51. **Bukatu**: 00:27:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Neba-arrebek izen euskaldunak izan zituzten. Berak bataiotik dauka Maitena izena, antza, bere gurasoek ez zuten arazorik izan euskal izenak jartzeko. Nagusienei konfirmazioan aldatu zien izena.

**Transkripzioa**
- Bueno nausidxaue Jabier izen zan.
- Beti ingurukoak e? Xabier, Balendin, beti ingurukoak e?
- Bai, bai. Eta bestie Joseba izen zan, baia Joseba Ander.
- A Joseba Ander.
- Bai.
- Zuek, karo zuk Maitena, gero Jone, Itziar... izen euskaldunek euki dozuez danok.
- Bai, bai.
- Ta zelan ba hori?
- Ba holantxik izen dalako. Gure aittek eingo eban hori.
- Baiña ez ban euki problemarik-edo, Maitena jartzeko-edo? Bautidxotik dekozu Maitena?
- Holantxeik egin gara gu. Nausidxek ez dakit zer, gero konfirmaziñuen aldatu otsiezela-edo holan hondiño, ze jaleo haundidxek egon zien izen.
- Baia zugaz ez. Zure sasoien ez zan egon jaleorik.
- Ez, ez, ez. Ozta-ozta nire sasoien nire sasoien konpondute egongo zan-edo ez dakit zer.

### 6.3. Durangon ez zen euskaraz berbarik egiten

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-023/057
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:30:49. **Bukatu**: 00:32:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Errepublika garaian Durangon ez zen euskaraz berbetan. Maitenak etxean baino ez du egin euskaraz, lagunekin ez. Behin eskolan esan zien beraiei etxean ez zietela uzten gaztelaniaz berbetan, baina hori ez zen horrela.

**Transkripzioa**
- Orduan hemen euskeraz iten zan Durengon?
- Ez.
- Ez, hemen ez da ein iñoiz euskeraz ala?
- Bueno, euskera nortzuk eta zer.
- Bertakoak diñot, durangarrak. Nik badakit kanpotik etortzen zienak eta

baserrittik bai eitten abien, baia kalian eitten zan euskeraz?
- kalian ez.
- Ez da eitten.
- Ez, ez.
- Zuk lagunekin erderaz ala ez?
- Ba bai erderaz.
- Erderaz eitten zenduen. Hori bardin zan gerra aurretik edo gerraostetik, bardin?
- Eta geuza arrarue erizten ostien otsien-edo, eta niri esan ostien behin kolejidxuen: "Tu, a vosotras no os dejan hablar castellano", ta "¡si nos dejan!" esan notsien nik. Ba bai jakiñe, izten oskuen, baia neure ama ba pixka bat ba ez dakit zer izango dan hau.
- Ta zuk Jonerekin beti euskeraz?
- Bai! guk gure artien beti euskeraz.
- Txiki-txikittatik be.
- Bai, beti, beti, beti.
- Ta amagaz ta aittegaz ta.
- Ba bai, beti. Gure aittena: "nire etxean euskera nagusi".
- Bueno baia hori esanda be izan leike aittak esan eta gero kasurik ez eittia...
- Bueno, ez, ez. Normal erizten gontsen, euskera eittieri normala erizten gontsen.

### 6.4. Durangoko euskara

- **Hizlaria(k)**: Belaustegigoitia Ortueta, Maitena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-023/076
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:58:08. **Bukatu**: 00:59:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Euskara
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Durangoko euskara zelakoa den azaltzen du. Durangoko euskara -a"z bukatutakoa dela dio, eta inguruetako "-e"z bukatutakoa

**Transkripzioa**
- Ze diferentzi igertzen dozu Durengotik inguruko herridxetara?
- Ba Durengon "-a"gaz eitten da, "andria", "gizona".
- "Laguna"-eta.
- "Laguna" bai, beste batzuk hobeto gleditzen die "-ea" "-ia".
- "Atia".
- "Atia".
- "Atie" ez.
- "Atia".
- "Atia".
- Durangokue e! ingurukoak "atie".
- Durengoko kaleko esan gure dozu. Baia lehen ez dozu esan kaleko jentiek erderaz ein dauela?
- Bueno bai, baia.
- Berez, Durangokoa da "-a" bukatzen dana.

- "-a"gaz.
- Bai, hori entzunde dekot.
- Zuk be entzunde daukozu?
- Bai baia ya galdute dau, baia bai entzunde dekot. Durangokoa berez, "-a"gaz bukatzen dala.

### 6.5. Domeketan ezin lanik egin; abadeen indarra

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/033
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 01:01:27. **Bukatu**: 01:05:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Domeketan ezin zen lanik egin. Orozketa (Iurreta) don Jesusekin bizitakoak gogoratzen ditu. Soloan lanean egon eta abadea azalduz gero, lanak utzi eta muin eman behar izaten zioten eskuan abadeari. Abadeari "jauna" esaten zieten.

**Transkripzioa**
- Klaro hor erlijiñoak aginduten eban, ezta?
- Don Jesus Orozketako abadie ezautu dok hik?
- Bai
- E?
- Arizaga.
- Baiña ezeutu dozu?
- Bai, hori bai.
- “¿En vivo? En vivo, no has conocido tú”.
- “En vivo”, ez. Ezagutu naben hango mutil zaharra bizi zana, han.
- Kapanaga.
- Bai.
- Ba, ha eindde dau, ibili, ba, domeketan aitte Menedizabalenien biherrien. Ta domeka goidxetan iguel ba, soluen biherrien, etorri ta: “eh! Domeketan ezin leike biherrik ein eh! Ta ez bazouzue etxera, multie botako dotsuet!”. Kauen, “vaya cura”, kauen la ostra. Ta eindde nau ni, itturran ibilli, itturran bakizu zer dan?
- Bai.
- Ez dakizu zuk itturran...
- Badakit zer dan.
- Bueno, itturran ibili, behidxek geratu ta juen ta mun emotie abadeari. Obligao. Sekule be ezetu dozu hori?
- Ez.
- Entzun bez.
- Entzunde bai.
- A entzun dozu? Bueno.
- Ta abadeari be berba zelan eitten otsezuen?
- Zu.

- Zu?
- Jauna.
- Zu, ez abadeari?
- Jauna.
- Berori?
- Berori. Hori, diaridxo kafie hartzen Lapikonera. Lapiko ezetu dozu?
- Bai, hori bai. Hori, oin bankua.
-Exato, exato, exato. Haraidxe. Ta Juan Txikidxe deitzen otsona, Orozketako baserridxek, baserri [...kue], itxaroten otson hortxe Ortizen onduen. Ta bidxek jueten zien trenbidatik holan heldute, jueten zien. Harek abadetik ez zeuken, zero.
- Gitxi?
- Ganeko erropa.
- “Exacto”. Exacto”. Ta harek euken domiñeute Orozketa guztie. “Bajo él”. Arratsaldeko lauretan, erresoraridxora. Ez zienak jueten izendeute. “Ez zara etorri, e? Errosarixora, e? Bixer etorri”. Baserri guztiek, beran azpidxen ta bera goidxien kazan.
- Dana derrigorra, orduan?
- Dana. Esteban Bilbao be. Ez harek zero. Esteban Bilbao jueten zan ha; Orozketa, Orozketako herrire, Santidxau egune. Esteban Bilbao.
- “Presidente de las Cortes?”
- “Presidente de las Cortes, que esté donde tenga que estar”. Bueno, ha mutil zaharra be, Kanpanaga, ezetu dozu? Zuk ez zendun ezetuko. Kapanaga, ez zeñun ezetu.
- Bat, ezeutu naben hor mutil zahar bat. Ez dakit, andra zahar bat ta mutil zahar bat.
- Bai ba! Kanpanaga mutil zaharra.
- Argal-argal bat.
- Bai, mutil zaharra zan. Horrexek agintzen abien, Orozketa guztien. “Vaya historial”.

### 6.6. Neskekin "zu", mutilekin "hi"

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/042
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:16:49. **Bukatu**: 01:18:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Neskekin "zu" egiten zuten eta mutilekin "hi", lagun zein neba-arrebekin. Seme eta ilobei. ostera, sekula ez die "hi" egin.

**Transkripzioa**
- Ta lehen esan dogu abadieri berori egiten eitten dotsazula?
- Berori, berori.
- Eta “hi” eitten zenduen lagunekaz-eta?
- Bai, bai. Neskakaz “zu” ta mutillegaz “hi”.
- Ta zer dala-ta hori deferentzidxe?
- Bueno, horren ganien ezin dotsut esan nik. Hoidxe ikesikue-edo.

Mutillekaz “hi” ta neskak “zu”.
- Ta zuk anaidxegaz? Zure anaidxegaz?
- Hi.
- Arrebiaz?
- Zu.
- Ta lehengusu-lehengusiñakaz be bardin?
- Bardin.
- Ta lobakaz?
- Bardin. A llobakaz? Zu, llobakaz, ume txikixaz, zu; hi ez.
- Ta amari ta aitteri, ezta okurridu bez? Aitteri, ez da okurridu bez, ezta?
- Ez, ez, aitteri ez.
- Baia aittek zuri bai?
- Ez. Hi ez. Zu.
- Errespetu falta edo zan ala?
- Bueno iguel bai.

## 7. Ekonomia eta industria

### 7.1. "Reparaciones Yurre" tailerra zabaldu zuten

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/012
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:20:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Arratia-Nerbioiko lantegiak
  Ekonomia eta industria » Boom industriala
- **Laburpena**: Olman lantegian egon ostean, Maspen hasi zen mekaniko bezala lanean. Handik irten eta Igorren zabaldu zuten beraien tailerra, "Reparaciones Yurre", 49 urtez egon zen bertan. Lan asko zuten, baina beti egoten ziren kobratu ezinik. Sasoi hartako kamioiak eta egiten zuten lana azaltzen du.

**Transkripzioa**
- Gero, mekaniko sartu nitten. Surtidoran onduen euen...
- Maspen?
- Maspen. Ta hantxe sartu nitten-ta.
- Raulenien?
- Raulenien, ez.
- Raul, Mikeldidxen euen.
- Mikeldidxen, Raul. Hor surtidore onduen. Ta hortxe ein nabezan beratzi urte, pentseten dot ein nabezela. Bai, beratzi urte.
- Ta zer zan kamioiek, kotxiek edo...?
- Kamioiek. Kotxie ez zan. Dana kamioi zaharrak, kamioi zaharrak. Ta gero hiruk urten giñun hortik enpresatik ta erei giñun enpresa bat, Igorren. Ta egin nabezan berrogeta beratzi urte.
- Ta orduen zuek egin zenduen enpresie?
- Bai.
- Igorren?
- Igorren. Igorre zan herri...”na!” Gaur dok kapitala Igorre. Yurre da gaur,

kapital de Arratia, Igorre.
- Han sasoien ez ala?
-Han sasoien? Lau etxe. Ta guk tallerra ipiñi giñuenien, jo “un éxito bárbaro”. Joder, biherra euken, baia beti kobratu eziñik. Orduen be krisidxe. Bai, berrogeta zortzi-berrogeta beratzi urte ein nabezan, han.
- Ze enpresa izen zan ba?
- Mekanikue. Kamioi. “Reparaciones Iurre”.
- Basuan ibiltten zien hoiek, GMCiek?
- GMCie, bai.
- Horrek... Esplikau eiozu honi...
- GMCie. Gero etorri zan Barreirosa. Barreirosa gallegue zuan. Barreirosak hundidu ein aben GMCie. GMCie zan beti aberidxaute, beri aberidxaute ta Barreirosak hundidu ein aben. Ta Barreirosa hundidu aben Mercedesak. Mercedesa, izen da hamen “el capitán”.
- Ta GMCiek ez zien ejerzittukoak?
- Ejerzittukuak, klaro!
- Gerrakuak. Bigarren Munduko gerrakuak?
- “Exacto”. Madrilletik ekarten giñun guk GMCiek. Baia ez zien harek biharrerako. Ba orduko gerran ibiliko zien ba erdi hutsik. Baia hemen piñue-ta bajatzen ta beti aberidxeute. Ta gero etorri zan Barreirosa. Barreirosak hundidu ein aben zera. Ta Barreirosa hundidu aben Mercedesak.
- Eta piezak-eta bauezen kanbidxuek?
- Ba, bai. Frantzidxatik ekarten zien. Frantzidxe zan kunie “del Mercedes; digo del GMC”. Handik ekarten zan dana: kupuek, kajak ta reduktorak eta handik ekarten zien, Frantzidxatik estraperluen, estraperluen. Hamen Zorrontzan, Zorrontzan euen bat, ekarten aben harek ta handik ekarten giñun, guk. Zorrontzatik.

### 7.2. Eibarren dirua zuten

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/046
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:22:13. **Bukatu**: 01:23:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Boom industriala
- **Laburpena**: Baserritarrei jenero onena eibartarrek erosten zieten, dirua zuten-eta. Durangotik langile-trena egoten zen goizero. Alfan lanpostua lortzea gauza handia zen. Eibarrek askoz gehiago irabazten zen.

**Transkripzioa**
- Dirue be gehidxau. Bai, bai. Jenero onena, eibartarrak erosi basarrittarrari. Bai, bai, bai. Eibarren dirue manejaten zan. Gaur, han ta hamen antzera batien. Eibar izen dok poderosue. Klaro!
- Durengotik tren-obrero egoten zan, ezta?
- Klaro, tren-obrero. Harek denporetan Alfan sartzie zan bueno! Alfan sartzie obreru? “Jode, fulano ha entrao en Alfa”. Ta gaur “del montón”.
- Ta jornala zer?
- Hobeto, han irebazi gehidxau.

- Kondiziñoak eta dana-edo?
- Dana, dana. Alfan orduen asko irebazten abien. Ze eitten abiezen makiñak jostekuek. Dana saltzen abien, dana zertzen abien.
- Hori gerraostien?
- Gerraostien.
- Behar zan-ta. Behar zan orduan.
- Bai, klaro. Bai.

### 7.3. Gerraostean zenbat gura lan, baina diru gutxi

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/047
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:23:18. **Bukatu**: 01:24:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Boom industriala
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- **Laburpena**: Beharra leku askotan zegoen, baina gutxi ordaintzen uzten. Durangon fundizio asko egon ziren.

**Transkripzioa**
- Karo, baiña gerraostien be biherra edonun egon zan, ezta?
- Bai.
- Faltarik ez?
- Bai. Ta pagau? Miseria!
- Hemen Durengon Ferreteran-eta?
- Ferretera izen da “uno de los mejores empresas” Durangon.
- Mendizabal be zan ona?
- Bai, baia “de ésto poco”. Mendizabalen, Mendizabalera [ajustakera] sartzie zan, puf!
- Han esan dozu aitte ibilli zala?
- Bai. Katie eitten zan han Mendizabalenin asko. Katie.
- Katie hasikeran; gero ya gauza gehidxau, ezta?
- Bai gauza asko. Gero, jostorratz-fabrikie be zertu zan Mendizabalen albuen. Jostorrak, jostorratzak. “En seguida” frakasau abien. Ez abien harek pintau asko. Baia Mendizabalen ajustakera sartzie zan, bueno!

### 7.4. Berman hodia

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/034
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:57:46. **Bukatu**: 00:59:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane

- **Gaia(k)**:
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Durangoko Dolibak-eta ekarri zuten Berman hodia Alemaniatik. Lehengo etxeetan instalazio denetan Berman hodia erabiltzen zen; gerora plastikora pasatu ziren. Hortik sortu zen Odi-bakar lantegia.

**Transkripzioa**
- Eske alemanak, Doliba eta, gerra eurretik euezan. “El Tubo Berman” ekarri abien horrek, etxietan lehen Tubo Bergmana eitten zan instalaziñue.
- Ta hori zer zan, tubo Bermana?
- Ba Tubo Bergman pues, o sea, euken txapie fin-fine, laminaziñuen eitten da eta barruen “como brea”, ta handik euen konduziñue. Gure etxiek eta holantxe eindde dauz, gero plastikue sartu de. Horrexaittik lehen Tubo Bermana eukena plastikure pasau die.
- Ah! Horraittik gero Odi-bakar-eta.
- Bai ba! “Material aislante”. Ta Dolibanen, zuk alemana, oinguek ezetzen dozuz?
- Ricardo.
- Ricardon aitte ta ama ezetzen nausean, ta bizi zien Oñatenien, ta bizikletak eukiezen. Ordun holako edadeko jentie ba, horrek hirurogei urte-edo aukezan, bizikletan ibiltten zan, ta atentziñue deitzen abien. Horren aittek, e! Aitte-amak. Ta Doliba euen, zan sozidxo Blascoaz, Blasco entzutie Euban be baeukien Tubo Bermana. Ta gero horrek fundau abien Odi-Bakar, Gisasola, Aizpurua y Doliba. Gisasola ta Aizpurua koiñetuek zien. Gisasolan etxiek-eta, han Hotel Kuruziagan? Harek etxiek? horrek Gaztarbenak zien, ta horrek gero errenteru egon zien, ta gero uzabatu zien. Ta Aizpurua bizi zan Kafe Lapiko? Oin Bankinter dauen, hor bizi zan. Ta Dolibak erosi abazan horrek txaletok, San Rokekuek. Bata zan Soloaga, Soloaganak, inprentie-ta eukienak, eta horrek filipinuek zien. Matuten moduen, filipinos, filipinos be jende asko euen diruek eiabiezen, etorri zien.

### 7.5. Durango herri diruduna; banketxe berriak eta gerenteak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/060
- **Iraupena**: 0:04:09. **Hasi**: 01:46:01. **Bukatu**: 01:50:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Frontoira joateko zaletasuna bazuen baia ez zuen dirurik jokatzen. Banketxean industrialek baino ez zuten mugitzen dirua, Durangon diru asko egon dela dio. hasieran 3 banketxe baino ez zeuden, eta berri bat zabaltzeko patente bat behar izaten zen; hurrengoa zabaltzen "Banco hispano" izan zen "Banco Urquijo vancongado"ren patentea erabilita. Banketxeetako gerentea jende diruduna izaten zen, ezin zen edonor izan; banan-banan aipatzen ditu banketxeetako gerenteak. Beranduago "Credito navarro" etorri zen,

beranduago "Banco central" izango zena. Banketxeen artean egon diren bateratzeak eta banaketak azaltzen ditu.

**Transkripzioa**

- Zu izen zara zalie frontoira juatekue-eta?
- Frontoire bai, baina jokatu sekule ez dot ein. Dirurik, eh? Bai, frontoire bai.
- Baia zuk bankuen be ikusko zendun hori, ezta? Jentiek jokatzen bala edo mobimiento bat.
- Ba!
- Edo sekretue da?
- Ez, ez, ez, ez. Hor ez dau, bankuen ez.
- Abadien moduen?
- Bai. Ez, bankuen ez, bankuen industrialak dirue mobitan abienak, letrak eta ekarten abiezan “pa negociar y tal”.
- Dirue egon da Durengon?
- Bai, dirue bai, beti.
- Horregaittik etorri die hainbeste banku azkenengo urtietan?
- Bueno, bankuen gorabeheria benga, bestera jun gara eta, osea, euezan Vizcaya y Bilbao eta Banco Urquijo. Ta beste banku bat zabaltzeko /biabien/ biher abien patente bat, ez zabien ixten, orduen debekaute euen. Ta batetik hartu otsen Banco Urquijo Vascongadori Hispanok, ta Hispanok zabaldu aban Artekalien Sarasketak euken, gero Hispanue ez ziñun ikusiko, baia Sarasketak euki abanien? Artekalien Trapuzarren onduen. Eske Trapuzar hortxe euen lehen, hor kantoien. Ta gero ez dakit ba, bankureko-edo ba hamen. Hori Urquijon patentiaz Hispano Americanok hor zabaldu aben.
- Gero pasau zan […] aurrera.
- Bueno, hori bai, gero, horrek gero, ugerittu zienien bankuek. Ta horko jerentie, Ernesto Ortiz de Bidasolo, aitte notaridxue izenikue ta aberatsa. Lehen jerentzidxak ez utsien emoten gehidxen dakidxenai, beti aberatsai. Por ejemplo, gure jerentie zan Ortueta, Pablo Ortueta aiuntamentuen ezetu dozu? Horren aitte, Don Francisco, aberatsa zalako. Ta Banco Bilbaoen Bengoa, don Juan Bengoa jerentie, Patxikon-ta aitte. Ta horri be, Banco Urquijok be don Ernestoi emotsan, klaro, abertsa, ona zalako. Ta zien, nire lehengosuek ein aban gerra aurretik, horrek gero Bilbora juen zana ta ezkutaute ibilli zana, “profesor mercantil”. Ta gero geratu zien, orduen zien hori Ortiz de Bidasolo, beste bat hil abiena kartzelatik etarata Durungoko kanposantuen, ha be hil abien ta Pablo Alburquerque. Ta gero nire lehengosuek alde abanien, sartu zan Jose Bastegieta, Bastegieta dendie horren, gero Hispanon jerente eta nire kinttue da hori. Gero etorri zien beste bi edo, Ortiz de Bidasolo jubilau zanien, etorri zien jerente bat ta apoderau bat. Ta gero etorri zan “el Crédito Navarro, Crédito Navarro”. Crédito Navarro Banco Centralak absorbidu ein aben, hortxe Andra Marixeko hori, esan duzan bestiek, o sea, Crédito Navarro. “El Banco Central absorbió el Crédito Navarro” ta Banco Central zabaldu zan. Gero Banco Centrala kendu abien hortik eta absorbidu aban el Hispano Americano, oin danak die bat. Gero, Hispano Americanotik gero absorbidu aban Banco Santander. O sea, Santanderrk absorbidu dittu Hispano eta Central, horrek bidxok, eta handidxek zien orduen! “Hispano y Central eran bancos fuertes, y ahora Banco Santander” dana.

### 7.6. Banketxeetarako ohiturarik ez

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/064
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:53:07. **Bukatu**: 01:54:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Gerraostean jende gutxik zuen bankuko kontu korrontea eta libreta, beraiek ere eskudirutan kobratzen zuten. Jendeak etxean izaten zuen dirua. "Euzkadiko dirua" desagertzerakoan jende asko diru barik gelditu zen.

**Transkripzioa**
- Generalmente txahala hiltte abanak, ba dirue bankuen sartzen aban, danetara. Ta etxien, orduen etxien gehidxen, bankure jente, eta nok euken? Gu biherrien be gabizela ez geunken libretaik eta kuenta korrienteik bez.
- A, ez?
- Nomina diruten, bai. Ordun “domiciliado como ahora”, danagaittik kobretan dabiena?
- Ia, baia bankuko bihergiñek sikeran...
- Ba ez euen kostunbreik! Dirue hartu ta etxera! Dana etxien, horidxe. Basarridxetan dirue beti egoten zan, bai. Bai, bankuen baino gehidxau. Ta orduen erreittu gehidxau emoten abien oin baiño, oin ezebe ez daue emoten, baia orduen erreittue emoten aban.
- Ta zu justo biherrien hasi ziñen, “cuarenta y dos!en hasi ziñen biherrien, gerraostien. Han oniño jendie zer ibili zan, galdute diru kontuek diela-eta?
- Hamen asko Euskadik dirue atara aban. Ta basarri batzuk txahala saldu aban ta dirue etxera, ta gero etorri zien nazionalak eta harek diruk ez aban balidxo. Ta asko geratu zien diruaz, nazional edo Bizkaittarrak esaten otsiena. Nazionalistek bai, Bizkaittarrak.

### 7.7. Papera nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Aretxaga Motxobe, Mikel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-042/016
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:29:31. **Bukatu**: 00:31:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena**: Egurretik paper-orera eta hemendik paperak irten arteko prozesua azaltzen du.

**Transkripzioa**
- Eta hori usiñe... zer dala-ta usiñe?
- Ba hori... zelan esango dotsut? Kaldera batzuk egoten zien han, zelan...

leleko zatittu zezpal txikixetan arbola tronkuek "rrraaa". Sartu, [legiadosa] atara depositto batzutan. Gero hari botatzen jakien lejia de no sé qué, sosa de no sé cuantos, tal tal tal tal, mezklie ein, itxi kontrapuertie ta "plum!" sartu ta "rrrrrra" irakitten ha, ba, hainbeste denporan. Ta gero urtu-urtu eitten zanien, ta pasta eitten zan. Ta gero ha soltekeran, astiro-astiro [etaten aban] ya useiñe. Gero handi soltaute baeuken bere rekorridue: lavau, depositos de lavau, esto lo otro, aurreratu, aurreratu ta, atzenien, urteten aban /urtetaban/ makiñako... papelezko... papela eitten daben makiñien ra pasta. Ta gero tol batzuetan sartu ta ra-ra-ra hasten zan. Sartzen aban, edo sartzen zan, hori pastiori, ba, txokolatie moduen, pasta bat, pasta, baiña ur artien, e! ur... Baiña makiñien lehenengo partie luzie zan. Lehenengo partiek eukitten aban honako bibraziño bat. Ta han manta ganien —mantak, manta batzuk espezialak horretako, baiña manta lodixek — etorten zan ya "rrra", ta bibraziñuaz —albuetan, zelan zabalik euezan, iminitte barrote gauza batzuk, ez deixen jausi albotatik, ta— bibraziñuaz ipintzen zan lixu-lixu dana, "rrra" honakoxe zer baten moduen, "rrra" aurrera juten zuan. Ta gero ya leleko bueltatxuen tal jausten zan ya ure gehixena, ta gero beste manta batera pasetan zan ta harek mantiak gehixau siketzen aban ta harek gehixau ta aurrerakuak gehixau ta ya urteten aban siku-siku papela eindde. Klaro, horrek rodilluok haundixek zuazen, e. Hau baiño... bai, haundixek. Ta harek berotasunek gehixau, geruau ta gehixau... azkenengue berotasune totala. Ta haren berotasunaz, ba, siketu eitten da ta ya papela urtenda. Politte zan ikusteko, baiña, klaro, holan esplikaute, ba, bai... ondo dau, baiña ikustie polittaue.

## 8. Natura

### 8.1. Azeriak eta azkonarrak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/028
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:52:17. **Bukatu**: 00:55:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena**: Lehen azeri asko zegoen, baina gaur egun ere badaude. Azkonarrak ere ugariak ziren. Ardi eta bildotsentzat azeria arerio arriskutsua da. Azeria haragijalea da eta animalia jan behar izaten du; hori dela-eta, ez du ulertzen zergatik dagoen galarazita azeriak ehizatzea.

**Transkripzioa**
- Ta zuk alde asko igerri dozu lehen egoten zien animalidxekaz edo piztidxegaz eta geur egun dauenagaz? Basoko animalidxek-eta diñot.
-Azeridxe euen asko. Oin be azeridxe dau hamen, azeridxe bai. Ze prezisamente ardi bat hil jaten niri ointxe hillebete-edo, ta hor zulo haundi bat euen, zulo haundi bat. Ta han […] bota nauen ta lurreaz tapau naben. Ta astien azeridxek zertu eitten zittun ta ikusi nun dauen zera. Bai.
- Basurderik-edo, ez euen hemendik?
- Ez, basurdeik ez.
- Oin, asko dau, ezta?

- Azkonarra, azkonarra euen asko, azkonarra. Bakizu zer dan azkonarra? Azerixe ta azkonarra.
- Ta oin ya azkonarrik ez dau?
- Ez. Baiña azeridxe porejemplo, niri gaur ume bi ein dotso batek; hor itxiko baneukez gabien, azeridxek erungo luke.
- Ta otsoa?
- Otsoik-eta hamen ez e! Ez otsorik-eta ez. Azeridxe bai. Azeridxe asko.
- Zuk, asko bizi izan dozu ardidxeri-ta ataketiena eta?
- Azeridxe.
- Azeridxe?
- Azeridxe. Horrek uma bixok jaixo diezak, gaur gabien itxi hor amaaz ta azeridxek, erungo leukez.
- Bai?
- Seguru.
- Nik iñoiz hemen kamiñuen be, ikusi dot azeridxe.
- Ba, bai.
- Kotxiek harrapatute.
- Azeridxe asko aumentau da ze, prohibidute da hilttie-ta. Baiña karniburue da eta horrek animalixek harrapau ein biher dau /bidau/ jateko. Ta ez dait zegaittik dauen prohibidute.
- Ta korsue-eta?
- Ha korsue-ta ez da… Hamen belie eoten da asko. Belie, eoten da hamen piñudietan-eta asko. Horrek eitten dau porejemplo, artue-ta dauenien, guri arto-solue euki giñun zerien ta trillau ein oskun beliek. Ta korsue ta horrek, ez.
- Ta billurtzeko ez dau ezer?
- Eskopeti, bauket nik, hamen.
- Eskopetie?
- Hombre! Bai.
- Eta kazan ibiltzen ziñenien, txoririk edo ez zenduen harrapetan?
- Bai, biragarrue ta zozue-ta zertzen zan. Baiña gehixena gu domeka domeketan jueten giñien. Domeketan beti Bitorixara, Arakara. Gero prohibidu ein abien. Militarra dau han.
- Arakan bai. Han inguruan.
- Klaro. Prohibidu ein abien.

### 8.2. Txoriak

- **Hizlaria(k)**: Urreta Solagaistua, Apin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-027/030
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:55:17. **Bukatu**: 00:56:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Zozoa eta birigarroak jaten zituzten batez ere. Kalandra eta artatxoria ere ugaria zen. Gariak txoriak erakartzen zituen.

**Transkripzioa**
- Zuek lehen antziñe ze txori jaten zenduen?
- Zozue ta biragarrue, ordun euen asko. Gaur ezebe ez dtau. Gaur ez dait

zegaittik edo botikigaittik soluetan edo ez dait zegaittik, dasaparezidu ein da asko. Orduen kantidadie ta orduen etorten zan kalandridxe-ta bandak, bandak etorten zien. Biregarrue be bardin. Arta-txoridxe be bardin etorten zan. Gaur ez dator bape. Bueno, garik be ez da ereitten-ta.
- Garidxe euki ezkero, bai gehidxau?
- Klaro. Beti.
- Hamen, garidxe be ereitten zan?
- Hau danau, lehenau garidxe ta artue ta zertzen zan, hau danau!
- Artue bai, baiña garidxe?
- Garixe, bai. Garidxe? Baserri guztietan garidxe. Bai.

### 8.3. Hodiak karramarroz beteta

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/077
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 02:11:48. **Bukatu**: 02:14:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Karramarro asko egoten zen lehen eta San Antoniotarako gordetzen ziren. Jose Biritxinaga izeneko batek zakukada bat karramarro batu zuen, eta zakua apurtuta hodi (tuberia) guztiak bete ziren karramarroz; Abadiño guztia ur barik geratu zen. Isuna ordaindu behar izan zuen.

**Transkripzioa**
- Ta hor anekdota bat euen, Jose Jose entzutie ez dakit dekozun, Biritxinaga? Orduen kangrejuek, kangrejo asko euen hor ta San Antoniñuetan kotizeu eitten zien. Bakizu San Antonino zanien, “el trece y el catorce”, San Antonio Txiki, orduen zanien. Por ejemplo, hor Txomiñen parrie zan, harek mahaidxek ez zeñuzen ezetuko zuk, ez. Baina hor zerbezie zan, jo! Denbora ona zanien, egun bi egoten zien halakuek ta horrek Txomiñek, Goikoleak, jolin! Pozik egoten zan, ba orduen “jarra de cerveza”, baserittarrak, ta horidxe. Ta kangrejuentzako Bikandidxek eta erosten eutsen, ta…
- Atzekaldien be euken han ipinitte…
- Han etxien bai! Etxien be bai aska bat, handidxe. Ta horrek, Jose Josek, Biritxinagak, ba eukitten aban. Ta hor depositтuen euken ate bat burdiñezkue, baia kandaue apurtute, ta oillotokidxe euken gure tiok-eta, han egun gehidxenetan pasetan giñien. Ta horrek sartu aban zaku baten kangrejuek, zaku baten, ta sartu aban han eukitteko hilebete arinau edo hamabosta, ta ez dutse apurtu zakue! Ta zebolletie eukitten dau, horrek urok, ez deitten zikiñe juen edo gitxiau, baina apurtute euken ta kangreju guztidxek tuberidxetatik, ta Abaiño ur barik! Ta gero juzgeutik eta, ba gero multie euki aben. Horreri Bikandidxeri bakizu zer, Periko Txiki entzutie ez dekozu? Periko Txiki, hor Arandidxakue, baia Madalenan bizi zan. Ta hori be kangrejerue zan, ta holako jittanue zan, ta horrek /saltzutsen/ saltzen utsen Bikandiri horra askara kangrejuek ta gero errekatik sartzen jakon, ta ostu eitten otsen.

### 8.4. Usainagatik eguraldia igarri

- **Hizlaria(k)**: Aretxaga Motxobe, Mikel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-042/017
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:31:54. **Bukatu**: 00:34:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena**: Paper-lantegiko usainagatik, inguruetako herrietan eguraldiari igartzen zioten. Lantegian aldaketa asko ezagutu ditu Mikelek. Lehenago langileen arteko harremana sendoagoa zela deritzo.

**Transkripzioa**
- Entzun dozu iñoiz, entzun dotsezu iñoiz baserrittarren bateri papelerako usiñegaittik jakitzen ebiela zelako eguna ingo eban?
- Esaten abien. Bai, guk be esaten dou “si, si hay viento norte y tal” handik badator, eurixe ta... hori ba batzuk esaten abien, baiña...
- Nik Ibarrurin, e.
- Bai.
- Ibarrurin geure aittitteri...
- igual bai esango abien.
- Aittittek, e.
- Aittittek...
- Ta handik.
- Usaiñe...

- ... ni ondoan ta "ez dao usiñik" eta "badao" ta "Bixer ez dakit ze egun" ta bestie...
- Ba bixer eurixe edo euzkixe edo... e? tal, zeoze. Hemen be eitten gaiñun, e. Guk be bai, e? esate abien, baiña... horrek gauzok...
- Honutza baetorren usaiña, eurixe edo txarra edo...
- Bixar edo txarra edo kambixua
- Oin Ana Urrutiagaz gabiz! Bai, bai, bai.
- Ta zu papeleran hasi ziñenetik itxi zendunera arte asko kanbixe zan hango biherra eitteko modue?
- Bai, ta… konbibenzia, konbibentzixe be bai ta...
- Bai?
- Bai, asko kanbixau. Lelekotaz gustora, danak ezaunek eta asko bagiñen be ez deko ardure, danak ezaunek eta. Baiña gero etorte zien... sartu zien honek frantsesok eta amarilluk eta pixkat e... pixkat gehitxuau ta ezin... gero e... zerak, "sección de compras, ventas, tal, comercial, esto...” danak ya zertute...
- Sistema...
- Bai, hori, hori... ya…
- ... amerikanuek.
- Bai. Ta gero hortik pe ba lagunek beti zien lagunek, baiña ezin rozau, ibili hainbeste lengo moduen.
- Oin biherra ta…
- Ba biherra ta gero fuera ta gero gure badozue egoten zarie. Hori. Asko. Oin, lehelekotaz bai, hori ez zan hainbeste [ezeune nik], baiña gero hasi ziñen berb... hasten zarienien berbetan, ba, ya está lagundute ensegida. Baiña oin etorten da bat eta ez bajatzu toketan beragaz bizittasunez zeoze eittie, ba eztao…
- Ba, normala.
- Normala.
- Hori enpresa askotan pasetan da.
- Bai, bai. Ta hori alde guztietan, ta gerua ta gehixao. "Hay que sacar más produccióny hablar menos".
- Bai, baiña askotan girua lortzia oso inportantia da, gero produkziñue be ondo juen daixen.

## 9. Herria, azpiegitura

### 9.1. Gerra aurreko Goienkale

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/004
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Barrenkaleko "Filipito" eta Mardarastar "Felix Txapel" aipatzen ditu, ezagunak ziren kalean. Gerra aurretik Goienkale zelako zen azaltzen du: Goienkalen Arkarazoren taberna baino ez zegoen,

besteak gerraostekoak dira: Txantonesa dagoen lekuan traperia bat zegoen; Bambino dagoen tokian Ortuetaren txaleta (gerra garaian komitea egon zen); Alpino dagoen tokian Arozenaren txaleta; Guarda Zibilen kuartela BBK dagoen kantoian; Arginzonizen garajeak.

**Transkripzioa**
- Ibarra, gizona zan Jauregi, Maritxin.
- Maritxinena, hori da.
- Horren aitte ba famosoa Felipito zan, Felipito, bai.
- A, bai? Zelan zan ba famatue edo?
- Bueno, ba famosue zan. Kontratistie eta nerbiosue zan ta, Barrenkalekue zan ba…bai, famosue. Felix Txapel be, entzutie eztakit dekozuen, Felix Txapel zan, Mardaras Olazia, Barrenkalekue be, famosue zan Felix Txapel.
- Ta tabernak eta? Hor lehen ze taberna egon zien?
- Nun, Goidxenkalien? Goidxenkalien Arkarazona, Arkarazona bakarrik.
- Bakarrik?
- Bakarrik. Gero, gerraostien eiñikuek die horrek. Eske por ejemplo Goidxenkaliek ez euken, o sea, Arkarazotik gero Txantonesie da. Hor traperidxa bat euen, etxie apurtu aben eta “ya está”. Gero etxea Ortuortena, oin beste bat dau onduen ta gero hori, Bambino euen lekuen euen txale bat, chalé de Ortueta. Gure etxetik, Artekaletik ez euen han horrek kanales, horrek pasiuek ez dakit, ba hor euken patidxo bat, ta etxie be bai, ta hor ganauek ekarten zittuen, erosi Santanderren ta hor saltzen, ta Goidxenkalie guk bistan euken kalie. Ta hori euen hori txaletoi, txalet eder bat, e! Ta hor on zan gerra denboran El Comité, ta hori bonbardeau ein abien, ta apurtu ein abien. Gero beste txale bat, zuek ezautuko dozue oniño, oin etxiek einddie hor, baia…honek Elexpek ein aban, Tarate Elexpek, hori Alpino on da ba? Ba deuen lekuen, Alpino dauen lekuen oin, bai. Hori zan beste txale bat euen, Arozenas, kapilia ta ederra auken, ikusten zan, ointxe arte on da. Arozena, aberatsen…Durengon aberatsa, baia gero desaparezidute dauz hamendik, e! Ta hori zan kalie Ziherkaleraiño. Han txutxeridxak eta badauz ba han kantoien? Ba haidxe zan horren Arozenan esto. Gero, haruntzau euen, Guardia Zibillen kuartela. Bai, han.
- BBK edo dauen lekuen hor.
- Frai Juan de Zumarragak deko, zelan jaidxo zan han edo, plaka bat ez dozue?
- Anbototik idxe urten ezkero, tak ikusten da. Ta gero handik gero, mantzana guztidxe, zan “esto” zelan zien?
- Arginzoniz?
- Arginzoniz.
- Arginzoniz dana, harek garajiek eta ba ha dana zan, ta gure izekok, ba behien bizi zan gurien, ta harek kontetan euskun hango aitte-amak gazterik hil ziela, umezurtz geratu ziela. Mutil bi, gizonezko bueno, mutil bi ta neska bi, ta sasokuek eta eurekin olgetan biela eta dana dalakue.

### 9.2. Mendizabal eta beste lantegi batzuk

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/009
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:16:43. **Bukatu**: 00:19:00

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
  Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- **Laburpena**: Mendizabal lantegitik geltokirako kalea, Emaldi, lehen ez zegoen, hiru baserri zeuden: Kakatza, Karrakarrana eta Uribe. Lantegietatik geltokira gurdian garraiatzen zituzten gauzak. "Ferretera Vizcaina"n gerra denboran bonben karkasak egiten zituzten. Bertan eta laminazioan zeuden behargin batzuk aipatzen ditu.

**Transkripzioa**
- Lehen Mendizabalek ez zauen hori kalioi por ejemplo. Mendizabalek fabrikie entzutie eukozu?, oin ez dau, Emaldi azkenengoak, Emaldi hori kalioi estazinoruntz ez zeuen. Hori zarratute baserridxek euezan hor, hiru baserri, Kakatza, bai, ta oin hil dan batena be bai. Ta bueno, baserridxek hiru euezan.
- Karrakarrana eta...
- Karrakarrana eta hori beste Kakatza, horrek Uribe, Uribe.
- Hor sartzen zan trena, ezta?
- Gero, gero. Hor trasportie eitten abien ba Durungotik, Frai Juan de Zumarragatik estaziñora, transporte burdidxen. Ta por ejemplo ferreteran nik akorduen dekeana, ba gerra denboran bonbak eitten zittuen, o sea, txapie, txapie. Karkasak hortxe eitteabiezan. Ta hor be. Ez, ferreteran, La Ferretera Vizcaína. Hori fabrika ona zan, ta hortik bonbak hortxe, ta burdidxen hor be eruten ebazan, zelan zan? Famosue zan karreterue.
- Karrakara ez, ezta?
- Ez, Karrakara ez. Txonpolona Mendizabalena eta Ferreterakue hori. Ta gero, laminaziñue ein abienien, laminaziñokue be horredxek eitten eban. Hori, Madalenaoste bakizu nun dauen? Hor euken basarridxe honek, zelan? akordauko jaste gero.
- Santisteban ez?
- Ez, Santisteban zan Ferreterako jerentie, uzaba edo bueno, jerentie. Ta laminaziñue be Santisteban zan. Ferreterakue zan Inazio, don Inazio ta gero anaidxie, ez dakit zer zan, lehen burdiñak eta saltzen ittuena, “agente de ventas”-edo zan, ta gero formau abien “laminación”. Ta “laminación” izen da ba bihergiñentzat ta Durungoko enpresaik onenetaikuek. Ondo, jentie hor.

### 9.3. Hainbat aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/011
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:19:13. **Bukatu**: 00:21:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- **Laburpena**: Olman fundizioa zegoen eta Plateruena Kafe antzokian hiltegia. Montevideo etorbidea gurdibidea zen, zubi peatonal bat zegoen. Inguru hartan zegoen estrata bat eta dendak ere aipatzen ditu.

**Transkripzioa**
- Olman fundizinue euen, ta hau mataderue zer zan be bakitz. Olma hametik pasetan zan, trenbidie, orduen libre euen. Orduen, hori zubidxoi hor dauena, General Egia-edo doiena, edo Avenida Montevideo hori zubidxoi ez zeuen, e! Ez zeuen hor, hor. Andra Maridxatik etorten dana, hona etorten zan ta hemen ixten zan, ez zeuen, ez zeuen. Hori Montevideokue euen burdiberia, ta zubi barik, e! Euen peatonal bat, zubi peatonal bat, Zugazan, bueno, oin zapateridxe badau? Gero Izarzugazak badauko beste zubi ganien dekena, ba hor peatonal bat euen, pasue peatonal.
- Gerra aurretik?
- Hori gerra aurretik ta ostetik, ostien bebai, hori ontsu arte. Hori zubidxoi hainbeste oin jaleo dauena, estauela kondiziñuetan, horren ganien hori etxie oin ein ddana, okupak eta dabizena, ta hori gero eindde dau. Ta horidxe orduen asfaltau zan, ba Zumalakarregitik ba Avenida erdiraiño, luzero hor egon zan. Landakora hartzen da ba? Ba horraiño euen.
- Zuk Matxinestarta iñoz entzun dozu izena?
- Bai, hortxe estarta bat euen. Hori etorten zan Musico Altunatik, horrek etxiok eindde dauz ta garajie, Astarloa, handik ostetik ba horra, Olma beheruntz. Herrimendireko zerrie aurretik ta atxikoridxe, Juan Momoitio y Compañía. Ta sozidxuek zien Momoitio, Salazar y Zubia.
- Famatuek zien, hantxe, zelan zan, Chimbo?
- Ez, El Árbol. Gero horrek, gero euezan hau “El Árbol, El Chimbo, El Belón y el esto no, El Chimbo era de Landa, y El Bosque de Belón”. El Bosque dau hemen Atxuritik hor ingeruen dau, El Bosque. Nik horko txapuzie, kontabilidadie eruten naben.
- Ah, hor be?
- Bai.

### 9.4. Ermandadeko presidentea

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/013
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:26:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Jose Mari Garai, Berriz eta Durangoko baserriko batzuetako ermandadeko presidente da gaur egun. Baserritarrek urtean diru-kopuru bat jartzen dute aseguru legez, zerbait gertatuz gero ordaindu ahal izateko; baina, antza, gaur egun ez du ezertarako balio. Gehienek aparteko asegurua daukate.

**Transkripzioa**
- Ni oin be “soy presidente de Seguros Mutuos de los caseríos de Garai y Berriz y parte de Durango también, soy presidente”.
- Hori hondiño bizirik dau? Ermandadie da hori?
- Bai, baia ez da…diru bat deku hor, ta ezebez.
- Ta horren istoridxa kontauko zeunke pixkat?
- Ez naben, ni azkenaldien sartu nabien hor, ba! Hartu naben ta ez, orduen dana zan basarridxek. Pagetan zan urtien segurue, ta gero seguruek, horrek gero ez dabe balidxo ezer oin geur egun, pagau gitxi baia gero zeuzer baukozu ezebez. Oin hortxe dauz. Ta gero euen reglamentu bat edo artikulu bat, baserridxe kanbidxetan bozu seguro batera, honenak ez dabela balidxo. Ta halantxe da, oin gehidxenak basarridxen bizi dienak eta esto ba danak dekez instalaziño electricos eindde, ta oin ez deko fundamenturik.
- Baia antziñe hermandadie inportantie zan.
- Bai, bai! Horrek Oromiño eta danak, basarri asko euen Garaidxen be bai. Garaidxen sei edo giñien, bai. Sozidxo zan hori Elespe, Esteban Elespe ezetzen ziñun? Horrek etxie eukien hor…zubi…Ebroko zubi onduen, oin be etxie deke han erek. Hor txapisteridxa bat be on zan onduen, ta horrek.

### 9.5. Komitea

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/025
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:45:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Artekaleko etxea ez zuten bonbardaketak bota. Bambino dagoen lekuan komitea zegoen, gerra kontuetako komandantzia, paper-kontuak. Nazionalak sartu zirenean hotelean jarri zuten komitea. Bonbardaketa ostean kaletik zelan ibiltzen zioten azaltzen du; zein etxe zegoen botata, zein ez...

**Transkripzioa**
- Eta, klaro, esan dogu bonbardeoan eta Garaidxen harrape otsuela, baia zuen Artekaleko etxieri zeozer paseko jakon-edo?
- Ez jakon /etxakon/ paseu ezer, baia han karkaban, horrek abogauekin ta ibilli garenien patrimonidxoak eta etorri zienen, esan notsen: “aquí tanto patrimonio y mira qué carcaba hay”. Etxe bittartien dau metro terdi hor etxietan, dana abandonaute. Lehen barrenderuek sartzen zien, baia oin ez dau. “Y aquí carcaba y esto, esto patrimonio y tal” esan notsan, ta ixilik geratu zien. Baia, ta bonba bat agertu zan hor, errementau barik hortxe karkaban. “Comité”, esautsualez ha txaleta hori Bambino euen lekuen, Bambino.
- Zer zan “comité” hori? Esan dozu.
- Pues zelan esango dotsut? “Como la comandancia”, han eitten zien papeleo guztidxek.
- Soldadutzara joateko-edo?

- Ez, ez! Gerra asuntuen, gerra asuntuen.
- Esan dozu Bambino dauen lekuen.
- Ha etxie, hantxe ederra. Ha dan etxe handixe, ba bakizu zelango lonjak dekezan dendak-eta, ba txaleta zan hori danoi. Ta gero bestie Arozenena, esan otsuan lez han, esto. Gero nazionalak sartu zienien “Comité” ein abien geur “el Hotel de Kuruziaga”? Hantxe, Elgezabalen propiedadien.
- Hori konfiskatuta egongo zan.
- Bai, hor zan “Comité”, komandantie eta “esto” euen. Eta hor eitten zien “pues los salvoconductos”, ta orduen be hor eingo zien nik ez dakit zer eitten zien. Gu Garaittik gabien etorten nintzen, nik hamar urte neukenien, oiñez razionamentuen bille. Garbantzue, babie, emoten abien gitxie gero gerra ostien be on da razionamentue. Etorten nintzen gabetan ta dana apurtute, ta danak, lehen por ejemplo, oin ez dauz kabliek argidxenak goittik, baia igul ezetuko dozue zuek goittik ibiltten kalien? Ba lehen danak lurrien euezan, ta gero ba elizpie be dana apurtute, elizie. Elizak bobedak apurtu zien, Jesuitetakue-eta.
- Santa Susana be.
- Santa Susanako ortue, bera etxie ez. Lehen hortik gero pasetan zan Andra Maridxako elizpetik oin horrek Asategik-eta etxie bauke ba, hortik pasetan zan Santa Susanarsiño apurtute euen. Oiñez pasetan giñien Kalebarrittik eta dana, apurtute euen hori danoi. Elizara bonbardeorako.

### 9.6. Zelakoa zen udaletxe ingurua?

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/026
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:45:53. **Bukatu**: 00:48:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Artekalen ez zituzten etxe asko bota bonbardaketan; Goienkalen gehiago. Udaletxeko plazan etxeak zeuden. Udaletxeak Artekalera ematen zuen, beraiek "Kartzelape" deitzen zioten; lehenengo solairuan Agapito aguazila bizi zen. Filipitoren etxea ere han ondoan zegoen, etxe horrek merkatua zuen.

**Transkripzioa**
- Ba suertia euki ziñuen, ze Artekalien makiña bat etxe jausi zan, ezta?
- Artekalien ez.
- Ez, e?
- Goidxenkalien.
- Goidxenkalien gehidxau?
- Bai. Artekalien ez dot, han ez dot uste bapez. Oin por ejemplo Udaletxeko plazie, hor etxiek euezan, hor “Imprenta de Soloaga”, etxiek. Hori bota ein dabe ta ostie be bai, han be etxiek euezan. Lehen Udaletxie erdidxe zan, Artekalera emoten abana, Kartzelape esaten eutsen. “María de la O, Nuestra Señora de la Esperanza, María de la O, el dieciocho de diciembre” da.

- Nuestra Señora de la Esperanza.
- María de la O esaten eutse. Hor ba kalie hortxe euen, ta hor bizilekue euken aguazilek, Agapito. Han lehenengo pisuen, ba ofiziñak etxiek zien, ezebez zan. Arku bat edo bi eukezan haruntz, baia gero hori barriztau eindde dana, e! Oin dana hartu dabe. Gero juzgeue be egon zan, ta oin aiuntamientuek deko ofiziñak eta hor, hori gero etxe ederra be bota eutsien bati, ta sentidu aban. Pelotaridxe zan palakue, hiru pisuko etxe bat bota eutsien han aiuntamientuek.
- Ah, bai? Ezkiñan? Oin plazie dauena?
- Beherau. Oin Filipiton etxie-edo, ha etxe edar bat badau oin?
- Filipitona zein da? Larrinaga hori daukena, hori?
- Ez, hori Uribek bauko ba inmobiliaria? Haidxe etxie da hori Filipitona. Horraiño zan hori etxioi, ta hor Filipiton etxie euen merkatu bat, “el mercado de”, planta batekue, ba peskaderidxa, karnazeridxak eta euezan hor. Ta gero hori kendu aben aiuntamentuek ta horrek Felipitok erosiko aban ta etxie ein aban han, hor arluen Hori Filipiton etxie be ederra, esan gurot, handidxe da.

### 9.7. Bonbera, probalekua, futbol- tenis-zelaiak...

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/044
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 01:14:01. **Bukatu**: 01:17:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
  Aisia » Kultura » Musika
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Orfeoiak Bonberan egiten zituen entseguak; Bonbera anbulatorioan zegoen. Berrioren ortuak ere bertan zeuden. Gerra aurretik lur horietan mitinak egiten ziren. Laminazioa dagoen tokian probalekua, futbol-zelaia eta tenis-zelaia zegoen. Eta Laminazioa eraikitzerakoan, probalekuko harriak Berrioren lurretara eraman zituzten eta han eraiki zuten probaleku berria. "Arregi kateak" lantegia ere ezagutu zuen bertan.

**Transkripzioa**
- Bonberan.
- Bonberan?
- Bonberan, bai.
- Hori nun euen? Esplikau pixkat.
- Bonbera dau, ospittela? Oin ein dien obrakin-ta ha pendiz bat ein da ba kalien, Bittoridxako kamiñuen? Hor “iba a ser crematorio o no sé, para recibir los muertos, pone allí eso”. Eskillara bat, hortxe euen Bonberie. Ta gero euen “La Huerta de Berrio”.
- Berriona, bai.
- Hor ein dienak, oin Barandiaran dan kalie zan, besteraiño zan. Gero han kalien kamareruek eta eukezan etxiek, oin anbulatoridxue eta danak etxe bajue ta txaleta, ta han terrenuek eukiezan. Hor ez zeuen pasoik, hor

geratzen zan, ta hori demandie horrek kamarero lagune zan, ardauetan ta, ta txaleta eukien ba hortik pasoik ez eukelez, ba ibil zen hor demandan. Ta ez eutsien edifiketan ixten, ta gero ba konpondu zien Berrioko, La Huerta de Berrio esaten jakona. Hor mitiek -eta ein die, lehen nazionalistak gerra aurretik ikusiot nik fotografidxa bat.
- A, bai?
- Bai. Hor gero laminazinuen euen probalekue, kanpo-fubola ta laminazinue, kanpo-fubol “y pista de tenis, y esto”, probaderue. Gero laminaziñue ein zien. Laminaziñuek oin dauzenak ofiziñak? Han zan probalekue. Gero euen tribuna bat harautik, orduen horrek Olaldenak zien, “Ramón Olalde y familia”. Aberatsak, oin be txaleta han badau ba Kurutziagan eindde, ein dabe ba? Harek ortuek danak zien “hasta” trenbideraiño, gero laminaziño sozidxo sartu zan ta hor. Gero kanpo-fubol lelengo pabelloie ein abienien geratu zan ta biherrien hasi zien ta atxikau ein abien kanpo-fubola, ta gero ba alemaneri emon eutsen ta juen zien Tabirara.
- Joan zara Berriotik haraiño, baia bueltatuko gara Berrionera eta zuk…
- Bai, nik Berriotik ein abien, esan gure izen dot, jungo gara horra, baia zozeaittik jun da. Probalekue euen han ta gero hori laminaziñue ein abienien hango harridxek ekarri zien hor Berrion estora, ta hor probalekue egon zan gero. Probalekue zan hor. Bikandi, Bar Bikandi entzunde aukozu? Bueno, ba hori zan saltserue. Hor probelekue egon zien, urte asko ez zien ibiliko. Baia horrek harridxek handik ekarri zittuen, Bonberien onduen.
- Atzekaldian zuk ezagutu zinun Arraibiren fabrikie?
- Joder! Harek katiek euezanak eindde? “Unas cadenas para barcos”, gero Bicinaik be Otxandidxon eitten dittu, oin be, horrek gero “a Las Arenas” jun zien. Ta gero hor montau abien, erosi aben [Inso] fabrikie, ta gero saldu abien ta hor etxiek ein die. Harek danak, ortuek be, baldosiñek han frantsesen onduen euken terrible. Baldosiñen horrek baldosak? Horrek eittem zittuen, baldosiñek.

### 9.8. Miota eta Alza hotelak; kuba-libreak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/057
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:41:45. **Bukatu**: 01:43:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Miota hotelaren eraikina osorik zen hotela, Alza hotelean, ostera, etxebizitza batzuk ere bazeuden. Alza hotelak azpian "la cámara del gas" deitzen zioten lokal batzuk zituzten. Pilotariak, zesta jokalariak, frontoira etortzen hasi zirenean, beraiek ekarri ei zuten kuba-librea Durangora Ameriketatik.

**Transkripzioa**
- Gero Hotel Miota zan etxe guztidxe, Hotel Alzán lez. Bibiendak, bibiendaik ez zeuen Hotel Miotan, dana eurek euken hotela. Alzanien bibienda batzuk

baeuezan, ba igul eukezan eurek pisu bi edo eta behekue, ta gero horrek eukien lonja behien, “la cámara del gas” esaten utsiena. Hamen pelotaridxek, honek zestakuek, hasi zienien hona etorten, hemen frontoien, Durunguko frontoien zestan, astien funziño bi edo hiru be oten zien. Ta Deportibo Bilbokue, Euskalduna, palako, “Frontón Euskalduna” itzela zan. Ta bota abienien horra, afizinue eukenak horra etorten zien, ta orduntxik etorri zan zesta puntatik, Ameriketatik etorri zien, Café Piedra, Miguel Piedrak. Ta orduen iguel hiru-lau, ta gero ba kuba-libres ta kuba-libres, ba horrexek pelotaridxek ekarri abien hona. Bai, koka-kolie nik ez naben ezetu gerra aurretik, baina koka-kolie honek Odiagak zerbezie euken, “y ya sabes, una placa de hojalata ahí de Coca-Cola”. O sea zozer egongo zan, baia gero gerra ostien ez euen. Ameriketatik ez euen dolarrik hamen erosteko ezer, ta ez euen Coca-Colaik hemen, ta honek zestakuok, Ameriketan euezanak Miami ta hor aldien, ba horrek ekarri abien “la cuba...la cubalibre. La cubalibre de... ¿cómo era? De...”

### 9.9. Oromiñoko errotak eta zentralak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/075
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 02:07:44. **Bukatu**: 02:09:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Orominon (Iurreta) Pedrinen errota eta Larragañaren zentrala egon ziren. Eurak Pedrinen errotara eta Goikoerrotara joaten ziren.

**Transkripzioa**
- Gero Zemaltzeko zentraletik beste errota bat dau, Pedriñena, Albizu. Hara juten giñien Garaittik, horra ta goiko errotara, Seberinagana. Ta gero dau hori Larrañagan zentrala, zentrala. Ta gero dauz beste batzuk, errotak be bai, errotak beherauen dauz, hau ez dakit ezetzen ziñun? Han, bazoiez Montekalboruntz ta hor hartzen da ba eskumara? Han be zentrala euen ta gero han barriada behien be beste errota bat, ta beherau bebai, Promiñon. Hor danak antzerakuek, gero zentralak...
- Hainbeste ur euen hortik Sarria aldetik eta, hainbeste ur?
- Bai, bai, ontxe dauena! Oin dana eruen eitten dabe. Por ejemplo, gure tion basarridxek, amanak, euken manantiala, deko, basarri bireko. Ta gure aittek ein eutsen arreglau. Osea, handik pasetan zan burdiberie, ta sartzen zien haretan. Ein aban ba, holako, usaute euen miñetan-eta eitten holakuek, ba ein aban, ondo ein aban. Ta oin pasetan die hogeta hamar toneladako kamioiek be igul-igul dauz, hari etxako mobidu be ein.

### 9.10. Aitaren sidecarra

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/081
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 02:17:07. **Bukatu**: 02:18:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: 1920. urte inguruko argazki bat erakusten du, bere aita agertzen da sidecar batean. Jende gutxik zuen autoa, Durangon Anopuerok eta Arozenak zuten, baina horiek txofer propioa zuten. Bere aita Garaiko zentraletara sidecarrean joaten zen, baina materiala gurdiz garraiatzen zuten.

**Transkripzioa**
- Ba motorra, Harley Davidson de...
Semea: Mille bederatzirehun ta hogei, gitxi gorabehera, ez dakigu ze urtekue dan.
-“Moto sidecar con con sidecar, si”.
- Sidekarra. Ta zein da hori argazkikue?
- Aitte! José Amantegi Sagarna.
- A, bai. Ta sidekarra euki eban zure aittek?
- Bai, ez aben aukiko ba! Lagunek kotxie eukien ta berak motorra. Uribarrenak kotxie euken, ta Berasaluze Garaikuek bebai.
- Ba han sasoien jente askok ez aban eukiko?
- Ez, ba gero eukenak, Anpuero eta Arozena “y, esto” eukien txoferra, eh? Txofer, Erleaga txoferra zan ta Arozenana zan, pentseten dot, “este, tío de Celia, Ferreriano, no”, Ferreriano ez, txoferra aukien danak. Ta “la marquesa de Berriz también tenía, la Laka”. Danak txoferra eukien orduen, Anpuero y.
- Eta hori sidekarra edo nora juateko ibiltzen aban zure aittek?
J.M: Jode, ba erosi abanien nik ez dakit zegaittik. Garaire juteko, gero horrek zentralak eitteko ba oiñez ezingo zan juen. Ta materidxalak burdidxaz. Egongo zan kamioien bat iguel.

## 10. Lanbideak

### 10.1. 44 urtez "Banco de Vizcaya"n

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/012
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:21:47. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: 1942an hasi zen "Banco Vizcaya"n lanean, eta 44 urtez egon da bertan; hasieran CAN dagoen tokian egon ziren, eta gero, Ezkurdin, Euskadiko kutxa dagoen lekuan. Merkataritza ikasketak ikasi

ostean hasi zen bertan. Kontabilitatea eskuz egiten zen. Danetariko lanak egiten zituen banketxean. Banketxean euskaraz zekien pertsona bakarra zen, eta baserritarrekin bera egoten zen gaztelaniaz ez zirelako hain ondo konpontzen.

**Transkripzioa**
- Zuk lehen ze lan eitten ziñun?
- Nik bankuen, Banco Vizcaya. “El año mil novecientos cuarenta y dos”ien sartu nintzen ta berrogeta lau urte ein nabezan, berrogeta lau urte. Hogei-hogeta bi, oin badau ba Caja Rural eon zan Exquisitan eurrien? Oin beste banko bat da, naparra edo, caja ez dakit. Hor hogeta bi ta gero jun ginien Ezkurdire, oin Caja Laboral dauen lekuen, hor beste hogeta bi, hogei-hogeta bat hortxe, hortxe ein uaz nik berrogeta lau urte.
- Ta comercio ikesitxe, gero hor ibili ziñen?
- Maristetan comercio.
- Bai. Eta gero comercio ikesitxe bankure?
- Bai, orduntxek amaittu naben ta, orduen kolokaute, hortxe kolokau nintzen. Han emoten abien "eso, comercio y esto, comercio y artes y oficios”. Gerra aurrien batxillerra be bai Maristetan, gero gerra ostien ez zabien emon.
- Comercion ikesitxe zer? Comercion ikesten zendun kontabilidadie ta?
- Bai, kontabilidadie ta bai.
- Takimekanografia be bai.
- Horrek komerzidxue ikesi bai, baia ez dot, algebra-eta danak, zozer noziñue, ikesi frantsesez, baia gitxi, ez zeuen. Hiru urtien zer ikesi bizu ba? Kontabilidadie. Lehen kontabilidadie eskure eruten zien, “Diario Mayor, luego pues gastos generales” eta, ba horridxek, kontabilidadie zan. Ta hamen be, hor atxikoridxan ba horidxe eruten naben, Diario Mayor.
- Ta Banco de Vizcayan ze biher eitten zendun zuk?
- Ba danetik, “o sea, de contador, auxiliar”, dana, kajan be bai. Danetik, oin eitten dabien moduen, kontabilidadie. Oin dana, ni oin alfabeto bat jungo banintzateke holako lekure, ez makiñeik ez ezer. Azkenien ibili nintzen makiña edo zozer, baia ez oingo moduen dauen, “que si se caía la línea” eta, mekanikue Bilbotik eta. Holantxik hasi zien. Kursillo batzuk be ein nabezan Bilbon.
- Tratu asko eukitte- zendun baserriko jendiaz?
- Bai. Euskera iñok be ez zekidxen bankuen ni on nintzenien, ta euezan hamabost-edo, ta holako lehengo baserri, oin azkenaldera ez, baia lehenguek ba asko etorten zien ta bakidxien erdera, baia ez zien konpontzen esateko ba errez zer gure abien. Ta orduen deitzeustien: “Oye, Jose Mari, ven aquí, esto y tal”.
- Bankuan interpretatzen, itzultzaile ibili ziñen.
- Bai.
- Bueno, horrek emangotsen jenteari be konfiantza gehidxau, ezta?
- Bai, nik ezaun asko eukiot basarridxetan, ba beti.

### 10.2. Aita delineatzailea, topografoa eta Durangoko diruzaina

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/021
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:37:12. **Bukatu**: 00:39:59

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere aita delineatzailea eta topografoa zen. Bilboko San Luiseko meategietan egiten zuen lan, Atxuri aldean. Durangoko udaleko diruzaina ere bazen. Udaleko kutxa gotorra Artekaleko beraien etxean zegoen eta langileak bertara joaten ziren soldata bila. Idazkaria Astola zen, kontu-hartzailea Lebario. Bere aita ehizan ibiltzen zen eta herriko hiltegian txakurrentzako nahi beste okel izaten zuen.

**Transkripzioa**
- Etxebarrian baserridxe bakizu zein den? Garaidxen haren fatxadien planuek be gure aittek ein bazan.
- A bai, e?
- Bai.
- Zuen aitxe zer zan ba? A, klaro, delineantie!
- “Delineante y esto topógrafo”. Harek biher eitten aban Bilbon, “en las minas de San Luis”, hor Atxuri aldien. Goizetan eitten aban biherra, ta gero eberdidxen etxera etorten zan y “era” zan “depositario del Ayuntamiento de Durango, cajero”. Kajerue, “la caja fuerte” euen gure etxien Artekalien quincen, ta han obreruei, barrenderu, musiko edo bihergiñei, hantxe pagetan utsien. Ta arratsaldien eitten aban horidxe, ta orduen euezan alkate ez zien izengo baia, sekretaridxo “el Padre Astola, el padre de Txarines”. Gero “interventor” Lebario, ha Lebaridxoko etxiek han Abadiñon bakizu? Han txale eder bat dauena? hango uzaba, Lebario, hiru zien. “O sea, secretario, interventor y esto, gerente”.
- Eta zuen etxean alarmie edo ez zeuen? Txakur handi…
- Ez, lapurrik ez zeuen. Jo, gure aitte kazadore handidxe zan, ta txakurrek ba aiuntamientue, hau mataderue zan, hau herridxena zan, okelak eta euezan txakurrentzat berak gure bazen beste. Orduen oilagorrak eta Garaidxen esaten aben, nik ez dot ezetu, hiru hillebete neukezan, baia amari ta gero bere aitten lagunei ta entzunde, bai, zalie zala ta txakur onak eukitten abiezala. Ta gero orduen kazan hamen eitten zan, baina gitxi, eskopetak be ez zeuezan, eskopeta ona eukela gero tiro pitxonien be botaten aban. Gero esaten, niri batek esan eusten, Odiagak, bere aittek ein abazala makiñeridxa hori tiro pitxoie badakizue zelan dan? Lau jaula ipintten die. Oin Eibarren, Arraten ta dauz, baia lehen hamen sarri eitten zien. Ta lau jaula mando bataz, ta ez zekidxen nundik urten leiken usuek, ta horrexaittik zan, ba di-da! Gero tiro platokue da beste plato bat, tak! Botaten dana. Ta harek planuek aittek ein abezan, berak aittek inbentau ein abala esaten aben, oin ez dakit.

### 10.3. Aguazilak

- **Hizlaria(k)**: Amantegi Aresti, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-028/067
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:56:03. **Bukatu**: 01:57:33

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Amantegi, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Gerra aurretik, Agapito, Nicolas, Betiondo eta Jaio ziren aguazilak. Gerra ostetik Pelaio gogoratzen du. Bere lagun bat atxilotu eta kartzelara eraman zutenekoa kontatzen du.

**Transkripzioa**
- Aguazille?
- Bai.
- Bai, bueno, konserjie, aguazille zan Agapito. Udaletxien euken bizimodue edo etxie.
- A, hori!
- Gero be ba eukien, eukin dabe hor…
-Zer egon zan, aguazil bakarra Durungon?
- Ez! Gehidxau bebai, hiru edo lau. Nicolas ta, Betiondo ta, Jaio ta…horrek bazien. Orduen eitten otsunien zera, jo, aiñeketan! Ta gerra ostekuek be bai, e! Pelaio ta, gu grupoan kantetan edo tabernan alboan ta inguruen, ta ojo, buf! Ixilik eta kanpora!
- Baina multarik eta ez?
- Multarik ez. Ba nire lagun bat sartu abien kartzelan be bai. Kartzelie euen han udaletxien. Zegaittik? Ez dakitt zer armau aban, edo dana dalakue, baia sartzen abien. Ta jefien anaidxen lagune zan, ta hurrengo egunien nobidxie euken Etxandietan, ha zuk ezetuko ziñun? Betiloa Etxandietan ezkondute Juanitaz.
- Ez daitx ba, igual bai.
- Semea: Holan buru handi bategaz.
- Joder, harek han txokue be eindde auken, ganekaldien ein aban, hil zan gidxajue. Ta esautsen goizien: ¡Beti, vete corriendo y métete allí en Etxanditas”, esautsen jefiek, ta aiñeketan.

### 10.4. Diru bila Guardia Zibilekin

- **Hizlaria(k)**: Aretxaga Motxobe, Mikel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: DUR-042/010
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:16:47. **Bukatu**: 00:19:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Mikelek langileen nominak ordaintzen zituen. Ordainketa dirutan izaten zen. Mikelek berak ekartzen zuen dirua bankutik. Lapurretak zirela-eta, Guardia Zibilek laguntzen zioten bankura. 400 bat langile zeuden orduan paper-lantegian. Garai berean Mendizabal lantegian 250 bat langilek egiten ei zuten lan.

**Transkripzioa**
- Ta zuk nominak-eta eroaten zenduzen?
- Bai.

- Ta nominak zer zien, oingo lez, hilien-hilien bankure edo?
- Bai, bai... ta dirue etara biher poltsilluen edo ekarri biher bankutik. Oin dana itten dozu "por talon” o zera eta “ya está”, baiña, joe.
- A, baia sobrin emoten jakon pertsoniei?
- Bai, bai.
- A...
- Ta sobrien ganien imini, zelan da, nominie josittе, kopixe, jakin daixien. Ta gero ba... hori eitten zan holan be bai obrak eitten geiñuzenien be bai. Ta gero papeleran be bai, holan. Ta gero, bueno, ya... hasi zien ya modernizatzen pixkat. Tira batzuk izeten zien nominie, papel handixe izen barik, tira batzuk baiña dana iminitxe ondo, sobrie josittе emoten [zan]. Ta gero, urte askotan, urte askotan ta... ta gero etorri biher zan orduen be ondiño... dirutera bankure kotxien ta dirue eruen. Dirue erun hara...
- Bakarrik etortzen ziñen?
- Bai, bai.
- ... Edo ekartzen [zan] batenbat badaezpada?
- Ez, ez, bakarrik.
- Bakar-bakarrik?
- Lehelengotaz bai. Ta gero hasi zien entzuten “jo, atraco a tal y gente tal y esto"...ta imini ostien guardia zibil pare bat, pareja bat. Joe...
- Kotxe barruan joaten zien zurekin?
- Ai.. joee... harek emon osten /emosten/ niri... “caguen la puñeta”, hori ez jaten /etxaten/ gustau bape, baiña... ba in biher, [...] ta.
- Ta zuk kantidade asko mobitzen ziñun?
- Bai, bai.
- Ze zan danontzako nomina osue? Hilero?
- Bai, bai.
- Zenbat bihergin ?
- Ba oin hori...
- Baia han sasoien.
- “Trescientos cincuenta, cuatrocientos”.
- Asko zan orduen, joe. Hori asko zan.
- Ta jornalak onak zien han hasikeratan?
- Bai, bai, jentie konforme [...], bai.
- Ze hemen zenbat egongo zien, konparatzeko pixkat, hemen, Mendizabalenian zenbat egongo zien?
- Ez dakit ba, buf... “doscientos cincuenta”?
- Hori da, berrehun bat? Berrehun ta berrogeta hamar? Ta han ixa-ixa bikoitza.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. San Roke eguna eta Mañariko Andra Mari jaiak (DUR-001/002)

Gaztetan San Roke egunez Mañariko Andra Marietara joaten ziren. San Roke bezperan, Andra Mari egunez, San Rokeko ermitara joaten ziren eta ostean Mañariko erromeriara; goizeko 9etako mezarekin hasten zen jaieguna. Lehen guztiak elkarrekin ibiltzen ziren; gaur egun ostera, ohitura hori galdu dela dio.

## 2. Bizikletarik ez: oinez ibili behar (DUR-001/003)

Durangoko bandak zortzi pieza jotzen zituzten arratsaldeko zazpietatik bederatzietara. Beraiek Mañariko, Apatamonasterioko edo Berrizko erromeriara joaten ziren, hangoek gehiago irauten zuten-eta. Ez zuten bizikletarik izaten eta jai guztietara oinez joaten ziren. Beharrera ere oinez joaten ziren bertakoak zein inguruetako herrietakoak.

## 3. Bidea beharrean, argirik gabeko estrata (DUR-001/004)

Etxetik Burdindegirako (ferreterarako) bidean ez zegoen argi bat bera ere; Durangora joateko bidea beharrean estrata zegoen eta bonbilla bakarra bide osoan. Inguruko etxeetakoak erromeriara bidean, abarkekin etortzen ziren Txominen etxeraino eta bertan abarkak kendu eta zapatak janzten zituzten, eta etxerantz bueltatzerakoan berriro abarkak janzten zituzten.

## 4. Garia, lastoa eta ira (DUR-001/005)

Garia zemendian (azaroan) ereiten zen. Igitaiarekin ebakitzen zuten, 3-4 egoten ziren ebakitzen eta beste bat lotzen; gari-metak egiten zituzten gero. Etxe aurrean zabaltzen zuten garia, orduan ez baitzen autorik pasatzen. Garia zelan jotzen zuten azaltzen du; eskuz egiten zuten guztia. Garia eta lastoa sabaian gordetzen zituzten; hasiera batean gurdia erabili beharrean lepoan garraiatzen zuten belarra. Goldea gerraostean etorri zen; lehenago soroak laiatu egiten ziren. Ira bila Nebera aldera joaten ziren; ira sasoian egunean 10 bat ordu pasatzen zituzten hura ebakitzen. Bitañoko basoa trontzekin ebakitzen zuten, eta enborrak idian garraiatzen zituzten kargatzeko tokira. Gaur egun basoa eta soro guztiak alde batera utzita daudela dio.

## 5. Karrantzara eta Torrelavegara ebakuatuta (DUR-001/008)

Gerra hasi zenean, etxetik atera zituzten bera eta bere familiakoak. Etxeko lau behiak, astoa eta jeneroz betetako gurdia hartuta, Durangoko tren-geltokira joan ziren. Ganadua kargatzen zeudela, obusak hasi ziren jaurtitzen Ezkurdira. Hiru arrebak, amama, osaba eta bera Karrantzara eta Torrelavegara joan ziren; Karrantzako baserri batean egon ziren bi hilabete eta erdiz 80 bat lagun. Karrantza hartu zutenean Torrelavegara joan ziren. Durangora bueltatzeko trena astelehenez hartu zuten, eta eguenez (ostegunez) heldu ziren.

## 6. Baserri asko konfiskatu zituzten (DUR-001/009)

Baserri asko konfiskatuta egon ziren; kanpora ebakuatu behar izan, eta herrira bueltatutakoan, etxea okupatuta aurkitu zuen jende askok. Beraien etxea oso ondo aurkitu zuten. Inongo diru barik, bizi berri bati eman zioten hasiera.

## 7. Gerrarako bonbak egiten eguneko 6 pezeta irabaziz (DUR-001/010)

Arreba Berrionean hasi zen lanean eguneko 2,50 pezeta irabaziz. Berari Larrinagako Anastasio kontratistak lana eskaini zion 13-14 urte zituela, Kurutziagako obretan aritu zen lanean eguneko 4 pezeta irabaziz. Irabazitako guztia amari ematen zioten erosketak egiteko. 1938an Mikeldiko Ferreteran hasi zen lanean gerrarako bonbak egiten, 12 orduz lan eginda 6 pezeta irabazten zituzten.

## 8. 3,50 irabazi eta olio-botila 20 ogerleko (DUR-001/011)

Anaia bi zituen gerran eta haiei ere dirua bidaltzen zien noizean behin. Gerra bukatu arte egon zien bonbak egiten burdindegian (ferreteran). Gerra bukatu zenean dirua eskastu zela dio, 3,5 kobratzen zuten 6 pezeta beharrean. Olio botila 20 ogerleko balio zituen, hori dela eta txerriaren koipea erabiltzen zuten ez zuten erosteko dirurik-eta. Hala ere, baserritarrek ez zuten goserik pasatu; kaletarrek bai. 1945ean Donostiara joan zenean soldadu 6 pezeta irabazten zituen.

## 9. Donostiatik Bilbora soldadu (DUR-001/012)

Donostian soldadu egon ostean Bilbora eraman zuten. Durangar batzuen senitartekoa tenientea zen Donostian eta haren laguntzarekin lortu zuen Bilborako lekualdatzea lortzea, Donostiako diziplina gogorra zela dio. Plentziako Billano lurmuturrean egin zuen hilabete, eta handik Galea muturrera joan zen; han oso gustura egon zen Artillerian.

## 10. 5 ogerleko aste osorako (DUR-001/013)

Galea muturrean zeudela soldadu, Tomas Eguen arkitektoak astebeterako lana ematen zien eta beraiek lan hori 3 egunetan egiten zuten eta gero etxera erortzen ziren. Zapatuetan etxera etortzen zenean amak 5 ogerleko ematen zizkion aste osoa pasatzeko; gehiena joan-etorrian gastatu arren aste osoa pasatzen zuen. Erromerian pezeta bat ordaintzen zen dantzan egitearren. Soldadu garaian txarto jaten zela-eta amak prestaturiko janaria eramaten zuen etxetik.

## 11. Gorriek ezin tailerretan lanik egin; Gipuzkoan gehiago irabazten zen (DUR-001/016)

Gerran gorriekin ibili zen jendeari, herrira bueltatzerakoan, ez zioten lantegietan lanik ematen; horregatik, basoko edo errepideko beharretan aritu behar izaten zuten. Bere anaia bat bi urtez egon zen Langileetan, eta handik bueltan laguntasuna izan zuen: tren-geltokian hasi zen, hil berria zen osabaren partez. Lan asko zegoen, Eibarrerako "tren obrero" egon zen goizeko zazpietan eta jende asko harantz joaten zen, Gipuzkoan gehiago irabazten zen-eta.

## 12. Tabernetan txakolina eta sagardoa (DUR-002/002)

Betidanik egin izan dute txakolina etxean, bai beltza eta bai zuria. Garizuman saltzen zuten etxeko tabernan, eta etxekoa bukatuz gero gehiago erosten zuten. 1.000 litrotik gora egiten zuten urtero. Orduko tabernako edariak txakolina eta sagardoa ziren. Sagardoa Usurbildik ekartzen zuten.

## 13. Garizuman dena bekatu omen zen (DUR-002/003)

Orduko garizuman zinerik edo erromeriarik egoten ez zenez, jendea tabernara gehiago joaten zen. Domu Santuetan berriz, Santa Lutziara joaten zen jendea, gaztaina erreak jatera. Ardoa edukitzen zuten tabernan, baina jendeak txakolina edo sagardoa edaten zuen. Jaten ere ematen zuten tabernan.

## 14. Gero eta bezero gehiago zituzten tabernan (DUR-002/004)

Mañaria, Abadiño eta inguruko herri guztietatik etortzen zen jendea txakolina edatera. Tabernarako intxaurrak Arratiatik ekartzen zituzten.

Aita bizi zen bitartean mahastiak zaindu zituzten. Gero txakolina erosi egiten zuten. Bilbotik ere jendea etortzen hasi zen.

### 15. Opor bukaerako meza (DUR-002/006)

Gero eta jende gehiago etortzen zen jatetxera, eta opor bukaerako meza ospatzen hasi ziren bertan. Hogeitaka urteetan eman zuten meza hori.

### 16. Ermita eraiki zuten taberna ondoan (DUR-002/007)

Jatetxe ondoan ermita bat eraikitzea erabaki zuten bezero batzuek; erabaki eta jarraian egin zuten, auzolanean egin ere ermita ederra. Ezkontzak ere ospatu ziren ermitan berrian. Kantabriatik ekarritako San Ziprianori eman zioten ermita. Azkenerako erromeria leku bihurtu zen, etxekoak zikinak jaso besterik ez zutela egiten dio.

### 17. Terraza kendu egin zuten (DUR-002/008)

Kanpoko terraza kentzea erabaki zuten. Ganadua kendu eta taberna-jatetxea eraberritzeko obra egin zuten.

### 18. Etxeko txakolingintza (DUR-002/012)

Txakolin zuria mahats zuriarekin, amerikanoa deitzen diotena, egiten da; beltza, berriz, mahats beltzarekin. Txakolina etxean egiten zuten, Durangoko ardo-upeltegi bateko enologoaren laguntasunarekin. Txakoligintzari buruzko azalpenak ematen ditu Natik.

### 19. Etxeko txakolina, onena (DUR-002/013)

Urteko lehen txakolina irekitzean, aitak Natiri eskatzen zion dastatzeko. Gaurko txakolinak oso kimikoak direla dio Natik, ez lehengoen modukoak. Lehenago etxeko txakolina bukatzen zitzaienean, Bakiotik ekartzen zuten tabernarako.

### 20. Eskolan zegoen bonbardaketa izan zenean (DUR-002/015)

Txokolatea eta ogia hartuta joaten zen eskolara, Orozketara, egun guztirako. Eskolan hasi eta zortzi egunera, gerra etorri zen. Eskolatik ikusi zuten bonbardaketa, mahai eta aulkien dardara artean. Bere eskolakide batek infartuaren antzeko zerbait jasan zuen; eta, sustoaren ondorioz, hil egin zen.

### 21. Gerraosteko maistra gaiztoa (DUR-002/016)

Gerrak iraun zuen artean ez zuten eskolarik izan. Hiru urte pasa eta gero berrekin zion eskolara joateari. Maistra berriak umeak jo egiten zituen odola atera arte. Gurasoak kexatu eta 'Baltza' ezizenezko maistra kendu zuten, eibartar bat haren ordez jarriz. Hau oso ona omen zen.

### 22. Egunero eskolara ezin joan (DUR-002/018)

Umeak euskaraz egiten zutenean, 'Baltza' maistrak jo egiten zituen. Hamabost bat neska-mutil elkartzen ziren ikasgelan. Baserriko lanak zirela-eta, ez zen egunero joaten eskolara. San Frantzisko eskolara joan zen urtebetez.

## 23. Eskolan bazkaltzen zuten (DUR-002/019)

Orozketako eskolan bazituzten arbela eta liburuak. Umeak babarrunak etxetik ekartzen zituzten, eskolan prestatzeko. Batzuetan ogi eta txokolate hutsarekin joaten ziren. Maistra abade-etxean bizi zen.

## 24. Bonbardaketa egunean, ahizpa esnea banatzen (DUR-002/020)

Ostegun arratsaldea eta asteburu osoa jai izaten zuten eskolan. Oporrak, berriz, oraingo antzera. Dotrina Durangoko jesuitetan ikasi zuen. Bonbardaketa egunean, Natiren ahizpa esnea banatzen zegoen kalean. Onik irten zen, baina Andra Mariako elizan jende asko hil zen. Bertan lotuta zeuden esnedunen astoak ere hil egin ziren.

## 25. Bonbardaketa gogorra izan zen (DUR-002/021)

Aurreko egunean mehatxuak jasota, aita ganadu guztiarekin Karrantzara joan zen. Bonbardaketa eguneko oroitzapen garratzak ditu: aita eta anaia hil egin zirela esan zieten, kaletarrak etxean babestuta, babeslekuak...

## 26. Etxeko denak onik irten ziren (DUR-002/022)

Gerrako hiru urteetan, ahizpa zaharrenaren berririk ez zuten izan. Gerra bukatu zenean, etxeko denak onik itzuli ziren etxera.

## 27. Mañaria eta Izurtzako jaietara oinez (DUR-002/024)

Etxeko tabernan garai batean parranda itzelak ospatzen omen ziren; soinua eta gitarra-jotzaileak elkartzen ziren lagunekin txakolina edan eta kantuan egiteko. Nati ez zen etxe ingurutik irten 17 urte izan zituen arte. Gero, oinez mendirik mendi, Mañaria eta Izurtzako jaietara joaten zen. Serafin izeneko soinujole gernikarra eta jazbanak jotzen zuten hango erromerietan.

## 28. Mañariarrak mutil borrokalariak (DUR-002/025)

Dantzan egiten zuten, baina dantza lotua bekatua omen zen. 'Itzikozu jantzan egitten'? esanda eskatzen zieten dantza mutilek neskei. Mañariar mutilek arratiarrekin kristoren borrokak egiten omen zituzten, hauek herriko neskekin dantza egiten bazuten.

## 29. Senargaia nola ezagutu zuen (DUR-002/026)

Senarra izango zena, etxe ondoko landara-haztegi batean ezagutu zuen. Gero arrantza-guarda izan zen. Aitaginarrebarekin igeltserogintzan hasi zen, baina tailer batean bukatu zuen lanean.

## 30. Lehenengo jaunartzea (DUR-002/029)

Natiren parrokia Santa Anakoa zen arren, jesuitetara bidali zuten dotrina ikastera. Bertan egin zuen lehenengo jaunartzea.

## 31. Senideak tabernara laguntzera (DUR-002/031)

Bost neba-arreba izan ziren, eta baserriak lau logela zituen. Astegunetan etxekoek nahikoa izaten ziren taberna eramateko, baina asteburuetan lehengusinak etortzen ziren laguntzera.

## 32. Lehen sukaldean ohitura ezberdinak (DUR-002/032)

Lehen txakolina ez zen erabiltzen sukaldean. Orduan ez zegoen ardo zuririk, eta txakolina edaten zen. Ardoak eta txakolinak antzerako prezioa zuten.

## 33. Txakolina eta sagardoa pitxerretan (DUR-002/033)

Durangon bertan egiten ziren kuartilu eta erdiko pitxerretan ateratzen zuten txakolina eta sagardoa. Kanpoan eserita egoten ziren bezeroak. Olaberria dendan kuartilu bat, litro bat edo litro biko portzelanazko pitxerrak saltzen zituzten.

## 34. Antxoak eta txakolina (DUR-002/034)

Arrautzaztatutako antxoak ateratzen zituzten txakolinari laguntzeko. Emakumeak gizonekin batera edaten zuten. Zornotzako lehengusinak etortzen ziren larunbatetan tabernan laguntzeko iganderaino. Pozik etortzen ziren baserritik jendartean ibiltzera.

## 35. Taberna garbitzea (DUR-002/035)

Tabernako zikinak eskobarekin jaso eta soroan erretzen ziren. Amak betiere eukaliptoa erretzen zuen usainagatik. Zurezko zoruak lixiba eta eskuilez garbitzen ziren ondo zuritu arte.

## 36. Artilezko koltxoiak (DUR-002/036)

Lehengo koltxoiak artilezkoak izaten ziren.

## 37. Arropak garbitzea (DUR-002/038)

Arropak eskuz garbitzen zituzten. Xaboi-uretan beratu ondoren, errekan astintzen zituzten. Aspaldi jarri zuten sukaldean marmolezko aska bat arropak garbitzeko.

## 38. Argindarra Mañariatik (DUR-002/039)

Argindarra etxean beti ezagutu du. Lehen Mañariatik etortzen zen, baina haizea edo ekaitza zenean indarra kendu egiten zieten.

## 39. Ama oso elizkoia zen (DUR-002/040)

Mañariako aguazila makilarekin ibiltzen zela gogoratzen du Natik. Igandero joaten ziren Santa Anako elizara mezara. Konfesatu ia igandero egiten ziren, amak aginduta. Ama oso elizkoia zen. Konortea galdu zuen behin, bero handiarekin oinez elizara joan eta gero.

## 40. Goizeko sei eta erdietan mezetara (DUR-002/041)

Nati eta senarra ume txikiak ohean utzita goizeko sei eta erdietako mezara joaten ziren igandetan, bizikletaz. Etxera bueltan, bakoitzak zakukada bat ogi ekartzen zuen. Jesuita ezagun batzuek esan zieten umeak eta ama zaharra etxean bakarrik utzita mezara ez joatea ez zela bekatu, eta harrezkero ez ziren gehiago mezara joan.

## 41. Meza, konfesio eta penitentziak (DUR-002/042)

Jesuitek mezak erdaraz ematen zituzten. Santa Anako parrokoak, ordea, euskaraz. Konfesatzeko emakumeak takila antzeko batean sartzen ziren, baina gizonezkoak libreago konfesatzen ziren.

## 42. Igandetako janzkera; orrazkerak (DUR-002/045)

Igandetan arropa ezberdinak erabiltzen zituzten. Txarolezko oinetako beltzak, takoi gabekoak edo espartina zuriak. Jertse zuria eta gonak. Bere etxean makillajerik ez zen erabiltzen. Ile-apaindegira urtean behin-edo joaten ziren.

## 43. Ile-apaindegia eta bizartegia (DUR-002/046)

Koinata Pantxiren ile-apaindegia non zegoen azaltzen du. Bizartegia Txantonesa tabernaren ondoan zegoen.

## 44. Iturriak (DUR-004/006)

Munitxa taberna famatua zen; bere anaiek ikaztegia zuten Kalebarrian. Bere aitapontekoa-eta Munitxaren tabernan batzen ziren domeka arratsaldetan. Atzeko iturrira ur bila joatearren, erreal bat ematen zion ordainetan; metal-ura oso estimatua zen. Iturria Mintegiren zerrategiaren atzeko partean zegoen. Taberna aurrean bi askadun garbitokia zegoen. Faustobeko etxearen alboan zegoen iturria, Abadiño eta Durango arteko mugan.

## 45. Lanean txapel gorria erabili behar (DUR-004/009)

Bere aita igeltseroa zen. 1939an, 15 urterekin, bere aitarekin "Forjas de San Pedro"n hasi zen beharrean. Andaluziako "zonalde gorria" deituriko presoak kontratatzearren eguneko pezeta bateko laguntasuna jasotzen zuten. "El portico" drogerian burutu zituen lehenengo lanak. Txapel gorriarekin eta praka laburrekin ibiltzen ziren lanean; txapel gorria janztera derrigortzen zituzten. Kurutziagan Komandantzia militarra zegoen, eta bertan nazionalek herriren bat hartzen zuten bakoitzean. batzarra egin eragiten zieten.

## 46. 'El Noticiario Bilbaino' irakurtzen zuen (DUR-004/011)

Zazpi urterekin, El Noticiario Bilbaino egunkaria irakurtzen zuen. Barrenkalean Elosu liburu saltzaile egoten zen, eta berak eta lagun batek "Elosu kakamosu" egiten zien burla. Umetatik irakurle amorratua izan da.

## 47. Egunero esnea saltzen (DUR-004/015)

Porru asko saltzen zituzten. 4 behi zituzten eta bere ama egunero esnea saltzen jaisten zen esne-gurdi batekin; Gutik egin zien gurdi hori. Eguneroko bezeroak zituen eta 60 litrotik gora saltzen zituzten egunero. Kamioia etxerik etxe esnea batzen hasi zenean, partikularrari bikoitza kobratzen zitzaion.

## 48. Porru oso onak zituzten, saridunak eta guzti (DUR-004/017)

Bere gurasoek San Faustoetako sariak irabazitakoak ziren; behiekin zein porruekin. Lehenengo behiagatik 750 pezeta ordaindu zituen bere aitak 1935ean. Behi horrek beragatik ordaindutakoa baino gehiago lortu zuen saritan. Porrua ona, luzea, izateko aitzurra ezin da edozelan erabili; zelan erabili behar den azaltzen du. Ez ziren plazara joaten, bezero finkoak zituzten eta zuzenean saltzen zieten. Madrileraino ere bidali zituzten behin.

## 49. Bertoko erreketako arrainak, karramarroak... (DUR-004/019)

Oiloak, untxiak eta ahateak zituzten (erreka ondoan bizi zirelako zituzten ahateak). Bakailaoa beratzeko errekara sartzen zuten zaku barruan; zakua karramarroz betetzen zen. Ezkailuak harrapatzea oso erraza zen, erretela

botata bertara joaten ziren. Mañariko errekak ur hotza du, eta hori oso ona da; hori dela eta, ez zen loinarik egoten. Beste erreketan egoten ziren loinak. Santa Anatik gora ez zen barborik egoten. Bertoko karramarroak aurkitzeko erreka hasieratara joan behar dela dio. Zarboak sardexkarekin harrapatzen zituzten; harrien azpian ezkutatzen ziren. Ezkailuak sabel mingotsa du, zarboak ez.

## 50. Ola zaharra (DUR-004/022)

Beti bizi izan da ola ondoan. Ola eta bertako lanak zelakoak izaten ziren kontatzen du. Mendizabalen makinak hasi zirenean, utzi zioten han zartaginak egiteari. Lehenago burdindegi gauzak (balkoiak...) eta txapista lanak ere egiten zituzten. Argi barik, uraren indarraz funtzionatzen zuten makinek. Egurikatza erabiltzen zuten; tailer barrura zakuak zelan sartzen zituzten azaltzen du. Olatik errekaraino, tunela eginda zegoen gerrarako babesleku bezala.

## 51. Tabiratik errepide nagusirako bidea (DUR-004/024)

Lehenagoko errepide nagusia Laubidietatik Tabirara artekoa zen, eta Tabirako eliza ostetik Izurtzako irteerara heltzen zen. Gainerako errepideak geroagokoak dira. Bide horretan, Estankonaren burdindegiaren ondoan "Bakarrena" izeneko etxe bat zegoen: zegoen bakarra. Hurrengo etxea "Sator etxe" izan zen. Tabiratik errepide nagusira oinetakoak ez zikintzeko losa batzuk zeuden jarrita. Losa horien ondoan gurdi-bide bat zegoen; bonbardaketako hondakinekin betetakoa. apurka-apurka joan zen bide hori zabaltzen.

## 52. Domeka, egun sakratua (DUR-004/033)

Lehen erlijioa derrigorrezko kontua zen. Karlisten leloa "Dios, fueros, patria y rey" zen, lehenengo jainkoa zuen haiek ere. Bizkaitarrek erregea kendu egin zutela dio. Domeka (igandea) elizarako eguna zen, gainerako lan guztiak alde batera uzten ziren.

## 53. Lamiak eta sorginkeria kontuak (DUR-004/035)

Lehen umeei beldurra emateko istorioak kontatzen ziren. Bere amamak etxeko leihotik lamiak ikusten zirela esaten zien. Kontu horiek guztiak Eibarren arma-lantegiak zabaldu zirenean bukatu zirela dio; jendeak defendatzeko, etxean eskopetak izaten zituen-eta. Bere aitaitari entzuna zion, Urkiolatik behera zetorrela kate zaratak-edo entzun, eta etxera di-da batean etorri zela. Mañaritik harginak Madrilera joaten ziren lanera; eta lehenengo bizikleta Madrildik ekarritakoa zen, hura ere sorginkeria kontua zela esaten ei zuten. Txikitan sinesten zituzten kontu horiek.

## 54. Durangoko bonbardaketa I (DUR-004/038)

1934eko urrian izandako Asturiasko altxamenduaz gogoratzen da. 1936ko irailaren 28an izan zen Durangoko lehen bonbardaketa. "El abuelo" izenez ezaguna zen hegazkin bat sarritan ibiltzen zen alde batetik bestera eraso egin barik, baina egun hartan bost bonba bota zituen. Ezkurdiko frontoiko ezkerreko horma zulatu zuen eta hainbat jende hil zen. 1937ko martxoaren 28an, goizeko zortzietan izan zen lehen erasoa. Bezperan, Andra Maria eliza hustu zuten, intendentzia militarra zegoen bertan. Hala ere, herritar asko hil ziren, baina intendentziakoak ez. Arratsalderako, Isidro Santi gurutzera joan zen. Ehiza-hegazkinak heldu zirenean, eraso gehien jaso zituen gunea tren-geltokia izan zen. Bere emaztea esnea saltzen etorri zen Durangora eta justu-justu libratu zen, astoa Kurutziagan utzi ostean. Astoak non lotzen ziren azaltzen du.

## 55. Durangoko bonbardaketa III (DUR-004/039)

Soldadu talde handi bat fusilak lepoan hartuta ikusi zituela gogoratzen du, eta kanposantu ondoko etxe batean zegoen gizon bat hil zutela. Kanoi alemaniarrak, "Ocho con ocho" deiturikoak, Matienako (Abadiño) Gerediagako ermitaren kontra egon ziren; Mugarra aldera erasotzen zuten.

## 56. Txapa (ekonomika) (DUR-004/047)

Beraien etxean txapa (ekonomika) 1933tik zuten. Zelako zen azaltzen du; bi tiro zituen eta bakoitzak bere funtzioa zuen. Galdara handi bat jartzen zuten gainean. Motozerra eduki aurretik eskuzerraz ebakitzen zituzten enborrak. Katu asko zituzten etxean eta arrain zatien bila joaten zen Durangora arrozarekin batera egosi eta katuei eta oiloei emateko.

## 57. 1936an Donostiara egindako bidaian ikusi zuen itsasoa (DUR-004/050)

1937an ikusi zuen lehenengo biderrez itsasontzi bat. Itsasoa ostera, 1936an ikusi zuen lehenengoz; Izurtzako eskolatik Donostiara joan ziren "autobus Carbonero"n. Bidaiak ogerleko bat balio izan zuen. Aquariuma ikusi, Pasaia bisitatu eta Usurbilen sagardoa probatu zuten. Gerra hasi aurreko egunetan izan zen bidaia hori, 1936ko uztail hasieran. Ibarruriko neska-mutilekin bete zuten autobusa.

## 58. Izurtzako eta Durangoko eskolan ibilitakoa (DUR-004/051)

Izurtzako eskolara ume asko joaten ziren eskolara; neskak eta mutilak banatuta. Lehenengo kotxea Avilako maisuak izan zuen; "tiempo bi"ko motordun deskapotablea. Gerran nazionalistek kotxea konfiskatu zien. Maisu-maistra onak izan zituzten: Florentino Hidalgo eta Sebastiana Torres. 5-6 lagun eskola partikularretara ere joaten ziren irakasleen etxera. Lehenengo Durangoko eskolara joan zen; Don Ramon maisua du akorduan, zigarro batekin beste bat pizten zuena. Tabirara bizitzen joan zirenean hasi ziren Izurtzako eskolan. Gerra ostean, Orue txaleteko partikularretara joan zen; mojek ematen zituzten eskolak. Antzinako komunak zeuden bertan, eta zelakoak ziren kontatzen du. Ganaduentzako askak ere bertan zituzten.

## 59. Luis Mendiaren marrazketa-eskolak (DUR-004/053)

Luis Mendiarengana joaten zen marrazketa ikastera; Komentu kaleko eta Kalebarri arteko kantoian zuen lokala. Mendizabaleneko delineatzailea zen

Luis Mendia. Isidro eraikuntza-lanetan aritzeko planoak-eta ikastera joaten zen; lanean zebilela iluntzetan joaten zen.

## 60. Garia erosi behar entregatzeko (DUR-004/058)

Sekula ez dute garirik erein. Hori dela eta, abastotik kupoa entregatu beharreko agindua heldu zenean, entregatzeko garia erosi egin behar izan zuten. Lapikotarren almazenera eraman behar izaten zen. Baserrian ez zuten goserik pasatu. Oliorik ez zutenean, esnegaina erabiltzen zuten koipe bezala.

## 61. Osaba estraperlista (DUR-004/060)

Mañariko bere osaba bat gerra ostean estraperloan hasi zen larruak ekartzen; ostean, gariarekin ere hasi zen. Behin kamioian gariarekin Gasteiztik zetorrela, aguazil batek gelditzeko eskatu zien, baina aguazilak ez zuen lortu bere helburua.

## 62. Motorzalea: Guzzia, Vespa... (DUR-004/066)

Ezkondu aurretik BI-1975 matrikuladun motorra zuen Isidrok; 75 zentimetro kubikoko Guzzi bat zen. Sasoi hartan, ez zen jende askorik ibiltzen motorrez. Gerra aurretik, bizikleta izatea ere asko zela dio. 14.000 pezeta ordaindu zituen bigarren eskuko motorragatik. Guzzia izan aurretik Zipri Agirrezabali erosi zion motor bat, 38 zentimetro kubikoko JB bat. Kurutziagako Gutin tailerrean, armazoia egin zien; atzean 5 abiadura-aldagailu eta katalinan bi jarri zien, hamar abiadurako motorra izateko. Guzzi motorra eta gero, bi Vespa izan zituen.

## 63. Auzunea asko aldatu da (DUR-005/003)

Auzunean zazpi baserri etxe zeuden, denak labrantza eta ganaduekin. Latsarria ere bazegoen auzoan. Milagrosen aitaginarreba hargina izan zen. Iturria bere jaioturtean eraikitakoa da.

## 64. Aitak saskiak eta aulkiak egiten zituen (DUR-005/004)

Aitak etxe ondoan ura ateratzeko putzua egin zuen, eta teilatuko ura jasotzeko tanga bat jarri. Saski eta aulkigilea ere bazen aita. Altza egurra erabiltzen zuen bere lanean.

## 65. Etxeko eta baserriko lanak (DUR-005/007)

Senarrak etxetik kanpo egiten zuen lan. Milagrosek umeak zaindu, etxea atondu, esnea kalera eraman, ganaduak gobernatu... lan asko egiten zuen. Durango eta Bilboko azoketara ere joaten zen, etxeko barazki eta pikuekin.

## 66. Marzelino Palaziokoa (DUR-005/008)

Goizeko seietarako kortako lanak eginda izaten zituen Milagrosek. Marzelino Palaziokoaren kontu batzuk.

## 67. Gose denborako kontuak (DUR-005/009)

Egunero joaten zen Bilbo edo Durangoko azokara. Gose denboran, kalean okerrago egon ziren baserrietan baino. Kaleko jendea baserrietara etortzen zen janari truke lanera.

## 68. Errefuxiatuak etxean (DUR-005/010)

Fusilatzeak eta bonbardaketak Durangon. Etxean Gipuzkoako errefuxiatuak izan zituzten

## 69. Karrantzan bizitako egoera (DUR-005/011)

Karrantzara ihes egin zuten, ganaduak ere trenean eramanda. Karrantzan egon ziren eraikuntzan, gela-banaketa izarak esekita egin zuten. Erratzak garoarekin egiten zituzten.

## 70. Durangarrak abioien beldurrez (DUR-005/012)

Karrantzako alkateak beti ematen zien zerbait, bertara joaten zirenean babes bila. Karrantzan ez zuten bonbardaketarik ezagutu; baina, abioi-hotsa entzun orduko, han zeuden durangarrak ezkutatu egiten ziren etxe ondoko zanga batean.

## 71. Lagun gezurtia (DUR-005/014)

Gerran Karrantzara ebakuatuta joan ostean, aurretik zeuden tokitik baserri batera joan ziren. Lagun bat jipoitu zuen gezurra esan ziolako.

## 72. Astoaren azpian, bonbardaketatik gordetzeko (DUR-005/015)

Karrantzatik Cartesera joan ziren, Torrelavega ondoko herritxo batera. Han, esnearekin zihoan batean, bonbardatzen hasi ziren. Astoa horma baten kontra jarri, eta astoaren azpian egon zen gordeta bonbardaketak iraun zuen tartean.

## 73. Durango eta Otxandio bonbardatzen (DUR-005/016)

Koinatuak eta anaia Otxandioko frontean zeudela, Bitañora joan zen ama eta ahizpekin. Otxandioko bonbardaketa osoa ikusi ahal izan zuten leihotik. Egun berean, Durango bonbardatu zuten; eta jesuiten eta Andra Maria elizak suntsitu zituzten. Arbolapean gordeta zegoen jende asko metrailatu eta hil zituzten.

## 74. Ospitaleko eta "La Villa"ko eskola; "Escuela Dominical" (DUR-005/018)

Ospitaleko eskolara joan zen, harik eta Otxandioko bonbardaketaren ondorioz ikasgela ospitale bihurtu zuten arte. Geroago, "La Villa" izeneko herriko eskolan ibili zen. Igande arratsaldetan "Escuela Dominical"era joaten zen. Lau erregelak ikasi zituen eskolan.

## 75. Bilboko azoka (DUR-005/019)

San Antoneko azokara joaten zen Bilbora. Saltzaileen lanak eta trikimailuak azaltzen ditu.

## 76. Andreak aritzen ziren tratuan (DUR-005/020)

Bilboko azokan tratuan andrazkoak gehiago aritzen ziren gizonezkoak baino. Gero hirian saltzeko gauzak erosten zituzten tratuan. Porruak dozenaka saltzen zituen. Pikuak ere eramaten zituen. Pikuak nola batzen zituen azaltzen du.

## 77. Lehen sagarrak gehiago irauten zuen usteldu gabe (DUR-005/021)

Lehenago bertako sagarrak eta pikuak saltzen ziren, kanpoko frutarik ez zegoelako salgai. Etxean sagarrondo asko zituzten. Gaztainondoak hondatzen joan ahala, Milagrosen amak lurra aitzurtu zuen sagarrak landatzeko. Urdin sagarra, urtebetea, errege-sagarra eta beste mota batzuetako sagarrak landatzen zituzten. Sagardoa egiten saiatu ziren, baina ez zuten aurrera jarraitu. Sagarrak maiatza arte gordetzen zituzten. Lehen sagarrak gordeta zimurtu egiten ziren, ez usteldu.

## 78. Durangoko emakumeen kartzela (DUR-005/022)

Durangoko emakumeen kartzela ez zuen ezagutu Milagrosek. Eurak Kantabriatik itzuli zirenerako kenduko zutela uste du. Emakumeen kartzela Zornotzako komentu batean zegoela dio.

## 79. Zauritutako soldaduak Durangon (DUR-005/023)

Zauritutako soldaduak Milagrosen etxe ondotik sarritan pasatzen ziren. Soldaduek salestar mojei kanta-burlak abesten zizkieten.

## 80. Eskolan gehien Bilboko azokan ikasi omen zuen (DUR-005/024)

Otxandioko bonbardaketaren ondorioz, “San Vicente de Paúl”, mojek ospitalean zuten eskola, itxi egin zuten. Ikasleak herriko eskolara bidali zituzten. Kantabriatik bueltatu zirenean (gerratik ihesi joan baitziren), San Frantziskoko komentuko eskolara joan zen, baina eskola baino gehiago eskulanak irakasten zituzten bertan, eta utzi egin zuen.

## 81. Euskaraz ezta dotrina ere (DUR-005/025)

Santa Ana ostean jasotzen zituzten igandeko eskolak, ”Escuela Dominical” zena. Denetik ikasten zuten han. Eskoletan arbelak egoten ziren, baina liburu gutxi. Dotrina gehien bat etxean ikasi zuen. Izurtzan elebitan irakasten omen zuten dotrina, baina Durangon euskaraz ez zuten ezer irakatsi.

## 82. Erromeria zorigaitza (DUR-005/026)

Erromerietara joaten ziren. Santa Lutziako erromeria batean, dantza-haserre batean, mutil batek emakume bat aizkoraz hil zuen. Egun berean, plazan sartutako pinu batera igotzeko jokoan, Mañariko mutil bat bertatik erori eta lehertu egin zen. Aulki batean eseri eta lau lagunen artean jaitsi zuten Izurtzaraino.

## 83. Bernagoitiko erromeria (DUR-005/027)

Iurreta eta Durangoko erromerietara joaten ziren. Bere lagun Terekin batera Bernagoitikora joan ziren. Ohikoa zen bezala, dantzara joan aurretik elizan errezatu egin zuten. Dantza gutxi eginda itzuli behar izan ziren gaua zelako.

## 84. Urkiolan eta Durangon, San Antonioak (DUR-005/028)

San Antonio zen jairik printzipalena Durangon. Jatekoak astoan hartu eta gurasoekin Urkiolara joatea gogoratzen du. Gero, egunetan egoten ziren erromeriak Durangon. Erromeria askotan mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik. Abadeek ez zuten larregi oztopatzen dantza lotua.

## 85. Dena konfesatu behar (DUR-005/030)

Lehengo mezak ezberdinak ziren. Gauen senarrarekin olgeta aldi bat bazuen, hurrengo goizeko lehenengo mezara joan behar izaten zuten, bekatua konfesatzera.

## 86. Elizako betebeharrak (DUR-005/031)

Telebistako programa bat baliatzen du, lehenago elizak bekatu eta sakramentuak erabiltzen zituen era barregarria azaltzeko.

## 87. Gotzonen aita ez zen karlista (DUR-006/002)

Gotzonen jaiotetxea Ampuerotarrena zen. Hauteskunde batzuetan Ampuerok karlistentzako botoa eskatu zion Gotzonen aitari. Honek botoa ukatu eta Ampuerok etxetik bidali zuen. Lau urte geroago joan ziren etxetik, auzo bereko beste etxe batera.

## 88. Francok izen euskaldunak onartu ez (DUR-006/003)

Gotzon izena bere osaba aita pontekoagatik jarri zioten. Arreba batek Jasone du izena, baina euskal izenak ez ziren onartzen Francoren denborako erregistroetan.

## 89. Eskolan tripetako mina. Sororako lanabesak (DUR-006/004)

Eskolara joaten zenean tripetako mina egiten zitzaion, eta etxera itzuli eta soroan lanean min hori sendatzen zitzaion. Soroan erabiltzen zituzten lanabesak aipatzen ditu. Goldea, aria, narra, burdin area eta triki-traka. Azken hau goldea pasatu aurretik lurra biguntzeko erabiltzen zen.

## 90. Zubi Esekian behiekin (DUR-006/006)

Gerran, bonbek ateratzen zuten distira gogoratzen du, bera sasi artean gordeta zegoela. Zugastietara egin zuten ihes, eta handik Morgara. Gero, Portugaletetik Ortuellara; eta handik, etxera bueltatu ziren. Aita sei behirekin Bizkaiko Zubi Esekitik pasatu zen. Aita Ortuellatik frontera eraman zuten, baina gauez hanka egin eta etxera iristea lortu zuen.

## 91. Hamabost urtegaz lanera (DUR-006/007)

Ortuellatik bueltatu zirenean, etxea zutik aurkitu zuten. Hamabost urtegaz osabaren Estankona tailerrean hasi zen lanean, eta bertan jardun zuen erretiroa hartu arte.

## 92. Mandatuak egitetik planoak irakurtzera (DUR-006/008)

Garbiketa lanak eta mandatuak egiten hasi zen tailerrean. Gero, tornu txiki batean jarri zuen lanean osabak. Karrakatzeko makinak (limadorak) ekoizten zituzten bertan. Fresatzeko eta artezteko makinatan ere jardun zuen Gotzonek.

## 93. Andrerik ez tailerretan lanean (DUR-006/009)

200 langile egon ziren lanean osabaren tailerrean. Hilean behin kobratzen zuten, 30 bat ogerleko. Andrezkorik ez zegoen tailerrean.

## 94. Bizikletan Urkiolara 13 urtegaz (DUR-006/010)

13 urtegaz bizikletan ibiltzen ikasi zuen mandatuak egiteko. Ikasi eta berehala, Urkiolara igo zuen bizikletaz. Txirrindularitza profesionalean ibili zen.

## 95. Txirrindulari trebea (DUR-006/011)

70 bat txirrindulari lasterketatan parte hartu zuen. Deustun Euskal Bira irabazi zuenean, gurpila zulatuta iritsi zen helmugara. Talderik gabe korritzen zuen Gotzonek.

## 96. Ziprik zaintzen zion bizikleta (DUR-006/012)

Euskal Bira irabazi zuenean, 700 pezeta eta kopa eman zioten. Txirrindulari afizionatuak ez zuten diru saririk jasotzen. Sariak gauzak erosteko txarteletan jasotzen zituzten. Ermuko lasterketa batean Loroñorekin batera aritu zen. Ziprik ematen zizkion korrika egiteko arropak eta bizikleta konpontzen zion.

## 97. Orduko txirrindularitza mundua (DUR-006/013)

Gotzonen garaian ere txirrindulari batzuk drogak hartzen omen zituzten. Dieta ez zuten zaintzen; babarrunak janda joaten ziren korrika egitera. Bronkioetan izan zuen infekzio bategatik utzi zuen Gotzonek txirrindularitza.

## 98. Emaztegaia nola ezagutu zuen (DUR-006/015)

Gotzon ez da erromeria zalea izan. Emaztea izango zena nola ezagutu zuen azaltzen du. Emaztegaia josten ikastera joaten zen Intxaurrondo auzoko jostun batengana. Plazara ere joaten zen astoagaz.

## 99. Eztei-bidaia Madrilera (DUR-006/016)

Garaiko Ubille baserrikoa zen emaztea. Eztei-bidaia Madrilera egin zuten. Madrilen joan ziren senar-emazteak zinera azkenengo aldiz.

## 100. Gotzonen eskola partikularrak (DUR-006/017)

Emazteak arreoa ekarri zuen etxera; bere osabaren Gandarias altzari-dendako altzariak ekarri zituen. Gotzon eskola partikularretan ibili zen, baina bizikletan ibiltzeagatik ezin izaten zuen egunero joan. Don Julio maisuak, bere etxean ematen zituen eskolok.

## 101. Etxean tailertxoa (DUR-006/018)

Ezkontzeko etxea nola egin zioten, eta nola ordaindu zuen azaltzen du. Berak etxean daukan tailertxoa, belar lehorra gordetzen zuen lekuan jarri zuen.

## 102. Ganaduarekin Karrantzara ihesi (DUR-007/002)

Izurtzako eskolan ibili zen, eta geroago jesuitenean urtebetez; gerrak bukatu zituen eskolok betiko. Ermandadeak antolatuta, baserritarrek ganadua tren-geltokira eraman zuten. Jose eta aita Karrantzara joan ziren etxeko ganaduarekin.

## 103. Hazitegian eta basoan lanean (DUR-007/003)

Karrantzatik itzuli eta hazitegian (biberoa) hasi zen lanean. 1944. urtean soldadu joan zen boluntario Gasteizera. Soldadutza bukatu eta basomutil lanetan hasi zen.

## 104. Basoan eta baserrian egiten zuen lan (DUR-007/004)

Baserrian esnea kalera egunero eramaten zuten, eta soro zail handiak lantzen zituzten. Neba-arrebak ezkondu egin ziren, eta Jose geratu zen gurasoekin etxean.

## 105. Mañariko erromeria (DUR-007/009)

Mañariko erromeriara sarri joaten ziren. Leku askotan tanborila baino ez zuten jotzen uzten, baina Mañariko Matiasek soinua jotzen zuen. Dantzan egiteagatik mutilak ordaindu egiten zuten.

## 106. Mañariako apustua (DUR-007/010)

Mañarian taberna bi zeuden. Mañariar batek 80 kiloko babarrun zaku bat altxatu zuen apustu batean, batere arroparik ukitu gabe.

## 107. Izurtzan, Jose erbestekoa omen zen (DUR-007/011)

Izurtzako herri-eskolara joan zen Jose, baina dotrina Durangon ikasi zuen. Santa Anan egin zuen lehen jaunartzea. Bera durangarra zenez, Izurtzako eskola ordaindu egin behar izaten zuen. Jesuiten eskolan egon zen gero urtebetez. Gerrak eten zituen eskolok, eta Jose aitarekin Karrantzara joan zen ganaduekin.

## 108. Jose bertsozalea da (DUR-007/013)

Jose bertsotan. Gaztetan lagun artean bertsotan egiten zuten.

## 109. Matxaka gerra aurretik ekarri zuten (DUR-007/015)

Abadiñoko jaietan eta beste erromeria batzuetan ere, bertso-saioak izaten ziren. Josek ez du inoiz plazan kantatu. Soroan laian, edo garia eskuz jotzen ez du ezagutu Josek. Gasteizen soldadu egon zenean, idiekin larrainean gari-jotzen ikusi zuen. Bere baserrian gerra aurretik erabiltzen zuten motordun matxaka bat, lau baserriren artean erositakoa.

## 110. Ogia kalean erositakoa (DUR-007/016)

Garia errotara saltzen zuten, eta ogia kalean erosi.

## 111. Etxea sutan (DUR-007/019)

Gasolinarekin axolagabekeria bat eginda, etxea erre egin zitzaion. Sukaldea eta logelak erre ziren.

## 112. Ermandadearen bukaera (DUR-007/020)

Izurtzako Ermandadeko kide zen Joseren baserria. Urteko lehen igandean elkartzen ziren. Bere etxea erre aurretik desegin zuten Ermandadea.

## 113. Urkulura irteerak; perretxikoak (DUR-007/025)

Gaztetan mendira joateko ohitura bazuten. Urkulura irteerak gogoratzen ditu. Jende asko jausten omen zen haitzetik behera, eta bizia galdu. Perretxikotan ere ibiltzen zen. Urretxak, gibel urdinak, ziza gorriak eta txanpinoiak ere jasotzen zituzten.

### 114. Udaberriko zizak; aitona karegina (DUR-007/026)

Onddoak jatekoak zirenik ez zekiten orduan, baina udaberriko zizak batzen zituzten. Bera umea zela, aitonak karea egiten zuen.

### 115. Otabera-sua karea egosteko (DUR-007/027)

Kareharria otaberez egindako suarekin egosten zen. Behin erbikumeak aurkitu zituzten karobia prestatzen.

### 116. Uraskak (DUR-007/029)

Peruena eta Palazio baserriekin batera egindako labaderoan garbitzen zituzten arropak hiru baserriek. Ganaduentzako ura Pozualde lekuan hartzen zuten.

### 117. Igerian eta futbolean (DUR-007/032)

Arlabango urtegira joaten ziren mutikotan bainatzera. Neskak ez ziren joaten. Futbolean ere jolasten zuten.

### 118. Txakolina intxaurrekin (DUR-007/033)

Durangoko Larrinagatxu tabernara edo Izurtzako Urezandira joaten ziren, askaria etxeko txakolinarekin hartu eta kartetan jolastera. Pilotan jolastea gogokoa zuen, baina eskuetako arazo larriak zituen.

### 119. Jose pilotazalea izan da beti (DUR-007/035)

Pilotan jarduten bazuen, eskuak berehala hondatzen zitzaizkion. Soldaduskan bazuten frontoia. Migel Gallastegi orduko pilotari eibartar ospetsua ezagutu zuen, irratirik ez zegoen garaian. Garai hartan, 'sake-librean' jolasten zen pilotan. Gallastegi, Atano, Etxabe... pilotari ezagunak ziren orduan.

### 120. Idi-probak (DUR-007/036)

Diru asko jokatzen omen zen Durangoko pilotalekuan zapatuetan. Artekariak. Dirua irabazten duenari ehuneko hainbeste kentzen diote. Idi-probetara joatea gustatzen zitzaion Abadiñora-eta. Garai batean, baserritar askok aurkezten zituzten euren idiak probetara. Leku askotan egoten ziren idi-probak.

### 121. Behi erosi berriak lepo-hezurra apurtu (DUR-007/037)

Ganaduei tuberkulina-frogak egiten hasi zirenean, etxeko lau behik eman zuten positibo. Muxikatik ekarritako behi batek etxeko kortan sartu eta lepo-hezurra apurtu zuen. Ermandadearen bidez banatu zuten behi horren okela.

### 122. Idi berriak tuberkulina-frogan positibo (DUR-007/038)

Arrasateko ferian idi parea erosi, etxera idiekin oinez joan, tuberkulina-froga egin eta positibo eman zuten. Eskoriatzara eraman zituzten idiak bueltan.

### 123. Idi parea trenez ekarri (DUR-007/039)

Idi pare berria trenez eraman zuten Durangora. Idiekin lan asko egindakoa da Jose. Lastoa erostera Errioxara joaten ziren.

### 124. Idiak kendu eta traktorea ekarri (DUR-007/041)

Errioxara bidean, Gasteizen idi parea erosi zuen. Idiok saldu zituenean lehen traktorea ekarri zuen.

## 125. Ferratzaile arabarra (DUR-007/044)

Izurtza, Iurreta eta Oromiñoko behiak ferratzen zituena Arabatik etorritako ferratzaile bat zen. Behiak normalean ferrarik gabe ibiltzen ziren uztarrian.

## 126. Traktoreagaz txahalak ateratzen (DUR-007/045)

Don Jaime eta gero Don Jesus izan ziren Durangoko albaiteroak. Aita txerri hiltzen, hormagintzan, eta txahalak ateratzen ere oso ona omen zen. Herriko albaitero biak ezin atera izan zuten txahal bat, Joseren aita Mauriziok atera zuen. Josek aitarengandik ikasi zuen behien txahalgintza zaintzen. Traktoreagaz tiratuta ateratzen zituen txahalak. Umeak ekartzen laguntzeko emagin zerbitzu formalik ez zegoela dio Josek.

## 127. Aitaita eta aita abarkagileak (DUR-007/046)

Aitaitak eta aitak ere bazekiten larruzko abarkak egiten, baina lonazko abarkak agertu zirenean larruzkoak ezkutatu ziren. Abarkok nola egiten zituzten azaltzen du. Larruzko abarkak larruzko hariekin lotzen zirela dio.

## 128. Argindarra Mañaritik (DUR-007/047)

Kaleko dendetan erositako txapinak janzten zituzten. Jose mutikoa zenean ekarri zuten argindarra Mañaritik etxera. Hiru argi baino gehiago ezin zituzten batera isiotu. Gero Orozketaraino eraman zuten argindarra.

## 129. Etxera ura ekarri zutenekoa (DUR-007/048)

Lehen etxerako ura ekartzeko egin behar izan zituzten komeriak azaltzen ditu. Geroago Mañaritik jarri zuten ura.

## 130. Elur-zuloa eta karobia (DUR-007/049)

Elur-zuloa non zegoen azaltzen du. Elur asko saltzen omen zuten handik. Gerraurrean estalia jarri zioten, Camarero diputatu zela. Karobia etxe ondoan zeukaten. Harria tiroz haitzetik ateratzen zuten. Gerra denboran, karobia babesleku bihurtu zuten. Karlisten gerran parte hartutako aitaita ere karobian gordetzen zen.

## 131. Aitaita berezko artista zen (DUR-007/051)

Aitaita Arrazolakoa zen, gurdigilea. Araban ardogintzan jardundakoa zen, eta harrezkero ardo-zopak gosaltzen zituen. Ezkerraldeko (Somorrostro) meategietan arotz lanetan ere jarduna zen. Izurtza parteko Santa Lutzian ere egon omen ziren meategiak. Berez ikasitakoa zen aitaita, artista itzela.

## 132. Aitaitak erosi zuen baserria (DUR-007/052)

Inguruko baserri guztiak Ampueronak omen ziren. Joseren jaiotetxea elorriotar batena omen zen, eta hari erosi zion etxea aitaitak. Baserrien izenez jarduten du Josek.

## 133. Hazitegiko lanak (DUR-007/053)

Durango eta Izurtza arteko mugan zegoen hazitegi (bibero) batean egin zuen lan Josek gaztetan. Pinu-landara zen ekoizpen nagusia. Hazia erein eta landareak zelan errepikatzen ziren azaltzen du.

## 134. Eguzkitza auzoa Buztin Herrian zegoen (DUR-008/002)

Jatorria. Eguzkitza auzoak hiru izen ezberdin izan ditu azken 15 urtetan. Buztin Herri esaten zioten euren auzo eta inguruei, Abadiñoraino, bertako lurrek buztin asko dutelako. Buztin horrekin teilak egiten zituzten, goiko mendietan batutako ote egurrarekin berotutako labetan.

## 135. Bideak, oinezkoentzako bideak eta galtzadak (DUR-008/003)

Antzina auzoetan bide asko zeuden, galduaz joan direnak. Oinezkoentzako bideak ere ugariak ziren; baserri bakoitzak zuen berea. Galtzadarik ez zuen ezagutu Paskualek.

## 136. Auzoan ez dira baserri asko galdu (DUR-008/006)

Auzoan ez da aldaketa handirik izan. baserri bakarra bota dute, Eguzkitza Zaharra. Hurrengo botako dutena Paskualen jaiotetxea izango da.

## 137. Eskolan zigor gogorrak (DUR-008/007)

Santa Ana osteko eskolan dominikalean hasi zen, eta handik Kale Barrikora joan zen. Gero "La Villa"ko eskolan aldi bat egon zen gerra hasi zen arte. "La Villa"n "don Roman" maisuak ikasleak zigortzeko makilaz jotzen zituen.

## 138. Dominikala, Izurtzakoa eta maristen eskolak (DUR-008/008)

Dominikalean hobeto irakasten zuten, baina jo, orduko denboran edozein irakaslek jotzen zituen bere ikasleak. Gerraostean Izurtzako eskolan eta maristetan ere ibili zen.

## 139. Bonbardaketan, etxetik alde egin zuten (DUR-008/009)

Etxean neskame umezurtz bat zuten, eta bere neba militarra etorri omen zen arrebaren bila. Durango bonbardatu zutenean, Paskual Orozketara joan zen. Etxekoek gurdi birekin Maumarako bidea hartu zuten, baina buelta eman eta Mondrabasora joan behar izan zuten.

## 140. Milizianoek hil zuten gizagaixoa (DUR-008/011)

Milizianoek Orozketako abadearen anaia hil zuten.

## 141. Durangoko bigarren bonbardaketa (DUR-008/013)

Martxoaren 31n bonbardatu zuten Durango. Egun horretan, Paskual mezalagun izan zen Tabirako sierbetan. Mezatik etxera zihoazela, abioiak etorri ziren bonbak jaurtitzen. Aurreko irailean ere bonbardaketa txiki bat jasan zuen Durangok.

## 142. Baserri ondoan bonbak jausi ziren (DUR-008/014)

Intxortatik ihes egindako bergarar batzuk egon ziren hilabete ugaritan Paskualen etxean. Baserriko lanetan laguntzen zuten. Baserri inguruan jausi ziren bonba batzuk.

### 143. Teilatua hondatuta, baina etxea osorik (DUR-008/015)

Ezagun bat bonbetatik txiripaz libratu zenekoa. Berrogeitaka lagun egon ziren babestuta Eguzkitzan. Bonbak teilatua hondatu zuten, baina etxea osorik geratu zen. Andra Mariako eliza barruan, oraindik ere arrastoak ikusten dira.

### 144. Ganaduak berriro etxera (DUR-008/017)

Nazionalak Garai aldetik sartu ziren. Milizianoek atzera egin zuten eta Paskualen etxeko ganaduak berriro etxeratu ahal izan zituzten.

### 145. Norberak egindako babeslekuak (DUR-008/018)

Bernagoiti eta Gibelen egon zen frontea hiru astez. Etxearen kontra zeukaten ira-metan, aitak aizkoraz egindako zulo batean gordetzen ziren. Beste baserri batean zanga bat egin zuten; pinu-enborrak gainean trabes jarri, tarteak lurrarekin bete eta azpian gordetzen ziren. Etxean gordeta egon ziren milizianoak gorriekin joan ziren.

### 146. Laiaketa gutxi egin zuen Paskualek (DUR-008/019)

Paskualek bere bizi guztia baserrian eman du. Sei-zazpi behi edukitzen zituzten. Morroi edo neskameren bat ere izaten zen baserri gehienetan. Paskualek laiaketa ezagutu zuen, baina arlo txikietan bakarrik. Golde txiki bat moduko 'hesie' izeneko lanabesa izan zuten garai batean.

### 147. Paskualen emaztea sega pikatzaile trebea (DUR-008/020)

Golde txiki baten antzeko 'hesie' izeneko lanabesaren ostean, goldea etorri zen. Idi edo behi gogorrik ez zutenek, lau behi jartzen zituzten goldeari tiraka. Belarra segaz ebakitzen zuten. Paskualen emaztea sega pikatzen oso trebea omen zen. Traktoreak.

### 148. Babarrun asko ereiten zuten (DUR-008/021)

Eguzkitzakoak ez dira inoiz gari-lurrak izan. Kupoa entregatzearren ereiten zuten garia. Arto-baba ordea, asko ereiten zuten. Gogoan du 30 anega babarrun jasotako urtea. Gerraostean, babarruna ira metan ezkutatzen zuten. Amak gauez astoarekin joanda, jesuitei saltzen zizkien babarrunak.

### 149. Otxandiora gauez olio bila (DUR-008/022)

Estraperlo garaian, amak Otxandiotik gauez olioa nola ekarri zuen azaltzen du Paskualek. Erositako zahia eta etxeko artoa ematen zioten ganaduari. Ama egunero jaisten zen esnearekin kalera.

### 150. Jaiotarrak aitzindariak (DUR-008/023)

Garai batean, hamazortzi ugazaben lur sailak, Izurtzatik Abadiñoraino, erabili zituzten Eguzkitzakoak. Belar bolak egiten aitzindariak izan ziren Durangon.

### 151. Laiaketan (DUR-008/024)

Laiaketa lana nola egiten zuten azaltzen du Paskualek.

### 152. Narra eta beste tresna batzuk (DUR-008/025)

Narra zer zen azaltzen du. Beste tresna batzuk.

### 153. Aitzur ezberdinak (DUR-008/026)

Aitzur ezberdinak zeuden. "Harraitzurra" batez ere bidegintzan erabiltzen zen. Aitzurrak lana ondo egiteko, garbi egon behar omen du.

### 154. Triki-trakea eta burdinarea (DUR-008/027)

Sororako beste tresna batzuk, triki-trakea, burdinarea, goldea eta errobikoa aipatzen dituzte. Triki-trakea eta burdinarea zer ziren eta nola erabiltzen ziren azaltzen du.

### 155. Uztarri zaharra egokitzen (DUR-008/028)

Izurtzan bazegoen uztargile bat, baina uztargile famatua Antzuolako bat omen zen. Behiak aldatzen zirenean, uztarri zaharra egokitu egiten zitzaien.

### 156. Garo basoak (DUR-008/029)

Ganaduen azpitarako basotik garoa ekartzea garrantzitsua zen garai hartan. Garoa jaso eta gero basoak triki-trakarekin lantzen zituzten, eta sastrakak garbitu. Abadiñokoak Urkiola menditik ekartzen zuten garoa. Gurdian jaisten zuten errepide ondoraino, eta handik kamioiz etxera.

### 157. Korta; Gurdi mota ezberdinak (DUR-008/030)

Paskualek dio lehenago urtean behin garbitzen zela korta (ukuilua), arbia ereiten zen garaian. Gernua ukuiluaren erdiko putzu batera joaten zen, gero handik ateratzeko. Gurdi lotua, gurdi bolantea eta arraia gurdia, ezberdinak ziren. Paskualek ematen ditu azalpenak.

### 158. Gurdiaren gurpilak (DUR-008/031)

Etxeko gurdiaren gurpilen uhalak aldatu zituzten 1936. urtean. Hiru ogerleko ordaindu zutela gogoratzen du. Aitak Euskadiko diruarekin ordaindu zuen.

### 159. Hika, zuka eta berorika (DUR-008/032)

Hika berbeta ez du gustuko Paskualek. Lehenago hika berba egitea astakeria zela uste omen zuten. Abadeari eskuan muin eman eta berorika zuzentzen zitzaien.

### 160. Garo lanak eta ganaduak baso garbitzaile onenak (DUR-008/034)

Baso lanetan ibilitakoa da Paskual. Gaur egun makinek egiten dute lan asko, baina pinua sartzeak ez duela merezi deritzo. Lehenago basoetan ganadua eta sega ibiltzen ziren, eta basoak garbi egoten ziren. Garoa hartzen zenean, herriko sailetatik baserritarrei 'txantela' izeneko sail bana ematen zion Udalak, eta basook garbi egoten ziren.

### 161. Kupoa eman beharra zegoen garaia (DUR-008/036)

Kupoaren garaian, aguazila etortzen zen aitorketak jasotzera. Baserritarrak gezurretan aritzen ziren. Imazen errotan entregatzen zuten kupoa.

### 162. Zaintzaileei ziria sartzen (DUR-008/038)

Abastoseko estraperlo-zaintzaileei ziria zelan sartu zitzaien kontatzen du.

### 163. Errazionamenduaren beharrik ez Eguzkitzan (DUR-008/041)

Errazionamendutik ez zutela etxerako ezer hartzen dio Paskualek. Bere emazteak dio hartzen zituztela gauza batzuk. Labesuan artoa eta ogia, biak egiten zituzten.

### 164. Elurretan ehizan (DUR-008/042)

Behin elurretan ehizan ari zela, ia Guardia Zibilak harrapatu zuen. Bere lagun bat ere ia-ia harrapatu zuten.

### 165. Guardia Zibilak lanean (DUR-008/044)

Guardia Zibilek baserrietan sinadurak eskatzen zituzten, kuartelean euren ibilbidea erakusteko.

### 166. Basurdekumea eskuekin harrapatu zuen (DUR-008/046)

Paskual ehiztaria zenean erbia ugaria zen eta orain ezkutatu egin da. Basurdearekin alderantzizkoa gertatu da. Behin, apeak egiten zebilela, basurdekume bat eskuekin harrapatu zuen.

### 167. Basurdekumea etxean hazi zuen (DUR-008/047)

Basurdekume bat eskuekin harrapatu ostean, txakurra baino hobeto hezi zuela dio. Urte eta erdi gobernatu zuten, eta gero txorizoak egin zituzten berarekin. Orkatzik ez zegoen garai hartan, bai ordea azeriak.

### 168. Tiragomari trebea Paskual (DUR-008/048)

Katagorriak tiragomarekin harrapatzen zituen. Beti eramaten zuen tiragoma poltsikoan. Munduko tiragoma txapelketan parte hartutakoa da. Behin tiragoma apurtu eta zozoa nola hil zuen kontatzen du.

### 169. Munduko tiragoma txapelketa (DUR-008/050)

Duela urte asko, munduko tiragoma txapelketan parte hartu zuen. Lehen aldia zen, eta hasiberriarena ordaindu zuen. Tiragomarako kotxearen gomak erabiltzen zituen.

### 170. Kaletarren kontrako tiragoma-gerrak (DUR-008/051)

Kaletarren kontra tiragoma-gerrak egiten zituzten. Behin arerio bati ipurdian bala bat sartu zion. Borroka bukatu eta lagun izaten jarraitzen zuten.

### 171. Bizikletan asun artera; Ezkurdiko frontoia (DUR-008/053)

Bizikletarik ez zuen eduki, baina lagunarenarekin asun artera jausi zen batean. Idi-probetara ezkondu eta gero joan izan zen. Ezkurdiko frontoi zaharrean jokatutakoa da Paskual, baina bolalekuan ez.

### 172. Garai bateko Durangoko jaiak (DUR-008/054)

Durangoko jaiak San Antonioak ziren. Izugarrizko su artifizialak egoten ziren. Jaietako ikuskizunak non kokatzen ziren azaltzen du.

## 173. Lan asko eta jolas gutxi (DUR-009/002)

Gerra aurretik, Izurtzako eskolara joan zen, eta, gerraostean, 3 negutan San Frantziskora. Ume-umetatik beharra du bere bizitzaren ardatz bezala. Igande arratsaldeak kenduta, ez zegoen olgetarako astirik. Eskolako jolasak gogoratzen ditu.

## 174. Jolasak, kantuak eta borrokak (DUR-009/003)

Jolasen kantuak gogoratzen ditu. Txirikila jokoa azaltzen du. Kartetan ere jolasten zen bere nebarekin.

## 175. Neskak eten barik lanean (DUR-009/004)

Etxeko mutilek eskolara 18 urte arte joan ziren, baina neskak hamabi urtetik aurrera lana besterik ez zuten egin. Zaldidun orgarekin esnea banatzen ibilitakoa da Josefina.

## 176. Gerra denboran etxean geratu ziren (DUR-009/005)

Anaia eta aita aurrera joan ziren gerra denboran, eta besteak aititarekin geratu ziren etxean. Aititak idi parea erosi zuen. Zilarrezko ogerlekoarekin bidaltzen zuen amak bera mandatuak egitera. Senide batzuek etxean errefuxiatuta eduki zituzten.

## 177. Karobia gerrarako babesleku (DUR-009/007)

Goitik enborrez estalitako karobia izaten zen beraien babeslekua. Lehertu gabeko mortero bat sukaldeko leihoan geratu zitzaien.

## 178. Mañarira dantza egitera (DUR-009/008)

16 urtera arte ez zen erromerietara joan; Larrinagatxura izaten zen lagunen igandetako irteera. Mañariko erromeriara joaten ziren dantzan egitera. Dantza-solte zale amorratua izan da Josefina.

## 179. San Antonio eguneko dantzak (DUR-009/009)

San Antonio egunean lehenengo Urkiolan dantzaldi bat egin, eta gero Ezkurdin jarraitzen zuten. Jaietan akordeoia jotzen zuten, eta mutilek dantza egiteko ordaindu egin behar izaten zuten. Lau soinujole ibiltzen ziren jaietan. Oromiñoko Matias gogoratzen du.

## 180. Paskual maitasuna aitortzen (DUR-009/010)

Ezkurdin ezagutu zuten elkar Josefinak eta Paskualek. Neska laguntzetik, Paskual bere lagun batekin bizikleta batean itzultzen zen etxera. Josefinari nola deklaratu zen azaltzen du.

## 181. Astean egun erdiz elkartzen ziren nobioak (DUR-009/011)

Nobioak igande arratsaldetan besterik ez zuten elkar ikusten. Mozkorraldi bat kontatzen du Paskualek.

### 182. Arreoa gurdi bitan (DUR-009/012)

Santa Anan ezkondu eta Txantelenean bazkaldu zuten. Donostia, Zaragoza eta Gasteiz artean eman zuten zortzi eguneko ezkon-bidaia. Arreoa gurdi bitan eraman zuen Josefinak. Amak gauza guztietatik dozena bana jarri zion. Gurdi batean altzariak eta bestean arropak eraman zituen.

### 183. Arreoa eta dotea (DUR-009/013)

Altzariak non kargatu zituzten azaltzen dute. Arreotik aparte, 20.000 ogerlekoko ezkonsaria ere eraman zuen Josefinak.

### 184. Paskual erromeriazalea (DUR-009/014)

Berrizko jaietara behin bakarrik joan zen Josefina. Aisialdia Urkiola eta Durangon pasatzen zuen. Paskual Santa Eufemiara hiru urtetan jarraian joan zen. Mañaria mozkor eta borrokalari herria omen zen Paskualentzako. Apatamonasterio, Berriz, Euba, Oiz eta Arrateko erromerietara joaten zen Paskual.

### 185. Goizeko seietako mezara (DUR-009/015)

Josefina ez da inoiz zinemazalea izan. Goizeko seietako mezara joaten zen. Neguan '"galtzeskutia"rekin (gari azaoa) egiten zuten argia biderako. Kabildo baserriko eskailerapean abarkak aldatzen zituzten mezara joateko. Mezatik itzuli, ganaduaren jatekoa prestatu eta arratsaldea jai hartzen zuten.

### 186. Gari-jotze sasoiko asteburu bat (DUR-009/016)

Gari-jotze sasoiko asteburu lanpetu bat azaltzen du Josefinak. Mezak latinez izaten ziren, eta abadeak bizkarra emanda ematen zuen meza. Eliza topetaraino betetzen zen. Paskual batzuetan Abadiñora joaten zen mezara.

### 187. Konfesatokiak eta adorazio mezak (DUR-009/017)

Sei konfesatoki zeuden elizan, eta jendea ilaran egoten zen konfesatzeko zain. Gizonak konfesatokiaren aurretik eta emakumeak aldamenetik aitortzen zituzten euren bekatuak. Adorazioko meza goizeko lauetan ematen zuten.

### 188. Umea bataiatzearen erritua (DUR-009/018)

Umea jaio eta hurrengo egunean bataiatu behar izaten zen. Umea zeramana, aita, aitapontekoa eta amapontekoa joaten ziren elizara. Ama zortzi egunez etxetik irten gabe egon behar izaten zen. Irteten zenean, kandela batekin eta umearekin elizara sartu behar izaten zen. Bataiatzeko umea nola janzten zuten azaltzen du Josefinak.

### 189. Gaubeila, hobiratzea eta andabideak (DUR-009/019)

Norbait hiltzen zenean, auzokoak gauean etxera etortzen ziren. Ardo gozoa edan, arrosarioak errezatu eta txisteak kontatzen ematen zuten gaua. Abadea hildakoarekin kanposantura joateko ordaindu egin behar izaten zen. Hildakoa ez zen elizara sartzen; elizpean agurtzen zen. Andan eramaten zen gorpua kanposantura. Andabidea nondik zen azaltzen du Josefinak.

### 190. Saizabal baserri independientea (DUR-009/021)

Inguruko baserriak Izurtza auzokoak ziren, baina Saizabal Durangokoa omen zen.

## 191. Aititak erosi zuen baserria (DUR-009/022)

Saizabal baserria aititak erosi zion ugazaba elorriarrari. Aitita arotza zen, eta baserri zaharra konpondu zuen. Hileta-elizkizunaren ostean tabernan bazkaria izaten zuten.

## 192. Hiletarako eta ezkontzeko beltzez jantzita; Lutoa (DUR-009/023)

Beltzez janzten ziren bai hiletetarako eta baita ezkontzeko ere. Paskualen ezkontzako trajea harrezkero makina bat jaietan erabili izan dute mozorro gisa. Josefina ere traje beltzarekin ezkondu zen, besoetan loreak zeramala. Orduko lutoaren betebeharrak azaltzen dituzte.

## 193. Kanpai-hotsak eta konjuruak (DUR-009/024)

Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen. Durangon ez dute kanpai-hots berezirik, baina Abadiñon oraindik ere jotzen dituzte hildakoenak eta beste batzuk. Ume txikiak hiltzen zirenean, Abadiñon meza emateko ohitura zegoen. Trumoien aurkako konjuruak gogoratzen dituzte.

## 194. Konbidatuen eguna (DUR-009/025)

Josefinaren etxean konbidatuen eguna Izurtzako Andra Mari eguna izaten zen. Santua ekartzen zuten etxera, eta dirua emanda hurrengo egunean entregatzen zen.

## 195. Aitonaren anaia abadea (DUR-009/027)

Aitonaren anaia batek bere ilobari opari emandako kaliza erakusten dute. Gaixotu zenetik meza etxean ematen zuen Paskualen laguntzaz.

## 196. Aitonaren ordezko abadea fusilatu zuten (DUR-009/028)

Arabako Gopegin eta Berrizen abade egondakoa zen aitonaren anaia. Gaixorik hil zen; eta bere ordezkoa zen Jose Sagarna gipuzkoar gaztea frankistek fusilatu zuten. Etxean duten kaliza Okarantzaneko seme batek egindakoa da.

## 197. Gabonetako eta Erramuetako ohiturak (DUR-009/030)

Lehengo Gabonetan, intxaur saltsa, konpota eta olio-aza beti jaten ziren. Gabon egunean, ogi pusketa bat gordetzen zen hurrengo urtera arte. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren, soroetan jartzeko.

## 198. San Blasak Abadiñon (DUR-009/031)

San Blas egunean Abadiñon zalditeria feria izaten zen. Biharamunean, San Blas txikin, ganaduen feria handia egiten zen. Gogoan du Josefinak San Blasetan Abadiñoko erromeriara bost egun jarraian joaten. Ijitoek zalditeria asko eramaten zuten.

## 199. San Blasetan asto tratuan ijituekin (DUR-009/032)

San Blasetan etxeko asto zaharra ijitoei saldu zieten 1.000 errealen truke. Santa Agedan kantuan joanda dago Paskual.

### 200. San Juan sua eta San Juan kantak (DUR-009/033)

San Juan sua beti egin izan dute, sorginak eta lapurrak erretzeko. Eta adartxo bat jartzen zuten etxeko atean, arrosa batekin-edo. San Juan suaren gainetik salto egiten zuten, eta bueltan jarrita kantuan.

### 201. Sehaskak eta lixiba (DUR-009/035)

Lehengo sehaskak zurezko kutxak izaten ziren. Zumitzezko gurpildun batean hasi zituzten gure hiztunek euren umeak. Lixiba egin ondoren, izarak landan zabaltzen zituzten lehortzeko.

### 202. Arropak zeharo zuriak (DUR-009/036)

Baserri batzuetan arropak bereziki zuriak izaten zituzten.

### 203. Gaztetatik plazara saltzera (DUR-010/002)

Egunero joaten zen plazara baserriko gauzak saltzera. Saltzekoak aitak eramaten zituen plazara, karretilaz. Ama joaten zen saltzera, baina ama gaztetan hil zitzaion eta berak jarraitu zuen lan horrekin.

### 204. Mojen eskolan (DUR-010/003)

Santa Susanako eskolan ibili zen gerra hasi zen arte. Gero karmeldarretan jarraitu zuen. Etxean behi bi zituzten.

### 205. Etxe ondoko gordelekua (DUR-010/004)

Gerran, etxe ondoan egindako zulo batean gordetzen ziren; sirena entzuten zenean sartzen ziren zuloan. Andra Mari eliza suntsitu zuten bonbardaketan. Euren etxean, obus bat leiho batetik sartu eta beste batetik irten zen.

### 206. Arropak eta zoruak garbitzen (DUR-010/006)

San Faustoko labaderoa non zegoen azaltzen du. Errekako zubipean ere garbitzen zituzten arropak. Etxeko zoruak xaboi urarekin belauniko garbitzen zituzten.

### 207. Nesken eta mutilen jolasak (DUR-010/008)

Tortolosetan (tabaka) jolasten zuten umetan. Etxean hiltzen zituzten bildotsen hezurrekin egiten zituzten tortolosak. Dendetan ere saltzen zituzten. Mutilek txapekin edo "al inque" jolasten zuten. Sokasaltoka ere jolasten zuten neskek.

### 208. San Fausto auzoa hazten (DUR-010/009)

Neska-mutilek aparte jolasten zuten. Umetan panpinak izan zituen, kartoizkoak. Duela 50-60 urte San Fausto auzoan etxe berri piloa eraiki ziren. Etxe berrietara bertako jendea joan zen bizitzen.

### 209. Lehen jaunartzea (DUR-010/012)

Zuriz jantzita egin zuen lehen jaunartzea. Neskak eta mutilak jaunartzea ere aparte egiten zuten.

### 210. Plazako erromeria (DUR-010/013)

Plazako edo Ezkurdiko erromerietara joaten ziren. Plazan Durangoko bandak jotzen zuen. Senarra izango zena Zornotzako Bernagoitia auzokoa zen.

## 211. Murtzianoen familia (DUR-010/017)

Murtzianoen familia aipatzen du. Murtzianoak bizi ziren etxean, gerraostean San Antonioko mojek eskola jarri zuten.

## 212. Lutoa, erromeriak eta gonak (DUR-010/021)

Arropak tindategira eramaten ziren, edo etxean tindatzen ziren. Mikel Handixen ondoan egon zen Durangoko tindategia. Lutorako arropa asko tindatzen zen. Gurasoagatik lutoa urte bikoa izaten zen; lutoan erromerietara joatea debekatuta zegoen. Emakumeek ez zuten prakarik janzten. Gona belaunetarainokoa izaten zen, eta bernetako ileak bizar-xaflarekin kentzen ziren.

## 213. Marik kaleko ohitura batzuk hartuta (DUR-010/022)

Bartolonaren ondoko ile-apaindegira joaten zen gaztetan Mari. Ezkurdiko pasealekua nolako zen kontatzen du. Erromeriak iluntzeko zortzietan bukatzen ziren. Kalearekin kontaktu handia izan du beti Marik.

## 214. Ardoa ez, baina etxeko txakolina edaten zuen (DUR-010/023)

Esnea egunero eramaten zuen kaleko Miota hotelera. Ardoa litroko botilatan erosten zuten. Neskek ez zuten ardorik edaten, baina etxean egindako txakolina bai.

## 215. Etxeko txakolina nola egiten zuten (DUR-010/024)

Txakolina nola egiten zuten azaltzen du. Lehengo txakolina oraingoa baino hobea zela dio Marik. Oraingoa gozoagoa dela. Mahastia etxe ondoan zuten. Mahatsa batu, oinekin zapaldu eta barrikatan sartzen zuten. Aitak ilargiaren aldiak kontutan izaten zituen ortuan.

## 216. Barazkien salmenta ona gerraostean (DUR-010/027)

Gurasoak bizi guztia baserrian eman zuten. Etxeko diru kontuak amak eramaten zituen. Gerraostean, barazkien salmentatik ateratzen zuten bizimodua. Matienako Gantxegi errotara joaten ziren. Bazkaltzen eta afaltzen taloak jaten zituzten.

## 217. Emakumeak ez zuten erretzen ezta tabernatan sartu ere (DUR-010/028)

Kupoa eman beharrik ez zuten izan. Errazionamendu garaian dendatan zeuden erosteko gauzak. Aita artabizarrak erretzen gogoratzen du Marik. Emakumeek ez zuten erretzen orduan. Ezkondu aurretik ez ziren lagunekin tabernatan sartzen.

## 218. Mariren umeak denak etxean jaioak (DUR-010/029)

Serrano medikua gogoratzen du. Gaixoa gaizki bazegoen, medikua etxera etortzen zen. Mariren umeak denak etxean jaioak dira, Pepita izeneko emagin durangarraren laguntzarekin.

## 219. Eskolan, etxean bezala, dena erdaraz (DUR-010/030)

Eskolan dena erdaraz zen. Etxean ere, gurasoekin erdaraz hitz egiten zuen. Eskulanak ere ikasten zituzten eskolan.

## 220. San Blasak eta San Juanak (DUR-010/031)

Gaztetan San Blas egunean oinez joaten ziren Abadiñora. Orduko San Blasak eta oraingoak ez dira oso ezberdinak. Erromeriak, postuak edota probak gaurkoen antzerakoak ziren. Santa Agedatan ez zuen ezer egiten, baina San Juanetan sua egin eta San Juan kantak abesten zituzten. San Juan lorea etxeko atean jartzen zen lehortu arte.

## 221. Bizikleta alokairua (DUR-010/032)

Garizuman bedeinkatutako erramuak soroetan jartzen ziren. Bartolonaren ondoan zegoen garajean sarritan alokatu zuen bizikleta Marik. Lagunak jolaserako alokatzen zituzten bizikletak.

## 222. Lehengo prozesioak (DUR-010/033)

Marik etxeko ez du etxeko sororik bedeinkatzen ezagutu. Ezkurditik Andra Mari elizara bueltan egiten ziren prozesioak. Pausoak Gurutzeagako Veracruz ermitan gordetzen ziren. Prozesioa eliza barrura sartzen zenean bukatzen zen, mezarik gabe.

## 223. Zezenak eta "Via Crucis"a (DUR-010/034)

Zezenak urrutitik eta heziaren atzetik ikusten zituen. Emakumeek ez zuten parte hartzen zezenetan. Tabirako gurutze-bidea (Via Crucis) gogoan du.

## 224. Hika berbetan (DUR-011/001)

Gaurko gazteak hika berbeta ez duela erabiltzen dio Tomasak. Edadeko jendeari ezin zaio hika berba egin.

## 225. Landako auzoko etxeak (DUR-011/003)

Landako auzoan hiru baserri eta Etxe Barri esaten zioten kale-etxea zeuden. Etxeko soro aldapatsuenetan laiaz lantzen zen lurra. Lau-bost lagun ilaran jarduten ziren laian.

## 226. Laia, narra eta area (DUR-011/004)

Laiatu eta gero lurra apurtu egiten zen, aitzurrez edo narrarekin. Narra eta arearen arteko ezberdintasunak azaltzen ditu.

## 227. Errotaria etxera etortzen zen (DUR-011/005)

Artoa eta babarruna ereiten ziren Landakon. Babarrun asko jasotzen zen bertan. Artoarekin taloak egiteko irina lortzen zuten. Errotariak artoaren bila etorri eta gero irina ekartzen zieten etxera, bere saria hartu eta gero. Behiei ere ematen zieten arto irina.

## 228. Kalera esnea banatzera (DUR-011/006)

Lau behi izaten zituzten kortan. Esnea etxerik etxe saltzen zuten. Astero ordaintzen zieten bezeroek esnea.

## 229. Barazkiak plazan saltzen zituzten (DUR-011/008)

Plazara joaten ziren etxeko gauzak saltzera, eta esne-bezeroek ere barazkiak erosten zizkieten. Ateratzen zen dirua gorde egiten zuten, tresnak edo behiren bat-edo erosi behar zenerako. Landakotik Bilboko azokara ez ziren joaten, barazkiak herrian saltzen zituztelako.

## 230. Guardia Zibilekin sokasaltoka jolasean (DUR-011/009)

Jesuiten ikastetxearen aurrealdean jolasten zuten. Txintxurreketan jolasa azaltzen du. Santa Susanaren aurrealdean ere jolastuen zuten. Gaiztakerietan tinbre joka ibiltzen ziren. Eskolaren aurrealdean sokasaltoka jolasten, Guardia Zibilek eragiten zioten sokari.

## 231. Gerra aurrean Lukun egonaldiak (DUR-011/010)

Gerra aurretik, Lukun egoten zen aldi luzetan. Sudurretik odola galtzen zuelako joaten zen hara. Kangrejoak harrapatzen eta perretxikoak batzen ematen zuen denbora bertan, eskolara joan gabe. ("Kangrejoak" errekakoei deitzen diete, eta "karramarroak" itsasokoari").

## 232. Kanpoko jende asko Durangon (DUR-011/013)

Euskaraz gutxi egiten zen Durangon. Gerra denboran kanpotik jende asko etorri zen Durangora. Mojek Santa Rita egunean merienda ematen zieten, tornutik aterata. Eskolara pozik joaten zen Tomasa.

## 233. Goizeko seietan mezera (DUR-011/014)

Aita Lukutik Iurretako "La Tejera"ra etortzen zen lanera. Lukutik mezara ere Iurretara joaten ziren. Landakotik mezara Andra Mariko elizara edo jesuitenera joaten ziren. Lapikoa sutan ipini eta seietako mezara joaten ziren.

## 234. Andra Mariko eliza gerran apurtu zuten (DUR-011/015)

Gerraostean mezak erdaraz izaten ziren. Gerra denboran, Andra Mariko eliza apurtu egin zuten. Baserritarrek ekarri zituzten konpontzeko behar ziren egurrak basotik. Frantsesen etxean andrazko eta gizonezkoen kartzela egon zen.

## 235. Lehen jaunartzea (DUR-011/017)

Karmeldar mojak etorri ziren Bilbotik. Lehen jaunartzea Santa Susanan egin zuen, arropa zuriz jantzita. Oinetakoak ere zuriak ziren, Silleronean erositakoak. Tomasaren ama ona omen zen umeei belarritakoek jartzen; patata erabiltzen zuen belarritakook sartzen laguntzeko. Urrezkoak izan behar ziren belarritakoak, bestela umeei min egiten zieten.

## 236. Jaunartzearen berriztapena (DUR-011/018)

Hamar urterekin jaunartzearen berriztatzea ospatzen zuten, oraingo honetan urdinez jantzita. Santa Susanako eskolako ikasleak uniforme tolesduna janzten zuten.

## 237. Arropak etxean garbitu eta errekan astindu (DUR-011/023)

Etxean ez zuten urik, baina etxe ondoan eurak egindako putzua zuten. Arropak putzu honetan garbitu eta Arripozueta errekan astintzen zituzten. "Lagarto" markako xaboia erabiltzen zuten.

## 238. Zubia urak eraman (DUR-011/024)

Landakoko auzoek zubia egin zuten erreka pasatzeko, baina urak eraman zien zubi hori.

## 239. Jesuiten ikasleak errekan bainatzen (DUR-011/025)

Errekaren beste aldera eramaten zituzten behiak larrera. Jesuiten eskolako barneko ikasleak joaten ziren errekara bainatzera. Itotakoek ere izan omen ziren. Neskak ez ziren joaten bainatzera.

## 240. Txalupa gainean errekan (DUR-011/026)

Barrenkaleko mutilzahar batek txalupa bat ekarri zuen errekako urtegian jendea ibiltzeko. Lehen ur gehiago zekarren errekak. Urtegia Larrañagatarrak egindakoa omen zen.

## 241. Donostiar asko babes bila Durangora (DUR-011/028)

Tomasaren jaiotetxean kalte handiak egon ziren gerra denboran. Erreka izkinako arbolapeetan gordetzen ziren bonbardaketetan. Donostiatik jende asko etorri omen zen babes bila Durangora. Kaleko etxeetan eta komentuetan ere hartu zuten jendea.

## 242. Ogirik ez eta taloa jan behar (DUR-011/029)

Goserik ez zuten pasatu baserrian, baina ogirik ezean taloa jaten zuten. Baserritar guztiak garia eta artoa eraman behar izaten zuten Lapikonera, Udalarentzako. Ogia zahiduna bakarrik zegoen.

## 243. Gerraostean errotaria etxera (DUR-011/031)

Gerraostean, errotaria etxera joaten zitzaien alea jasotzera. Irina egin eta gero, etxera eramaten zien errotariak berak. Azukre zaku bat ganbaran eduki zutela gogoan du, baita azukre hori koilarakadaka jaten zutela ere.

## 244. Errazionamendu garaia (DUR-011/032)

Olio gutxi zuten, baina txerrien koipearekin konpontzen ziren. Alboko osabak asko erretzen zuen, eta ez zuen tabako faltarik izan. Lehengo zaharrek ez omen zuten barazkirik gordinik jaten, entsalada esate baterako.

## 245. Gerra denboran txokolatea erosteko ilaran (DUR-011/033)

Gerra denboran ilara luzeak egoten ziren txokolatea egiten zuten dendatan. Barkilloak jaietan egoten ziren, baina dantzan egitea gehiago gustatzen zitzaion barkilloak jatea baino. Musika bandak dantza pieza oso gutxi jotzen omen zituen.

## 246. Tomasaren aita akordeoijolea (DUR-011/034)

Ezkurdiko erromerietan akordeoia Tomasaren aitak jotzen zuen. Abadiñoko jaietan ere jotzen zuen.

## 247. Kalabaza asko ematen zutela dio (DUR-011/035)

Erromerietan mutilek ateratzen zituzten neskak dantzara. Ezezko asko ematen zutela dio Tomasak. Soldaduek egon ziren garaian, "no"ak izaten ziren ugari. Gerraostean Matienan egon zen batailoi bat.

## 248. Ezkurdiko erromeriak (DUR-011/036)

Ezkurdiko erromerietara Durango eta Zornotzako gazteak etortzen ziren. Mañariko mendietako kobazuloetan soldaduak zeuden gordeta, eta tiro hotsak entzuten ziren.

## 249. Baserritarrek dantzarako soinua nahiago banda baino (DUR-011/037)

Neguan plazako dantzara joaten ziren. Ezkurdira baserrietako jende gutxi joaten omen zen. Baserritarrek soinuaren musikarekin nahiago zuten dantza egin bandarenarekin baino. Bandak ez zuen solte dantzarako musikarik jotzen.

## 250. Abadiño eta Iurretara bai, baina Mañarira ez (DUR-011/038)

Ezkurdiko batzoki ondoko zinera joaten ziren. Abadiñoko San Blasetara eta Iurretako San Migeletara joaten ziren. Mañarira pentsatu ere ez joatea. Harrika hartzen omen zituzten bertan; gainera urruti zegoen. Izurtza eta Orozketako jaietara joaten ziren. Orozketan ere soldadu asko zeuden gerraostean.

## 251. Bizikletako istripu larria (DUR-011/039)

Garai herriko jaietatik bizikletaz itzultzen, Oromiñoko mutil bat istripuz hil zen. Egun hartan, Tomasa Durangoko plazan komediak ikusten zegoen.

## 252. Txikoria eta koilara lantegiak Durangon (DUR-011/040)

Trenbide ondoan Momoitio txikori lantegia zegoen. Landakoko baserritarrak txikoria lantzen zuten gero lantegiari saltzeko. Erramenteriako zerratokiaren ondoan, Txakonen koilara lantegia egon zen.

## 253. Nobioa igandetan ikusten zuen (DUR-011/043)

Nobiotan zebiltzala, dantza egitera joatea oso gustuko zuten, baina soldaduak gerturatzen zirenean ez ziren joaten. Astegunetan ez zuten nobioak elkar ikusten; larunbatetan ere baserrian lan egiten zuten, eta igande arratsaldea izaten zen elkarrekin egoteko egun bakarra.

## 254. Artilezko koltxoiak (DUR-011/044)

Lehengo altzariak gogorragoak ziren oraingoak baino. Koltxoiak artilezkoak ziren; urtean behin jotzen ziren artilea harrotzeko. Izarak kotoizkoak ziren.

## 255. Txerria hil edo ilea ebaki, ilbeherako lanak (DUR-011/046)

Koltxoien artilea jotzeak lan asko ematen zuen. Kumak zurezkoak ziren, eta oinarekin eragiteko prestatutakoak. Baserriko umeak kalekoak baino gehiago nekatzen ziren eta lo hobeto egiten zuten. Txerria ilbeheran hiltzen zuten, eta hazia ereiteko ere zaintzen zen ilbehera edo ilberria. Amak ilea ilbeheran ebakitzen zuen.

## 256. Haizeak erakusten omen zuten eguraldia (DUR-011/047)

Aitaitak erreka kontrako haltzak ilberrian botatzen zituen, berriak errazago irten zitezen. Haizeak ezagututa bazegoen eguraldia asmatzea. Gaur egun haizeak nahastuta daudela dio Tomasak.

### 257. Laminak eta deabruaren zubia (DUR-011/048)

Laminak erreka izkinetan egoten omen ziren, amak esaten zuenez. "El puente del diablo"aren kontuak azaltzen ditu.

### 258. Tomasa behizain (DUR-011/049)

Errekaren beste aldetik behizain egoten zen. Garai batean trena pasatu omen zen handik, aitaren esanetan.

### 259. Bonbardaketan Lukura ihesi (DUR-011/050)

Durangoko bonbardaketetan ganaduak Landakon utzi eta Lukura joan ziren babes bila. Lukun uraren tunelean gordetzen ziren. Maumaraino iristen zen tunela. Iurretatik ere jende asko joan zen tunelera.

### 260. Lukutik Garaira eta gero etxera (DUR-011/051)

Lukutik, gauez, Garaira joan ziren. Lukura berriro ere itzuli eta handik etxera bueltatu ziren. Etxea egoera onean zegoen.

### 261. Lukuko tunelean pasatutako orduak gogoan (DUR-011/052)

Gurasoak egunero joan ziren Luku eta Garaitik ganaduak gobernatzera etxera iluntzean. Lukuko tunelean pasatu zituen ordu luzeak gogoan ditu. Durangoko kanposantu ondoko landak metrailatu zituzten abioietatik.

### 262. Ganaduen ermandadea (DUR-011/054)

Baserritarren arteko ganaduen ermandadearen gorabeherak azaltzen ditu Tomasak. Lukun argia karburoarekin egiten zuten. Landakon Elorriotik ekarritako argindarra zuten, Argi Barria enpresakoa.

### 263. Irratia etxean (DUR-011/056)

Lukun ez zuten argindarrik. Landakon logela guztietan eta sukaldean zituzten bonbillak. Irratia ere bazuten.

### 264. Txokolatea egiteko lapiko berezia (DUR-011/057)

Gaztea zenean txokolatea egiteko erabiltzen zuten 'txokolaterie' erakusten du. Baserri guztietan egoten omen zen halako bat.

### 265. Brasaz berotutako lisaburdina (DUR-011/058)

Brasarekin berotzen zen lisaburdina (plantxa) erakusten du. Berak ezagutu zuen lehen lisaburdina izan zen. Gero ekonomikako txapa gainean berotzen zirenak etorri ziren, burdina trinkozkoak. Arropa batzuk nola lisatzen zituen azaltzen du.

### 266. Jostun ikasketak (DUR-011/059)

San Frantzisko aurrean zeuden bi jostunekin josten ikasi zuen. Santa Susanako eskolan ere ikasi zuen apur bat josten.

### 267. Euskara gutxietsia gerraostean (DUR-011/069)

Gerraostean erdaldun batzuk harrotu egin omen ziren erdara erabiltzeko orduan. Nazionalak Durango hartu zutenetik euskara gutxiesten hasi ziren.

Espainiako banderak ipintzera ere behartu egiten zituzten. Santa Susanako eskolan besoa altxatuta abestera behartzen zituzten.

### 268. Ondo egindako baserria (DUR-018/002)

Ondo egindako etxea dela dio, Zumaiako trena trenbidetik bota zuen haizete handian etxeak teila batzuk besterik ez zituelako galdu.

### 269. Astoarekin ganadu jatekoak ekartzera (DUR-018/005)

Auzoan etxe berri asko egin dituzte. Lehen baserri etxeak eta soroak besterik ez zeuden. Etxean lan asko egindakoa da Teresa.

### 270. Esnea Durangora eta porruak Bilbora (DUR-018/006)

Hiru behi zituzten, eta Teresa oso ondo konpontzen zen ganaduekin lanean. Esnea Durangora eramaten zuen, 13 litro egunean. Bilbora ere joaten zen porruak saltzera. Lau baserritar elkarrekin joaten ziren.

### 271. Esnea saltzen (DUR-018/008)

Esnea neurri ezberdinetan saltzen zuten, litro edo kuartilutan.

### 272. Soroan ganaduakin, ortuan laian (DUR-018/009)

Anaia soldadutzan egon zenean. Garia ereiteko lurrak prestatzeko lanak. Artoa ereiteko lan gehiago ematen zuen lurrak. Laian jardundakoa da Teresa, bera bakarrik ortuko sail txikietan.

### 273. Ganaduaren jatekoarekin batera etxerako ura (DUR-018/010)

Baziren laian jarduten ziren baserriak, baina eurek lurra goldatu egiten zuten. Garia erein zuten urte batzuetan, baina lurrak ez ziren onak, eta utzi egin zioten ereiteari. Ganadu jatekotara joaten zenean, etxerako ura ere ekartzen zuen marmitetan.

### 274. Garoa ebakitzeko sasoia (DUR-018/011)

Baserritar denek egiten zuten lan asko. Garoa igitaiarekin ebakitzen zen, baina eurak segaz ebakitzen hasi ziren. Garo-basoak errentan hartuta zituzten. Gurdian ekartzen zuten garoa etxera, behiei ohea egiteko. Iraila izaten zen garoa ekartzeko sasoia.

### 275. Urte osorako garoa (DUR-018/012)

Urte guztirako garoa ekartzen zen. Sabaira jasotzea lan oso gogorra izaten zen. Handik kortara botatzen zen. Sabaiko hautsarekin gaizki ibiltzen zen Teresa. Bere aita hargina zen eta Santa Polinako harrobian egin zuen lan.

### 276. Morroi eta neskameak (DUR-018/013)

Aita hargina eta osaba arotza zituen. Larrabetzuko morroi bi izan zituzten baserrian, eta Arratiako neskame bat ere bai.

### 277. Txerriak; Txorizoak (DUR-018/014)

Hazten zituzten txerri bitik bat saltzeko izaten zen. Oremahaia izandakoan gazitzen zuten urdaia. Zortzi arrobako txerriak hazten zituzten. Txorizoak nola egiten zituzten azaltzen du.

## 278. Odolkiak (DUR-018/015)

Txorizoak beti eskuz egin izan dituzte, odolkiak bezala. Odolkien osagaiek azaltzen ditu, arroza tartean. Egosi eta 'kiñetu' nola egiten ziren kontatzen du.

## 279. 'Matxorra' behia susara zegoenean (DUR-018/018)

Astoa soroko belar txarrak jaten jartzen zuen, lurrean sartutako laia batera kateatuta. Susara zegoen behi batek, behin batean aita hartu zuen azpian.

## 280. Gerran ihesi Kantabriara (DUR-018/019)

Karrantzan egon ziren hilabete batzuk, eta handik Kantabriako Cartes herrira joan ziren. Santurik gabeko eliza batean egon ziren. Esnea ematen zuen behia kendu zieten soldaduek.

## 281. Kantabriatik bueltan etxea okupatuta eta aita atxilotuta (DUR-018/020)

Etxetik alde egin zuten gerran, eta bueltatzerakoan, beraien etxea okupatuta zegoen; hori dela-eta Momotxobekora joan ziren 15 egunerako. Beraien aita atxilotu egin zuten, eta etxean izan zuten Erandioko soldadu bat udaletxera joan zen bere aitaren alde egitera. Etxean zituztenak ateratzea lortu zuten.

## 282. Elgoibarko ospitalean medikuen beldurrez (DUR-018/022)

Ospitaleko eta "La Villa"ko eskoletan ibili zen. Lagunekin loreak harrapatzen zeudela, Teresak izter-hezurra puskatu zuen. Elgoibarko ospitalera eraman zuten sendatzera.

## 283. Eskolako kontuak (DUR-018/023)

Eskolan neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Eskolara gustura joaten zen, baina batzuetan pase ere egiten zuten, jolas egiteko. Zortzi urterekin hasi eta gerra hasi zen arte joan zen eskolara. Zigor gogorrak jasan zituen eskolan.

## 284. Umetako jolasak (DUR-018/024)

Tabaka (tortolosak) zelan jolasten zuen azaltzen du. Nesken jolasa zen. Mutilak "a los baturros" jolasten omen zuten. Sokasaltoan ere jolasten zuten. Panpinak eta pilotak gutxi, baina batzuk izan zituen.

## 285. Lanera bizikletan (DUR-018/025)

Koinatuak emandako bizikletan joaten zen anaia lanera. Tornularia izan zen anaia. Irabazten zuten diru dena amari ematen zioten. Euskadiko dirua.

## 286. Karrantza eta Cartesera gerratik ihesi (DUR-018/026)

Gerra hasi zenean, ganaduak tren bagoietan sartuta Karrantzara joan ziren. Handik, Kantabriako Cartes herrira joan ziren. Gerra bertara iritsi zenean, meategietara joan ziren babes bila.

## 287. Durangoko bonbardaketa (DUR-018/027)

Bonbardaketa egunean, etxean zegoen Teresa, familiarekin. Eztandek etxea dardara batean jartzen zuten. Inguruetan kea zen nagusi. San Andresko bidean zegoen karobi batean gorde ziren.

## 288. Hildako durangarrak (DUR-018/028)

Durangoko mutil batzuk gerran hil ziren. Beldur handia pasa zuten gerra denboran. Gerrako abioiak Gasteiz aldetik etortzen ziren. Gerra pasa eta gero ere egon ziren soldaduak Durangon.

## 289. Gerraosteko gari eta arto ehotzeak (DUR-018/030)

Gerraostean, Euskadiko diruaren ordez ez zuten ezer eman. Dena galdu zen. Arandiako errotara eramaten zuten artoa. Garia Mañarira eraman, eta trukean ogia jasotzen zuten. Oromiñora ere eramaten zuten artoa.

## 290. Gerraostean ez zuten goserik izan (DUR-018/031)

Gerraostean ez zuten irin faltarik izan. Garia, artoa eta babarrunak eman behar izaten zituzten kupoan. Errazionamenduko ogia eta txokolatea gogoratzen ditu, baina ez zuten goserik izan etxean.

## 291. Karrantzara eta Cortesera ere aireplanoak (DUR-018/032)

Gerra denboran, etxetik kanpo egon ziren pare bat hilabetean.

## 292. Ura eta arropa garbiketa (DUR-018/034)

Udan ez zuten urik izaten etxean. Arropa garbitzera urruti joan behar izaten ziren. Neguan etxe ondoan ondo konpontzen ziren. Etxea garbitzeko erratza erabiltzen zuten.

## 293. Berbeten ezberdintasunak (DUR-018/036)

Inguruko herrietako berbetekin ez du Teresak ezberdintasun handirik igartzen. Larrabetzuko amak 'taloa' esaten zuen, eta aitak iseka egiten zion Durangon 'talue' esaten zelako.

## 294. Tabiran dena baserri-etxeak lehen (DUR-019/002)

Tabira lehendik hona asko aldatu da. Lehen ia dena baserria zen. Gerra garaian, bonbardaketak izan zirenean, Durangon kalteak izan zituen auzoak, baina beren etxeak ez.

## 295. Hutsagatik salbatu Cervera itsasontziaren erasotik (DUR-019/003)

Gerratik ihesi, Austoan, Erletxen eta Marurin egon ondoren, Bilbora heldu ziren. Hemen hutsagatik salbatu ziren Cervera itsasontziaren kanoikada batetik. Gero, Lamiakora joan zirenean, Artxandatik tiratzen zieten.

## 296. Aita Bilbotik Durangora bizikletan, nahiz eta ez jakin (DUR-019/004)

Bilbon zeudela jakin zuten Durangoko etxea errekisatu egin behar zietela. Orduan, aitak bizikleta bat hartu (ez zekien ibiltzen) eta Durangora itzuli zen. Auzoko emakume lotsagabe bat aurkitu zuen etxearen jabe egin nahian, eta airean bidali zuen. Denak itzuli zirenean, katua aurkitu zuten ate aurrean miauka.

## 297. Durangoko bonbardaketa (DUR-019/005)

Durangoko bonbardaketa izan zenean, zanga batean ezkutatuta egon ziren. Bukatu zenean, Tabiratik Durangora joan eta hildakoak ikusi zituzten kalean. Artean umea zen Luis. Beste anaia bat gurdiaz satsa garraiatzen harrapatu zuen bonbardaketak.

## 298. Asto deabrua (DUR-019/007)

Asto deabru bat izan zuten. "Arre Periko!" esanez gero, hankaz gora botatzen zuen gainekoa.

## 299. Baserri-etxea "moroak egindakoa" agian (DUR-019/010)

Baserria oso zaharra zen, esaten zuten moroak egindakoa zela.

## 300. Baserria nolakoa zen (DUR-019/012)

Paretak okertuta zituen baserri zaharrak. Etxea barrutik nolakoa zen deskribatzen du. Korta erabiltzen zen komuntzat. Ez zuten urik, berak sartu zuen artean mutikoa zela.

## 301. 'Cara al Sol' (DUR-019/014)

Bederatzi urterekin hasi zen eskolan. Beti Cara al Sol kantatzen, don German falangistarekin. Gero, maristetara joan zen.

## 302. 27 pezetako isuna eta kartzela euskaraz egiteagatik (DUR-019/016)

Ama bati 27 pezetako isuna eta kartzela ezarri zioten, alabari "Edurne" deitzeagatik. Eta beste bati "Garbiñe" deitzeagatik ere bai. Herriko falangista bat izaten zen salatzailea.

## 303. Luisen anaiaren kalbarioa (DUR-019/018)

Luisen anaia bat 16 urterekin Solluben ibili zen gudari; zaurituta etorri zen etxera. Gero karlistek eurekin eraman zuten gerrara. Itzuli zenean, falangisten buruak salatu eta beste bost urte pasatu behar izan zituen Afrikan. Oso gaiztoa ei zen falangisten burua.

## 304. Durangoko gerra osteko alkateak (DUR-019/021)

Falangista batek agintzen ei zuen herrian. Durangoko gerra osteko alkateak izendatzen ditu. Karlistak ziren asko.

## 305. Hegazkinak metrailatu zituenekoa (DUR-019/023)

Baserrian zeudela, belarra ebakitzera joan ziren bera eta anaia; hegazkin bat etorri eta metrailatu egin zituzten. Eurak libratu ziren, baina ahuntza garbitu zuten.

## 306. Etxe-erre batzen (DUR-019/026)

Abadiñon bazen ermandadea. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Etxea erretzen zenean, herriko parrokoak iragartzen zuen "etxe-erre batzen" etorriko zirela (Luisen emaztea mintzo da). Jendeak diru asko ematen zuen.

## 307. "Garibaldi" abarketagilea (DUR-019/028)

Bazen "Garibaldi" esaten zioten abarketagilea, oso famatua. Umeak adarra jotzen ibiltzen ziren.

## 308. Arratiatik-eta Tabirako errotara (DUR-019/030)

Tabiran errota egon zen eta gerra ostean Arratiatik eta Berriz aldetik etortzen ziren hara, beste gehienak itxita zeuden eta. Zabalik zeuden eskualdeko beste errotak izendatzen ditu.

## 309. Artobizarra erretzen (DUR-019/032)

Errazionamenduaz. Askok tabakoa olioarekin trukatzen ei zuten. Kuarteroia erretzen zuen aitak, mutikoek arto-maluta, arto-bizarra eta patata-orria ere bai. Behin erein zuten tabakoa baina ez zen ondo lehortu. Edozer gauza erretzen zen orduan. Andreek ez zuten erretzen.

## 310. Izurtzako txakolindegia (DUR-019/034)

Behin anaiak sagardoa egin zuen baina txarra irten zitzaion. Txakolindegi pare bat bazen inguruan, horietako bat Izurtzan.

## 311. Amaren modukorik ez dago munduan ezer (DUR-019/037)

Oso ama ona izan du, "amaren modukorik ez dago munduan ezer". Jenio bizikoa, hori bai, idizila prest egoten zen ate ostean.

## 312. Ehiza nagusia ugaritu da (DUR-019/042)

Lehen hegabera asko etortzen zen eta erbia ere gehiago zegoen, nahiz eta ehiza nagusia gutxiago egon, basurdeak eta. Orain asko ugaritu da, orkatzak ere orain alde guztietan daude.

## 313. Turoia harrapatu emazteak (DUR-019/043)

Katamixarrak ikusten dira orain ere. Emazteak erratzaz turoi bat harrapatu zuen behin. Ez zekiten zer animalia zen, eta Aranzadikoek argitu zuten zalantza. Errusiatik barkuren batean etorritakoa izan ei zitekeen. Ogigaztaiak eta azkonarrak ere badaude. Sasoi batean ugabereak ("nutria") ikusten ziren dezente, baina orain ez. Durangori "zapo-herri" edo "tronperri" esaten zaio.

## 314. "Errekako pirata" (DUR-019/044)

"Errekako pirata" deitzen zioten Luisi. Makila luze baten puntan sardexka ipinita egiten zuen arrantzan, "arrankariak" (amuarrainak) harrapatzen zituen horrela. Behin guardia zibilak harrapatu arrantzan eta arrankariak ospitalera eroateko agindu zion.

## 315. Errekako arrantza-tresnak (DUR-019/045)

Itsasoko karramarroak agertu ziren behin aitak botatako sarean. Orain ere ezkailuak harrapatzen ditu butroiaz. Tresmailua, butroia eta sarea zer diren. Egunez egiten zuten arrantzan.

## 316. Dinamitaz arrantzan (DUR-019/046)

Behin Izurtzara joan ziren dinamitaz arrantzan egitera. Lehertu eta egundoko sarraskia egin zuten. Oso ezjakinak ei ziren artean.

## 317. Errekako arrainak (DUR-019/047)

Ezkailuak eta arrankariak "benakiaz" harrapatzen ziren uholde egunetan. Errekako karramarroak ere baziren. Orain "seinale-karramarroak" daude, diputazioak botatakoak. Aingirak ere harrapatzen ziren.

## 318. Barkutik uretara jausi (DUR-019/048)

Mutikotan Ondarroara joan ziren behin eskolatik, eta han barkuz ibilaldi bat egiten zihardutela uretara jausi zen Luis.

## 319. Tiragomaz bonbillak apurtzen (DUR-019/050)

Behin tiragomaz farol bateko bonbilla apurtu zuen. Udaletxera deitu eta 27 pezetako isuna jarri zioten. Amak ordaindu zuen isuna. Nobiotan beste bat apurtu zuen, argiak "molestatu" egiten zielako.

## 320. Andregaia izango zenarengandik belarrondokoa (DUR-019/053)

Berrizko taberna batean, Luisen aurrean zihoan zerbitzariari zirri egin zioten izterrean eta hark buelta eman eta belarrondokoa eman zion Luisi. Ez zen Luis izan eta begira zegoen gizon batek argitu zuen kontua.

## 321. Lutoaz zegoelako ezin dantzan egin (DUR-019/055)

Andregaiaren neba oinaztarriak hil zuen eta lutoaz etortzen zen neska Durangora, baina ezin Luisekin dantzan egin.

## 322. Baietz begi bati haginka egin! (DUR-019/060)

Garcia Ariñok Azkarateri 22-2 irabazi zionean, Loiolan egin zuten ospakizun bazkaria. Gero Durangora etorri eta bilbotar batek egindako txantxa kontatzen du: "baietz begi bati haginka egin!"

## 323. Fruta lapurrak salatu txilinak (DUR-019/062)

Fruta harrapatzen zuten baratzetik, eta pita bat ipini zuten txilinekin. Lapurretara etorri zirenean, berehala konturatu ziren txilin hotsera eta lapurrek ospa egin zuten

## 324. Luisi esker baimendu zen erromeria (DUR-019/063)

San Inazio egunez nazionalisten eguna zen eta Zornotza aldera joaten ziren egun pasa. Ez zuten plazan erromeria egiten uzten, eta Luisen eskariari esker lortu zen alkatearen baimena.

## 325. Berak ezkutatutako zapatak ezin aurkitu (DUR-019/065)

Behin zapata berriek min ematen zioten; erantzi eta arbi artean ezkutatu zituen. Zornotzatik bueltan, bila joan eta ezin izan zituen aurkitu, baina hurrengo egunean joan eta han zeuden.

## 326. Lau urte andregaiari lehen musua emateko (DUR-019/067)

Lau urte pasatu ziren andregaiari lehenengo musua eman orduko. Gai horretan errespetu handikoa izan da bera.

## 327. Neskarengana bizikletan dotore jantzita (DUR-019/070)

Luis dotore-dotore jantzita eta zapata distiratsuekin joaten zen Abadiñora andregaiarengana. Abadiñoko neskarik ederrena eraman ei zuen.

## 328. Inguruko herrietako euskarak (DUR-019/073)

Elorrio eta Otxandioko euskara Durangokoaren ezberdinak dira. Otxandiokoa beste mota bat da. Ermukoa Eibarkoaren antzekoa. Mallabia, Abadiño, Mañaria eta Iurreta, berriz, Durangokoaren berdintsua. Zornotzakoa ere bai, baina Arratia aldera jotzen du apur bat.

## 329. Trena "tximistburdixe" (DUR-019/074)

"Trena" esaten da baina euskaraz berez "tximistburdixe" ei da. Bide mota ezberdinez.

## 330. 14 urte arte eskolan (DUR-020/002)

14 urte arte ibili zen eskolan. Eskola Dominikala, Kalebarrikoa eta San Vicente de Paulen mojen eskoletatik pasatu zen.

## 331. Santa Anako balkoitik zezenak ikusten (DUR-020/003)

Santa Anako pisu batera ezkondu zen, eta bertan bizi izan zen 50 urtetan. Bere semeak umetan balkoitik zezenak ikusten beldurtu egiten ziren. Emakumeek ez zuten zezenetan korritzen. Kaleetan babes gutxi egoten zen, gaur egungoarekin konparatuz.

## 332. Umetatik laian jarduna (DUR-020/004)

Eskolara gustura joaten zen. Eskola denak ez ziren publikoak. Aita arotza zuen. Baserriko lanetan umetatik jardun zuen Martinak. Etxe ondoko ortutxoa laiatu egiten zen. Hamabi urterekin ekin zion Martinak laian. Laiaren ondoren aitzurra eta mokil haustekina erabiltzen ziren.

## 333. Sutarako egurra eta garoa etxeko mendietatik (DUR-020/005)

Ganaduen azpitarako garoa basotik ekartzen zuten. San Roke errekatik gorako basoak ziren etxekoak. Sutarako egurra eta garoa ekartzen zituzten. Etxebizitza biren artean egiten zuten egurra. Loteak nola prestatu eta zozketatzen zituzten azaltzen du.

## 334. Litro, zelemin eta kuartak (DUR-020/006)

Aitak arotz lanak etxetik kanpo egiten zituen. Etxean esne behi bi zituzten. Umetan herrira joaten zen esnea saltzera. Plazara barazkiak eramaten zituzten. Esnea litroka saltzen zuten, eta babarruna zeleminka. Pisatzeko erromatar balantza erabiltzen zuten.

## 335. Zorroa bizkarrean hartuta errotara, 14 urterekin (DUR-020/007)

22-24 arto kiloko zorroa bizkarrean eramaten zuen Arandiako errotara, 14 urte zituela. Irina oremahaian garbitu eta taloa edo morokila egingo zuten. Ama gibeleko gaitzarekin egon zenean ez zuen txerrikirik jaten. Amona, andre gogorra eta langilea, bihotzeko batetik hil zenean pena handia hartu zuten.

## 336. Etxeko artoa etxean gastatzen zen (DUR-020/008)

Etxean birrindutako artoa ematen zitzaion ganaduari. Errotan ahizpa bi ziren errotariak. Ogia ere egiten zuten.

## 337. Bonbardaketatik Orozketara ihesi (DUR-020/010)

Bonbardaketa hasi zenean, Orozketako Etxetxu baserrira joan ziren, behiak gurdira erantsita. Hiru hilabete egin zituzten etxetik kanpo; eta, lagun bati esker, etxea ondo zainduta egon zen.

## 338. Orozketatik Mungiara eta Gatikara (DUR-020/012)

Orozketatik Bernagoitira oinez mendirik mendi joan ziren; bidean, kobazuloetan ezkutatzen ziren, abioiek ikus ez zitzaten. Handik, Eubara jaitsi eta Mungiaraino joan ziren trenez. Arrastoa jarraitzen, Gatikan aurkitu zituzten gurdia eta familiako beste kideak.

## 339. Etxera bueltatu eta den-dena eurek utzi zuten bezala zegoen (DUR-020/013)

Gerran, Gatikatik Berangora joan ziren, eta handik hilabete pare batera Durangora itzuli ziren. Etxe aurrean belarra zen nagusi, baina etxea ondo zegoen eta eurak ere bai.

## 340. Bueltarako bidean, zubiak apurtuta (DUR-020/014)

Berangon zeudela, aita gorriek gerrara eramango zuten beldurra zuten. Durangora bueltan, zubiak apurtuta zeuden eta erreketeen aurretik pasatu behar izan zuten.

## 341. Durango suntsituta aurkitu zuten (DUR-020/015)

Durangoko etxe asko, Andra Mariko eliza eta Santa Susanako komentua apurtuta zeuden. Komentuan, bonbek moja asko hil zituzten, eta motorrez ihesi zihoan jendea abioietatik metrailatu zuten. Bideak beltzak ziren, kamioiak ibiltzeko modukoak.

## 342. Hogei urterekin Mendizabalarenera neskame (DUR-020/017)

Soroetako belarrak ebaki, lurra landu eta arto-babarruna erein zuten. Patata jorratu gabe zegoen. Aita kanpoan bere lanetan, eta Martina etxean umezain. Umeetako bik kukutxeztula harrapatu zuten. Hogei urterekin Mendizabalen etxera joan zen neskame. Etxe hori nolakoa zen azaltzen du.

## 343. Mendizabaleneko zerbitzariak (DUR-020/018)

Etxe eta lorategi dotoreak zituzten Mendizabalenean. Zerbitzu eta txoferren artean bost langile ziren. Berogailua egurra eta ikatzarekin zebilen.

## 344. Lanean irabazitakoarekin ezkontzarako arreoa (DUR-020/020)

Lanean ondo tratatzen zuten. Jan eta lo bertan egiten zuen. Hamabostean behin irteten zen nobioa ikusteko. Neskame egon zen denboran irabazitakoekin ezkontzarako arreoa prestatu zuen. Tela erosi eta arratsaldetan josten zuen. Mojen eskolan ikasi zuen josten.

## 345. Ezkontza xumea eta ezkon-bidaia Donostiara (DUR-020/022)

Ezkondu zenean, aitak logela bat oparitu zion, eta berak arreoa prest zuen. Ezkontzara senide zuzenak besterik ez ziren joan. Gero, Donostiara joan ziren astebeterako. Lana ezkontzeko utzi zuenean diru sari bat eman zioten.

## 346. Euskarazko dotrina amak irakatsitakoa (DUR-020/025)

Dotrina Andra Mari elizan ikasi zuen. Neska-mutilak elkarrekin eta erdaraz. Euskaraz dakien dotrina amak irakatsitakoa da. Bazkalaurrean errezatzen zuten, baina ohera joan aurretikoak edo arrosariorik ez ditu gogoan. Aita igandero 12etako mezara joaten zen.

## 347. Mezak ulertezinak ziren (DUR-020/026)

Meza asko latinez ematen ziren orduan. Santa Anako sermoiak ospetsuak omen ziren. Mezara joateko zertxobait dotoreago janzten ziren.

## 348. Udaran komedianteak Ezkurdin (DUR-020/027)

Udaran Ezkurdira komedianteak etortzen ziren. Amak etxeko gazteak Komedianteak ikustera eramaten zituen. Ezkurdi ostean barrakak ere egoten ziren. Bolatokirik ez du gogoan Martinak.

## 349. Lehen oroimena, bonbardaketa (DUR-022/002)

Umetako lehen oroimena: Durangon bonbardaketa izan zen egun bat. Astoen gorpu erdibituak gogoan ditu; eta beraiek "Achicorias Momoitio" lantegiko zakuen ostean gordeta egon ziren, abioiak bonbak jaurtitzen zituzten bitartean.

## 350. Historia liburu gezurtiak (DUR-022/003)

Comillasen ikasten ari zela, historiako liburuek esaten zuten Durango gorriek erre zutela. Berak kontatu zion irakasleari Durangon zer gertatu zen benetan.

## 351. Elorrioko gudariak Intxortara bidean (DUR-022/004)

Gogoan ditu Elorrioko gudariak Intxortara bidean, herriko emakumeek negar batean agurtzen zituztela. Orduan ikasitako abesti bat kantatzen du.

## 352. Gerra baretu zenean, berriro etxera (DUR-022/006)

Igorretik, Durangoko Kalebarriko euren etxera itzuli ziren. Oinetako-denda bat zuten (Mario oinetakoak) eta geroago denda ingurura bizitzera joan ziren. Santa Susanako eskolan hasi zen, mojekin.

## 353. Mojen eskolan (DUR-022/007)

Eskola denborako gaiztakeriak. Eusebio Bilbao soinujole itsua. Mojen izenak gogoratzen ditu. Mojen oroitzapen onak ditu.

## 354. Euskaldunak izan, baina erdaraz berbetan (DUR-022/008)

Lehenengo izan zituen liburuak Silabario Moderno eta Catón Moderno izan ziren. Euskara zegoenik ere ez zen aipatzen eskolan. Durangon kalean erdaraz egiten zen. Gero jakin du umetako lagun asko euskaldunak zirela. Jesuitetan ikasten gauza berdina suertatu zitzaion: gehienak euskaldunak ziren, baina euren artean erdaraz egiten zuten.

## 355. Jesuitetan euskara ezberdinak ezagutu zituen (DUR-022/009)

Arzallus, Aranzadi, Altuna eta abar izan zituen eskolakide, eta orduan konturatu zen euskaldunok era ezberdinetan mintzatzen ginela. Lekeitiar irakasle batek, Patxi Kortabitarte, euskaldun ikasleei euskaraz zuzentzen zitzaien.

## 356. Euskara bigarren mailako hizkuntza (DUR-022/010)

Inork ez zuen euskaraz berba egiten, ezta eskolan eta ezta kalean ere. Konplexuarena-eta Durangon gerra aurretik igaro omen zen. Durangoko alde batzuk euskaldunagoak ziren beste batzuk baino. Euskara etxean erabiltzen zen. Modernotasuna erdararekin lotzen zen, eta baserria, ganaduak, simaurra eta holako gauzak euskararekin.

## 357. Jesuita ikasketak (DUR-022/011)

Elorrioko parrokoak oso hitzaldi onak ematen omen zituen, baina ez zekien euskaraz berba egiten. Seminarioko barneko ikasleek gero Xabierrera joango ziren, jesuita izateko. Eguneko ikasleak berriz, Jesuitak Tuteran zuten ikastetxera joatea izango zuten. Kanpora joatea nahi ez zutenentzako, Durangon akademia bat jarri zuten.

## 358. Unibertsitatera aberatsak bakarrik (DUR-022/012)

Xabierreko eskolak jesuitek ordaintzen zituzten, baina Tuterakoak nork bere poltsikotik ordaindu behar zituen. Garai hartan unibertsitatera dirudun jendea bakarrik joaten zen.

## 359. 12 urte Comillasen ikasten (DUR-022/013)

14 urterekin Comillaseko unibertsitatera joan zen ikastera. Euskal Herritik, Espainia eta Amerikatik etorritako ikasleak ikasten zuten bertan, abade izateko. 12 urtez ikasi zuen Juanitok Comillasen.

## 360. Comillasen ikasle guztiak sotanadun gizonezkoak (DUR-022/014)

Elizako unibertsitate bi zeuden orduan: Salamancakoa eta Comillasekoa. Filosofia, Teologia eta Eliz Legedia irakasten zuten Comillasen. Ikasleak gizonezkoak ziren, eta sotanaz janzten ziren. Etxera joaten zirenean ez zuten satana janzten, baina arropa beltzez jantzi behar izaten ziren.

## 361. Calahorrako ikasleak (DUR-022/015)

Calahorrako ikasleak apezpikutzak bidalita joaten ziren. Ikasleak oso ikastunak omen ziren.

## 362. Luzia Sagastasoloa (DUR-022/016)

Etxeko eta lagun arteko giroak bultzatu zuten Juanito, besteak beste, abade izatera. Luzia Sagastasoloaren istorioa kontatzen du. Aparteko emakumea omen zen.

## 363. Kataluniarrak eta euskaldunak (DUR-022/017)

Comillasen hainbeste toki ezberdinetako ikasleekin batera ikastea eta bizitzea oso aberasgarria omen zen. Harreman horrek euskaldunak euskaldunagoak egin zituela uste du Juanitok. Kataluniarrak ezin zuten ulertu Euskal Herriko jendeak euskara ez ezagutzea.

## 364. Francoren garaiko kristautasuna (DUR-022/018)

Espainian kristautasuna eta Franco batera zihoazela zirudien, baina Euskal Herrian ez zuten hori horrela ikusten. Diaz Merchan gotzainarekin izandako elkarrizketa bat. Orduan katolikoa eta Franco zalea izatea gauza bat zela sinestarazi nahi zuten.

## 365. Dotrina; bekatuak (DUR-022/019)

Dotrina erdaraz ikasi zuen. Kristautasunean gauza batzuk nahitaez aldatu behar direla uste du. Bekatua zer den azaltzen du.

## 366. Konfesatzea eta errezoak (DUR-022/020)

Konfesatzea eta errezoak.

## 367. Santu izan nahi zuena (DUR-022/021)

Solesmesera joaten ziren kantu gregorianoak ikastera. Santu izatea nahi zuen ikaskide bat joan zen berarekin. Honek egiten zituen gauza bitxiak azaltzen ditu.

## 368. Iurretan zegoela 'kleromotoa' sinatu zuen (DUR-022/023)

Seminarioa bukatuta, Iurretara etorri zen apaiz lagunkide, eta Oromiñoko ardura ere hartu zuen. 'Kleromotoa' (abadeen ikara) etorri zenean, Franco eta elizaren arteko harremana salatzeko agiri bat sinatu zuten ehundaka euskaldun abadek, Juanito tartean. Francok desterratu nahi izan zituen. Kleromotoan parte hartu zuten abade guztiak euren tokietatik mugitu zituzten. Juanito Iurretatik Etxebarrira eraman zuten.

## 369. Etxebarritik Elorriora (DUR-022/024)

Etxebarrira joan eta 11 urtez egon zen bertan, apaiz lagunkide. Barinagako eta Geriako ardura ere izan zien bost urtez. Elizakoa zen eskola profesionalean bizi eta klaseak ematen zituen. Hemendik Elorriora joan zen, 1975. urtean, apaiz lagunkide hasi eta bertako parroko izaten bukatzeko.

## 370. Mezak euskaraz eta abadeak sotanarik gabe (DUR-022/026)

Juanito mezak ematen hasi zenean, latinez ematen zituen. Kontzilioa ospatu zenean, 1960ko hamarkadan, mezak euskaraz emateko aukera ireki zen. Abadeak sotanarik gabe ibiltzeko eskubidea ere jaso zuten. Euskara Liturgia Batzordea sortu zuten elizan. Euskara batuaren sorrera ere hor nonbait izan zen.

## 371. Liturgia euskaraz (DUR-022/027)

Gazteak euskara batuaren aldekoak ziren, baina nagusiak ez. Azkenean erdibideko konponbidea aurkitu zuten. Euskal Herri osoko abadeak hartu zuten parte Euskara Liturgia Batzordean.

## 372. Mezak norberaren hizkuntzan hobeto (DUR-022/028)

Lan asko izan zuten liturgia aldaketa horretan. Juanitori ez zitzaion asko kosta latinetik euskarara aldaketa hori egitea.

## 373. Eskolak ere euskaraz (DUR-022/029)

Elorrion meza batzuk erdaraz ematen zituen. Markinako eskolan euskaraz irakasten hasi zen Juanito.

## 374. Meza baino, arrosarioa (DUR-022/030)

Meza latinez ematen zenean, abadeek besterik ez zuten meza ulertzen. Toki batzuetan, meza ematen zen bitartean, fededunak arrosarioa errezatzen zuten.

## 375. Irakasgaiak latinez (DUR-022/031)

Filosofia eta teologiako irakasgai batzuk latinez ikasten zituzten. Juanitok bere tesina, euskararen jatorriari buruzkoa aurkeztu zuen (erdaraz).

## 376. Elorrioko berbeta (DUR-022/034)

Elorrioko berbaera eta Durangokoa ezberdinak dira, ez bakarrik hitzen bukaeretan, doinuan ere bai. Berba gutxi batzuk badira Elorrion erabili eta Durango aldean erabiltzen ez direnak. Berrizko eta Zaldibarko berbetak.

## 377. Bonbardaketaren aurretik, etxe azpiko babeslekuan ezkutatu ziren (DUR-023/005)

Gerrak irten zuenean, 13 urte zituen. Durango bonbardatu osteko egunean mendira joan ziren. Bonbardaketa eguneko goizeko zazpietan kanpaiak eta sirenak jo zituzten, eta orduan etxe azpian zuten babeslekura sartu ziren.

## 378. Bonbardaketako hautsarekin eztarriko minez (DUR-023/010)

Bonbardaketako egunean, goizeko erasoak minutu bat-edo iraun zuela dio. Eta, arratsaldean, ihesi zebilen jendea metrailatzen ibili ziren. Eurak babeslekuan egon ziren. Bere neba nagusia, Jabier, kamiñero ibili zen. Bere neba bonbardaketako hautsarekin-eta 24 orduz ahots barik gelditu zen; 24 orduz ezin izan zuen ezer jan eta Bilboko otorrino batengana eraman zuten.

## 379. Aireplanoak ikusi eta elizan ezkutatu zen mutila (DUR-023/011)

Bonbardaketa ostean etxera joan ziren. Elizarantza joan zela mutil batek zerura begiratu, aireplanoak ikusi eta "¡¡¡van a bonbardear, estan girando el pueblo. Que la gente se esconda dónde pueda!!!" esan zuen. Hori entzundakoan, elizara sartu zen eta korutik dorrera joan zen. Arerioak katolikoak zirela-eta, elizak ez zituztela bonbardatuko zioen bere lehengusina batek.

## 380. Bere amama Berriotxoak bataiatu zuen (DUR-023/052)

Ama Axpe-Martzanakoa (Atxondo) zen. Amaren ama Balentin Berriotxoak bataiatutakoa zen; Axpeko abadearen ordez egon zen. Hori dela-eta, Maitenaren neba batek Balendin izena izan zuen.

## 381. Karlistak, monarkikoak, bizkaitarrak... (DUR-023/056)

Errepublika sasoian, umeek bata bestari "zu zer zara?" galdezka ibiltzen ziren, karlistak, monarkikoak... zeuden. Berak ez zekiela erantzuten zuen beti. Behin nagusiago batek "zu bizkaitarra zara" esan zion, eta Maitena asko poztu zen.

## 382. Nevers-en ikasi zuen (DUR-023/059)

Nevers-ko mojei abitua kentzeko agindu zietenean joan egi ziren. Ostean, euren ordez Gasteizko karmeldarrak etorri ziren. karmeldarrek Pau-en (Frantzia) ikastetxe bat zabaldu zuten eta bere ahizpak bertara joan ziren.

## 383. Itsasontziz Frantziara ebakuatuta: Santurtzi-Bordele-Baiona (DUR-023/062)

Frantziara itsasontziz joan ziren, britainiarrek eskoltatuta. Santurtzitik Bordelera joan ziren. Jone, bere ahizpa, eta bera Bordelera heldutakoan, amama eta izekorengana joan ziren. Amamak eta izekok gutunak idazten zizkieten, eta bertako helbidera hurreratu ziren. Aldean zeramatzaten traste guztiekin helbide hartara iritsi, eta Baionara joanak zirela esan zieten. Orduan, Baionarako trena hartu zuten ahizpa biek.

## 384. "Kui"ka olgetan (DUR-023/068)

"Kui"ka jolasten zuten: "Kui, Kala ba, kala ba a esconder kuike". Jokoa zelan den azaltzen du: korru batean jendea zenbatzen da eta ezkutatu egin behar dira. Bat "Azpi" da eta "Azpi"k besteak aurkitu behar ditu. "Azpi" despistatzeko "Kui" esaten zuten beraien ezkutalekutik.

## 385. Tabetan olgetan (DUR-023/070)

Bere osaba batek bildotsa zuen eta hari eskatzen zizkieten tabak. Asko gustatzen zitzaien tabetarara jolastea. Taben jokoa zelan den azaltzen du.

## 386. Durangotik ihesi (DUR-026/004)

Bonbardaketan 10 urte izan arren, oso ondo gogoratzen du dena. Etxea apurtu zieten. Frontera joana zen bere lehengusu baten etxera joan ziren Iurretara. Handik bere amaren neba batengana joan ziren Galdakaora; Zornotzara heldu zirenean, bertako geltokian jakin zuten bezperan Gernika-Lumo erre zutela. Galdakaoko eta Bilboko bonbardaketetan egon ziren. Bilbotik Alonsotegira joan ziren eta handik Santanderrera eta Gibajara.

### 387. Bi urtez Frantzian errefuxiatu (DUR-026/005)

Santanderren zeudela, Frantziara joateko eskaera egin zuten Eusko Jaurlaritzan. Bere aitak ezin zuen joan, 48 urte zituen eta kintan sartzen zen; baina, hala ere, itsasontzi batean sartu zen eta denak joan ziren Frantziara. 1939ra arte egon ziren Frantzian, bertako gerra hasi arte. Venezuelara alde egitea pentsatu arren, azkenean herrira bueltatu ziren.

### 388. Itzulera gogorra (DUR-026/006)

Durangora bueltatu zirenean, ez zuten ezer eta txarto pasatu zuten. Madalenako etxe batera joan ziren bizitzera beraien etxea apurtuta zegoelako. Aurreko partea osorik zegoen eta bere amak orduan zabaldu zuen denda, estraperloa zela-eta egin zuten aurrera. Eskolara joateko ez zuten dirurik eta 13 urterekin josten ikasten hasi zen; oso gustura egon zen bertan, jostunarekin ikasi zuen igeri egiten errekan.

### 389. Frantziako bizimodua (DUR-026/007)

Frantziarako bidaia luzea izan zen. Toki guztiak beteta zeudenez, bueltaka ibili ziren. Bordeletik 20 kilometrora, 500 euskaldun inguru egon ziren batera; eta, han, maistra eta abadea (Tolosakoa Anatasio Mokoroa) ere bazuten. Familia bakoitzak gela bat zuen. Maistrak euskaldunak ziren; gaztelaniaz hartzen zituzten eskolak, nahiz eta beti euskaraz egin berba. Asko izan arren, oso ondo konpontzen ziren. Acción Católicak eta Euskal Gobernuak ordaintzen zizkieten gastuak. Abadeak frantsesa irakasten zien.

### 390. Frantziako arropak onak ziren (DUR-026/009)

Frantzian zeudela, bere aita ondoko herri bateko taberna batean aritzen zen lanean, diru apur bat lortzeko. Bertakoak oso ondo portatu ziren, arropa asko eman zieten. Frantzian arropa ona zegoen eta hango jantziak Durangora ekarri zituen. Frantzian zeuden durangar guztiak, 2 familia, logela berean egon ziren.

### 391. Frantziatik Bilbora (DUR-026/011)

Frantziatik bueltan, Hendaiako muga, zubia, oinez pasatu zuten. Bilbora joan behar izan zuten bueltatu zirela esateko. Bilbon durangar batzuk aurkitu zituzten eta haien Bakioko etxean egon ziren bi egunez, izara garbiekin lotan.

### 392. Gerra aurreko Ezkurdi (DUR-026/015)

Gerra aurretik Ezkurdin jolasten zuten, gaur egun baino politagoa ei zen. Paseatzeko leku ederrak zituen."Siglo XX" tabernak terraza handi zuen. Gaur egun banketxeak dauden tokian kafetegiak zeuden: Ezkurdi, La paz eta Alza.

### 393. Bonbardaketa (DUR-026/023)

Bonbardaketan oso txarto pasatu zuen, beldur asko pasatu zuen. Gosaltzen zegoela hasi ziren abioiak etortzen. Etxe atzeko kale txiki batean zakuak jarri eta han babestu ziren. Bere aita lanetik bueltatu zenean beste alabaren bila joan zen suntsitutako elizara, Andra Mariara. Baina kanpaiak entzuterakoan, bere ahizpa elizara joan beharrean La paz kafetegiko sotora joan zen, eta horrek salbatu zuen.

### 394. Elizak erreta (DUR-026/025)

Ezkurdiko eskola partikularretara joan zen umetan, Santa Susanan eta jesuitetan batailoiak zeuden-eta. Andra Mariko elizan intendentzia militarra

egon zen. Bere ustez, horregatik bonbardatu zituzten elizak. Bonbardaketa eguna Asteazken Santu Eguna izan zen. Elizpean azoka zegoen eta erosketak egiten zebilen jende asko hil zen.

### 395. Pepita Aizpuruaren eskola partikularrera (DUR-026/026)

Ezkurdiko eskola partikularretara joan zen umetan, Pepita Aizpuruaren etxera. Don Eusebio abadearen arreba zen. Bere neba maristetara joan zen. Guraso biak lan egiten zutenez diru aldetik ondo zebiltzan. Bere ahizpak piano ikasketak egin zituen. Pepita Aizpuruarengana Santa Susana zarratu zutenean hasi zen, bere ahizpak Santa Susanan ikasi zuen.

### 396. "A la bandera" olgetan; pilotak (DUR-026/039)

"Pingitos" ezizenez deitzen zioten arineketan oso azkarra zelako. Bere ahizpa bera baino sei urte zaharragoa zen eta ez zuen nahi izaten berekin ibiltzerik, baina azkarra zenez jolasteko bai nahi izaten zuen. "A la bandera" jokora zelan jolasten zuten azaltzen du. Frantzian bere nebarekin eta beste mutil askorekin pilotan aritzen zen. Beraiek egindako pilotak izaten zituzten.

### 397. Lehen jaunartzea (DUR-026/042)

Dotrina eskolan ikasi zuen mojekin. 6 urterekin egin zuen lehen jaunartzea. Lehen jaunartzeko eguna tristea izan zen. Meza ostean arropa kendu behar izan zuen Ereñoko lehengusina bati uzteko eta arratsaldeko mezara bera uniformez jantzita joan zen. 9 urterekin "renovación" egiten zen, baina gerra hasi zenez ez zuen egin. Jatekoak-eta ez ziren egiten, pastelak baino ez zituzten jan etxean.

### 398. Iñaki Azkunaren osaba, etxe berean bizitakoak (DUR-027/002)

1926. urtean jaio zen Zalabarran. Gurasoak ere Zalabarrakoak zituen. Bilboko alkatea, Iñaki Azkuna Urreta, bere iloba da, bere jaiotetxe berean jaioa.

### 399. Lehengo Kurutziaga (DUR-031/002)

Jose Mari Kurutziagan jaio zen. Kurutziagako alderdi bat guztiz aldatuta dago, bestea ez. Aldaketa horiek aipatzen ditu: doña Adelaren txaleta, Txibitonen etxea, Garai jauregia, Areitiorena...

### 400. Ura eta argia etxean zuten (DUR-031/003)

Kurutziagan ez zuten labaderorik, kanposantu bidera joaten ziren. hala ere, beraiek ez ziren hara joaten etxean beti izan dutela ur korrontea eta argia. Kaleko argiak tiragomarekin apurtzen zituzten umetan.

### 401. Kaleko jolasak eta (DUR-031/004)

Umetan mutilek mutiletara ibiltzen ziren. Kalean losak eta lurra egoten ziren. "Al linque" eta aroarekin jolasten zuten. Pilotak trapuzkoak ziren, norberak egindakoak, bere osabak erakutsi zion zelan egin.

### 402. Frontoiak (DUR-031/005)

Maristetako frontoira egunero joaten ziren. Ezkurdiko frontoia nagusiak joaten ziren eta beraiek ikustera bakarrik joaten ziren. Frontoia ez zen gaur egun bezalakoak. Jesuitetan ere beste frontoi bat zegoen.

## 403. Gazterik hojalaterian lanean (DUR-031/006)

Santa Susanan ibili zen 6 urte zituela. Gero maristetara joan zen merkataritza ikasi aurretik. Baina ikasketak bukatu baino lehen, aitagaz hasi zen latorritegia (hojalaterian) lanean. Baserritarrak izaten ziren beraien bezero gehienak. Sasoi hartako dirua, ogerlekoak eta errealak zelakoak ziren aipatzen du. Denda-tailerra zen latorritegia. Kristala ere lantzen zuten, azkenean horretara dedikatu zen Jose Mari.

## 404. Baserritarrak zituzten bezero (DUR-031/007)

Mutikotan hasi zenez aitaren latorritegian (hojalaterian) lanean, aldaketa asko ezagutu zituen lanbidean. Hasieran latorria (hojalata) erabiltzen zuten, gerora plastikoa. Dena zen esku-beharra. Bezero gehienak baserritarrak ziren: farolak, gaztanontziak... oso bezero onak ziren.

## 405. Kristalari lanak (DUR-031/008)

Aitarekin latorritegian beharrean hasi zenen biak bakarrik aritzen ziren. Aititeren sasoian behargin gehiago ziren. Latorrizko produktuen gainbehera hasi zenean, kristala lantzen hasi zen batez ere. Durangoko obra askotako kristalak berak jarritakoak dira.

## 406. Liburu bakarra ikasgai guztietarako (DUR-031/011)

Santa Susanan lehen jaunartzea egin zuen bertako ikasi baitzuen, baina ez du askorik gogoratzen. Gero, maristetara joan zen eta bertan mutilak baino ez zeuden. Liburu bakarra zuten ikasgai eta ikasturte guztietarako.

## 407. Maristei gaitzizenak jartzen zizkieten (DUR-031/012)

Maristei gaitzizenak jartzen zizkieten; horietako batzuk aipatzen ditu. II. Mundu Gerra amaitu zenean, maiatzean, egunero arrosarioa errezatzen zutela gogoratzen du.

## 408. Eskolan erdaraz, euren artean euskaraz (DUR-031/013)

Merkataritza ikasketak egin zituen maristetan. Marista gehienak ez ziren durangarrak. euskaldunak izan arren ez zuten euskara ikasten, baina beraien artean bai egiten zuten. Maristek ez zieten galarazten euskaraz berbetan.

## 409. Kalean beti erdaraz (DUR-031/014)

Etxean beti euskaraz egin arren, kalean ez zuten egiten, oso gutxik egiten zuten-eta. Bere edadeko gehienek ez zekiten nahiz eta haien gurasoek bai jakin. Etxean zuka hitz egiten zuten, lagunekin edozein modutara. Dendara joaten zitzaizkien baserritar askok hika egiten zuten. Andra baserritar batzuk dendan erdaraz egiten zuten, baina laster igartzen zitzaien euskaraz hobeto konpontzen zirela. Euskaraz egitearren aguazilekin arazoak izaten zituzten.

## 410. Desterratutako osabak Fidel Castro ezkondu zuen (DUR-031/016)

Bere aitaren hiru anai abadeak ziren. Horietako batek alde egin behar izan zuen, desterratuta. Kuban (seminario bateko erretore) eta AEBn egon zen. Nor eta Fidel Castro bera ezkondu zuen, gerora Kubako agintaria izango zena. Castroren hainbat kontu kontatzen ditu.

## 411. Pilotak zelan egin (DUR-031/017)

Bere osaba batek pilotak egiten zituen. Pilotak egiteko eman beharreko pausuak azaltzen ditu. Bere osaba hori abadea zen. Pilotak ez zituen egiten saltzeko berak jolasteko barik. "Silleruek" saltzen zituen.

## 412. Bonbardaketan bizitakoak (DUR-031/018)

Bonbardaketan hegazkinen erasoak hasi zirenean, sirenak entzun eta ezkutatu egin ziren. Erreka txiki baten ondoan ezkutatu ziren etxeko denak. Etxera bueltatu orduko, ezkutatuta zeuden lekuan bonba bat bota zuten. Egun hartako usaina oraindik ez du ahaztu.

## 413. Elizak suntsitu zituzten etxeak barik (DUR-031/019)

Bonbardaketak Kurutziagan izan zuen eragina: etxerik ez zuten jo, baina Santa Susanako eta jesuitetako eliza zuzen-zuzenean. Bere arrebak izterrean metraila izan zuen bizi guztirako. Andra Mariko elizan jendez lepo zegoela, meza orduan, erre zuten.

## 414. Baserritarrei erosten zizkieten produktuak (DUR-031/022)

Gerraostean ogi beltza zuten. Esnegainarekin gozo jaten zuten. Tabakoa ere errazionamenduan ematen zuten. Baserritarrak etxera joaten zitzaizkien esnea eramatera, azkena Gaztelu auzokoa, Durangora astoz etortzen zen azkena. Bestelakoak zapatuetan erosten zituzten plazan, gaur egun bezala.

## 415. Antzinako elizkizunak (DUR-031/026)

Mezara jesuitetara eta Andra Marira joaten ziren. Latinez ez zuten ezer ulertzen. Bera askotan aritu zen monagilo lanetan osaben alboan, hiru osaba baitzituen abade. Jendeari lepoa ematen zien. Euskarazko lehen sermoia Franco bizi zela, Iurretan entzun zuen bere osabaren ahotik.

## 416. Monagilo beharretan (DUR-031/027)

Hiru osaba abade zituen eta sarritan aritu zen monagilo eginkizunetan. Bere lana zein zen azaltzen du. Behin pezeta bat (paperezkoa) eta makatz bat eman zien ordainetan. Sermoiak oso gogorrak izaten ziren, batez ere garizuma sasoiko misioetakoak.

## 417. Abadeari berorika eta eskuan musu (DUR-032/058)

Medikuari eta abadeari "jauna" esaten zien Felik, Isabelek, ostera, ez. Soloan zeudela abadea etorriz gero, beharrak utzi eta eskuan musu ematen zien.

## 418. "Kalabaka" olgetan (DUR-032/062)

"Kalabaka" olgetan zuten: baten zenbatzen zuen bitartean besteak ezkutatu lehenak besteak bilatzeko.

## 419. Iratan basora (DUR-032/064)

Feliren etxekoak iratan etxeko ugazabaren basora joaten ziren, errentan bizi ziren-eta. Aitagaz zelan joaten zen kontatzen du Feli, bere aita baino hobeto inork ez ei zuen betetzen bolantea. Urtean aurreratzen zen dirua iratan gastatzen zuten Felirenean, baserriak ezin zuen aurrera egin ira barik-eta. Bolantekada asko batzen zituzten. Montecalvora joaten ziren asto eta behiekin.

## 420. Bizikletan basora (DUR-032/065)

Felik bizikleta zuen eta basora horrela joaten zen aitagaz astoan joan barik.

## 421. 100 dozena porru (DUR-032/066)

Abarkak erosi egiten zituzten, baina Feliren amak kaltzak egiten zituen. Bilboko Erriberara joaten ziren porruak saltzen, 100 dozena porru inguru eramaten zituzten beti.

## 422. Erdaraz ikasi eta egin behar (DUR-033/007)

Josebe mojen ikastetxera joan zen, bertan ikasi zuen erdaraz. Etxean ez zuten erdaraz egiten. Xixilik gogoan du behin euskaraz jolasten ari zirela erdaraz egin behar zutela esan ziotenekoa. Xixiliren aitak eta osabak ez zekiten erdaraz. Gerora erdaraz berbetan hasi ziren.

## 423. Gerran ebakuatua; aita kartzelan (DUR-033/009)

Joseberen etxekoak gerran ebakuatuta joan ziren Torrelavegara. Aita frontean izan zuten eta ama sei seme-alaben kargu egin zen. San Rokeko auzotar askok egin zuten alde, karlistak baino ez ziren gelditu bertan. Karlista ez ziren asko kartzelara sartu zituzten. Durangoko kartzelatik Portugaletera eraman zuten beraien aita. Domeketan joaten ziren aita bisitatzera, aldiko neba-arreba bat.

## 424. Torrelavegako bizimodua (DUR-033/010)

Torrelavegan zeudela, ez ziren eskolara joaten. Bertako bizimodua zelakoa zen kontatzen du: basora egurretan, gauetako arrosarioa, familia bat bezala auzokoekin...

## 425. Jolasten (DUR-033/011)

Zetarako jolasten zuten: kaniketan, dendetara, tabaka, pospolo-kaxekin... Auzoko neska-mutilek elkarrekin jolasten zuten.

## 426. Kartoizko panpinak (DUR-033/012)

Xixilik izan zuen lehengo panpina bere lehengusina batek eman zion, 95 zentimo balio zituen. Panpinak kartoizkoak ziren; hala ere, horrekin konformatzen ziren. Beraiek egiten zizkieten arropak. Josebe jatun txarra zenez, amak jan zezan panpina bat oparituko ziola esaten zion.

## 427. Esnea eta ortuariak saltzen (DUR-033/016)

Etxean lan asko egiten zuten, barruan zein kanpoan. 4-5 behi zituzten eta Durangora joaten ziren esnea saltzera. Ortuariak Durangoko plazan saltzen zituzten. Betiko bezeroari saltzen zieten. Erregaterak porruak erosten zituzten Bilbora eramateko.

## 428. Durangoko porruak estimatuak (DUR-033/018)

Bilboko plazan Durangoko porruak estimatuak ziren, gozoagoak ziren, antza.

## 429. Behiek eta astoek lehentasuna errepidean (DUR-033/020)

Lehen kotxe gutxi egoten ziren, behiek eta astoek lehentasuna zuten bidean. Bere etxe ondoan Durangorantz egunero pasatzen ziren.

## 430. Negurira neskame (DUR-033/021)

15-16 urterekin lagun batengana joan zen Negurira neskame lanetan aritzeko. Mezara ere joaten zen ezkutuan. Neskame asko zeuden etxe berean. Hiru urtez-edo egon zen bertan. 50 pezetako soldata zuen hilabetean.

## 431. Baserrian beti dago lana; ganadu-tratua (DUR-033/022)

Josebe Negurin neskame zegoela etxera bueltatu zen josten ikasteko. Baina etxean lan asko zegoela-eta sekula ez zen joan josten ikastera. Txahalak traturako ere saltzen zituzten, bertako tratularik nortzuk ziren kontatzen du Xixilik.

## 432. Neskame zeneko anekdota (DUR-033/023)

Neskame zegoela, lagun batekin joaten zen erosketak egitera. Bere lagunak dirua "xixatzen" zuen, lapurtu, eta berari ere hori egiteko esan zion; behin egin zuen, baina hurrengo egunean ezinegonarekin dirua erosketetan gastatu zuen.

## 433. Garbitasunak (DUR-033/024)

Etxeko garbitasunak belaunikatuta egiten zituzten ez zutelako lanbasik, fregonarik, izaten. Josebe neskame lanetan zebilenean, ez zioten diruari begiratzen, etxean, ostera, bai.

## 434. Ur barik iturrira eta putzura (DUR-033/025)

Arropak eskuz garbitzen ziren. San Faustotik Iturri Zaharrera eta putzu batera joaten ziren arropak garbitzera, etxeko atzeko garbitokia gerora eraiki zuten. Ganaduarentzako ura ere handik ekartzen zuten. Etxean ura jarri zutenean poz handia izan zuten. Etxe aurrean jarri zuten behientzako aska.

## 435. Txinbo, lixiba eta anila (DUR-033/026)

"Chimbo" xaboia ibiltzen zuten arropentzako. Arropa zurientzat lixiba eta anila erabiltzen zuten.

## 436. Txingardun lisagailua (DUR-033/028)

Lehenengo izan zuten lisagailua txingarra sartzen zitzaion, egur ikatzarena. Gerora, txapa jarri zenean etxean, bertan berotzeko lisagailua izan zuten, aurrekoa baino txikiagoa. Izarak kirruzkoak izaten ziren.

### 437. Juanita Bizkarrarekin josten ikasten (DUR-033/029)

Juanita Bizkarrarekin ikasi zuen josten "Olleridxa"n. Oso gustura egoten zen bertan, etxean bezala. Sekula ez du etxetik kanporako josi. Denetarik josi izan du beretzat zein nebentzat, baina askotan ez zuen denborarik soloko beharrak egin behar zirelako.

### 438. Negurin ondo zainduta (DUR-033/031)

Josebe Negurin zegoela berak josten zituen izarak. Bera beti tratatu zuten oso ondo, sekula ez zuen izan arazorik. Soldata ona ematen zioten. Han irabazitakoa ez zuen etxean entregatu behar.

### 439. Ez zuen nahi baserrira ezkondu (DUR-033/033)

Josebe Negurin neskame zegoela oporretan etxera bueltatzen zen, eta horietako egonaldiren batean ezagutu zuen bere senarra izango zena, Xixiliren neba. Berak ez zuen nahi baserrira ezkondu, baina azkenean baserrira joan zen. Gauzak onak zein gogorrak bizitakoak dira.

### 440. Moja izateko bidetik sekular izatera (DUR-033/034)

Moja bidea hartu zuen eta karmeldarretan igaro zituen bederatzi hilabete. Osasun kontu bat tarteko, etxera joateko gomendatu zioten eta hobera egin zuenean, sekular bezala hasi zen erlijio-gaietan laguntzen.

### 441. Erlijioan aldaketa ugari (DUR-033/035)

Erlijioan aldaketa asko egon dira eta Xixilik horren inguruko bere iritzia ematen du. Bere ustez jendeak ez du jainkoa ezagutzen, ondo bizitzea baino ez dute nahi.

### 442. Ondarroan ikasi zituen neskame lanak (DUR-033/037)

Negurira joan aurretik Ondarroara joan zen neskame; bertan ikasi zuen inora joateko beharrezkoa zena. Behin handik Mutrikuko jaietara joan nahi izan zutenekoa kontatzen du.

### 443. Soloak bedeinkatu (DUR-033/042)

Beti bedeinkatu izan dituzten soloak eta ortuak. Erramu egunean bedeinkatzera eramaten zuten ereinotza. Ur bedeinkatua botatzen dute. Lehen gurutzeak jartzen zituzten soloetan.

### 444. Intxaurrondo auzo zaharra (DUR-034/002)

Encarnaren jaiotetxea bizitza biko kale-baserria zen. Behia beti izan zuten. Etxe inguruan zuhaitz asko zeuden. Lehengo Intxaurrondo auzoaren itxura azaltzen du.

### 445. Arginzoniztarren palazioa (DUR-034/003)

Encarnaren aita Arginzoniztarren palazioan morroi egon zen, eta nagusiaren kale-baserri bat hartu zuen errentan gero bizi izateko. Palazioa gerran hondatuta geratu zen.

## 446. Errenta librean hamabi urtez (DUR-034/004)

Bere jaiotetxe inguruan indigaztainondo handi bat eta iturria zeuden. Karmeliten ostean soro bat zuten. Gerra denboran, ugazabak burua galdu omen zuen, eta 12 urtez errentarik ez zien kobratu.

## 447. Neba Ibaizabal batailoiko kapitaina (DUR-034/005)

Errentarik gabeko urteen zorraren arazoa konpontzeko jarrera oso ona hartu zuten ugazabak. Aita birritan ezkondu zen. Gerratean, nebari heriotza-zigorra jarri zioten eta 8 urte eta erdiz kartzelan egon zen. Ibaizabal batailoiko kapitaina izatea leporatu zioten.

## 448. Neba Duesoko kartzelan preso (DUR-034/006)

Santoñako Penal del Dueso kartzelan egon zen neba preso. Irailaren lauan, Mesede egunean, euskaldun piloa elkartzen ziren Duesoko kartzelan, Kantabrian, senide presoak ikustera joanda. Soldaduak eta preso sozialak nahastuta zeuzkaten kartzelan.

## 449. Kartzelako urte gogorrak (DUR-034/008)

Aita jesuiten erretorearekin Burgosko "Conde de Rodezno" militar ospetsuarekin hitz egitera joan zen, eta semea ez zutela hilko agindu zien konde horrek. Kartzelan gauero fusilatzen zituzten preso batzuk. Semea hil zutela pentsatuz, gurasoak Duesora joan ziren.

## 450. Nebaren zigorra etxean ere ordaintzen (DUR-034/009)

Semea hil zuten ustearekin joan ziren gurasoak Duesora, baina oker zeuden. Semea bizirik zegoen. Isunik ez zuen nebak ordaindu, baina Durangoko familiaren etxea sarritan miatzen zuten. Kalean aurkitutako bi lekukoren aurrean, Guardia Zibilak miatzen zuten etxea. Txerria isilean hil zutelako ere miatu zieten etxea.

## 451. Umetan lapikoa erre (DUR-034/010)

Gerra aurrean, ondo konpontzen ziren Guardia Zibilekin. La Villako eta Santa Susanako ikastetxeetan eskolatu zen Enkarna. Umetan amak lapikoa zaintzen uzten zuenetan, lapikokoa beti erre egiten zitzaion.

## 452. Aita txapel gorria janztera behartuta (DUR-034/014)

Aita Garaikoa eta ama Santa Anakoa zituen. Aita igeltseroa zen. Bonbardaketa ostean, aita txapel gorria janztera derrigortu zuten.

## 453. Durangoko plazara (DUR-034/015)

Enkarna Durangoko plazara joaten zen etxeko gauzak saltzera. Batez ere porruak eramaten zituen. Ospetsuak omen ziren Durangoko porruak. Etxean esnea sobran bazuten San Frantziskoko mojei saltzen zieten.

## 454. Eraztun dotorea (DUR-034/016)

Mezetara Santa Anako elizara joaten ziren. Nola janzten zen gogoratzen du. Soldevillaren bitxi-dendan erositako inizialdun eraztuna ere gogoan du.

### 455. Bonbardaketa kanpandorrean (DUR-034/018)

Bonbardaketa egunean, Santa Anako kanpandorreko eskaileratan egon zen Enkarna. Jende piloa egon zen egun guztia eskaileratan: batzuk negarrez, beste batzuk errezatzen. Bere etxeak ez zuela txakur txiki bat (5 pezeta zentimo) balio, baina bonbardaketan osorik geratu zela dio Enkarnak.

### 456. Aita-amak eta umea metrailatu eta hil (DUR-034/020)

Gogoan du gerra garaian Herritxu parajean abioiek egindako erasoa. Andre-gizon batzuk eta euren umea metrailatuta nola hil zituzten ikusi zuen.

### 457. Aita garbiketa lanetan derrigortuta (DUR-034/021)

Enkarnaren aita garbiketa eta berreraikitze lanetan derrigortuta erabili zuten.

### 458. Artoa Imazeko errotara (DUR-034/023)

Patatak, babarrunak, taloa eta morokila ez zuten falta izan gerraostean. Imazeko errotara eramaten zuten artoa ehotzera. Errotariak artotan kobratzen zuen bere lana.

### 459. Gosearekin arbia jaten (DUR-034/024)

Gerraosteko gosetean kaletar batzuk jateko arbi eske etortzen ziren. Aberatsak beti salbatzen direla dio Enkarnak.

### 460. Gerraosteko egunkariak eta irratiak (DUR-038/003)

Zortzi anai-arrebatatik bi bonbardaketan hil ziren, aitonarekin batera. Gerraostean, kalean erdara nagusitu zen eta etxean ez zuten denbora asko egiten. La Gaceta del Norte eta Hierro egunkariak zeuden. Espainiako Ser irratia eta Frantziatik aita Onaindiak "Radio Macuto"n ematen zituen albisteak entzuten zituzten.

### 461. Egunkari edo tabako-dendak falangistentzako (DUR-038/004)

Egunkariak falangearen hezien azpian saltzen ziren. Estankoak erregimenaren aldekoei ematen zieten.

### 462. Lan faltarik ez Durangon (DUR-038/007)

Aitak eta gero berak ere bai, Olma galdategian jardun zuen lanean. Jose Antoniok urtean 365 egun egiten zituen lan. Pezeta bi eta erdi irabazten zituen egunean. Durangon lantegi eta lanpostu asko zeuden; Mendizabalen bertan, 600 langile zeuden. Olman 14 urtez egon zen; tarte horretan, arratsaldetan Oñate iltze-lantegira joaten zen.

### 463. Kooperatiben sorrera (DUR-038/011)

Laneko baldintzak txartzen zeudela, kooperatiba mugimenduak hasi ziren. Kooperatiban abade bat egotea derrigorrezkoa zen. Beraiei laguntza ekonomikoa eman zien abadeak.

### 464. Kurutziaga ikastolaren hastapenak beraien etxean (DUR-038/021)

Durangoko ikastolaren sorreran parte hartu zuten. Etxea ordaintzeko zutela oraindik, ikastolarako abala jarri zuten. Lehengo Kurutziagan egon ziren lokal

batean, eta gero, San Frantziskoko beraien etxean 7 ume egon ziren. Gabonetan loteria eta errifak egiten zituzten dirua lortzeko.

### 465. Funbarri sortu zuten (DUR-038/027)

Olmatik irten eta Funbarrira joaten ziren lanera. Olmako hogei lagun inguruk sortu zuten geroko Funbarri. Hasieran denetariko lanak egitea egokitu zitzaion.

### 466. Tabira eta Culturala (DUR-038/028)

Tabiran eta Culturalean jokatu zuen futbolean. Futbol-zelaia San Fauston egon zen. "Torneo primavera" jokatzen zuten sasoi hartan. Eneko Arietak, gerora Athleticeko jokalaria izango zenak, berarekin jokatu zuen.

### 467. Futboleko zapatilak, entrenamenduak... (DUR-038/031)

Futbolean jokatzeko zapatilak ez ziren gaur egungo modukoak. Lehen edozeintzuk janzten zituzten; arropak taldeak berak ematen zizkien. Culturalean lantegiko ordu asko galdu zituzten eta zuten dirurik jasotzen.

### 468. Osteguneten falangera joan behar (DUR-038/032)

Osteguneten falangera joan behar izaten zuten lanetik. Joanez gero ordu beteko jornala irabazten zuten, eta ostera, ez baldin baziren joaten, bi ordukoa kentzen zieten.

### 469. Soldata kontuak; asko baldintza txarretan (DUR-038/033)

48-49 urteetan, 8 pezeta inguru kobratzen zuten eguneko eta hamabostero jasotzen zuten soldata. Lehenengo gutun-azalean 13 pezeta eraman zizkion amari. Jendea baldintza txarretan zegoen.

### 470. Tiragomarekin txoritan (DUR-038/040)

Perretxikotan bertan inguruan ibiltzen ziren. Eskuetan duen tiragoma erakusten digu, edozein txori harrapatzen ei zuten horrekin.

### 471. 1935. urtean auto batek harrapatu zuen (DUR-039/002)

Umetan, 1935. urtean, auto batek jo zuen, eta ordutik dauka aurpegiko ebakiondoa. Hariarekin josi zion don Marcos Unamunzaga medikuak ebakia.

### 472. La Villara eta San Vicente de Paulera (DUR-039/003)

San Vicente de Paul ikastetxera joan zen umetan, ospitalera. Dena egiten zuten gaztelaniaz, baina etxean euskaraz. Ospitalean Filiberto egoten zela gogoratzen du, orro handiak egiten zituen. Bonbardaketa ostean, La Villako herri-eskolara joan zen.

### 473. Errekako bainuak, kangrejoak, loinak, ezkailuak... (DUR-039/004)

Askotan, eskolara joan beharrean, Arripozuetara joaten ziren igeri egitera eta bainatzera. Madalena ondoko zubira eta Arzubira ere joaten zirela gogoan du. Errekako karramarroak (kangrejoak), loinak eta ezkailuak harrapatzen zituzten.

## 474. Bainujantzia barik taparrabosa (DUR-039/006)

Taparrabosa erabiltzen zuten, sekula ez bainujantzirik. Arripozuetara ez ziren neskak joatean. Astolara joaten ziren neskekin kuadrillan, batzuk bai janzten zuten bainujantzia.

## 475. Bonbardaketan anaia bi eta aitita hil zituzten (DUR-039/011)

Ez du gogoan bonbardaketan zelan irten zen etxetik. Etxe ondoko arotzerian egon zela gogoratzen du eta goitik jausten zirenak paperak zirela pentsatu zuen; bera mahai azpian ezkutatu zen. "Paper" horiek bere etxeko ezkaratzera (sukaldera) sartu ziren eta bertan hil zituen bere bi anaia eta aitita.

## 476. Bonbardaketa osteko momentuak (DUR-039/013)

Bonbardaketa ostean, arotzeriatik zelan irten zen gogoratzen du. Dena zen zarata, hautsa, negarra... Arripozuetara joan zen arotzarekin eta milizianoek ez zioten utzi gizonarekin pasatzen, eta bertan gelditu zen emakume batzuekin. Handik Larrasoletara joan zen, kanposantu alderantz; bertan batu zen amarekin-eta. Abioek ez zuten etenik izan.

## 477. Etxe barik alde batetik bestera (DUR-039/014)

Beraien etxea guztiz erreta gelditu zen. Bere aitita eta bi anai bertan hil ziren, eta aititaren gorpua 14 egunetara atera zuten harri artetik. Apatamonasterion egon ziren bizitzen denboraldi batez. Bere aita sukaldari eta suhiltzaile bezala aritzen zen, eta alondigan egoten zen janaria prestatzen. Gerora, Bilbora joan ziren. Herrira bueltatuta, beraien etxe aurreko etxea sartu ziren. Behean "Bar Chimbo" egon zen.

## 478. Apurtutako etxeak ardiz (arkakusoz) beteta (DUR-039/016)

Bonbardaketa ostean, apurtutako etxeetatik etxerik etxe ibiltzen ziren zerbait topatu nahian, eta beti bueltatzen ziren ardiz (arkakusoz) beteta etxera. Zikinkeria asko zegoen.

## 479. Ontziginaren etxea (DUR-041/002)

Jatorria. Olleroen (ontzigina) tailerra zegoen etxean jaio zen, eta ezkondu ere bertara egin zen. Etxe ondoan lantzen zuten buztina, baita ontzi berriak lehortzen jarri ere. Buztina prestatzeko lanak azaltzen ditu.

## 480. Ontzigin sendi batua (DUR-041/003)

Buztina Durangon bertan atera edo Izurtza partetik ekartzen zuten. Arabako Urrunagatik etorritako aititarengandik ikasi zuten ontzigintza aitak eta osabak. Familia beti elkartuta bizi izan da.

## 481. Lana eskaeraren arabera (DUR-041/004)

Aitita arabar ontzigin familia batetik zetorren. Durangon egiten zuten lana; etxean saldu edo kanporako egiten zuten, eskabidearen arabera. Aitak herririk herri jasotzen zituen eskaerak.

## 482. Ontzi eta neurri ezberdinak (DUR-041/005)

Txongilak (botijo) neurri batekoak ziren, baina pitxarrak urentzako edo ardoarentzako ez ziren berdinak. Kolore ezberdinetako bernizak ere ematen zieten ontziei. Mikelek ez zuen lanik egin ontzigintzan, baina bai mutikotan tailerrean endredatu.

## 483. Eskuekin eta oinekin egiten zituzten ontziak (DUR-041/006)

Lan guztia eskuz egiten zuten. Oinekin jartzen zituzten ontziak biraka. Buztin pella zen biraka jartzen zutena, ontzia egiteko. Egur zotzekin eta oilo lumekin kontrolatzen zituzten neurriak.

## 484. Ontziak lantzen eta lehortzen (DUR-041/007)

Ontziak barrutik, txongilotik ("botijo") urak irtetekoa, itsulapikoak eta abar nola lantzen ziren azaltzen du. Gero, lehortu egiten ziren; eguraldi onarekin erraz. Neguan ikatzarekin berotzen zuten txabolatxo batean lehortzen zituzten ontziak.

## 485. Ontziak egosteko labeak (DUR-041/008)

Ontziak egosteko labeak egurrarekin berotzen zituzten. Ontziak labean nola sartzen ziren azaltzen du. Labeak 2x2 metro zituen.

## 486. Lekua ondo aprobetxatzen (DUR-041/009)

Labeak solairu bi zituen. Biak betetzen ziren ontziekin. Leku guztia aprobetxatzen ondo ikasi zuten aitak eta osabak.

## 487. Labea beteta (DUR-041/010)

Goieneko ilararen gaina ontzi pusketekin estaltzen zuten, eta pusketen artetik irteten zen keak.

## 488. Durangon bi eta Apatamonasterion ontzigin bat (DUR-041/011)

Markiegi izeneko beste ontzigin bat egon zen Durangon, baina Aretxagatarrena izan zen ixten azkena. Munitibar, Lekeitio, Eibar edo Zestoan ere saltzen zituzten ontziak. Apatamonasterion egon zen ontzigin bat.

## 489. Etxea apurtuta eta hutsik (DUR-041/014)

Gerra pasatu eta etxera bueltatu zirenean, etxea apurtuta eta hustuta aurkitu zuten. Labeak ondo zeuden. Auzoko batzuk utzitako koltxoietan egin zuten lo lehenengo gauean.

## 490. Obusa buztinean sartuta (DUR-041/015)

Durangotik ihes egin zutenean, Mikelen familia Bilboko senide batzuekin egon zen hilabete batzuetan. Durangoko etxea garbitzen, buztinean sartuta zegoen obus bat aurkitu zuten, lehertutakoa.

## 491. Errekara mutilak bakarrik (DUR-041/018)

Lehengo auzo inguruan dena ortuak eta landak ziren. Errekara joaten ziren bainatzera, baina neskak ez ziren joaten.

## 492. Madalena inguruko historia apur bat (DUR-041/019)

Garai batean auzoan legenardunentzako ospitalea egon zen. Hura kendu eta kanposantua jarri zuten, eta hau ere kendu egin zuten geroago. Madalenan igandetako meza eta beste sakramentuak ematea gauza berriak dira.

## 493. Hiru urterekin batzokiko ikastolara (DUR-041/020)

Hiru urterekin ikastolan hasi zen Ezkurdiko batzokian, bere arreba andereñoa zela Genobeba Leibarrekin batera. Gerra etorri zenean, Durangotik alde egin behar izan zuten.

## 494. Arreba Frantziatik etorri kartzelara joateko (DUR-041/021)

Arreba andereñoa Frantziara joan zen, hemengo ume errefuxiatuak zaintzera. Durangora bueltatu zenean, atxilotu eta aldi motz batean kartzelan eduki zuten.

## 495. Arreba brodatzailea, irakaslea eta emagina (DUR-041/022)

Bere arrebak kartzelatik irten eta bordatzen ikasi zuen. Batek eta besteak eskatuta, euskara irakasten hasi zen ikasleen etxeetan. Gero emagin ikasketak egin zituen Valladoliden.

## 496. Maristetan merkataritza ikasketak (DUR-042/004)

Hamabi urtetik hamabostera arte maristetan ibili zen. Merkataritza ikasi zuen bertan, eta laster Etxezarraga zerratokiko bulegoan praktikak egin zituen. Gero "Curtidos el Tigre" eta "Banco de Vizcaya"n jardun zuen.

## 497. Paper-lantegia eraikitzen (DUR-042/007)

Paper-lantegia eraikitzen zihardуen "Obrascon" konpainian hasi zen lanean, eta azkenean paper-fabrikan bertan geratu zen, erretiroa hartu zuen arte.

## 498. Inguruko herrietatik paper-lantegira lanera (DUR-042/009)

Hasieran inguruko herrietako (Zornotza, Euba edo Iurreta) langile asko erakarri zituen paper-lantegiak, eta gero, Munitibar edo Arratiatik ere hurbildu ziren. Hasieran denak baserritarrak ziren. 1955. urtearen inguruan jarri zen lantegia martxan.

## 499. Emakumeek gizonek baino gutxiago irabazi (DUR-042/011)

Zakuak egiten zituzten pabiloian langile gehienak emakumeak ziren. Gizonek baino gutxiago irabazten zuten emakumeek.

## 500. Lanerako aseguruak; grebak (DUR-042/012)

Paper-lantegian aseguru soziala eta istripu asegurua bazeudela dio Mikelek. Aurrenengo greba orokorretako piketeak gogoratzen ditu. Lantegi barneko grebak ere ezagutu zituen.

## 501. Txandakako lana (DUR-042/014)

Langileak lantegira eramateko, enpresak autobusak jarri zituen. Bulegoetan ez, baina lantegian hiru txandatan egiten zuten lan. Lan-istripuak.

## 502. Erreka zikinak eta inguruko kiratsa (DUR-042/015)

Paper-lantegiak errekako ura asko zikintzen zuen. Arrazoi honegatik hainbat epaiketa jasan zituen lantegiak. Usaina ere itzela botatzen zuen lantegiak. Zornotza eta Durangoraino iristen zen.

## 503. Bittor aitzindaria eta ekintzailea (DUR-051/002)

Otxandion etxegintza proiektuarekin zebilenean ezagutu zuen. Eta eibartarren bidez, Bittor Eibarren zebilenean, San Martin, Laspiur, Serafin Basauri eta Arestirekin; Arestik ere Eibarren lan egiten zuen eta. Gero Gerediaga Elkartean, Bittor zuzendaritzan egon baitzen. Berritzailea eta ekintzailea izan zen. Pioneroa. Nekazaritza alorrean, DIBA kooperatibaren sorreran egon zen, besteak beste. Durangoko Azokan ere bai.... Euskararen alorrean ekarpen interesgarriak egin zituen. Batzuek kritikatu dute autodidakta zelako, baina orduan gehienak hala ziren.

## 504. 60 eta 70 hamarkadetako ekintzetan beti hantxe Bittor (DUR-051/003)

Bittorrek EHAS alderdiaren sorreran ere bere eragina izan zuen. Haren Oletako baserrian egin zen alderdiaren hasierako zenbait bilera. Bazituen bere iritzi politikoak. Abertzaletasunaren eragina zuen barru-barruan, baina Eibarko ikuspegi soziala ere bai. Behin, Juan Ajuriagerra EAJko buruzagiarekin berba eginda gero, zera esaten ei zuen Bittorrek: "Juanitok ez zaittue ulertzen gazteok". Beti heterodoxia puntu batekin, baina beti laguntzeko prest. Bittor 'rara avis' zen; ezin da konparatu Txillardegi edo Mitxelenarekin; baina bazekien haiei ere bere puntu kritikoa hartzen. 60 eta 70 hamarkadetako iniziatibetan, han agertzen zen Bittor, beharbada azkenengo lerroan, baina beti hantxe.

## 505. Euskaltzaindiko bilerak eta Eibarko Eskola (DUR-051/005)

Euskaltzaindiko bileretara sarri agertzen zen Bittor. Batzuek ez zuten estimatzen, baina beste batzuek asko, adibidez Juan San Martinek. San Martin ere autodidakta zelako, agian. Bazekien gazteekin eta heterodoxoekin konektatzen. Eskola ona izan zuen: Eibar. San Martin, Laspiur, Aresti...

## 506. "Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian" Refranes y Sentencias liburuko esaera eztabaidatua (DUR-051/007)

"Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian" Refranes y Sentencias liburuko esaera dela eta, Mitxelenarekin polemika izan zuen. Txostena egin zuen Bittorrek. Euskaltzain batzuek ez zuten nahi izan azaltzerik, baina Villasantek, batzarrean irakurtzeaz gain, argitaratu egin zuen. Bazen Frantziskotarren komentu famatu bat Gasteizen, eta badirudi han ondu zela obra hau, leku ezberdinetako iturriekin. Bittor Gasteiz zalea zen, ez hainbeste Bilbo zalea.

## 507. Euskal Herriko iparraldea ez da Iparraldea (DUR-052/001)

Jon Lopategirekin bertso-eskolan zebiltzan Durangoko umeak urtean pare bat aldiz joaten ziren Otxandioko eskolara. Eta bueltan Jon berbetan geratzen zen Bittorrekin. Pertsona erreferentziala eta jakituna zen Jonentzat, eta horrek halako misterio bat sortzen zien. Geroago, hamabost bat urterekin, Otxandioko Herriko Tabernan egin zuten topo. "Euskal Herriko iparraldea ez da Iparraldea, Matxitxako baizik". Gero Zazpi Eskale taldea sortu zutenean Bittorren etxepean entsaiatzen zuten. Bittor aldiro etortzen zen entzutera; izkinatxo baten egoten zen isil-isilik. Gero beti berriketarako prest.

## 508. Bittor, aztia eta zirikatzailea (DUR-052/002)

Bittor, bere irribarrearekin azti bat bezala ikusten du. Berdin politikaz edo bere sagastiez edo euskararen jatorriaz jarduteko gertu. Zirikatzailea, galderak eginez eta probokatuz. Askotan intuizioak metodoak eramaten ez zaituen lekuetara eramaten zaitu. Betiko iltzatuta geratu zaion esaldia: "Hiri zoro batek, ume batek edo mozkor batek edo esaten badosk behi bat ikusi dabela hegaz, ez egik barre egin...".

## 509. Aita bezala, saskigilea (DUR-054/003)

Aita saskigilea zen eta bera ere bai. Aulkiak, asto-otzarak, plazara barazkiak eramateko otzara zabalak... egin izan ditu. Gaztaina eta haritza erabiltzen zituen. Batzuetan lizarrak ere erabili izan ditu, emeak izanez gero; arrak hautsi egiten ziren.

## 510. Gerraren ondorioak gorputzean (DUR-054/005)

Gerra zibilean, Elorrioko bonbardaketan, metraila sartu zitzaion buruan eta gorputzaren alde bat geratu egin zitzaion. Santandertik Frantziara eraman zituzten zauritutako mila lagun inguru; han ospitalean egon zen. Bertan ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituen.

## 511. Gerraostean "karretero" eta estraperloan (DUR-054/007)

Gerratik itzuli zenean, ez zen gai saskiak egiteko. "Karretero" moduan ibili zen lanean Durangon denbora luzez, zerrautsa eta egurra garraiatzen. Estraperloan ere ibiltzen zen. Jendeak eskatutako gaiak ezkutuan eramaten zituen gurdian.

## 512. Gerran zaurituak Bidarteko jauregian (DUR-054/009)

Biarritz eta Bidarte artean dagoen eraikin batera (garai batean hotela eta kasinoa izandakoa) eraman zituzten gerra zibileko 1000 zauritu inguru. Gerora gehiago ere etortzen ziren; gaixoak, haurdun zeuden emakumeak... Zazpi mediku inguru zituzten eta denen burua Luis Bilbao zen. Ospitaleko nagusia Gonzalo Aranguren zen. Beste mediku batzuk aipatzen ditu.

## 513. Bizimodu hobea, baina gizatasun gutxiago (DUR-054/011)

San Antonio egunean egundo ez dela egon Urkiolan dio. Gurasoak nagusiak ziren eta, etxean ganadua zutenez, etxean geratu behar. Bost neba-arreba Ameriketara joanak ziren eta bi anai-arreba geratu ziren baserrian. Gaur egun garai batean baino hobeto bizi dela jendea dio: diru gehiago, jan eta edan hobeto... Baina jendearen izaera eskasagoa.

## 514. Ardoa edaten Mañaria nagusi (DUR-054/012)

Garai batean ardoa asko edaten zen. Horretan nagusi Mañaria omen zen. Ardo-saltzaileak esaten zuen batez beste biztanleko (helduak eta umeak guztiak zenbatuta) bi litro ardo edaten zirela bertan. Mañariarren inguruko kontuak.

## 515. Mañarian jokatutako apustua (DUR-054/013)

Mañarian jokatutako apustua. Gauerdian, tabernan zeudela, gizon batek hala bota zuen erronka: ezetz ehun kiloko irin zakua lepora jaso, arropak ukitu barik. Zenbat diru jokatu zuten.

## 516. Mañariarren fama (DUR-054/014)

Mañariarrak "edan kontuen balientiek" ei ziren. Durangon lantegitik irten eta asko ez ziren iristen etxera, baina biharamunean zortzietarako berriz lanera. Tabernarako joera edo ardoa edateko joera zuten emakumeak ere ezagutzen zituela dio. Ebaristo Bustinza "Kirikiño"ren omenezko plaka jarri zutenean, "Guardia de asalto"koei aurre egiteko prestatu ziren mañariarrak. Guardiak beldurrez ibili ziren. Mañariarren izaera gogorra.

## 517. Inguruko herrietakoan izaera; Iurretaren historia (DUR-054/016)

Esaeraren arabera: zornotzarrak "chulos", durangarrak "soberbios" eta elorriarrak "locos". Zornotzarren izaera. Abadiño edo Garai ingurukoak baketsuak. Hala ere, auzoen arteko borrokak egiten ziren, harrika. Iurretarrak Garaikoekin izaten zituzten liskarrak. Iurreta desanexionatzekotan dabilela aipatzen dute. 1926an lotu zen Durangorekin. Bertako bi okindegik Durangon ogia saltzearren ordaintzen zuten txakur txikia saihesteko izan omen zen.

## 518. Ermandadearen inguruko azalpenak (DUR-054/018)

Abereen aseguru moduan Ermandadeak egoten ziren. Durangoko Ermandadea San Roken zegoen. Ermandadearen inguruko azalpenak.

## 519. Lapurdiko euskararekin ezberdintasunak (DUR-054/020)

Iparraldera joan zirenean, hasieran ez ziren hain ondo ibili hango euskara ulertzeko. Baina Lapurdin euskara garbia hitz egiten dela dio. Desberdin esaten diren berbak: esan/erran, aurrera/aitzinera...

## 520. Erromerietatik dantzalekuetara (DUR-054/023)

Domu Santuetan hasita, erromeria egoten zen igandero Abadiñon, harik eta San Blasak pasatu arte. Erromeriak debekatu zituztenean, dantzalekuak irekin zituzten inguruetan. Trabaku. Salterain alkateak dantza lotua debekatu zuen.

### 521. Bekatuak ez dira existitzen (DUR-054/024)

Bekatuaz eta hil ostean etorriko denaz duen iritzia. Bekatua ez dela existitzen dio. Gero zer etorriko den ez duela axola dio, gurea oraingoa da eta.

### 522. Zeruan lekurik ba ote? (DUR-054/030)

Garai batean elizak zuen indarra. Bazkaldu orduko arrosariora joan behar. Sarritan errezatzen erdi-lo. Garai bateko jendeak derrigor izan behar zuela zerua irabazita diote, baina agian ez omen da lekurik egongo. Infernuaren inguruko gogoetak.

### 523. Euskeraz egiteagatik salatzeko mehatxua (DUR-055/001)

### 524. Sabin lehengusua gudarien kapitain (DUR-055/002)

### 525. Martxoaren 31ko bonbardaketa eta ametrailamenduak (DUR-055/003)

### 526. Durangotik Mungiara (DUR-055/004)

### 527. Bilbo: frankotiratzaileak, Cerveraren kainoikadak… (DUR-055/005)

### 528. Soldadu zegoen neba Bilboko etxera agertu (DUR-055/006)

### 529. Neba entregatu: kartzelara eta trabajadoreetara (DUR-055/007)

### 530. Moroak eta legionarioak BIlbon sartu (DUR-055/008)

### 531. Otxandioko bonbardaketako zaurituak Durangora (DUR-055/009)

### 532. Milizianoek Tabirako San Pedrori burua moztu (DUR-055/010)

### 533. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak (DUR-055/011)

### 534. Bilbotik bueltan etxea hutsik (DUR-055/012)

### 535. Itzuleran auzoan jende ona (DUR-055/013)

### 536. Nazionalek herriak hartzean ospakizunak (DUR-055/014)

**537. Mendekuak auzoan (DUR-056/001)**

**538. Gerra hasi eta giputxak etxean errefuxiatuta (DUR-056/002)**

**539. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak (DUR-056/003)**

**540. Gerra garaia eta Martxoaren 31ko bonbardaketa (DUR-056/004)**

**541. Familia etxetik kanpora (DUR-056/006)**

**542. Gerraostean eskasia eta premiak laster agertu ziren (DUR-056/007)**

**543. Frankistak Durangon sartu zirenean (DUR-056/008)**

**544. Obusak baserrira (DUR-056/009)**

**545. "¡Habla en cristiano!" (DUR-056/010)**

**546. Bonbak etxe inguruan (DUR-056/011)**

**547. Soldaduskatik zelan libratu zen (DUR-056/012)**

**548. Nikolas Mendiolagarairi buruz (DUR-057/001)**

**549. Gerra hasi eta Nikolas Mendiolagarai soldadu (DUR-057/002)**

**550. Zelan jakin zuten NIkolas Mendiolagarai hil zela (DUR-057/003)**

**551. Milizianoak erretiradan (DUR-057/004)**

**552. Frankistak sartu zirenean (DUR-057/005)**

**553. Behin bakarrik ikusi zuen neba (DUR-057/006)**

**554. Euren amen familiaz (DUR-058/001)**

**555. Patxi Zurikarairi buruz (DUR-058/002)**

**556. Serapio Aroma Etxabururi buruz (DUR-058/003)**

**557. Amama, Isabel Irigoras, Sabino Aranaren hiletetan (DUR-058/004)**

**558. Luisita Lejarreta Otxandion dantzan, 1936ko uztailaren 17an (DUR-058/005)**

**559. Antonio Trueba, osaba forala, Durangoko bonbardaketan (DUR-058/006)**

**560. Lejarreta ahizten dendan bonba lehertu eta gero lapurretak (DUR-058/007)**

**561. Serapio Aroma Ortiz de Zaraterenean beharrean bonbardaketaren egunean (DUR-058/008)**

**562. Ebakuazioa: ahizta bat Frantziara eta besteak Kataluniara (DUR-058/009)**

**563. Antonio Trueba forala Durangoko lau karlistek atxilotu (DUR-058/010)**

**564. Serapio Aroma Etxaburu trabajadoreetan Euskalduna ontzioletan (DUR-058/011)**

**565. Patxi Zurikarai Kirikiño batailoiko komandantea eta bere kartzelaldiak (DUR-058/012)**

**566. Patxi Zurikarai: hiru kartzelaldi eta Meliton Manzanasek torturatu zuenekoa (DUR-058/013)**

**567. Patxi Zurikarai: kartzelartik urten ostean Durangon bizitzeko baimen eske udaletxera (DUR-058/014)**

**568. Antonio Trueba jota itzuli zen kartzelatik (DUR-058/015)**

**569. Patxi Zurikarai: epaiketa bizkorra eta heriotza zigorra (DUR-058/016)**

**570. Patxi Zurikarai: Burgosko kartzelako koroa (DUR-058/017)**

**571. Durangoko hiru karlista Burgosko kartzelara "bisitan" (DUR-058/018)**

**572. Gizonak preso eta emakumeek atera zuten familia aurrera (DUR-058/019)**

**573. Durangon euskaraz egiten zuen familia bakarretakoa (DUR-058/020)**

**574. Durangon jarrera eskasa euskerarekiko (DUR-058/021)**

**575. Euskararen aldeko mugimenduaren sorrera Durangon (DUR-058/022)**

**576. Zeruko Argian eta Anaitasunan idazten hasi ziren (DUR-058/023)**

**577. Amaia Aroma: lehenengo txistulari andrazkoa (DUR-058/024)**

**578. Juanan Aroma: txistulari izateagatik Formación del Espiritu Nacional suspenditzear egon zenekoa (DUR-058/025)**

**579. Amaia Aromaren txistulari taldea eta atabalari bikaina (DUR-058/026)**

**580. Txistua jotzeagatik Indautxuko komisaldegira deituak (DUR-058/027)**

**581. Lehenengo manifestazioak eta errepresioa (DUR-058/028)**

**582. Esti eta pisukideak atxilotu Bilbon 1975ean (DUR-058/029)**

**583. Patxi Zurikarai: umetan Euskal Eskolara (DUR-058/030)**

**584. Patxi Zurikarai: diktaduraren osteko lehenengo hauteskundeetan Durangoko alkate (DUR-058/031)**

**585. Ampuero ugazaba boto eske (DUR-059/001)**

**586. Bitañotik Karrantzara (DUR-059/002)**

**587. Obusak Saizabalen (DUR-059/003)**

**588. Gerra hasi eta Mendarora (DUR-060/001)**

**589. Umeek arreta jarriz gero gurasoak isildu (DUR-060/002)**

**590. Emakumeen kartzela eta Chiloeches (DUR-060/003)**

**591. Dei bat Madrildik eta Chiloeches (DUR-060/004)**

**592. La panaderia Chiquita (DUR-060/005)**

**593. Camarero diputatu eta Neberaren inaugurazioa (DUR-061/001)**

**594. Gerra zelan hasi zen (DUR-061/002)**

**595. Anaiak gerran eta trabajadoreetan (DUR-061/003)**

**596. Martxoaren 31ko bonbardaketa (DUR-061/004)**

**597. Gerran hildako ezagunak (DUR-061/005)**

**598. Anaia Trabajadoreetatik etorri eta berriz Trabajadoreetara (DUR-061/006)**

**599. Martxoaren 31ko bonbardaketaren osteko egunak (DUR-061/007)**

**600. Karrantzara (DUR-061/008)**

**601. Karrantzan tratu ona (DUR-061/009)**

**602. Eurek etxera. Askori errekisatu. (DUR-061/010)**

**603. Francoren moroak (DUR-061/011)**

**604. Karlistak auzoan (DUR-061/012)**

**605. Deseskonbroan derrigorrez (DUR-061/013)**

**606. Garia entregatu behar (DUR-061/014)**

**607. Euskeraz egiten utzi ez (DUR-061/015)**

**608. Anaia Erronkaritik bueltan ferrokarrilera lanera (DUR-061/016)**

**609. Esteban Bilbao txaletean babestuta (DUR-061/017)**

**610. Denak ez ziren frentean hil (DUR-061/018)**

**611. Kaletarrek gosea eta errazionamendua (DUR-061/019)**

**612. Kataluniatik Grenoblera (DUR-062/002)**

**613. Durangora itzuli eta lapurretak (DUR-062/003)**

**614. Gerraostean familiak jasandako errepresioa eta kartzela (DUR-062/004)**

**615. Santiago Arrondo Elgeari buruz (DUR-063/001)**

**616. Algortatik bueltan etxea "garbi" (DUR-063/002)**

**617. Ama Puerto de Santa Mariara aita bisitatzera (DUR-063/003)**

**618. Don Marino López maisu faxista (DUR-063/004)**

**619. Etxean kontatu nahi ez (DUR-063/005)**

**620. Errepublika garaia: Centro Republicanoa, Batzokia, Karlistena… (DUR-064/001)**

**621. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak (DUR-064/002)**

**622. 1934ko urriko greba (DUR-064/003)**

**623. Zelan jakin zuen gerra hasi zala (DUR-064/004)**

**624. Durangotik Santanderrera (DUR-064/005)**

**625. Frantziara (DUR-064/006)**

**626. II. Mundu Gerra hasi eta Durangora itzulera (DUR-064/007)**

**627. Durangon ez etxe ez diru (DUR-064/008)**

**628. Frankistenganako amorrua (DUR-064/009)**

**629. Errepublika eta Prieto Durangon (DUR-065/002)**

**630. 1934ko urriko greba eta hil zuten mutila (DUR-065/003)**

**631. Ebakuazioa eta exilioa Frantzian (DUR-065/004)**

**632. Nimeseko jendearen elkartasuna (DUR-065/005)**

**633. Itzulera. Hendaiatik Durangora. (DUR-065/006)**

**634. Durangoko etxean lapurretak (DUR-065/007)**

**635. Gerraostean artzain eta gero Athleticeko jokalari (DUR-065/008)**

**636. Martxoaren 31ko bonbardaketa (DUR-066/001)**

**637. Aita preso Bilbo, Iruñea eta Mirandan (DUR-066/002)**

**638. Gallastegitarren ideologia eta osaba Gillermo (DUR-066/003)**

**639. Francok herriak hartzean ospakizunak eta eurek Pelayo (DUR-066/004)**

**640. Euskeraz etxean, erderaz eskolan eta kalean (DUR-066/005)**

**641. Aitaren anaiak ere preso edo soldadu (DUR-066/006)**

**642. Aitaren osaba Felix Gallastegi fusilatua (DUR-066/007)**

**643. Zigorgabetasunaz eta egiaz (DUR-066/008)**

**644. Comillasko apaiztegian Durangoko bonbardaketaz (DUR-066/009)**

**645. Durangora noiz etorri ziren (DUR-067/001)**

**646. Errepublikaren etorrera eskolan (DUR-067/002)**

**647. Kalean kantak ikasi eta ama haserretu (DUR-067/003)**

**648. Durangoko udaltzainen buruaren hilketa (DUR-067/004)**

**649. Karlistak eta abertzaleak borrokan Ezkurdin (DUR-067/005)**

**650. Zelan jakin gerra hasi zala (DUR-067/006)**

**651. Kartzelako asaltoa eta fusilamenduak (DUR-067/007)**

**652. Milizianoak Durangon (DUR-067/008)**

M

**653. Martxoaren 31ko bonbardaketa. Goiza. (DUR-067/009)**

**654. Martxoaren 31ko bonbardaketa. Arratsaldea. (DUR-067/010)**

**655. 1937ko apirilaren 2a. (DUR-067/011)**

**656. 1937ko apirilaren 3a. (DUR-067/012)**

**657. Lemoatik Bilbora eta Santanderrerantz. (DUR-067/013)**

**658. Santanderreko bizimodua eta Frantziarako irteera (DUR-067/014)**

**659. Frantziara barkuz (DUR-067/015)**

**660. Avignonera trenez (DUR-067/016)**

**661. Kataluniara "farru jatera" (DUR-067/017)**

**662. Ama Jose Antonio Agirrerekin (DUR-067/018)**

**663. Alberic-era arma fabrikan lan egitera (DUR-067/019)**

**664. Faxistak Alberic-en sartu (DUR-067/020)**

**665. Durangora itzulera (DUR-067/021)**

**666. Amari josteko makina lapurtu (DUR-067/022)**

**667. Ama beharrean hartu ez (DUR-067/023)**

**668. Aita ordena publikoko subjefea (DUR-068/001)**

**669. Gudariak etxean lotan (DUR-068/002)**

**670. Tiroa hartu zuenekoa (DUR-068/003)**

**671. CNTkoak Tabiran (DUR-068/004)**

**672. Durangotik Santoñara bidea (DUR-068/006)**

**673. Frantziara eta han durangarrak (DUR-068/007)**

**674. Durangora itzulera (DUR-068/008)**

**675. Aita Puerto de Santa Marian preso (DUR-068/009)**

**676. Tia Bixenta kartzelan (DUR-068/010)**

**677. Etxean kartutxerak josten (DUR-068/011)**

**678. Martxoaren 31ko bonbardaketa eta ebakuazioa (DUR-069/001)**

Martxoaren 31ko bonbardaketa eta ebakuazioa

**679. Santanderretik Frantziara (DUR-069/002)**

**680. Aita Kartzelan (DUR-069/003)**

**681. Gerraosteko errepresioa eta euskal izenak (DUR-069/004)**

**682. Martxoaren 31ko bonbardaketa eta aita kartzelan (DUR-070/001)**

**683. Frantziara (DUR-070/002)**

**684. Gerraosteko lapurretak eta desprezioren bat (DUR-070/003)**

**685. Batzokiko ikastolara (DUR-071/001)**

**686. Gerra zelan hasi zen eta Martxoaren 31ko bonbardaketa (DUR-071/002)**

**687. Iurretatik Bilbora. Gernikako bonbardaketa (DUR-071/003)**

**688. Bilbo, Solares, Santander. (DUR-071/004)**

**689. Iurretara itzuli eta etxerik ez (DUR-071/005)**

**690. Aita, hiltzat eta trabajadoreetan zegoen (DUR-071/006)**

**691. Amaren nebak (Leon eta German) preso (DUR-071/007)**

**692. Astiro-astiro denak beharrera (DUR-071/008)**

**693. Eskolan asko sufritu (DUR-071/009)**

**694. Frente de Juventudesen entzun egin behar (DUR-071/010)**

**695. Lauzirika gotzainari dantzan egin behar derrigorrean (DUR-071/011)**

**696. Senarraren familia ere errepresaliatua (DUR-071/012)**

**697. Gerra aurreko akordu bakanak (DUR-072/001)**

**698. 1936ko Iraileko bonbardaketa eta fusilamenduak (DUR-072/002)**

**699. Martxoaren 31ko bonbardaketa (DUR-072/003)**

**700. Apatara, Bilbora eta barriro Durangora (DUR-072/004)**

**701. Gerraostea Durangon (DUR-072/005)**

**702. Gerrak kalamidadea besterik ekarri ez (DUR-072/006)**

**703. Gerraosteko eskola: jipoia Maristetan (DUR-072/007)**

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-02*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com